Herri literaturak antolatzen dituen Vigarren jardunaldiok halako titulu edo izen berezi bat hartu dute bigarren milurteko honen hondar aldera: Euskal fraseologia. Justo Maria Mokoroaren jaiotzaren mendeurrenean, tolosar euskaltzale suhar eta nekaezinak hainbat urtetan egin zuen lan handiari omen eta gorazarre egiteaz batera, guk euskaraz ditugun esapide eginak edo fraseologia aztertu nahi genituzke. Justo Maria Mokoroak izaera etsikor eta ukakorra izan arren, euskara galbidean, edo are negargarriagoa dena, galzorian ikusi arren, gorputz eta arima eman zen euskararen ariman gordetzen ziren esapide egin, esaera, itzulika eta abarrak biltzen eta sailkatzen. Euskararen arima esan dut, edo euskararen barne-muina, funtsa, bihotza, izpiritua, jeinua ere esan neza-keen bere 1935ko *Jenio y Lengua* liburuan 77. orrialdean honelaxe esaten baitu: “Así, por ejemplo, ¿No hemos dejado disiparse casi del todo el espíritu del euskera en la literatura, por descuidar el modismo, el giro, la fraseología?” Hona hemen, hitz laburrez, tolosarraren pentsamendua, hona hemen guk euskaldun ikerlari edo aztertzaileok ahaztuxerik dugun kontua, eta hona hemen jardunaldiotako izenburuan agertzen den “fraseologia” delakoa, guk omentzen dugun tolosarraren hitzetan. Gure lan honen helburua xumea da, ezinbestez. Batetik, modu labur eta pedagogikoan fraseologia zer den adierazten ahaleginduko gara, eta bestetik, gure arteko fraseologiazko artikulu eta liburuen berri emango dugu.

### ZER DEN FRASEOLOGIA

Hizkuntza guztietako hiztunek hitz egiten dutenean, esaldiak sortzen dituztenean, beren baitako pentsamenduak, usteak, asmoak hitzetaraten dituztenean, hizkuntza horretako erregelak erabiltzen dituzte. Badira, ordea, hitz konbinazio egin batzuk, eginak, finkatuak edo ihartuak direnak. Erdaraz hainbat modutara izendatuak izan dira, modismos, idiotismos, giros, frases hechas, locuciones... Tankera horretakoak dira, esaterako, *no pegar ojo*, *vete a tomar viento*, *vete a freír espárragos*, *sano y salvo* eta abar. Guk uste izan ez arren, edo buruak lehen pentsamendu batean eman ez arren, erdaraz mintzatzen ga-

renean ehundaka holako erabiltzen ditugu. Erabiltzen ez baditugu ere, oso ondo ezagutzen ditugula esan behar. Euskaraz ere horrelako esapide eginak asko ditugu, *no pegar ojo*, esaterako, *begirik ez bildu* esaten dugu *Gau osoan ez dut begirik bildu* esan ohi dugu “gau osoan ez dudala lorik egin” adierazteko. Gaztelaniazko *vete a tomar viento* edo *ir a freír espárragos*, erdaraz gordintxoagoak edo larriagoak ez esatearren, *zoaz haizea hartzera* erabiltzen dugu, edo *zoaz pikutara*, edo, Lizardik zioen bezala, *zakurraren ipurdia bidali*. Baina kontua ez da Lizardik asmatua dela pentsatzea edo, hobeki esateko, Lizardik bere prosa indartsuan erabilitako esaldi adierazgarri bat dela pentsatzea, herri-esapide bat delako segurantzia izatea baino. Gipuzkoan Orío aldean behintzat, *zakurraren ipurdira bidali* esapide egina da, Luzaide aldean, Manezandik zioen bezala, *phorru landatzera bidali* esapide egina den bezalaxe, edo beste leku batzuetan *antzarrak ferratzera bidali* den bezalaxe. Tanke-ra horretako esaldi eginei “esaera jatorrak”, edo erdaraz *dicho castizo* eta abar esan izan zaie. Euskaraz hainbat hitz egon izan dira: esaera, esapide, erramolde, esakune, erranairu eta abar. Hitz horien azpian euskaldun hiztunentzat kontzeptu desberdinak biltzen dira. Erdarazko “paremia” eta “modismo”, hain zuzen. Hitz hauei ondoan adjektiboa jartzen zaienean, gehienetan, *zahar* edo *jator* izan dira “esaera zaharra edo jatorra”, “esapide jatorra” eta abar. Esapide jator horiek ordain edo baliokide gogoragoak izan ditzaketen neurrian, izan ditzakete beren leungarriak edo esateko modu ez hain gogorrak, *zakurraren ipurdira bidali* beharrean, *zakurraren salara bidaliz gero*, badirudi leunagoa dela. Erdaraz, esaterako, *vete a la eme* esaten dutenean, *eme* delako letra horren atzean denok dakigu zer dagoen, hemen, hitzaldi honetan guk esan ez arren. Tankera honetako esapideak euskaldunek ehundaka ditugula esan behar. Esapide finko horiek eta antzekoak aztertzen dituen disziplina bat badugu, ihardunaldiotako *fraseologia* delakoa. Zehatzago laburbil dezagun, Alberto Zuluagak esaten duenez, bi hitz gutxienez finkatzen edo lotzen dituen konstruktio linguistikoak aztertzen ditu fraseologiak. Gutxieneko bi hitzen lotura edo uztartze hori finkatua dago hizkuntza erabiltzen duten hiztunengan, “instituzionalizaturik” dago. Eman dezagun erdaraz “tirios” esaten badu norbaitek, “tirios y troyanos” hitz bikoa etortzen zaiola hiztunari, edota “cero” hitza badiogu, oso arrunt dabilen “cero patatero” edo “cero a la izquierda” direlakoak. Tankera horretako diskurtso finko edo lotuari fraseologian, *expresión fija* edo *unidad fraseológica* deitzen dio A Zuluagak. Gaur egun, beraz, disziplina honetan gehien erabiltzen dena *unidad fraseológica* (UF) edo *fraseologismo* da. *Dicho*, *modismo*, *giro* eta abar bezalako hainbat hitz lauso erabili beharrean. Fraseologia, beraz, unitate fraseologikoak aztertu eta sailkatzen dituen disziplina izango da.

## FRASEOLOGIAREN HISTORIAZ HIZÑO BI

Duela mende erdi, mila bederatzehun eta berrogeitamargarren urte alde-ra, Errusian, edo nahiago baduzue, garai bateko SESBan, Sobietar Errepubli-



ka Sozialisten Batasunean, V. V. Vinogradov izan omen zen fraseologiaren oinarriak finkatzen ihardun zuena. Fraseologia disziplina zientifikoa izateko oinarriak jartzen aritu zen. Lexicografiaren adar honek garai hartaz gero, ikerketa eta sailkatze lan zehatzak izango zituen Europa osoan. Garai hartaz gero, zehaztasun eta zientifikotasunez ihardun nahi izan da, esaldi egin, finkatu edo ihartuak aztertzeko orduan. Fraseologiaren alorra gorritzen edo zehazten aritu izan dira tratamendu objektiboa eta sistematikoa eman nahirik. Espainian Julio Casaresen lanak garrantzi handia dute alor horretan aitzindari edo aurrelarietako bat izan zelako. Garai hartaz gero, Europa osoan barrena izan dira tesi doktoralak eta lan zehatz eta zientifikoak hasiera bateko fraseologiaren alor zabal, lauso eta zehazkabea finkatu nahi izan dutenak. Nik hemen, oraingoz, bi baizik ez ditut aipatuko, gure artera gonbidatu ditugun bi ikerlariena, Alberto Zuluagaren *Introducción al estudio de las expresiones fijas* eta Gloria Corpasen *Manual de fraseología española*. Lehena Alemanian publikatu zen 1980an, eta bost urte aurretik, 1975an, presentatu zen tesi bateko emaitzak laburbiltzen ditu. Liburu hau oinarri finkotzat hartu dute geroztik fraseologia aztertzeko asmoa ukan dutenek. Gloria Corpasen liburua duela hiru urte argitaratua da, 1997an. Liburu honek bere lehen atal edo kapituluaren fraseologiaren berrogeita hamar urteko historia egiten du. Noizkoak eta norenak diren lehen oinarri-lanak, zeintzu izan diren ikerlaririk garrantzitsuenak, zeintzu lan sendoenak. Diakronikoki edo denboran barrena aipatzen ditu ikerlariak eta hauen lana eta garrantzia. Hor ditugu hasiera bateko Julio Casares (1950ko lana), E. Coseriu, H. Thun, A. Zuluaga, G. Haensch et Al., Kubako Z. V. Carneado Moré eta A. M. Tristán Perez. Guzti hauen lanak azaldu eta zeharo aztertzen ditu, hitz laburrez. Gainerako kapituluetan gaztelaniaren sistema fraseologikoa azaldu eta aztertzen du hiru esfera edo gune nagusitan sailkatuz: kolokazioak, lokuzioak eta enuntziatu fraseologikoak. Liburu osoan zehar esaten den guttia bibliografia aipamen zehatzez jantzia dago.

## **KOLOKAZIOAK, ERRAMOLDE EDO ESAKERAK ETA ATSOTITZAK BEREIZI BEHAR**

Gloria Corpasen liburuan, eta fraseologiaz ari diren lanetan orobatsu, hiru esfera edo gune desberdintzen dira. Alde batetik enuntziatuak ez direnak, “acto de habla” edo esaldiak ez direnak. Hor ditugu, berak esaten duen bezala, “kolokazioak” batetik, eta “lokuzioak”, bestetik. Kolokazioen artean gaztelaniarentzat sei multzo desberdintzen ditu, 1-sustantiboa (subjekua) gehi aditza, 2-aditza gehi sustantiboa (objekua), 3-adjekiboa gehi sustantiboa, 4-sustantiboa gehi preposizioa gehi sustantiboa, 5-aditza gehi adberbioa, eta, azkenik, 6-adjekiboa gehi adberbioa. Kolokazio delako hitza arrotz edo bitxi xamarra da erdararentzat ez zik, euskararentzat ere bai. Ingelesetiko hitz hori erdaraz Manuel Seco hizkuntzalariak sartua da. Hitz horren lehen erabilera J. R. Firth-ek egina da 1957ko lan batean. Hainbat hizkuntzak biltzen dituzte bi hitz modu

finko batean. Lehen taldean sustantibo gehi aditzean, esaterako, *correr un rumor*, *zarpar un barco* esan ohi da erdaraz. Bigarren taldean, aditz gehi sustantiboa (objekua): *empeñar un cargo*, *un papel*, *zanjar un desacuerdo*, *una discusión*...

Esan beharrik ez dago hizkuntza bakoitzak bere kolokazioak dituela, erdaraz, talde honetakoa litzateke *pelar patatas*, euskaraz, ostera, *patatak zuri-tu*. Horra hor kolokazio bat hizkuntza batean eta bestean. Badira gure artean atsotitzak eta erramoldeak bereizi dituzten ikertzaileak. Bereizketa behar beharrezkoa da. Hor dugu denboran barrena abiatzen bagara, Juan Mari Lekuonaren "Erri literaturaz. Atsotitzak eta esakerak", *Lekuona'tar Manuel jaunaren omenezko idazki bilduma III*, Kardaberaz bilduma 21, Tolosa 1977, 253-258 or. Gotzon Garatek ere *27.173 Atsotitzak Refranes Proverbes Proverbia*, Bilbo 1998, liburuaren sarrerako laugarren atalean ere bereizi egiten ditu: "Ez dira atsotitzak esamoldeekin (idioms, proverbial phrases, Redensarten) nahasi behar. Erran zaharrek nolabait ere filosofia puska bat badute, irakaspena dute, aholkua dute, bizitzaren esperientzia adierazten dute, didaktismoz oratuak daude. Erramoldeak, ordea, gauzak adierazteko molde bereziak dira. Ez dute maiz deus ere aholkatzen edo irakaskintzarik ekartzen. Beste hitzez azal litekeena molde bikainez esateko bideak dira. (...) Azkuek, Damaso Intzak eta beste batzuek ez dute maiz bereizketa hau gogoan eduki. Intzak batez ere bere bilduma aberatsean erramolde hutsak diren dozenaka eta dozenaka esaldi sartu ditu. Adibidez: "Aittu ttu beriak", "Aitzera txarrekoa da" edo "Aoa leurrrie daukie" ez dira atsotitzak, erramoldeak baizik".

## EUSKAL IDAZLEEN USTEAK EUSKAL FRASEOLOGIAREN GAINEAN

Bada uste bat gure idazle eta euskaltzaleen artean arraz zabaldua. Hitz bitara honela laburbilduko genuke uste hau: zenbat eta euskaldun hutsagoa izan, zenbat eta euskal gizartean sartuago bizi, hainbat eta euskara ederragoa, esakunetsuagoa, erdararen kutsurik gabekoagoa izango da. Kirikiñok honela esan ohi zuen: "Erdaraz ez dakien euskaldunakaz izketan ibilli ezkerro, esakera oso politak entzuten jakez. Esakerok euren artean, euskerearen erriaitan sortu dirala uste izan leike, erderatik etorri barik, eta augaitik atsegin andiz batuten doguz entzuten doguzanak"(1). Euskaraz dugun idazlerik xoragarrienetako batek, Enrike Zubirik "Manezandik", honelaxe idazten zuen "Nik gogo bihotzian ez dut yaidura bat bezik; eskuara, bethi eskuara! Gehiago ikhertzen ditut eskuararen erroak eta zoko mokoak, eta gehiago ohartzen niz bere edertasunaz eta aberastasunaz. // Sakhelan bethi deramat liburuxka bat, eta nere solasetan

(1) BUSTINZA, Ebaristo "Kirikiño", "Euskaldun utsakaz" in *Euzkadi* 1922-XIII-31 eta *Edo guek edo iñok ez Euskerearen alde*, Sutondoan Labayru Ikastegia 1984, 246 or. Agertzen dira artikuluko gehiago ere, *Euzkadi* 1919-XII-28 eta *Euzkadi* 1923-1-7

bazterretxetarrekin ohartzen badut zerbait itzulika, edo aditza molde zaharrak, paperrian ezartzen ditut, eta oharren anitz baditut bilduak”(2). Manezandik dioena da “bazterretxetarrekin” hitz eginez gero, hau da, “baserritarrekin”, euskararen “itzulika” asko ikasten zituela. Beste artikulu batean Manezandik dio berak ikasi duen euskara, bere “sor el(h)ea”, berak zioen bezala, bazterretxetarrengandik ikasi zuela gehienbat eta ez gramatiketarik. Jean Elissalde “Zerbitzari” azkandairrak Euskaltzaindiako sarrera-hitzaldian ere ideia berak jaultkitzen ditu, hona haren hitzak:”Behinere ez gaiten etxetik athera paper xori muthur bat gabe eta bi soseko lapitz batekin baizik. Alabainan ez da gutienera dudarik nunnahi zerbeit kausituko dugula, kausi dezakegula bederen, eskuarazko izena ez dakiogunik. Bada, holako zerbait ikusten dugularik, jo dezagun lasterka lehen atxo xaharraren ganat eta othoizka galde dezogun: Amatto, zer erraten duzu huni? Amatto, zer erraten duzu horri? Eta amattok erran izena lapitzaz ezar berehala paper muthurrean... eta paper muthur hori hel guzietarat heda dezaken norbaiti. Herri guzietan, Jainkoari esker, norbeit atxeman ditake oraino Eskuararen alde zerbeit egin nahi duenik!”(3) Aitonanamonen edo aitatto-amattoen mingainean dauden hizkuntza-aberastasunak ezin prezatuzkoak direla eta galzorian daudelako ustea orain baino lehenagokoa da. Mokoroak berak dakarren beste aipamen bat ezin utzizkoa dela deritzat. Aipamen hori Iñaki Eizmendi “Basarri” bertsolari handiarena da, hona bataren eta bestearren hitzak: “Viniendo ahora más particularmente al caso nuestro, todos conocemos aquí como amigos de nuestro pueblo y de nuestra lengua al Príncipe Bonaparte y al sabio Hugo Schuchardt. Fiel, pues, a mi táctica de citas, creo oportuno registrar unas palabras de nuestro querido Basarri:

“Euskera ikasi nai mundu guzitik aleman orrek (Schuchardt-ek) eta ortarako maixu itxurazko bat bear... Zein izango... ta, euskera besterik etzekien gizon apal bat: Agustin Echeberry. Gizon ikasi batengandik ikasten zan euskerak ezer gutxi balio zuala esaten zion Bonapartek aleman jakintsuari... A zer nolako arrazoia!... Askotan esan dedana berritzera noa. Erderarekin kutsutu-gabe dagon euskal-menditar batekin bi orduko izketaldian, euskera gehiago ikasten det akademikorik aundienekin baño... Beste iturri bat da aien iturria!... Andik datorren ura, lausorik gabea da, garbi ta gardena. Aien esaerak eta aien esateko moduak zer balio duan, ez dago esaterik” (*El diario Vasco*, 4 marzo 1979).

Hona ekarri ditugun lau euskalkietako idazleen uste hauen tankerakoak erruz aurki daitezke, inolako dudarik gabe. Kirikiño bizkaitarraren, Basarri zein Mokoroa gipuzkoarren, Manezandi nafarraren zein Elissalde lapurtarraren usteak bat datoz. Euskal idazle on guzti hauen artean bada besterik ere, Bonaparte printzearen uste edo buruera. Bonapartek Schuchardt alemanari aurkitu zion irakaslea, Agustin Etcheberri saratarra, gizon umil eta pobrea zen,

(2) Enrike ZUBIRI “Manezandi”, “Nere sort-herritik” *El dia*, 1935-8-25

(3) Jean ELISSALDE, “Euskaltzaindian Sartzean Jean Elissalde Apez Azkaindarrak egin duen irakur-aldia” in *Euskara* 1931, 68-76 or.

baina ez nolana hiko. Agustin Etcheberri ogibidez zapataina edo oskigilea izan arren, talentu handiko gizona zen. Lore Jokoetako bertso-guduketan hainbat aldiz sariztatua izan zen Agustin Etcheberri, eta "Ichtorio zaharrezko bilkhuia" baten egilea ere bai(4).

Azken batean, hona ekarri ditugun idazle zein jakitunen usteen defenditzaile suharrena Juan Antonio Mogel izan zen. Juan Antonio Mogelek bere *El doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte o Diálogo entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan* (Durango, 1881) lanean, honelaxe zioen hitzaurrean, hirugarren pasartearen: "En los diálogos que presento, habla un Labrador, vestido de Abarca ó calzado peculiar del país: un rústico que no ha puesto pies en la escuela de primeras letras; un solitario que no ha salido de los bosques del bascuence; que no sabe una palabra de otro idioma, y que en mil asuntos implicados y muy diferentes habla afluente con la mayor pureza sin hallarse embarazado por falta de voces en multitud de instrumentos públicos y caseros, sin necesidad de fingirlas, ni mendigar extrañas. Se le verá instruido en una elocuencia sin artificio, en adagios misteriosos, en tropos que de sí dá el idioma, dando lecciones á un bascongado callejero que le habla con voces corruptas". Goraxeago ere hala zioen, bigarren pasartearen: (...) He juzgado hacer un gran servicio á la Patria sacando al teatro público los primores de un idioma que solo se ha conservado en su pureza original en los desiertos, á donde no han llegado sus corruptores".

Euskaldun hutsen eta kutsatuen ideia hau hainbat autorek erabiliko dute, hona hemen, esaterako, Justo Mari Mokoroak *Repertorio* lanaren hitzaurreko lehen orrialdean dioena: "Una instintiva comparación me hacía notar la gran diferencia entre el habla de los euskaldunes netos y la de los influidos por el castellano... El vigor del idioma decrecía de una generación a otra, y con ella su valor y su aprecio..." Mogelek dakarren ideia bera agertzen da: euskaldun huts eta euskaldun kutsatuen arteko diferentzia. Peru Abarca euskaldun huts, basotarraren eta Maisu Juan kaletarraren arteko diferentzia. Euskara hutsean edo euskararen basoetan bizi den euskaldunaren eta kale nahasian bizi den kaletarraren arteko diferentzia. Eskolak ikasi ondoren Madrildik etorri den euskaldun kutsatua, euskalgaiztoa egiten duen euskaldunsemea, euskara atzundurik, kutsaturik, zaporegabeturik daukan euskaldun ikasiaren eta euskara hutsean inolako nahastekadura gabeko euskararen barnean bizi den euskaldun elebakar garbiaren artekoa. Hona ekarri ditugun guztien uste honek, ordea, gaur egun bizi garen gizartetik oso urruti dauden idazle batzuen garaietara garamatza, Kirikiño (1866-1929), Manezandi (1867-1943), Jean Elissalde "Zerbitzari" (1883-1961) eta oraintsuagokoak diren J. M. Mokoroa (1901-1990) eta

(4) Bilkhuia edo bilduma hau Parisko Bibliothèque Nationaleko Celt & Basque 169 zenbakian aurkitzen da. Nik eskuizkribuaren fotokopia eta transkripzio batez horniturik argitaratu nuen *Lamia, Sorgin eta Tartaroen Erresuma* ezkutua lanean Labayru Ikastegia 1997

Iñaki Eizmendi “Basarri” (1913-1999) idazleengana. Guzti hauek guk baino inguru euskaldunagoetan bizi izan ziren eta euskaldun huts eta talendu handidunak ezagutzeko aukera miragarria ere izan zuten. Gaur egun, ordea, ez da ia euskaldun hutsik gelditzen, euskara bakarrik dakien euskaldunik ia ez dago Euskal Herri osoan barrena. Erdaldun huts asko daude, ordea, Euskal Herrian, ezinbestez. Euskaldun hutsik gelditzen ez den arren, euskaraz bakarrik pentsatzen duen belaunaldi bat laster desagertzera doakigu. Honez aurrera, hizkuntza bi edo gehiago jakingo dituzten euskaldun onak izatearekin aski eta gehiegi izango dugu. Mixtelenak esan ohi zuen gaurko euskaldunok erdaldun-euskaldunak garela onenean ere, euskaldun-erdaldunak izateko arriskuan, gainera.

Euskara ikasteko iturrietara jo behar delako ideia, euskaldun hutsetara edo hutsengana hurbiltzea, ez da Manezandi edo Kirikiñorengan bakarrik ematen, gaur eguneko Antonio Zavala edo Gotzon Garateren lanetan baino gehiagotan adierazirik aurki daiteke. Ideia horiek A. Zavala *Auspoa* liburutegia osatzera eraman dute, euskaraz dagoen herri-literaturako altxor ederrena gaurko eta biharko euskaldunoi eskeintzera, hain zuzen. Gotzon Garatek Euskal Herriko zazpi probintzietako baserritar edo bazterretxetarrekin hitz eginez, euskara landuz, atsoitz-liburu eder bat eskeini digu. Atsoitz-liburuaren ondoren, beste lan eder bat ere kaleratuko omen digu: erramolde-liburu bat.

Orain arteko gure puntu honetan herri-fraseologismoak aipatu ditugu. Fraseologismoak, ordea, hainbat sail desberdinetakoak izan daitezke. Badira teknika berriak ekarri dituen fraseologismo berriak. Berriak bezain beharrezkoak. Euskara tresna zalu eta eragile bihurtuko badugu, ordenadore munduak ekarri dizkigun fraseologismoak, “crear un directorio”, “cancelar una operación” eta abar, esaterako, ingeles mundutik euskarara egokitu beharko ditugu.

## EUSKARAZKO FRASEOLOGIA: LANAK ARTIKULUETAN

Euskaraz, denok dakizuenez, fraseologiaren gainean teoria lan handiegi-rik egon ez arren, badira hainbat lan edo esaera-zerrenda. Erramolde edo esapide eginen garrantziak orain baino lehen jabeturik zenbait euskaltzale eta ikerlari, esaera-biltegiak eratu dituzte. Lan horien berri emango dugu gure hitzaldiaren atal honetan. Lan gotor eta handietan sartu aitzin eman dezagun artikulua batzuen berri. Lokuzioen edo erramoldeen bilketa agertzen duten lan ttipiak aipatuko ditugu atal honetan. Sebero Altubek baditu bi lantxo “Esakera politak”, *Euskal Esnalea*, 1911, I, 90-91 or. eta bilketa hutseko zerrenda bat “Modismos euskéricos”, *Euskera* 1925, VI (4º), 67-87 or. Aingeru Iri-garaik lan polit bat argitaratu zuen *Principe de Viana* aldizkarian, 1962, 489-499 or. “Para un Diccionario Vasco de modismos”. Lan horretan Nafarroako bi mugaldeetako erramoldeak dakartza. Gorago aipatu ditugun usteak

ere badakartza, erdarak euskara desitxuratu eta nahasten ari duelakoa, hone-laxe hasten da: “Una de las características de toda lengua la constituyen los idiotismos o modismos. En la lengua vasca es importante anotarlos porque se van olvidando de prisa debido a la influencia del vasc. urbano que sufre mayores influjos del castellano al revés de lo que ocurre con las variedades apartadas.

Los mismos escritores son parte en aquel olvido, pues, salvo excepción, prestan menos atención a esa característica que a la añorada pureza de léxico. Muchos lectores del vasc., seguirán dedicando sus preferencias a esas variedades campesinas, entre tanto no tome forma el vasc. literario cuya unificación encontrará aún muchas dificultades”. Artikulu honetan ia berrehun fraseologismo (nire kontadurian 176 bat) agertzen dira, guztiak erdal ordaina dutela. Ordaina eta ez itzulpena esan dut, “porruak landatzera” edo “antzara (singularrean) perratzera” (igorri zuen), esaterako, ez baitu esaten *le mandó a plantar puerros* edo *a herrar el ganso*, beste modu honetara baizik: *le mandó a freír espárragos* parentesi artean (hacer gárgaras). Artikulugilearen asmoetako bat da idazleek literatura idatzian txertatzea hain bitxi baliotsuak. Aingeru Irigarai fraseologismo-hiztegi baterako aleak eskeintzen ari zen artikulu hartan.

Fraseologismo-hiztegiak azken hamar urte hauetan inoiz baino gehiago argitara dira gaztelaniaz. Bolada zoro batek edo modaren apetak edo editorial zuzendarien interesak agintzen dutela pentsatuko du baten batek. Disziplinaren garapenak edo gizarte batean bizi diren idazle, irakasle eta irakurle interesdunak tarteko direla ere pentsatzea bidezkoa da. Hitzaldi honetako entzuleak ideia garbi bat egin dezan, hona lehen hamarrak: *Fruncir el ceño*-Beltzuri egin. *Quemar las naves*- Paperak erretzea. *De boquilla*-Aho mihiz. *De pe a pa*-Orratzetik ari (kondatzen daukute). *Andarse con rodeos*-Itzuli mitzuli ari. *Por poco; poco ha faltado*-Guttik egin du. *En resumen; en el fondo; en general*-Funtsean. *¡Que te crees tú eso!*-Ago pixka bat! *Tiene don de gentes*-Jende artze ona du. *Le mandó a freír espárragos (hacer gárgaras)*-Porruak landatzera,-Antzara ferratzera (Igorri zuen).

Lan hagitz interesgarria da, bestalde, M. Moulin eta A. Uhartek *Bulletin du Musée Basque*, nº 85, 3 trimestre 1979, “Contribution à l’étude des proverbes et dictons de l’Ostabaret”, 136-146 or. argitaratua. Lan honetan atso-titz edo “dicton” direlakoak agertzen dira esapide edo lokuzioekin nahaste. Ba-dira lan honetan erdaraz *comparaciones fraseológicas*, edo euskaraz, hala nahi izatera, konparantza fraseologikoak dei ditzakegunak. Konparantza hauek, herri hiztunen artean finkaturik dauden konparantzak dira. Adibide bat ematearren, *más cobarde que una gallina*, euskaraz ere berdin izan daitekeena: “oi-loa baino koldarrago”. Gaztelaniazko *un hombre gallina* delakoak ere euskaraz izan ditzake kidekoak. “Gizon oilo bat” edo “gizon oilobusti bat”. Hona hemen, hitzaldi honen aringarri, Aita Uriartek hemeretzigarren mende erditsuan sortu zuen bertso-sail bateko hamargarren bertsoa:

Baldin gure artian  
 badago koldarrik,  
 bijua bere etxera  
 armia itxirik;  
 ez dogu emen biar  
 mutil ollokirik,  
 morua ikusita  
 bildurtuko danik.

(*Afrika'ko gerra (1859-1860)*, Auspoa 129, 77or.)

Badirudi “Oiloa baino koldarragoa den norbait” konparantza eginetik, “mutil oilo(ki)a” sortuko zela. Artikulu honetan konparantza egineko hainbat ale agertzen dira, 13-Azkona bezain zaila *Dure comme le blaireau*, 18-Belia bezain beltza *Noir comme le corbeau*, 38-Foina bezain abila *Malin comme la fouine*, 41-Gatu okherra bezain jeloskorra *Méfiant comme un chat borgne*, 48-Hungarria bezain auherra *Paresseux comme le fumier*, 53-Kaka bezain merke *Bon marché comme le caca*. (*Sous estimé*), 69-Phika bezain ohoina *Voleur comme la pie*, 79-Phixuntzia bezain kuriosa *Curieux*, 80-Zarthain zaharra bezain gormanta *Gourmand comme une vieille poêle*, 83-Zeru zola bezain urdin *Bleu comme l'horizon*. Konparantza guzti hauezz gain, badira hainbat loku-zio polit ere. Nik hemen lantto honetan bi baizik ez ditut iruzkinduko. Irudi-mundu adierazkorra dute bete-betean eta arras politak dira. Eman dezagun, esaerako, norbait ondo baino hobeto bizi bada, *asebetean* bizi dela esaten dela diogula, besteak beste direla. Esan daiteke, era berean, *gari-meta gaineko txoria* dela. Gari-meta gainean, bistakoa denez, goserik ez baitu pasatuko txoriak. Hona esaterako, zer dioen 65 esapideak Ogi phuluaren gaineko xoria *L'oiseau de dessus le tas de blé*. (*Celui qui ne sait pas reconnaître son bien-être*). Norbaitek ez badaki bere zorion betea ezagutzen, esapide hori esaten omen da. Hona hemen erramolde bera bertso batean:

An ongi nintzelarik  
 Ateratu nintzen  
 Zehait falta nuela  
 Zaitan iduritzen,  
 Ogi bihiko xoria  
 Eneatu bai zen,  
 Ene gostuz geroztik  
 Ikasi dut bizitzen.

(*Luzaide'ko kantiak* Auspoa 65, 46 or.)

“Ogi” eta “gari” direlakoek esangura bera izan dezakete hurbilen ditugun erderetako *trigo* edo *blé* adierazteko orduan. Beste moduz esateko, Iparraldeko *ogi* hitzak bi esangura izan ditzake, gure “ogia”, jakina, eta baita, era berean, “garia” ere. Hemen ere lekuz aldatzen den pertsona baten auhenak dira, lekuz aldatu baino lehen bizi zuen zorionaren jabe ez zelako. Orixek erra-

molde bera erabiltzen bide du bere *Euskaldunak* poemako “Toberetako” lau-garren bertsoan:

Lore-baratzan eder  
arrosa gorria;  
gari-meta-gaiñean  
eder da txoria;  
bil dezake eraztunak  
gaur zure gerria.

(*Euskaldunak poema eta olerki guziak* 1972, 366 or.)

Bada besterik ere erdaraz zein euskaraz, hona 21.zenbakikoa: Besten buz-tanaz uliak kasa *Chassez les mouches avec la queue des autres*. (*Pour celui qui vit au dépens d'autrui*). Hau da besteen bizkar bizi denaz esan ohi da. Erramolde hau Xabier Altzibarrek adierazten didanez, Jean Hiriart-Urruty za-harrak bere lanetan maixko erabiltzen dituenetakoa da. Hona erramolde esan-guratsu hau bertsoetan txertaturik:

Erriko ofizialek  
Badituzte estakuliak,  
Kontratistek zarri diuzte  
Garbi beren buriak,  
Bertzen buztanez aisago  
Kentzen diuzte huliak  
Horien hobenen jasaitera  
Guziak obligatiak.

(*Luzaide ko kantiak* Aupoa 65, 77or.)

Konparantza egin edo fraseologikoak euskal lanetan hainbat lekutan dau-de txertatuak. Eman ditzagun, kasurako, P. Lafitteren “Eskual-hitzak nola ikas” *Gure Herria* 1962-ko buruila-urria, 279-284 or. lanean agertzen diren “men-dia bezain zaharra”, “kako bezain ohoina”, “itzea bezain chuchen”, “bidea be-zain luze”, “saltsa bezain apaindua”, “laratza bezain beltza”. Konparantza egin hauek F. Laffitek “errankune” hitzaz adierazten ditu eta hizkuntza adierazko-raren eredu jartzen.

## FRASEOLOGISMOAK LIBURUETAN

Liburuetan bildurik agertzen diren fraseologismoen gainean hitz egingo dugu azkenik. Badira bilketa-lan bikainak. Has gaitezen Azkueganik. *Euska-lerriaren Yakintza* III alean *Modismos* deitzen den atalean, 233-351. orrialdeetan, ehun orrialde baino gehiago eskeintzen ditu lekeitiarrak. Fraseologismoei Azkuek modismo deitzen die, eta biltzailei *modismólogos*, euskeraz “esake-lariak”. Lau horrialdeko sarreratxoa egin ondoren, hitz gako edo klabeen ar-datzean biltzen ditu fraseologismoak. Hiztegi hau gaztelaniatik euskararakoa



da. Euskarazko fraseologismo guztiek, ordea, beren itzulpen zein azalpena izango dute. Hiztegi hau hartu bide zuen oinarri edo eredu Paul Gilsouk bere *Errantegia* egiteko, geroago ikusiko dugunez. *Burro* hitzean, esaterako, “Es tan burro como largo es el camino”, *bidea luze bezen asto da* (L). *Adituko ditu bereak eta asto beltzarenak*, oirá las suyas y las del burro negro (AN-b, BN-am). Var. 1, de AN-etxalar: ardi beltzarenak, las de la oveja negra. Var. 2, de B y G: *bereak eta bi* (oirá) las suyas y dos (quiere decir, mucho más). Azkue iturriak markatzeko orduan zehatza da. Fraseologismoen ordainak ez ditu ematen erdaraz, itzulpen soila baizik. Erdaraz irakurtzen duenak aho bete hortzekin geldituko da zenbaitetan, zer esan nahi duen asmatu ezinik. Erdaraz egindako fraseologismoaren itzulpen hitzez hizkoak erdal irakurlea txunditu dezake, inolako dudarik gabe. Eman dezagun, esaterako, gure “(zerbait ez izan) ahuntzaren gauerdiko eztula” esapidea erdarara itzultzen dela hitzez hitz, inolako azalpenik gabe, zer ulertuko luke erdal irakurleak?

Orain, bigarrenik, sar gaitezen Justo Maria Mokoroa gure omenduarien lanarekin. Euskaraz daukagun esaera edo fraseologismo biltegirik handiena da, denok dakigunez. Are gehiago esango nuke, beste edozein hizkuntzatan ere nekez aurki daiteke ia ehun mila esaldi biltzen dituzten liburu gotor bi. Zehazki esateko, 92. 167 esaldi edo adibide biltzen dira 3559 orrialdetan. Adibide horiek ez dira fraseologismo hutsak, euskara hutsean bizi diren euskaldunen esaldi jatorrak baizik. Esaldi guzti horietan, jakina, badira hainbat unitate fraseologiko edo fraseologismo ere. Fraseologismoen artean lokuzioek hartzen dute toki gehientsuena baina badira atsoitzak ere. Behin honetarako gero esan dezagun liburuaren izenburua elebiduna dela: *Ortik eta emendik Repertorio de locuciones del habla popular vasca, oral y escrita, en sus diversas variedades*. Izenburu honek badu azalpen bat ere: “analógicamente clasificado por categorías y conceptos a base de los cuadros e índices de A. Pinloche y F. Brunot”. Liburuaren izenburuan hitz esanguratsu bat agertzen da, hitz hori *locuciones* da. Hitz hori, beraz, ez da nolana hika jarria, Real Academia de la Española-ko Julio Casaresek adierazia baizik. Julio Casares XX.mende erditsuan fraseologia-lanetan Espainiako aitzindaria izan zela esan dugu goraxeago. Hona Mokoroaren hitzak: “¿Qué traté de registrar en esos cuadernos?... por regla general, todo tipo de expresiones características del euskera que, además de hacer de él instrumento de más compenetración para quienes se criaron en su ambiente, constituyen valiosos elementos estilísticos para dotar al lenguaje usado de especial viveza y colorido, gracia o energía. A mí se me habría ocurrido relacionarlas con lo que comúnmente se entiende por giros o modismos; pero, años más tarde, en visita que le hice en 1952, D. Julio Casares, el insigne Secretario de la Real Academia Española, me aconsejó que las llamara *locuciones*” 22 or. Ia ehun mila esaldiak zenbakitu ondoren saikatu behar ziren. Horretarako beste aukera batzuk atzean utzi ondoren, bi frantsesen lanean oinarritu zen A. Pinlocheren *Vocabulaire français par l'image* eta Ferdinan Brunot gramatikariaren *La Pensée et la Langue*. Kontuak honetara, zeintzu dira Mokoroaren lanaren on-gaitzak, argi-itzalak? Zeintzu dira alde on eta txalagarriak?

Gure lantxo honetan alderdi onak aipatuko ditugu batez ere. Ez dugu dudarik txikiena egiten J. M. Mokoroa lana hasi zuen garaierako aurrelaria izan zela fraseologiako arloan. Orduko aitzindari zen Julio Casares-ekin ere hitz egin zuen. Bizitza guztiko ahaleginen fruitu da, beraz, *Ortik eta emendik* edo *Repertorio* delakoa. Milaka eta milaka adibideren artean, ordea, askotan zail da bilatzen dena aurkitzea. Esaera-biltzailearentzat onuragarri eta mesedegarri gertatu zaio altxor handi hori, esaldi-biltegi handi hori, informatizatzea. Horrexe-gatik beragatik, CD-Rom batean bilatzea askozaz ere errazagoa egiten da milaka horrialde fin dituzten bi liburuetan baino.

Euskal fraseologian dauden lan argitaragabeen artean Paul Gilsouren *Errantegia* da. Hona Mokoroak *Repertorio* laneko hitzaurrean zer dion Paul Gilsouren *Errantegia*-z: “Yo mismo tuve a mi entera disposición hace pocos años -aunque demasiado tarde para poder utilizarlos- los originales mecanografiados de una obra sin precedentes entre nosotros, *Errantegia*, producto de una ímproba y bien planeada labor del sacerdote labortano, hoy residente en París, Paul Gilsou... Con la pena de no haber podido ya incorporarlos a mis cuadernos, he confiado en depósito una fotocopia de ellos al Instituto Labayru”. Nor da Paul Gilsou lapurtarra(5)? Lapurtar honen berririk ez dugu ikusi inongo enziklopedia edo literatura-liburutan. *Gure Herria* aldizkarian lau antzerki-lan, polit bezain labor, eman zituen argitara(6). Esan beharrik ez dago herri-euskaraz orakaturik eta brokaturik agertzen direla antzerkietako elkar-hizketok(7). Are gehiago esango nuke: Paul Gilsou eta J. B. Etcheberry dira euskaraz dauden idazle esaeratsuenetakoak. Orrialde bakar batean esapideak dozenaka aurki daitezke. Esaldi bakar batean bi unitate fraseologiko edo gehiago... Idazmolde hau gehienera, are esaerazaleenera ere, askotan astun samarra gertatzen zaie...

Zer da, beraz, *Errantegi* delako hau? Nik eskuetan sarri erabili dudana alea liburu gisa enkuadernaturik dagoen hirurehun eta laurogeita bi horrialdeko lan bat da. Azken orrialdean, bukaeran, “Parisén 1964eko errearoaren 12-an buru(turrik)” agertzen da. Ia laurehun orrialde hauetan lau kuaderno mekanografiaturik agertzen dira. Lehena A-C hizkietara doana, 1-109 orrialdeetarakoa. Bigarrena D-H hizkietara doana, 110-209 orrialdeetarakoa. Hirugarrena I-O hizkietara bi-

(5) Hitzaldi hau irakurri ondoren, Emile Larrek Paul Gilsouren berri eman zuen ahoz. Emile Larrek zioen bere garaitzuko apaiz lapurtarra zela *Gure Herria* edo *Herria* aldizkarietan idatzi zuen apez honen berri badute, jakina, bestaldeko idazle helduek. Bere lan idatziak, ordea, berrogeitamar hamarkada inguruan baino ez ditut aurkitu.

(6) Paul GILSOU, “Gazte: Seme galdua”, *Gure Herria*, 1950, XXII, 140-147, “Gizona”, *Gure Herria*, 1953, XXV, 182-191, 247-256, 311-317. “Koropillo. Azeri zaharra”, *Gure Herria*, 1952, XXIV, 169-179, 245-254 eta separata bezala *Koropillo. Azeri zaharra*. Bayonne: Imp. “Le Courrier”, 1952. Azkenik, *Petan Mihiku. Erri egiteko ikusgarria hirur zatitan. Paul Guilsou-k eskuaraz antolatua, Molière-n lan batetarik*. (Bayonne: Imp. du Courrier, 1951) lan hau aterea dago *Gure Herria*, 1951, XXIII, 46-56, 97-102, 166-173.

(7) Esaterako, GH 1953, 247 or. Chabina delako pertsonaiak dioena: *Ba, ba, zorigaitza zorigaitzari: zer na'uzu, chakur tcharra, dena kukuso*. Bi fraseologismo jartzen ditu bata besteren ondoan.

tartekoa, 210-284 orrialdeetara doana. Eta azkenik, laugarrena, P-Z hizkietara bitartekoa, 285-382 orrialdeetarakoa. Lan oso eta bururatua da abezadarioko hizki guztiak besarkatzen dituen. Zeintzu dira errantegi honen ezaugarriak? Esan dezagun, lehenik, ez duela inolako sarrera edo azalpenik. Hasi lehen orrialdetik eta azkeneraino zerrrenda hutsak agertzen dira. Ez da esaten lanaren nondik norakorik, lana bururatzeko erizpideak, eragozpenak, ereduak eta abarrak. Fraseologismo hiztegi bat da. Hiztegi honetako sarrera hitzak frantsesez daude hizki handiz edo maiuskulaz. Hiztegia frantsesetik euskararakoa da. Frantsesa da abiaburua hiztegi honetan. Eta frantsesa diodanean kontuan izan behar da ez direla abiaburuan frantses-fraseologismoak agertzen frantses-hitzak baizik. Lehen hamar hitzak, esaterako, abaissement, abaisser (s<sup>ˆ</sup>), abandon, abandonner, abandonner (s<sup>ˆ</sup>), abasourdir, abattre, abdiquer, abeille. abiaburu.

Eman ditzagun zenbait adibide. 275 orrialdean NOVEMBRE hitza agertzen da, esaterako, hizki handiz edo maiuskulaz. Hitz honen azpian zenbakiak agertzen dira hasi 1-etik eta 12.eraino. 1 zenbakian *Entre la Toussaint et Noël, ne peut trop pleuvoir ni venter*. Frantsesezko dicton edo eguraldi-esaera zahar bat dakar lehendabizi. Eguraldi errefrau honen euskal kidea dakar azpian. Eskuaraz -Santu guzien egunetik Eguberrietara haize ta euri gutxi, lekak ganbarara (edo: selaurura). Bigarren zenbakian 2-eskuaraz-(11-a) Jondoni-Marti, (aldairan) etxetik parti. 3 zenbakian Eskuaraz (11-a) Jondone-Marte eder, ogia bota lurrer. 4-Eskuaraz-(11-a) San Martin, bearrak bear eragin. 5-Eskuaraz (25-a) Santa Katalina noiz da? Besigutako (edo: Arrosel-arrantzarako) goiz da, gal-(edo: ogi-) ereiteko otz da. 6-Eskuaraz-(25-a) Santa Katarina jitean, erroak hartzen lurrean. 7-Eskuaraz-(25-a) Santa Katarina, larrazkenaren azkena. 8-Eskuaraz-(30-a) San-Andres, kopauan lau tremes (edo: aotaran lau herres), bosgarrena saman (edo; zitzurrean trebes. 9-Eskuaraz-(30-a) San-Andres, xerria askan trabes. 10-Eskuaraz (30-a)San Andres, barura hautsi gaztañez. 11-Eskuaraz- Hazila hotz, negua motz (;) hazila bero, negua gero. 12-Eskuaraz-Azaroko eguna, argiko (edo argitu orduko) iluna. Hamabi erran zahar hauek agertu ondoren, azkenean “bea ere AVENT” dakar.

Hemen eman dugun adibidean, “Novembre” hitzean, erran zaharrak, atsoitzak edo paremiak bakarrik agertzen dira. Beste hitz batzuetan, gure esakerak edo lokuzioak direlakoak agertuko dira. Bi unitate fraseologikoak ere nahastean agertuko dira beste zenbait hitzetan. Hiztegi honen alderik harrigarriena beste hizkuntzetako fraseologismo ordainak ekartzea da. Beste hizkuntza horiek, Gilsouk berak aipatzen duen bezala, espainola, angelesa, alemana, latina, finlandiakoa, hots, finesa, eslobenoa, arabea, suomian dira. Gehienetan, ordea, hizkuntza horretan transkribaturik egon beharrean, itzulpen bat ematen da. Beste batzuetan, gutxitan halere, aipatzen den hizkuntzan. ACCEPTER 6 or. hitzean, esaterako, hainbat euskal adibide eman ondoren, erdaretatikakoak ere agertzen dira: “Behar dira gizona den bezala eta aroa heldu den bezala hartu”. “Gauzak diren bezala hartu behar dira”. “Heldu den iguzkiaz berotu behar da”. Alemanez *Aus der Not eine Tugend machen*. Angelesez *To make a virtue of necessity*. Espainolez *Hacer de necesidad virtud*.

Behin honetaraz gero, eritzi batzu emateko gai garelako uste dut. Paul Gilsouren lana, Mokoroak zioen bezala, lan eskerga, ikaragarria da (una obra sin precedentes entre nosotros) alde askotatik. Fraseologismo pila ikaragarria dakar, Euskal Herri osokoa gainera, nahiz, bistakoa denez, Lapurdikoak ekarri gehienbat. Euskarazkoek gainera, beste hizkuntza askotakoak ekartzeak halako gainbalio bat ematen dio, euskarazko fraseologismoekin konparatzeko bideak ematen baitizkio esaerazaleari. Alde makurrak edo aipatu beharko banitu, inoiz ere iturririk ez aipatzea litzateke okerreana. Ez du esaten nondik hartua den, zein herritakoa den, nori jaso. Gilsouk han-hor-hemen argitaraturik dauden iturrietatik edango zuen noski, Azkueren *Euskalariaren Yakintza*-koak sartuko zituen noski, baina ez ditu aipatzen. Hizkuntza arrotzetatik hartzen dituen fraseologismoak gutxitan ematen ditu hizkuntza jator edo jatorrizkoan, gehienetan hitzez hizko itzulpenak ematen ditu. Jatorrizko hizkuntza arrotzean, gehien agertzen dena latinezkoa da.

J. M. Mokoroak lan argitaragabetzat hartzen zuen Paul Gilsou-ren *Errantegia*, baina egiaz ote da argitaragabea? *Herria* astekaria eskuartean erabili dutenek ikusiko zuten, beharbada, 1950. urte aldera, hainbat zenbakitan agertzen den "Erran-zahar eta erran-airak" delako saila. 1950 garaitsuko hainbat lan ikusi ditut eta artikulu sinatu gabeko horiek antz ikaragarria dute Labayruko bibliotekan aurkitzen den Paul Gilsou-ren *Errantegia* lanarekin. Lan bietan abiatzen da frantsesetik eta gero euskal ordainak ematen dira. Nik, esaterako, *Herria* n° 360, Uztailaren 4koa, 1957. urteko alean ARGENT hitzean adibide hauek ikusi ditut: 1-Avoir les reins fort (edo solides), 2-Avoir les écus à remuer à la pelle, 3-Avoir les écus à compter par boisseaux, 4-Etre riche à millions, 5-Rouler sur l'or. Guzti hauen euskal kideak: 1-Esk,-Aberatsa izan (da), 2-Aberats okitua (edo puchanta) izan. Adibide guzti horiek modu bere berean agertzen dira Gilsou-ren *Errantegia*-n. Are gehiago esango nuke. Adibide horiez gain gehiago ere agertzen dira, baina horiek berak modu bere berean agertzeak *Herria*-ko lanaren autorea zein den erakusten digu: Paul Gilsou.

Bada, azkenik, arnas handiko liburu bat aipatu gabe utzi nahi ez nukeena. Koldo Izagirreraren *Euskal Lokuzioak. Espainolezko eta frantsesezko gidazterrendarakin*. Hordago 1981. Arnas handikoa esan dugu, bilduma handia eskeintzen digulako. Ordainak eta ez itzulpenak, gainera, bi hizkuntzara ematen ditu, hurbilen ditugun bi erderetara: gaztelaniara eta frantsesera. Lan handia eta ona da, zalantzarik gabe. Lanaren oinarri edo *corpus* nagusi bezala *Auspoako* aleak hartzen ditu. Liburu mardul honek izan zituen bi aipamen ere punta puntako euskalarienganik. Mitxelenak zehar bidez aipatzen du, baina aipamena izenburuari bakarrik dagokio. "Lokuzio" hitza ez omen zitzaion asko gustatzen K. Mitxelenari. "Esacra zahar baten bigarren agerraldia"(8) artikuluan agertzen da; hona hemen Errenteriako hizkuntzalariaren hitzak: 'Aurrera gabe, azaldu beharko dut norako asmotan naizen hemen. Begiko zuen Ainge-

(8) *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia 1985, 209-217. or.

ruk gure literatur tradizioa, oroit eta oroitezez bulartua, Borgesek dioenez, beste edozein bezala. Eta hor heldu dira, nola ez bada, letraz-letra irauli zaizkigun esaerak, errefrauk nahiz atsotitzak. Ez dira, noski, besterik gabe *loku-zioak*, hauek, euskaraz deus ez izateaz gainera, erdaraz (erderetan) ere ezer gutti direlako: hizkeraren teknikoan ia sarrerarik ez duten "esapideak".

Aipamen zehar bidezkoa dela esan dugu. Aipamen edo erreseina bat zuzen-zuzena Luis Villasantek eskaini zion *RIEV* aldizkarian, 1983, tomo XXVIII, 273-277or.



## EN TORNO AL CONCEPTO DE COLOCACIÓN

Gloria Corpas Pastor  
Universidad de Málaga

Los fenómenos de restricción combinatoria, ya sea léxica o sintáctica, han llamado la atención de lingüistas, filólogos y estudiosos en general desde muy antiguo. No hay más que reparar en la existencia de diccionarios sintagmáticos (1) desde el siglo XV. Pensemos en la obra pionera de Joan Esteve, *Liber elegantiarum* (1489); las *Phrases et formulae linguae latinae elegantiores* (1539), de Estienne Dolet; *Les Epithetes* (1571), de Maurice de la Porte; o el mismísimo *Gradus ad Parnassum, sive novus Synonymorum, Epithetorum et Phrasium Poeticarum Thesaurus*, en su edición de 1668, por citar sólo algunos. Son los tradicionales diccionarios de epítetos, frases y estilo que se ocuparon, en un primer momento, de las “combinaciones” de palabras de las lenguas clásicas y, posteriormente, de las vernáculos. Junto a ellos se erigen los diccionarios que abordan la restricción sintáctica, los fenómenos de rección y la valencia, entre los cuales ocupan un lugar destacado los de dudas, como el de Robert-Alcide de Saint-Maurice, *Remarques sur les principales difficultés que les étrangers ont en la langue françoise* (1672), y el *Dictionnaire raisonné des difficultés gramaticales et littéraires de la langue française* (1818), a cargo de Jean Charles Laveaux; o la obra monumental de Rufino José Cuervo, *Diccionario de construcción y régimen de la lengua castellana* (1886).

Un breve repaso por la historia de la lingüística de los siglos XIX y XX nos descubre autores preocupados por las combinaciones imposibles, posibles y deseables de unidades léxicas en el eje horizontal del sistema de la lengua (2). Por ejemplo, a finales del diecinueve, Herman Paul (1880), uno de los “abuelos” de la fraseología, reconoce implícitamente la existencia de colocabilidad restringida al distinguir entre acusativo libre y acusativo fijado. El segundo se da en construcciones formadas por un sustantivo que sólo puede combinarse con un único verbo o con un grupo muy reducido de éstos, presentando, entonces, una acepción especial. A principios del veinte, Charles

---

(1) Sobre el concepto de diccionario sintagmático, su tipología y sus precedentes, remitimos al lector al capítulo VII (“Wörterbuchtypen II: Syntagmatische Spezialwörterbücher”) del primer volumen de la enciclopedia de lexicografía editada por Hausmann *et al.* (1989).

(2) Para este tema resulta especialmente útil el capítulo II (“Informe sobre la historia de la investigación fraseológica”) de la monografía de Zuluaga (1980).

Bally (1909) se hace eco, esta vez explícito, de las preferencias de combinación léxica. Basándose en el concepto saussureano de aglutinación (en tanto grado de fijación y cohesión), el autor distingue, frente a las combinaciones libres, dos tipos de *locutions phraséologiques*: (1) combinaciones cuyos componentes carecen de autonomía y cuyo significado unitario no se puede inferir de los significados individuales de sus elementos integrantes (“unités phraséologiques” o “groupes agglutinés”, del tipo *tout à coup*); y (2) combinaciones relativamente cohesionadas, familiares y conocidas para los hablantes, cuyos componentes contribuyen al contenido semántico global (“series phraséologiques” y “groupements usuels”, como *grièvement blessé* y *avoir de la chance*).

Durante los dos primeros tercios de este siglo, otros autores se ocupan también del tema, aunque desde perspectivas distintas, si bien complementarias (3). Así, Porzig (1950) se centra en los campos semánticos elementales (*elementare Bedeutungsfelder*), formados por sintagmas bipartitos, de combinatoria restringida, que presentan relaciones semánticas esenciales. Algunas de éstas guardan una estrecha relación con los aspectos semánticos de las colocaciones, como la tipicidad (*bellen-Hund, fallen-Baum*). De hecho, muchos de los ejemplos de Porzig entran dentro de las *solidaridades léxicas* propugnadas por Coseriu (1966, 1977 [1986]). Las determinaciones semánticas de una palabra por medio de un lexema (*implicación*), un archilexema (*selección*) o una clase (*afinidad*), de carácter multilateral, externo, darían lugar a parte de las colocaciones restringidas de una lengua (cf. *caballo-bayo, león-rugir*, etc.).

El enfoque de Firth (1957, 1968) es también esencialmente semántico, y hasta cierto punto estilístico, ya que, por un lado, la combinabilidad léxica (*collocation*) es uno de los niveles de análisis (*modes*) que permite determinar la acepción que actualiza una palabra dada en contexto; y, por el otro, el contraste entre combinación usual e idiosincrásica centra el análisis estilístico y caracteriza los lenguajes de especialidad.

De lo dicho hasta ahora podemos colegir que la restricción combinatoria ha sido tratada, siempre parcialmente, desde distintas parcelas del saber lingüístico. Tanto la semántica como la sintaxis han reclamado la combinatoria léxica como objeto propio de estudio, como ha expuesto Írsula Peña (1994: 27):

Ihre Einbeziehung in die Phraseologie ist strittig, da andere linguistische Disziplinen wie die Lexikologie, die Lexikographie, die Semantik und die Syntax sie in ihren Gegenstandsbereich miteinbeziehen (4).

(3) Consúltense, además, Írsula Peña (1994: 28-34) y Corpas Pastor (1996: 53-65).

(4) “La inclusión [=de las colocaciones] en la fraseología es dudosa, pues otras disciplinas lingüísticas como la lexicología, la lexicografía, la semántica y la sintaxis reclaman su inclusión como objeto de estudio.” (La traducción es nuestra).



Curiosamente, los diccionarios fraseológicos (de locuciones y paremias, fundamentalmente) han excluido las colocaciones sistemáticamente de sus respectivas nomenclaturas (cf. Mieder, 1989; Schemann, 1989; Hausmann, 1989). Esta tendencia refleja la influencia dispar que han ejercido los tres grandes bloques de la investigación fraseológica (cf. Corpas Pastor, 1998a y 1998b). Mientras que el bloque oriental –a saber, la antigua Unión Soviética y otros países del Este– ha primado la concepción amplia de la fraseología, en tanto estudio de las propiedades combinatorias de las palabras (5), el bloque occidental (integrado por el antiguo estructuralismo europeo, especialmente la escuela ginebrina, y sus desarrollos posteriores) ha venido defendiendo una concepción restringida de la fraseología, cuyo centro está poblado por unidades fraseológicas fijas e idiomáticas al mismo tiempo. Pero, si el segundo bloque relega las colocaciones a la periferia, los estudios anglo-norteamericanos sobre idiomática las han situado fuera de la fraseología, o, como mucho, en el “extrarradio”.

No obstante, las tres posturas se han acercado mucho de un tiempo a esta parte, debido, sobre todo, al intercambio científico entre los autores de los tres bloques, y, cómo no, a la consolidación de la disciplina (cf. Corpas Pastor, en este volumen). Una de las tendencias más acusadas es, precisamente, la inclusión de las colocaciones en el ámbito de la fraseología, como un tipo más de unidad fraseológica, dado que comparten sus características definitorias. Veamos. Una *unidad fraseológica* (UF) es una “combinación estable de unidades léxicas formada por al menos dos palabras gráficas, cuyo límite superior se sitúa en el nivel de la oración compuesta” (Corpas Pastor, 1998a: 167). Entre sus rasgos distintivos figuran los siguientes: “polilexicalidad, alta frecuencia de aparición y de coaparición, institucionalización, estabilidad (fijación y especialización semántica), idiomática y variación potenciales.” (*ibid.*)

Lehen ikasketak bere jaioterriko aita eskolapioen ikastetxean egin zituen 1906.etik 1913ra bitartean eta, horrek gidatuko zuen, seguraski, bere bokazio aukera egitera.

### **Mokoroa eskolapio**

Bere erlijio-ikasketak egin ondoren, apaizgoa Iruñean jaso zuen Mateo Múgica Urreztarazu diozesi apezpikuaren eskutik.

Ondoko urteetan Zaragozan, Iruñean eta Txileko Santiagon aritu zen irakasle. 1933. urtean aita eskolapioen probintzialak, Pantaleon Galdeanok, Vasconia - Euskal Herriko Probintzia eskolapioa eratzea erabaki zuen. Hori dela eta, nagusiak deituta, Txile utzi eta Aita Mokoroak 1934.ean Iruñera itzuli behar izan zuen. Lehen unetik Probintzialaren laguntzaile eta idazkaria izan zen, eta lan handia egin zuen Euskal Herriaren kultura eta hizkuntza eremuari egokituriko Probintzia berria antolatzen.

1936ko gerra zibila hasi zenean, segurtasunagatik Mokoroak Iruñea utzi behar izan zuen. Ipar Euskal Herrian, Beloc-en egon zen babesturik. Hor zerbait hilabete eman zuen, beneditar gazteei eskolak ematen, baina handik laster, frantsesez oso ongi mintzatzen zekiela eta, Mathieu-k, Akizeko apezpikuak, Diozesiko Apaizgaitegira eraman zuen. Han lau urtez jardun zuen irakasle.

1941eko apirilean Tolosara itzultzeko aukera izan zuen, egoera ezin tristeagoan: aitaren hiletara etortzeko hain zuzen. Eskolapioen Orendaingo komunitatean sartu zen, baina ez zuen han luzaro iraun, gerra ondoko errepresalien beldur. Horrela, urte bereko urrian berriz ere Amerikara joateko ontziratu zen, Txile helmuga.

Bederatzi urte eman zituen han, lehen ere egona zen Santiagoko ikastetxean. Ospe handia eman zioten lekuari aita Justoren frantses eta erlijio klaseek. Han izan zen bitartean bertako euskaldun emigrante eta erbesteratuekin harremanak izan zituen, Estornes-Lasatarrekin batez ere.

1950ean Europara itzuli zen. Tafallan egotaldi laburra egin ondoren Madrilerara bidali zuten, berak aitortzen zuenez, "bertan ezer ez egiteko".

Euskal Herrira 1953an etorri zen berriro, eta oraingoan betiko. Tolosako ikastetxean bi urte eman ondoren (1953-1955), Bilboko Calasanz Ikastetxeko komunitatean sartu eta bertan hil arte iraun zuen, urte batzuetan, ikastetxeko konponketa-lanak zirela eta, 1971ko ekain-iraila artean Iratzen eta 1985eko maiatzetik 1987ko urtarrilera arte, Tolosan bizi izan arren.

## Aita Mokoroa irakasle

Nik hemen ezagutu nuen aita Justo, 1957. urtean Eskolapioen Bilboko Ikastetxeko Errektorea zelarik, neure 10 urterekin neure gurasoek batxilergoko sarrera prestatzera beragana eraman nindutenean. Gogoan dut oraindik harekin izandako lehen elkarrizketa, eta haren aurpegi serioa.

Gizon argala zen, altuera ertainekoa, begi zorrotz barrendariekin. So egiteko moduan aski nabarmen erakusten zuen bere adimen zolia. Ikasturte batez frantseseko irakasle izan nuen, hamabost urte nituela. Eskola eta pedagogia zaharreko maisua zen, baina erabat efikaza, eta beti ere bazekien ikasleok errespetatzen. Eskolak arreta handiz prestatzen zituen eta testu-liburuez gainera, bere apunte, ohar eta fraseologia zerrenda mekanografiatuak ekarri ohi zizkigun. Metodikoa zen eta klaseak argi azaltzen zituen, horretarako hitz egoki eta zehatzak bilatzen saiatuz. Baina ikasleongandik ere arreta eta ardura berberak eskatzen zituen, zorroztasunez. Azterketak zuzentzeko orduan ere ohi ez bezalako eskrupulua izaten zuen, gauza guztien gainetik justizia gorde guran, justutasuna, alegia.

Ez zen, egia esan, orain modan dauden maisu maitagarri eta hurbil hoietakoa; aitzitik, beraren eta ikasleen arteko urruntasuna mantentzen zuen, konfiantza handiegirik eman gabe. Horregatik, behin ikasketak amaitu ondoren, ikasle-ohi gisa harekin harremanak izaten segitu genuenok, ezusteko ez txikia izaten genuen, klaseetakoa ez bezalako aita Justo hura ezagutzeari, gizatiarragoa, begikoa, gure eskari edo laguntza-eskeei beti erantzuteko prest, euskaraz mintzatzean aparteko bokantza eta jatortasunaren jabe.

Oso barruan zeraman Frantziako irakaskuntzako *Langue et civilisation* bikotearen ezin hautsizko elkartasuna, hots, ez zegoela hizkuntza bat ikasterik hura zerabilen herriaren kultura, literatura, historia, tradizioak eta ohiturak ere ongi ikasi gabe, eta horien berri ere sarritan ematen zigun.

Harrigarria bada ere, oso gutxitan aipatzen zigun klasean euskarari buruzko konturik, haren irakasgaia frantses hizkuntza izanik. Baina frantsesaren egiturek horretarako aukera ematen zutenean, lantzean behin euskararekin konparaketa laburrak egin ohi zituen, hogeinaka zenbatzeko sistemari (laurogei = quatre-vingts) edo gramatikazko beste xehetasunen batean, adibidez, baina besterik ez.

Gogoan izan behar da orduan Francoren garaian geundela eta, klandestinitate-giroaz gainera, bazuela gerra-denboran berak pasaturiko esperientzia latzen oroitzapena ere. Halere, beste irakasle batzuek esanda, Javier Eizagirrek eta Jesus Etxabek batez ere, bagenekien oso euskaltzalea zela. Guztiek goraitpatzen zuten hizkuntzak ikasteko zuen zaletasun eta erraztasun handia; latin, greziera eta frantsesez gainera, ingelesez eta alemanez ere mintzatzen zelako, eta “seguraski, bera zela munduan euskara gehien zekiena”.

Behin batean, aita Justoren urtebetetzea zela jakin genuen eta hura klaserara heldu baino lehenago, arbelean “Zorionak eta urte askotan” esaldia idatziz genion, euskaraz zekien eskolapio bati hitz horiek nola idazten ziren galdetu ondoren.

Hori ikustean, Mokoroak ezin ezkutatzeko poza hartu zuen, bere gelara joan eta Labeguerie-ren disko bat ekarri zigun, garai hartan erdiklandestinoa, jai txiki bat antolatzeko. Gogoan dut, gainera, *zorionak* hitzaren jatorri zaharra azaldu zigula, hots, horrek euskara zaharrean, ‘txori onak’ esan nahi zuela, grekoek, erromatarrek eta antzinako beste herri batzuek egiten zuten bezala, behialako euskaldunak ere hegaztien kantu, hegaldi edo bestelako seinaleengatik etorkizuna asmatzen ahalegintzen omen zirelako. Eta ezer falta ez zedin, erdarazko *pajaros* edo *aves de mal agüero* esaerak, *de mal augurio*a esan nahi zuela argitu zigun, uste zahar berean oinarriturik, eta, etorki berekoa zela, halaber, euskarazko *agur* hitza ere, latinezko *augurium*-etik heldua.

Horra hor, hitz bakar batetik abiaturik zer nolako ondorio luzeak atera ohi zituen Mokoroak, saskitik gerezi bat jasotzean, txortanak beste askorekin korapilatu eta azkenean kate luzea kanporatu arte. Ikasleok, zer esanik ez, horiek guztiok entzutean are gehiago miresten genuen bera, aho zabalik, eta haren jakituria itxuraz agortezina.

Funtsean, Justo Mari Mokoroa, ohiko euskaldun apaiza zen, tradizionala, San Tomasen filosofiaren iturrian edana, mundu honetako bizitzari buruz ezkor xamarra eta mistikarako nolabaiteko joeratxo zuena. Bere buruarekin zorrotz eta estua izaten bazen ere, besteak epaitzeko, ordea, bigunago agertu ohi zen, giza ahuleria txikiak kondenatu ez baina ulertu eta nolabaiteko umorez justifikatzen zekiena. Aholku bila zetozkionekin, aldiz, zuhur bezain zehatza izaten zen, eta inoiz gogorra ere bai, egiazko arazoak kortesiako xurikeriaz ezkutatu gabe.

## Mokoroa euskaltzale eta idazle

XIX. mendearen bukaeran Donostia -Jose Manterola eta Serafin Barojari esker, batez ere- euskal kulturaren gune garrantzitsua izan bazen ere, hurrengo mendearen hasieran, zuzia Tolosak kenduko zion neurri handiz, udako madrileriarren poderioz hiriburuak lehenagoko euskaltzaletasuna aski galdua

zuen eta. Ez ziren alferrik Tolosan bizi, besteak beste, Labaien, Lizardi, Jose Ariztimuño "Aitzol" eta Ixaka Lopez-Mendizabal bezalako idazle eta bultzatzaile bikainak, gure kulturaren behialako garo-usainari hiriko giro kaletarra ere eransten saiatuak. Eta, jakina, horrek ere bere eragina izan zuen Mokoroa gaztearengan.

Valeriano Mokoroa ezagutu eta tratatu zuten guztien aburuz, hizlari eta solaskide bikaina omen zen, eta mintzatzeko erraztasun horrek inoiz teatro-jokalari izatera ere bultzatu zuen (R. Azkarateren *Ijitiuen kontratuba eta ezkontza*-n, 1895ean). Ez da harritzekoa, hortaz, haren seme Justo Marik hizkuntzaren adierazkortasuna txikitandik mirestea, eta mintzo zenean ere halaxe nabarmentzea.

1920ko udan Eusko Ikaskuntzak bere II. Batzarra Iruñean egin zuen. Egun haietako batean biltzarkideak Iratxera joan ziren. Hango monasteriora heldu zirenean Mokoroa gazteak egin zien ongi etorria. Guztiek aho batez go-raipatu zuten 19 urteko mutil haren euskara garbi eta dotorea.

Etorri handiz hitz egin ez eze, idatzi ere, halakoxe trebetasunaz egiten zuen. Bere lehen lanak Donostiako *Argian* publikatu zituen. Geroago *La Voz de Navarra*, *Zeruko Argia* eta *Euskal Esnalea* aldizkarietan ere idatzi zuen. Apaltasunez "Ibar", "Iparralde" eta "Argizale" ezizenak erabili zituen. Txilen zegoela *Gure baratze*ko *loreak* bilduma eman zuen argitara.

Bere lan originalaz gainera, aparteko maila lortu zuen Mokoroak itzulpengintzan. Ez dira asko, egia esan, utzi dizkigunak, baina haren eskutik helduriko lanek benetako harribitxiak dirudite, bere hobezintasunean. Bi aipatzeko, hor dira Iturralde y Suit-en *Errotazuriko Urretxindorra* (1924) eta Campionen *Erraondoko azken danbolintera*, (1925) lanen euskal itzulpen bikainak. Mintzatzean bezala, idazterakoan, itzulpenetan batez ere, gogoan izaten zuen beti Axular zaharraren aholkua: *eztitut bethiere eskritura saindua eta doktoren erranak ere hitzez hitz euskarara bihurtzen: zeren euskara eta bertze hizkuntzak diferent baitira*, gure hizkuntzaren barne-jeinua jagon nahirik, erdal morrontzatik ihes egiteko.

Bere merezimendu nabariengatik Akademiak 1957ko irailaren 26an Euskaltzain urgazle izendatu zuen. Urtebete lehenago *De vida o muerte. Operación salvamento* lantxo argitaratu zuen, orduan hilzoriar aurkitzen zen euskara aurrera ateratzeko proposamen zehatz batzuekin, herri-euskararen aldeko apustua eginez. Antzeko jarrera aurkeztu zuen 1968an ere, bere *Batasunari batzuk agurka eta beste batzuk aurka* txostenean ere, Euskaltzaindiak, hizkuntzaren batasuna eztabaidatzeko antolatu zuen Arantzazuko batzarrean aurkeztua. Ideia hauek guztiok *Lengua vasca de hoy y de mañana* liburuan argitaratu zituen 1971. urtean.

1979. urtetik aurrera ohorezko euskaltzaina izan zen.

## Genio y lengua

Zalantzarik gabe, Justo Mari Mokoroaren bi obra erabakigarrietako bat *Genio y lengua* izan zen, gerra zibilaren bezperan argitaratua. Liburu gutxik izan dute Euskal Herriaren historian honek bezalako eragina. Eta, egia esan, plazaratu zen uneko giro politiko desegokiagatik, liburuak ez zuen zabaltzeko bat ere aukera onik izan. Halere, ia-ia ezkutuan, eskuz esku eta ixilka-mixilka hedatuz joan zen, gerraondoko gazte-belaunaldiaren ezin utzizko gidaliburu bilakatu arte.

Obra horretan Justo Mari Mokoroak euskal nazioaren zutabe nagusia seinalatu zuen: hizkuntza alegia. Haren ustez, euskarak egiten gaitu euskaldun, beraren bidez eskuratzen baitu gure jendeak bere pentsabide bereziaren mami. Haren ustez, edozein herriren izpiritua hizkuntzan datza, eta bere mintzaira galtzen duen pertsonak, harekin batera bere izaera eta naziotasuna ere galtzen ditu erremediorik gabe. Horixe zen, hain zuzen, Campionen *Erraondoko azken danbolinteroa* ipuinak, berak euskarara itzuliak, argi erakutsi nahi duen ondorioa. Alde horretatik, zalantzarik gabe, Euskal Herriari Mokoroa izan genuen aleman pentsalarien *Volksgeist* edo Herri-arimaren teorialari nagusia, euskal nazioaren oinarri funtsezkoena euskararen zela aldarrikatu ziguna.

Arraza, odola, euskarazko deiturak eta hemen berton jaio izatea nazioaren zutabe nagusizat jotzen ziren garaian, berak, euskalduntasunaren oinarria hizkuntzan zetzala azpimarratu zuen ausarki, eta, beste kontsiderazio ororen gainetik, euskaldunon helbururik behinenak geure hizkuntza salbatzea izan behar zuela, gure naziotasunaren irauteko bide bakarra hortik etorriko zelakoan. Horrek guztiorrek, noski, eragin zuzena izango zuen ondoko belaunaldien ideologia euskaltzaleagoan; Mitxelena, Krutwig, Txillardegia edota Arestirengan batez ere.

Lexiko gaurkotuagoaz esanda, Mokoroak garbi intuitu zuen genetikak ez ziola nazioari iraupena bermatzen, hots, arazoa ez zela ekintza biologikoa, kulturazkoa baizik, eta, beraz, belaunaldien arteko lotura nagusia hizkuntzan errozuriko munduikuskera berezian bilatu behar genuela. Sentimendu hori, gainera, seguraski are nabarmenagoa zatekeen bere moduan, zelibatoagatik, haragizko seme-alabak izateari uko eginda, bere bizitza osoa gazterien hezkuntzari, izpirituak lantzeari, kotsakratu zion pertsona batengan.

Bere liburuan aita Justok, hegoaldeko Larramendi eta Aranaren garbiza-lekeriaren bide okerra barik, Iparraldeko euskaldunen pragmatismoa eta zentzu ona goresten zituen, Axular eredu, eta herri-mintzairarekiko errespetua predikatzen. Etorikizunerako bide berriaren hasiera itxaropentsua, bestetik, orduan Orixek kaleratu berria zuen *Euskaldunak* poeman zekusan, ilusioz betirik.



Edonola ere, ezin ahantz dezakegu *Genio y lengua* bere garaiko produktua zela eta, beraz, ez gaitu harritu behar, gaurko begiekin ikusita, anitz partatetan, ohitura eta moralari dagokionez batik bat, egilea integrista samar agertzeak. Mokoroa bera ere horretaz konturatua zen eta halaxe aitortzen zidan bere liburua irakurtzeko utzi zidanean. Elizgizona zen aldetik, eta gerra aurreko giro hertsi hartan, nazioaren izaeran erlijioaren garrantzia azpimarratuegi zuela onartzen zuen. Halere, gainerako atal gehienek ez dute gaurkotatzen bat ere galdu.

### **Katakomba eta etsipen-urteak**

Bere gaztaroan Gipuzkoako herrietan ezagutu eta bizi izandako euskal giro jori eta aberatsa gaztelaniaren eraginpean belaunaldiz belaunaldi ezerez-tuz zihoala ikustean jadanik kezkatzen hasia bazen, geroago, gerrako eta gerra ondoko gertakariak sakonki hunkituko zuten aita Justo. Frankistek eginko era guztietako gehiegikeriek eta euskararen aurkako errepresio latzak –azken denboretako errebisionistek; Jaime Ignacio del Burgok, adibidez, sinetsarazi nahi liguketenez, egiazki holakorik inoiz izan ez arren– barne muineraino ikaratu eta astindu zuten Mokoroa eta gure hizkuntzaren heriotzako ordua hurbil zela pentsatzen zuen etsipenez.

Dakigunez, duda-mudazko etorkizunaren aurrean bitariko lagunak egoten dira eta hori autobusaren etsenpluagaz irudikatu ohi da. Geralekurantz joan eta hara heltzeko berrogeita hamar bat metro falta zaizkienean, autobusa bertan dela ikusita, pertsona batzuek, etsipenez, haraino iritsi baino lehen autobusa irten eta bera galduko dutela pentsatzen dute, eta horregatik ez dira ahalegintzen lasterka ibiltzen. Beste batzuek, ordea, egoera berean, korrika abiatzen dira, azken istantean bada ere, autobusa harrapatuko dutelako esperantzan.

Esan ohi denez, bitzuen artean zuhurrenak bigarrenetarikoak izaten dira, hauek, arinka ibili ondoan autobusa galdu arren ere, hartan saiatuak eta ahaleginduak izateko kontsolakizuna behintzat izaten dutelako. Lehenengoetari-koei, ordea, beti geldituko zaie korrika ibili balira agian autobusa hartuko zuketelako zalantza mingarri bezain erremediogabea. Eta Mokoroak, jakina, ez zuen horrelako alfer damurik nahi bere kontzientziaren gainean.

Zulo beltz hartan, halere, bazuten euskaltzaleek esperantzarako zirrikitu bat: izan ere, urte haietan Israelen juduak jo eta ke ari ziren hebreera hila berpizten, eta horrek, Mokoroak berak aitorturik, zer pentsa ematen zien.

Baina lagun baikorregiek bestelako iritziak izan arren, Mokoroak, aldiz, ez zuen pentsatzen, behin hizkuntza hilez gero, hiztegiak eta gramatikak hura berpizteko aski izango zirenik. Horiek hezurdura eta, agian, inguruko giharria eman ziezaioketen, baina, hala eta guztiz ere, ezingo ziotketen itzuli lehenagoko arima bizia, barru-barruko jeinu eta izpiritu joana. Horretarako, zer-

bait gehiago beharko zuen: herri-nortasun bereziaren ispilu diren esapide eta ateraldi jatorrak. Eta, erabat galdu baino lehen, horiek guztiok jaso beharra zegoela konturaturik, lan horretan buru-belarri murgildu zen, historiaren autobus iheskorra harrapatu nahian.

### **Mokoroa eta beste euskal idazle batzuk**

Bizitza gehiena eskolapioen ikastetxearen barruan eman arren, bazuen, horregatik, aita Justok harremanik bere garaiko beste idazle eta ikertzaileekin.

Esatera zahar bila zebilela, Mokoroak inoiz hitz bitxiak ere aurkitzen zituen, maiz Azkuek bere hiztegian bildu gabeak. Behin holakoen zerrenda luzetxo bat prestatu eta Euskaltzaindira joan zen, berba haiek Azkueri eskaintzeko asmoz, beronek bere hiztegiaren hurrengo edizioan erants zitzaizkion. Lankidetzaren desinteresatu honez gainera, ez dirudi euskalari erraldoi hauek elkarrekin harreman handia izan zutenik, lekeitiarra Bilbon egon zen bitartean, Tolosakoak luzaro atzerrian bizi behar izan zuen eta. Lotura estuagoak izan zituen, ordea, Lino Akesolo karmeldarrarekin eta Aita Zavala jesuitarekin, honen bertsozariak arloan egindako lanaren miresle handia zen eta.

Gabriel Arestik ere harremanak izan zituen J.M. Mokoroarekin. Elkarren arteko tratua, ordea, ez zen oso beroa. Gogoan izan behar dugu bien artean ideologia amildegi sakona zegoela: bata erlijiosoa eta kontserbadorea zen artean, bestea, aldiz, agnostiko eta ezkertiarra genuen eta. Euskararen etorkizunaz ere apostu bana eginga zuten gainera: tolosarra betiko herri-euskararen aldekoa; literatur euskara batuaren bultzatzailea genuen, aldiz, bilbotarra. Biak idazle, baina bide erabat aldentuetatik abiatuak.

Edonola ere, jakin beharra dago Gabriel Aresti biziki interesaturik ibili zela Mokoroaren lanetatik eta horretarako finantzabidea aurkitu ere bai. Aita Justok hori egokiro eskertuko zion bere *Ortik eta Emendik* liburuaren atarikoan.

### ***Ortik eta emendik***

Izen honekin argitaratu zuen aita Justok, azkenean, 1990. urtean, bere esalditegi ospetsua, haren bizitza osoaren emaitzarik landuen eta maiteena.

Gorago azaldu den kezka bultzaturik, denbora galdu gabe, euskal esaldien biltzaile sistematiakoari ekin zion gaztetandik Justo Mari Mokoroak. Job sailduarena baino pazientzia handiagoarekin, liburu-aldizkariak arakatu, entzundako elkarrizketa interesgarriak, gogoan izandako esaldi bitxiak eta antzeko materialak biltzen hasi zen, horretan kontu ezinezko orduak emanaz.

Bere bizitzan Mokoroak euskal hiztegitxo bat argitaratu zuen, haren apaltasunagatik anonimoa, eta badakigu *Diccionario Retana de Autoridades del Euskera*-n ere esku hartu zuela, baina hor izandako esperientziak ez zion askorik lagundu bestelako lan honetarako. Hiztegiek, alfabetoaren ordenari es-

ker, hitzak sailkatzeko era jakina dute, baina esalditegiak ezin daitezke alfabetoaren arabera ordena. Hortaz, urteak eman behar zituen Mokoroak bere esaldi-hiztegirako antolaketa egoki eta praktikoa aurkitu arte. Azkenean, A. Pinloche eta Ferdinand Brunot-en koadro eta aurkibideei esker, kategoria eta kontzeptuen arabera sailkatu ahal izan zituen bere obrako ia 100.000 esaerak, berrogeita hamar urte baino luzaroago hortik eta hemendik bilduak. Gogoan izan beharra dago, gainera, zeregin hori informatikaren oraingo tresnak eta baliabideak merkatura heldu baino lehenago egin behar izan zuela, lan mekaniko izugarria leporatuz.

Gogoan izan dezagun, adibidez, bere obra burutzeko, 385 liburu aztertu zituela eta badituela 1.266 pertsonaren lekukotasunak ere. Eta guztiak fitxetan eskuz jarri zituen. Lanari ekin baino lehen kontsulta asko eta harreman ugari izan zituen Espainiako espezialistekin, Casares edota Sabina de la Cruz-ekin, adibidez.

Zorionez, azken urteetan Labayru elkarteak eta Bizkaiko apezpikutegiak eskainiriko laguntzari esker, lehenagoko lana biziki erraztu zitzaion, mekano-grafiatzeko laguntzaileak, informatika-espezialistak etab. aldamenen izanik. Ordenatze eta zuzentze-lana, ordea, ez zuen inoren esku utzi nahi izan eta berberak gainbegiratu zuen guztia, azken xehetasuneraino, obrak guztira dituen 3.454 orrialdeetan zehar.

Lan hori Euskal Herrian inoiz agertu den liburu harrigarrienetakoa da, euskalki, mende, lanbide, egoera sozial eta giza sentimendu ororen ispilu, gure jendearen arima sakona bere ateraldietan islatuz. Hortxe ageri zaizkigu geure aurreko eta oraingo herritar askoren poz, haserre, neke, ilusio, etsipen, malizia, damu, osasun, aldarte, ironia, gose, egarri, nahi, gorroto, bekaitz eta eguneroko gorabehera asko adierazteko esaldi eder bezain baliotsuak, eta horiek, zer esanik ez, gaurko erdal giro maiz itogarritik urrunduta, aire freskoa biritetatzeko aukera ona eskaintzen digute. Zinez egiazko urregorri printzak darizkion iturria dugu obra hori, idazle, irakasle, ikasle eta euskal kulturaren sakondu nahi duten ororentzat zin-zinez gomendatzekoa. Esaera horietako asko eta asko, Mokoroaren aurrikuspenagatik izan ez balitz, dagoeneko betiko galdurik leudeke, berreskura ezineko espezie linguistiko gisa. Gure harekiko zorrrak, beraz, betiko iraunen du, ez baita erraldoi-lan hori behin ere ahantziko euskaldunok diraugin artean.

Norbaitek esan dezake Mokoroaren obra behialako euskal kultura joanari dagokiola, eta artzain, baserritar, arrantzale edota olagizonen esaldi-ateraldiek ez dutela gaurkotasanik asko infomatika eta ikus-entzunezko hedabideen garai honetan, hirugarren milaurtekoaren atarion.

Hori dioenak baina, seguraski ez luke inolako arazorik izango inguruko erdarez mintzatzean eta harira etorritz gero, era honetakoak esateko: *eso es harina de otro costal, arrimar el ascua a su sardina, ir por lana y volver trasquilado, sacar las castañas del fuego, a buenas horas mangas verdes, un gra-*

*no no hace granero pero ayuda al compañero, cabeza de turco, avoir une faim de loup, charbonnier est maître chez soi, revenir à nos moutons, le diable n'est pas aussi noir qu'on le dit, il n'y a pas un chat, edo propre comme un sou neuf, guztiok ere antzinako giro eta ohituren oihartzun garbiak izan arren. Zeren kultura, batez ere, iraganetik eta ingurutik helduriko tradizio propio eta atzerrikoen metaketa baita, horiek guztiok geureganatzen dakigun neurrian.*

Iraganeko oinarriek, gura zein gura ez, pisu handia dute oraina eta etorkizuna eraikitzeko orduan, eta haien presentzia, fosil itxuran bada ere, egunero agertzen zaigu setati eta iraunkor, maiz hartaz konturatzen ez garen arren. Hortxe ditugu, adibidez, espainierazko *jueves*, frantsesezko *jeudi*, ingelesezko *Thursday* eta euskarazko *ostegun* eta *ortzadarra*, gure antzinako asaba zaharrek duela bi mila urte gurtzen omen zuten Jupiter, Thor edo Urzi orain erdiahantzien lekuko estali gisa.

Bestalde, gaur euskaldun askok ardura berezia izaten dugu erdal eredu itxuraz unibertsal baina egiazki aski partikular batzuetatik aldentzeko, eta espainol-frantsesen mintzamolde arruntak euskaraz onartu aurretik ingeles eta alemanaren bahetik pasarazten ditugu. Mokoroak ez zigun prozedura hori inoiz predikatu, baina bistan dago berak ere horixe zuhurki praktikatu zuela, ez baitzuen alferrik hainbeste mintzaira arrotzen berri, beti euskal senaren fabore.

Horrek ez du esan nahi, noski, tradizioa kutxa mugatu eta itxia denik. Izan ere, usadioa egunero egiten baita, bizimodu eta ohitura berriak asimilatzean. Ez dezagun ahanz, kasu, orain zahar eta klasikotzat jotzen ditugunak beren denboran ere berri izan zirela, hots, antzinako tradizio guztiak noizbait hasiera izan dutela. Alde horretatik, atzoko, gaurko eta biharko komunikatzaileronek, idazle ezagunek eta plazagizon ospetsuek sortu, sortzen eta sortuko dituzten ateraldi xebreak metaturik geldituko zaizkigu, etengabeko lehiakidetzan, maiz berria zaharrari tokia kendu nahian, hizkuntza biziaren altxorra osatuz.

## Mokoroa eta politika

R. M. Azkue, Julio Urkixo edo oraintsu joan zaigun Luis Villasante euskaltzaleak bezala, Justo Mari Mokoroa ez zen inoiz politikazaleegia izan. Begi onez zekusan, hori bai, nazionalismoa, baina berotasun handirik gabe. Halere, Jose Antonio Agirre lehendakaria zinez miresten zuen, haren jokabide gizatiar eta kristauagatik. Gaztetandik, bere *Genio y Lengua*-n gogor kritikatu zuen hizkuntzari behar adinako garrantzirik ematen ez zion ideologia hori, eta, egia esan, Bizkaiko, eta batez ere, Bilboko abertzale tradizionalen kezken artean euskara ez zen nagusia. Txistua, herri-dantzak, pilota, txapela, abarkak, ikuirina, euskal deiturak eta axaleko beste ezaugarri batzuk inportanteagoak zi-

ren orduan gure hizkuntza bera baino. Seguraski horregatik Mokoroak ez zuen inoiz ohiko nazionalistengandik gauza handirik espero izan.

### **Aita Justo, Gurpide apezpikuagana**

Bada Mokoroaren bizitzan pasadizo interesgarri bezain ezezagun bat, Euskal Herrian Elizak izan zezakeen etorkizunaz zuen kezka nabariro erakusten duena. 1953.urtean Jon Mirande zuberotarrak "Gernika" aldizkarian *Euskaldungoaren etsaiak* izeneko saiotoxo bat idatzi zuen, Eliza Katolikoaren xedeaz. Obratxo horretan Mirandek kristautasuna, berez, erlijio arrotza zela zioen, kanpotarra, Euskal Herrira ekialdetik juduek ekarria, eta euskaldunoi askatzeko eta zoriontsu izateko bidea eskaini ordez, Espainia-Frantzietako eliz hierarkien azpian egoteko eta ilunik bizitzeko moldea besterik ez zekarrena. Horren ordez, behialako euskaldunen jainko-jainkosa zahar eta alaiak berreskuratu eta horiexek gurtzea proposatzen zuen, hots, Urtzi, Mari eta gure mitologia zaharreko irudimenezko beste pertsonaiak.

Antzinako euskal paganismoa berpizteko fantasia xeble horien artean, ordea, Elizari eginiko kritika hura neurri batez aski arrazoizkoa zen, garai hartako apezpikuak Francok berak aukeratzen zituela eta eliz buru askok euskarari egiten zioten mesprezioa gogoan izanda. Hortaz, orduko kristau agintariak frankismoaren politika zapaltzaileari eskainiriko onespene ageri bezain lotsagabe hartan Mokoroak euskaldun gazteriak fedea galtzeko bide arriskugarria zekusan. Hori zela eta, behin Pablo Gurpide, Bilboko Apezpikuarengana jo zuen, bere kezka azaltzeko asmoz. Horretarako, idatziz, Miranderen lantxoari buruzko iruzkina eraman zion, zuberotarraren lan hura, euskara errazagotan egin eta gazteen artean hedatuz gero zer nolako kalte izpiritual handia egin zezakeen azaltzeko. Bide berean, bere izkribuan Elizari Euskal Herriaren nor-tasanaz, kultura eta hizkuntzaz bereziki, gehiago arduratzeko erregutzen zion, euskaldun jendea erlijiotik urrundu baino lehen.

Ongi igarri zuen Mokoroak, igarri, zer zetorkeen. Gurpide frankistak proposamena eskuan hartu bai baina horregatik ez zion inolako kasurik egin. Urte batzuk geroago, 1968an, hirurogei apaizek Bizkaiko Seminarioan itxialdi sonatua egin zuten, protestan, Eliz agintariei Francorekiko jarrera hura alda zezaten eskatuz. Bilboko apezpikua, atsekabez nonbait, urte berean hil zen. Hurrezkeron, Mokoroak susmatu bezala, erlijio krisi handia hedatuko zen gure Herrian.

### **Mokoroa euskararen batasunaren aurrean**

Gauza jakina denez, aita Justo Marik ez zuen inoiz euskararen batasuna onartu. Eta arazoa ez zen hura "gaizki egina" zelako, hots, eredu estandarrik

euskalkien arteko oreka ondo lortua ez zuelako edo hautaturiko deklinabide edo aditz sistemari gaizki zeritzelako. Kontua bestelakoa zen, oinarri-oinarizkoa: haren iritzi, euskarak ez zuen batasunik behar.

Gaurko ikuspegitik pentsaezina litzateke euskarak irakaskuntzan, literatura, administrazioan eta hedabideetan lortu duen garapena, aurretik batasunik izan ez balu. Baina Mokoroa, autonomiaren lehen hamar urteak ezagutu arren ere, adinez, izaeraz eta pentsaeraz autonomia aurreko gizona genuen. Bere bizitza ia osoan ez zuen espainiera eta frantsesa besterik ezagutu ofizial Euskal Herrian. Berak, latinaz gainera, hizkuntza horietan jaso zuen, funtsean, zeukan kultura guztia, eta horregatik nekez burura zekiokoen euskarak inoiz horien tokia bete ahalko zuela amestea.

Hori dela eta, bere garaian ezagutu zuen errealitateak erakutsi zionez, kultura nagusirako, zientziarako eta zeregin ofizial guztietarako, euskaldunok jada bi hizkuntza landu eta batu horiek genituela ontzat emanda, eta horren aurka egitea alfer-lana zelakoan edo, euskarari beste leku bat utzi nahi zion; gelditzen zena, hain zuzen: bihotzekoa, senide eta lagun arteko txoko kuttuna, barru-barruko sentimendu ezkutuak adieraztekoa, afektibitate-habiatxo gisa, hots, oinarri-oinarizko giza harremanetarako hizkuntzari dagokiona. Eta maila horretarako, noski, aski zen tokian tokiko euskarari eustea, inolako batasunik egin gabe ere.

Belaunaldi berriek jarrera hori kritikatu zioten, Lizardiren bideari jarraikiz, euskara orotarako hizkuntza, edozer esan eta azaltzeko mintzaira izatea nahi eta behar zutelako, baserri giro apaeko iratze-usaina zerion euskara hura, ordura arteko maila apaletik lehenbailehen jaso eta kaleko mintzaira, hiritar, eskolako, unibertsitateko bihur zedin. Eta bere buruaren adierazle eta azaltzaile ere bai.

Ordudanik jende anitz aritu da egokitze-lan horretan, gure hizkuntza zeregin goragoetako egokitzen, eta ondorioak begien bistan ditugu gaur egun: testu eta literatur liburu ugari, aldizkariak, egunkaria, hiztegiak, entziklopediak, zientzi irakurgaiak, ordenagailu-programak etab. Mokoroaren garaian nekez sinestekoak.

Noski, orain inork ez du hori guztiori zalantzan uzten, baina, gaur egun badakusagu hori ez dela nahikoa, horrez gainera, Mokoroak azpimarraturiko arloa ere berreskuratu eta landu beharra daukagula: giza harremanetarako euskara, jolas-hizkuntza, maitasun eta sentimendu-hizkuntza. Eta hori ezin dezakete hiztegi arruntek, gramatikek edo zientzia liburu hotzek eman.

Aita Justoren kezka horren barruko arrazoi handia argi ikusten dugu gaur, eta luzaro zokoraturiko edo ahantzi xamar izandako arlo hori berriro bultzatu beharra planteatzen dugu orain guztiok. Eta hor, zer esanik ez, euskalkiek, herriko euskarak, etxekoak, ezin utzizko tokia dute hizkuntza mintzatuan.

Edonola ere, ez nuke nahi Mokoroaren apologista hutsa izan nahi. Beraz, zilegi bekit hemen haren lanari formazko kritikaxo bat bederen egitea, hari bizi zenean errespetu osoaz adierazi nion berbera. Argi baitago, euskara baturaren premia ukatzean, konturatu gabe Justo Mari kontraesan aski larrian erori zela. Horren frogarik nabarmenena bere esalditegian bertan aurki dezakegu. Bistan da goi mailako liburu horretako esaera bereziak euskara hobetu nahi zuten euskaldun landuei zuzenduak zirela, hots, euskara askotxo eta ongi dakiteneztat egin zuela bere obra. Halere, esaera horiek azaltzeko orduan, euskara baturik ezaz, erdara batuan eskaini behar izan zituen, paradoxaz, gure hizkuntzari, adierazgarritasunik handieneko arlo horretan inondik ere behar ez zuen erdal menpekotasuna pairaraziz.

Horrela, espainol batek *a perro flaco todo son pulgas* entzun edo esaten duenean, ez zaio burura etortzen, aldamenetik uxatu ezineko konpainiako dama gisa, hori frantsesezko *aux chevaux maigres vont les mouches* esaldia- ren adierakidea dela, frantsesak bere *houx, grenouille* edo *beurre* argitu edo definitzeko orduan euskarazko *gorostia, igela* edo *gurina* hitzetara jotzen ez duen bezalaxe. Hau da, erdalduna bere hizkuntzan buruaskia da, baina Mokoroak hautaturiko bideak euskaldunok, erdararen morroi egiten gaitu nahitaez, horixe besterik ez baita, azken finean (*sermolariak*) *neskatxak eta mutillak hartu ditu aboan* esaldiaren ondoan “ha sacado a relucir” edota *baten bati barruko gibelak estutu deutzazuz*-en argigarri, irakurle euskaldunari hori erdarazko “¡Qué bien le has puesto las peras al cuarto!” edo “¡qué bien le has metido en cintura!” dela azaltzea, gure erreferentzi hizkuntza nagusia, berriz ere, espainiera jarrita, euskara ongi jakiteko, antza, euskaldun guztiok, bai eta iparaldekoek ere, espainolez jakin behar bagenu bezala.

Ene ustez, kritika hau berak ere ongi ulertzen zuen, baina formulatu genionerako esalditegia aurreratuegia zeukan, eta horren arabera definizio guztiak aldatu behar izan balitu, segur da ez zukeela bere obra behin ere argitaratuko, eta hor ere, jakina, hobea onaren etsai. Gure artean, gainera, ez da hori kasu bakarra izan, lehenagoko kultur inertziak eraginda.

## Aita Justoren ikasleak

Haren ikasle izandako asko, behin eskolapioen ikastetxea utzi eta gero ere, sarri joaten gintzaizkion bisitan. Maiz solas egitearren, beste batzuetan hizkuntz arazoetan aholku bila, gure lehen euskal zirriborroak berrikus eta zuzen zitzan, eta inoiz gizarteko edo euskararen arazoren bati buruz mintzatze-ko ere bai. Beti ere, gramatika-gorabeheretan, literaturan eta fraseologia er- muan argitasunak, aholkuak eta iritzi oso interesgarriak eskaintzen zizkigun harengana jotzen genuen guztioi.

Izan ere, era guztietako ikasleak izan zituen, haietako batzuk aski ezagunak. Adibidez Gregorio Monreal, Euskal Herriko Unibertsitatearen lehen errektorea izandakoa, Juan Jose Pujana, Eusko Legebiltzarraren buru-ohia, Andolin Eguzkitza idazlea, Ramon Zallo, aurrekoa bezala EHUko irakaslea, Patox Unzueta kazetaria eta Adolfo Arejita idazle eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea, Segundo Oar-Arteta eta Labayruko beste kide batzuk ahanzi gabe.

Euskaldun berrioi buruz Mokoroak sentimendu kontrajarriak zeuzkala esan liteke. Alde batetik, noski, poza ematen zion bere ikasle izandako batzuk asaben hizkuntza galdua ikasten ari zirela ikusteak. Baina, bestetik, oso ezkorra izanik, euskara, benetako euskara jatorra, nahitaez amaren bularretik edoski behar zela uste zuen. Euskaldun askok txikitako euskara erabat galdu dutela eta beste anitzek ahoz eta lumaz erdaraz oso ongi -eta berbera dateke horren adibide bikainena- eta euskaraz baino hobeki egiten dutela ohartu gabe nonbait, berak ez zuen sinesten euskaldun berriak euskara behar bezala mintzatera inoiz hel zitezkeenik.

Iritzi hertsiegi horrekin, beharbada, euskal alorretik izpiritu ahuleko ikasleren bat uxatuko zuen, eta baten bati euskalduntzeko saiorik txikiena ez egiteko aitzakia ezin hobea eman ere bai, euskara ikasten jardutea alfer-lana eta ezin lortuzko helburua izango zelakoan. Baina beste askorengan, ordea, aita Justok erakusten zuen ezkortasun hura egiarrok erronka bihurtzen zen, eta dizipulu horiek ekinaren ekinaz ezina egingarri zitekeela frogatu nahi zioten maisu zahar egoskorriari, nolabaiteko paradoxa erabiliz, arrazoirik ez zuela konturatzean pozteko arrazoia behintzat izan zezan.

## Azken urtea

Esan liteke bere izpirituko haur kutunaren jaiotza ikusteko irrikak ia 90 urte arte mantendu zuela bizirik Mokoroa. *Ortik eta emendik* argitaratzeko, jo eta ke aritu behar izan zuen lanean, eta horrek, izugarri ahuldu zizkion zaharzaroko azken indarrak, argia emateko bere burua erretzen duen kandela piztuaren antzera. Bere liburuaren haurdunaldi neketsuaren zorioneko erditze pozgarriarekin, ordea, lasai gelditu zen, behin baino gehiagotan zeharo etsirik egona baitzen, bere bizitzako obra nagusia inoiz argitaraturik ikusiko ez zuen beldurrez.

Bititza luze bezain emankorra izan ondoren, 1990eko azaroaren 7an, Bilbon itzali zen, Deustuko San Sebastian doktorearen klinikan, bere 89 urteekin burua oraindik asmo eta xedez beterik zeukala. Hileta-mezan Juan Mari Uriarte apezpikuak Orixeren *Euskaldunak* poemako bertso batzuekin eskaini zion azken agurra.



## **GENIO Y LENGUA, euskal arima, ETA EUSKALDUNAK POEMA**

*Joxemari Aranalde*

Andra-gizonok, agur: Bilbo haundiari eta Bizkaia osoari zor diodan begirunez hasten naiz agur horrekin. Gustatu ere, berriz, asko egiten zait. Andrazkoaren lehentasuna gustagarri da beti. Eta egungo giroari dagokionez, berriz, ez dago zer esanik. Emakumearen mendea izan dela esan du norbaitek amaitzeaz dagoen hau. Nik, etorkizunekoa, halakoa izango dela esango nuke. Dena dela ira gana eta daitekeena daitekeela etorkizuna, nik gustora egiten dudala “andra-gizonok” agurra. Eta gainera, tokatu egiten zela gaur horrela egitea.

### **Egilea**

Serio-serio hasten dut nire berbaldi edo hitzaldi edo solasaldi hau, *Genio y lengua*ren egilea ere hala baitator. Serio, eta benetakotasun guztizkoz dator bihankako hau.

Eta nor dugun bera? Ez dakigu. Ez dago izen-deiturarik. Sasi-izen baten pean moztururik dator, eta nor den ez baina, zer den esaten digu bakarrik.

Hona: “IBAREk, abertzale ezezagunak, euskeraren egoerak larriturik dagoenak, hitza eskatzen du herriko plazan, bere ahotsa entzunerazteko”. Ez omen da izanen kalitatekoa haren hitza, baina “bai zina eta ordain bilaketarik gabe esana, eta komeniko omen entzutea, akaso”.

Horrelakoxe jendetasunez dator dena delako bi hankako hau. Ez dio inori hitzik kentzen. Txanda eskatzen du bakarrik. Eta ez du eskatzen bera izendun delako. Abertzale kezkatu bat izatea du bere titulu bakarra.

Bestalde. “Pizkundearen ontzian edozein bat besterik ez da bera, dehadar bat egitera datorrena denei, pilotu eta mariñel, nondik jo esateko, eta gero, beste guztiekin batera, boga-boga eginez jarraitzeko”.

Deiadarra bai, dio berak, “izan daiteke garraisi baten antzekoa, larritasun gehiegitzoz bezala egina”. Ez omen, ordea, harritzekoa hori. Izan ere, bueltarik gabeko ondamendi baten aurean, nola hartu neurria esanari eta ohiko moldeetan egin berba? Sendimenduek gainez dagitenean, zein da gauza hitzak beren arauetan errendiarazteko? Eta “zenbat eta garratzagoa mina, orduan eta zakarragoa garraisia”, dio gure Ibar-ek.

Zeini ez dio gogorarazten azken esaldi horrek harako Xalbadorren “Nigarra begian” kantaldi hura, hemen Ibar-ek darabilen gai berarekin ondua? Artzaina ere, behar bezala mintzatu ez balitz bezala, “barkamendu” eske hasten zaio entzuleari. Hona:

“O, entzule maite, otoi barkamendu,  
ez badut bozkarioz kantaldi hau ondu!  
Jostetako gogoia dautate ekendu,  
Aunitz Maite duenak aunitz sofritzen du”. (“O.M.”, 225)

Eta jakina, “zenbat eta garratzagoa mina, orduan eta zakarragoa garraisia”. Artzainari eta gure euskaltzale ezezagunari sentimendu bertsuek sortarazten dizkie euskararen egoerak.

Eta herriko plazara hitz-eske datorren gure abertzalea ere, artzaina bezalaxe, jakinaren gainean da “delikatua” duela suieta. Alde batean zabarrak eta euskarari eskerrik ematen ez diotenak daude, eta ia-ia kaltegarri ere badela uste dutenak gure hizkuntza xahar hau, munduan luzitzeko. Hauek, arazoa aitatu hutsarekin, muturra jarriko diotela badaki. Bestaldean, berriz, nolahalakoa zaletasuna erakusten dutenak eta euskararekin pikarriak egiten ari direnak dauzka. Hauek ere min ditzake beren hutsak nabarmentzean. Beraz, bi aldeetatik sor lekiokela sua badaki. Ez dator, beraz, txoro-txoroan herriko plaza-  
ra, luzimendu eta txalo bila bezala. Ongi badaki non sartzen den.

Hala ere, eragozpenak eragozpen eta nozitu beharrak nozitu behar, “garbi hitzegitearen beharra” hotsegiten du, hori omen da-eta “salus populi”, “herriaren osasuna”, nahiz eta norberak nozitu behar izan bere gandorrean. Egia-  
ren saria bakarrik nahi du beretzat. Hau da, askatasuna. Ebanjelioaren hura du bere lema: “Egiak egingo zaituzte aske”.

Ikus, bada, nolako zintasunez eta nolako asmoz datorren bere moztorrean gorderik gure tolosar fina. Bai, Ibar, jaun bat dugu eta Gipuzkoako Tolosako semea, fraile eskolapioa eta apaiza, Justo Mari Mokoroa eta Mujika izen-deituraz. Tolosakoa izanda, abizen ospetsuagorik nekez izan zezakeen gure Ibar jaunak.

Euskaltzale zina eta fina izana dugu bere bizitzan Justo Mari Mokoroa jauna. Eta besteak beste, hor dago lekuko bere *ORTIK ETA EMENDIK* obra itzela, gaitza, bere bizitzan zehar bildutako esamoldeen bilduma ikaragarria. Larogeita hamar milatik gora baditu, ni oso ahaztua ez banago. Bada zerbait.

Eta guk eskuartean dugun *GENIO Y LENGUA* hau ere harena da, guztiok dakizuten bezala. Ikusia dugu nolako asmoz datorkigun egilea, eta ikus dezagun orain zer dakarkigun.

### Gariarekin aurrez-aurre

Esan dugun bezala –eta zuentzat ez zegoen esan beharrik ere–, euskararen egoera du gai Ibar jaunak “Genio y lengua” liburuan. Ikus nola plantatzen den gaiaren aurrean. Baieztapen bikoitz honetatik hasten da: “Euskararen erabilera gero eta murriztagoa. Literaturgintzaren beherakada”. Hori da Ibar jaunak 1.935ean ikusten duen egoera. Gero eta gutxiago hitzegiten dela eta gero eta gutxiago idazten ere.

Hori aitortu eta gero, ohar honekin dator: “Bi gertakizun mingarri horiek, Hego-Euskalerriri dagokionez dira egin guztizkoak”. Beraz, bestela ere bereziak dauden Iparra eta Hegoa, euskara kontuan ere berezita ikusten ditu gure Ibar Jaunak. Eta nola bereziak gainera! Gero ageriko.

Gero eta gutxiago hitzegin, gero eta gutxiago idatzi. Horra gertakizun bikoitza. Eta bi gauza horiek elkarri lotuak egon, berriz, Ibar-en esanetan. Eta nola lotuak! Entzun gure tolosarrarena: “bizi nahi duen hizkuntza bat, beste hizkuntzen pareko literaturarik gabe, galdua da nahitaez”.

Jendeak hitzegin dezan, berriz, ez omen da aski esatea, eta eskatzea, eta agintzea. Ikusia omen dago hori. Hor omen dabil herria mitinetatik mitinetara, eta neurri batean erakusten omen du interesa hizkuntzarentzat; baina erabilera gero eta urriagoa omen da. Metodo horiek ez omen dute balio.

Benetan “euskalduntzea”, “herritzea” omen da, “heziketarazo berezi bat” omen, geroago luze eta zabal adieraziko zaigunez. Pertsonaren barnean eske bat sortarazi behar da Ibar-en iritiz, euskararen erabilera segurtatuko bada.

Idatzitari dagokionez, berriz, ez dago konforme Aitzol jaunarekin. Beste tolosar honek, noski, zera omen dio: “irakurle-eskasia omen dela literaturaren eskasiaren kausa eta euskal publikoaren hoztasun glaziarra”. Egia omen da, bai, Aitzolen esanetan, zenbait idazlek ere baduela errua irakurlearen atzera egite horretan, “euskara sujetibista eta norberaren modurakoegia” erabiltzeagatik. Gainera, Aitzolek dioenez berriz ere, “gure literaturaren zati haundi bat artifizialegia omen da... berezkotasun gutxikoa, bizitasunik eta guritasunik gabea”.

Azken honetatik hasi behar zuela esaten dio Ibar jaunak bere herrikideari. Literaturaren akatsetatik hasi behar zuela, horren ondorio delako publikoaren hoztasuna eta irakurlearen urritasuna, eta ez urritasun hau literaturaren eskasiaren kausa.

Eta akats horiek salatu ondoren, galdera bikoitz honekin uzten gaitu: ikusia ikusita, ez ote daiteke esan, edo baliapide eskasak erabili ditugula, edo ez dugula jo bide zuzenetik?

Eta arazoaren planteamendu hau, ohar garrantzitsu batekin bukatzen du 16-17. orrialdeetan: “Ez omen duela, alegia, naziotasun baten izenean –nahiz hori bidezkoa izan– defendatzen euskara salbatu beharra, zibilizazio bikain baten izenean baizik, euskara baita zibilizazio horren hodi, eta eragile, egiazko balioen gailur eta jasotasun baten ikur den zibilizazio bat”. Hona beraren hitzak: “(El euskara es) vehículo e instrumento de una “civilización” excelsa; cúspide de genuinos valores; signo de elevación”.

Balio horiei eutsi beharrez defendatzen du gure Ibar jaunak euskara, eta “euskal arima desitxura eta degenera ez dadin”. Horra Ibar jaunaren pentsamendua.

### Hizkuntzaren balioa

Esan digu zergatik eta zertarako defendatzen duen euskara gure idazleak. Berriro esango digu hurren kapituluan, 23. orrialdean, “patriota-moralistari –horrela definitzen du bere burua– ez zaizkiola interesatzen euskal herriaren ezaugarriak, euskaldunak direlako. Apartekoak eta eredugarriak direlako interesatzen zaizkiola, eta horiek ordezkatzera datozenen aldean askoz goragokoa direlako, eta edozein aldaketarekin galduan aterako gainatekeela ikusten duela”.

Euskal jeinuak edo arimak sortu duen zibilizazio hori horrelako dohainez josia ikusten du, eta orain jakinarazi nahi digu, hizkuntzak zer harreman duen balio paregabe horiekin, edo euskal jeinuarekin.

Zientifikoki, edo zehaztasunez hartuta, “ez omen dira gauza bera hizkuntza eta ‘herri baten arima’”. Beraz, beroarena kendu beharra omen legoke bi gauza horiek berdin egiten dituenari; baina ez omen gehiegikeria handia biak berdin egite hori.

Izan ere, linguistikaren esanetan eta Saussure jaunaren hitzetan, “jeinu kolektiboaren fruitua” omen da hizkuntza; baina hau ere haren eragile da, eta moldatzaile, eta gordailu. Biek egiten dute, beraz, elkar: jeinuak hizkuntza eta hizkuntzak jeinua. (Zuluaga jaunak ere hori zioen atzo).

Zer izen eman diote geziarrek? Idioma, hots, “norberarenena eta norberrezkoena”. Herri-jeinuaren pentsamena eta sentimena hizkuntzak erakusten ditu, eta eraikitzen eta hornitzen. Haatik esan ahal izan omen zuen Sevillako magistral Gurbindo deituak, “hizkuntza kanbiatzen duen herria, degeneratu egiten dela”. Jeinuaren moldatzaile den hizkuntza galtzean, beraz, jeinua bera ere galdu egiten da.

Ondorioz, ez gaitzke harri entzutean hizkuntzaz aldatu den elkarte horri jokabideak ere aldatu egin zaizkiola, eta txarrera aldatu zaizkiola. Oraingoan Iruñeko apezpiku den Lopez Mendoza jaunaren hitz batzuk hartzen ditu, esan duenaren alde, Artura Campion zenak eta A. Intza zenak entzundako hitzak eta *Doneztebeko Euskal Egunak* liburuan jasoak. Haren esanetan, elizbarruti hartako zenbait lekutako hoztasuna elizako gauzetarako eta zabarkeria ohiturretan, euskara galdu zutelako omen ziren. Horra hitzak, euskararentzat inolako atxikimendurik ez zuen jaun batek esanak, euskaraduna ere ez zen jaun batek esanak, Ibar jaunak azpimarratzen duen bezala.

Ikus, beraz, zeinen estuki lotuak dauden euskara eta euskal jeinua. Hizkuntzaren galerek, jeinuaren galera adierazten dute; jeinuaren galera, zibilizazioarena, zibilizazio bikain batena, ordezkatzera datozkeen zibilizazioak baino askoz hobe baten galera. Hori hondamendia!

Nola ez larritu eta kezkatu gure “abertzale moralista” –horrela bataiatu digu berak bere burua– neurri horretako egoera galgarri batekin? Haatik irixiko da ondorio honetara: “Euskaradun garen neurrian gara euskaldun”. Hona beraren hitzak: “tanto tenemos de vascos cuanto tenemos de euskaldunes”.

Euskara galduz gero ez dago euskal jeinurik eta ez dago euskal zibilizatorik. Eta nik erantsiko nioke, Ibar bera gidari dudala, ez dagoela zer salbatu ere “abertzale-moralista” batentzat. Baina Ibar jaunak salbatu nahi du zibilizazio hori, eta logika horren barnean bidezkoa den galdera hau egiten du: “Zer egin euskarari bizirik eusteko?”

### **Bada arazorik eta ozporik**

Mila modutako eragozpenak dauka gure hizkuntzak eta beraren iturburu den “euskal-arimak”, edo Orixek esango lukeen bezala, gure “erritasunak”.

Itsua berak ikus dezakeen zerbaitetatik hasten da gure Ibar jauna. Euskarari mugak hersten ari zaizkio. Batez ere Araba eta Nafarroa behatzen ditu gure tolosar honek. Ordutsu arte euskaldun izandako zenbait herri, guztiz erdaldunduak daude. Sailak, beraz, gero eta urriagoak gure hizkuntzak.

Hala ere ez da hori okerreana gure tolosararentzat. Bada gaitz txarrogorik. Zeinek ez du ikusten, esate baterako, guraso eta seme-alaben artean dagoen aldea euskararen erabileran? Zenbat soildu den hizkuntza batzuetatik besteetara! Hiztegian alde handia dago, eta espresabideetan askoz handiagoa.

Hemen, “Genio y lengua” honetan, ageri da idatzia lehenengo aldiz, euskal hiztunon “itzultzaile” izaera hori. Horrek erakusten omen du ederki, zein den gure lehenengo hizkuntza eta zein bigarrena. Horrek duen arriskuarekin,

noski! Laister galduko omen da horrelakoaren ezpainenatik, bortxaz bezala ateratzen zaion hizketa hori. Gogorra da Ibarrek ateratzen duen ondorioa, eta kezagarria guztiz.

Eta industriak sortarazi duen arazoa ere hor dago. Batetik herri txiki euskaldunenetatik hiztunak lapurtzen eta erdal giroan sarrarazten, eta bestetik hiztun erdaldunak ekartzen hona.

Bestalde, eskolan eta unibertsitatean eta komunikabidetan lekurik ez euskararentzat. Hor dago hori ere. Ez nolana hiko arazoa!

Hala ere, etsairik haundiena, “kultura” edo “zibilizazio” arrotza da ibarrentzat. Gainera, “kultura arrotz” hori “aurrerapenaren berrikuntzekin” baitator. Eta horretan bai ez dagoela erdibiderik: edo hartzen ditu eta euskaldunurik erabiltzen aurrerapenaren tresnak gure herriak, edo beroriek jango digute gure naziotasunaren esentzia, eguzkiak behelainoa bezala.

Eta arrotzasunaren edo arrozkeriaren arrisku horretan bada elementu bat bortizki salatzen duena behin eta berriz, eta berriz. Nik, hitz bakar batez, dibertsioa esango dut; eta hark, batez ere, bi hitz hauekin adierazten du: “baile y canto exótico”, dantza eta kanta arrotzak. “Mota kosmopolitak” deitzen ditu beste nonbait. Entzun gure Ibar jaunaren erretolika: (bere horretan irakurriko ditut, besteak beste, iparretarrok, guk zuena (edo nik zuena) ez bezala, ederki ezagutzen baituzue gure erdara) “son éstos los dos disolventes más energicos y temibles de la nacionalidad vasca; el uno como elemento de degradación, el otro como agente de deseducación” (57 or.). Eta dantza degradatzaile hori plazan egiten baita, hala dio: “de lo que no hay noticia en nuestra historia es de que la dignidad “social” se hubiera jamás degradado hasta el extremo de otorgar al vicio derechos ciudadanos, tolerándolo en la plaza pública, con disfraces ni sin ellos” (58 or.). Oraingoan musikarekin sartzen da. Aditzen ditu epe-lak. Entzun: “Avance consiguiente (dantzarekin datorrenak, alegia) de la música de importación, sensual y arrabalera, embrutecedora y vil” (60 or.). Eta guzti horrekin batera, “El exhibicionismo femenino, que la complicidad del otro sexo amenaza convertir en plaga social; libertad irrefrenada e incontrolada de las promiscuidades juveniles; “flirt”, pasatiempo...” (159 or.). Buka dezadan beste parrafo eder honekin: “Vascos cristianos que proclaman no querer ser otra cosa más que tales..., pero que hollando el evangelio y la vasquía, reservan la “danza” (azpimarratua) para el espectáculo, la ceremonia y el rito, y adoptan el baile (azpimarratua) para el uso y la expansión” (86 or.).

Horiek dira, horiek, esanak eta esateko manierak! Ezagutzen genituen guk, baina ahaztuxeak neuzkan nik. Ahazteko hobeak ez al dirudite?

Badu, beraz, entzule, gure “euskal zibilizaio” bikainak eta gure hizkuntzak arazorik eta erasorik.

## Oker haundiak

*Genio y lengua* liburuan salaketa asko da. Ez dezagun ahaztu, herriko plazara hitz-eske datorrean, ez datorrela txalo bila gure Ibar, ezta ere bere burua erakustera. Egia esatera dator, kosta ala kosta, egia omen dugu-eta askatasuna ekarriko diguna. Horregatik edo, salaketa asko eta haundiak egiten ditu. Entzun berria dugu bat. Orain datorrena da beste bat, eta ez goxoena.

“Literatura gintzaren aldrebeskeriak” izan zezekeen izenburu salaketa honen. Hegoaldearentzat da bakarrik. Iparraldeak ez du horretan ogenik. Aldez-beste, eredugarria da Bidasoaz bestaldekoen ihardun literarioa.

Eta, hain zuzen, bere salaketa, Larramendi eta Axular konparatuz hasten du, eta zabaltzen. Nola da posible, galdetzen du gainera, iparraldekoek ordurako mende osoan literatura gintzan ihardutea eta hegoaldekoek haieri ez segitzea eta haien bide beretik ez joaten? Nolaz ez zuten aintzat hartu Axular eta nolaz nahasi ziren Larramendiren apologetikakerietan?

Ez daki ibar jaunak, euskalkien ezberdintasunarengatik zen eten hori, ala beste zerbaitengatik zen. Hark dakiena da, hegoaldekoek ez zutela iparraldekoak segitzen jakin, eta Ibarren esanetan, ez zutela asmatu literatura gintzan, eta lehenaz gainera, “larriagotu egin zutela euskararen egoera”. Haren hitzekin esanda “ha contribuido a apurar el trance del euskera” literatura gintza horrek.

Hasteko, denbora alperrik galdu omen dugu, inolako interesik ez zuten obrak euskaraz emanez, dela filosofiazkoak, dela literaturazkoak. Gu ere bagarela besteak adina erakusteko eginak bezala omen dirudite. Eta bitartean herria bere gustokorik ezer gabe.

Hurrena berriz, hizkuntza berri moduko bat egin nahi izan omen dugu, herriak berak egin zekana arbuaiatuz eta gutxietsiz bezala. Eta herriak idazlea arbuaiatu omen du.

Eta zoioneko, edo zoritxarreko, bereizi beharraren bereizi beharrez, berriz, noelogismo-minak joak gauzka. Larramendi buru dugula. Eta inork uler ez zitzakeen gauzak eskaini dizkiogu herriari.

Larramendiren *Diccionario Trilingüe* omen da, guk euskararekin egin ditugun aldrebeskeria guztien eredugarri edo muestra. Eta Axularren *Guero* da egin behar zenaren eredu, eta iparraldean egin denaren erekusgarri. *Euskalduna* aldizkariari egiten dizkio sekulako goralmenak. Hark omen daki herriaren hizkuntza hitzegiten, eta herriarentzat interesa duten eta balio duten edukinak eskaintzan. Horrela ikusten omen da nolako eragina duen herriarengan eta zertaraino bat eginik dauden aldizkaria eta herria.

Beraz, iparraldekoentzat, hegoaldekoentzat kritika eta egur hainbat laudoriorekin dator Ibar jauna *Genio y lengua* liburuan.

Eta zer egin orain? Nola biziagotu erazi, literaturagintzak berak egoera larriagoan utzi duen euskara? “Soluziora bidean” ematen dio izena sail honi gure tolosar argi eta zorrotzak.

## Soluziora bidean

Lehen-lehenik jakin bedi, hil edo biziko auzi bat dela eskuartean daukaguna. “Izan edo ez izan” dela arazoa, Ibarren hitzekin esateko. Eta auzia astuna den bezain sendoa eta serioa eta sakona behar duela izan aterabideak. Heziketa on baten lanaren fruitua izango da “euskal arimaren” berreskuratzea eta euskaltasun egiazko bat finkatzea.

Heziketa horrek erakutsi behar dio euskaldunari, bera ez dela den hori, irudi edo itxura jakin bat duelako, lur jakin batean bizi delako, edo bere abizenak honelakoak edo horrelakoak dituelako. Euskaldun dela jakin behar du, mundu ikuskera eta sentiera berezi batzuk dituelako eta horien araberako izate modu bat duelako. Heziketa jakin baten fruitua dela bere izateko modua, eta ez beste ezerena. Eta euskaldun izateko modu horren adierazpen bere hizkuntza duela euskaldunak.

Bere izakera hori sendotzean, inolako ahalegin berezirik gabe, “iguin bat” sortuko zaio arrotz zaion guztiarentzat. Iguin bat, lehen salatu dituen dantza eta kanta eta dibertsio klase horientzat guztientzat.

Era berean erakutsi behar zaio, modako topikoak, horixe besterik ez direla: topikoak. Esate baterako, jakin behar du zibilizazioa letren alfabetotik” datorrelako ipuin hori zozokeria bat dela. Ez dagoela munduan eskolarik eta unibertsitatearik eta inolako irakaskuntzarik, Agirreren *Garoa* eleberriko Joanes jauna sortarazteko gai denik. Gizatasun hori, etxearen eta herriaren eta “euskal arimaren” fruitua dela.

Horretaz guztiaz jabetzen denean, sergurtatua da “euskal arimaren” fruitua den pertsona. Orduan ez dago arrotzasunaren arriskurik. Delako euskaldun hori, bere dohainen garapenez egin den norbait baita, eta bere buruari uko egin ez diezaiokeen norbait. Hitz batean, hori euskalduna da, bai izatez eta bai gogo-bihotzez.

Eta bere indentitate-aurkikuntza horretan ikusiko du euskara dela abere nortasunaren ezaugarriarik apartekoena, bai bere buruarekiko, bai besteekiko. Hor agertzen direla euskaldunaren pentsatzeko eta senditzeko manierak, eta hor erakusten duela bere jainua euskaldunak, bere izakera, beste inon ez bezala.

Hala ere, ez da bakarrik hizkuntza gure “herri-krisi”tik ateratzen lagun gaitzakeena. “Euskal arima”ren adierazpide, ez da bakarrik hizkuntza. Hor dago kantua, hor dago dantza, hor dago kirola, eta hor gure beste hainbat ohi-tura.



Horiek ere lagun gaitzakete esnatzen eta geuren buruak euskaldun eza gutzen, harako Lizarrako aitona hark bezala.

Hamasei urterekin atera omen zen Yerri eskualdeko herri ttipi batetik. Aurrena Andaluzian ibili omen zen. Gero Ameriketara joan, eta han Argentinan eta Txilen egin omen zituen urteak.

Bere zahartzaroan, herrira etorrita, Lizarran dago Gipuzkoako dantzen emanaldi batean. Ez zituen inoiz ikusiak dantzak; baina zerbait berezia aurkitu zien, nonbait, eta hala esaten omen zuen: “Yo no sé lo que es, pero siento aquí dentro –bi eskuak petxu gainean jarri– algo misterioso que me dice que eso es mío”.

Aiton hura bezalaxe, beste asko ere esna daitezke euskal gauzen artean, dela dantza, dela kanta,... Haatik esango du gure baliabide guztiak jarri behar ditugula martxan, euskal gauzez inguratua sendi dadin jendea eta haren euskaltasuna horni dadin eta “euskal arimaren” argiz argi dadin. Lehendik konszienteki euskaldun zirenak, gero eta euskaldunago izango dira, eta inkonszienteki zirenak, berriz, konszienteki izaten hasiko, esan zaigun aitona hura bezala, eta euskal gauzentzat “esto es mío” esango dute.

Baina, nahiz eta beste gauza asko ere “euskal jeinuaren” fruitu izan, hizkuntza lehenetsua duena. Eta hori indartzen egin behar dira eginahalak eta bi. Hor bai sartu behar dutela erakunde guztiek, herriarenek eta pribatuek, eta hor bai xahutu behar ditugula baliabide guztiak. Ez dugu ahaztu behar nola esan digun lehen “euskaradun garen heinean garelako euskaldun”. Beraz herriaren heziketaren fruitua, euskararen berreskurapena behar du izan.

Ez, ordea, nolana egin! Eta honetan bai kupirarik gabe jotzen duela, berreuskalduntze lan horretan nolahalari den edonor. Lehen nola salatu digula literatura arrotz bat egin izanaren errua? Berdin salatzen du, heziketa lan horretan zinezko gaitasunik gabe sar daitekeen guztia.

Eta nor ez da gai heziketa lan horretarako? Guztizko euskal munduan hazia eta hezia izan ez dena. Ez du balio unibertsitateko titulua izateak. Ez du balio asko jakiteak. Izan egin behar da euskaldun guztiz, lan hori ongi egin nahi bada.

Hona nolako jarreran nahi dituen lan hori egin nahi dutenak: “Zentruak dio, euskal arima (giro euskalduna) dagoen lekura, ikasle apal gisan hurbildu behar duela, ez maisu gisan; ez arauak ematera, lezioak hartzera baizik; ez baitago erdal gaitzak jotako euskaldunik, euskaldun puru batengan zer ikusi eta zer ikasi haundia ez daukanik, zein-eta xumea dirudien euskaldun horrek” (192 C or.).

Beraz, lehenik ikasle izatea eskatzen zaio, gero irakasle izan nahi duen guztiari.

Baina... Baina... ez ote luzeegi joko prestaketa horrek? Beharko litzatekeenaren bila gabiltzan bitartean, ez ote dugu galduko daukaguna? Ez al lebiguke gerta espainolezko esaerak dioen hura, hau da, “lo mejor enemigo de lo bueno”, hots, guztia lortu nahiz guztia galtzea? Hona haren hitzetan agertua zalantza: “¿No serán demasiado lentos e inciertos los métodos de observación que importa a su vez ese estudio preliminar? Y ¿no resulta, entonces, más teórico que práctico el remedio?” (193 or.).

Horra hor duda. Horra zalantza. Horra, soluzio uste zena, oztopo gaindiezin gerta daitekeen beldurra.

Baina ez. Ez dago beldurrik. Ez dago zalantzarik. Bada zerbait denak uxatzen dituen eta “Genio y lengua” liburuan proposatzen den soluzioa berekin dakarrena.

Hona Ibar jaunaren aurkikuntza eta hona korapiloa askatua. Entzun: “Un acontecimiento de estos días, llamado a adquirir celebridad histórica, previene felizmente la objeción, y conforta nuestro patriotismo con el socorro más valioso y oportuno.

En efecto. Por disposición providencial de Dios ha surgido entre nosotros un hombre extraordinario, de temperamento, sensibilidad e inspiración geniales; el cual, de la abundancia de su propia vida, pletóricamente vasca, acaba de *plasmear la figura viva de nuestro genio* en una epopeya folklórica imperecedera. El ha acertado a *reunir y articular en un sistema ideal de armonía y esplendor las piezas orgánicas dispersas de la civilización vasca*.

Su esfuerzo llega, pues, a tiempo para salvar nuestra empresa renacentista, encarrilándola por la ruta verdadera.

Lo decimos con toda la convicción y lealtad que hasta ahora hemos puesto en el diagnóstico de nuestros males; con igual independencia de juicio y el mismo espíritu levantado: *En el poema Euskaldunak de “Orixe” tiene ya el pueblo vasco el instrumento virtual de su regeneración*” (193-94 or.) (Azpimarra guztiak autorearenak dira).

Gure Ibar zehatza, zorrotza, zuzena eta “nada propicio a la exaltación romántica o al mesianismo en este orden de cosas” (195 or.) horrela hitz egiten entzun eta, zein ez du harrimen izugarri batek hartzen? Sarrera honetan darabilen berotasun bera darabil ondorengo 37 orrialdeetan. Eta batere puztuzale ez den tolosar honek hala segiko dio orrialdez orrialde: –Zinezko herri baten izaera ematen zaigu *Euskaldunak* poema. Geurok ikusi ditugula esango genuke horko jendeak, eta ezagutzen ditugula horien ibilerak, iharduna, izateko eta bizitzeko erak, hitz batean, horien izaera. Jendetza hori guztia, erreala da, horrelakoa da, euskalduna da. Euskalduna da kiroletan, euskalduna elizan, euskalduna bere bizitzan eta heriotzean, beti osorik, beti natural, beti bere-berean.

– Zeinen ederra herri horrek sortu duen eta Orixek poeman sartu duen dantzazko eta kantuzko eta bertsozko folklore aberts hori!

– Zeinen eder herri horrek bere lanetan eta jolasetan eta apustueta dabilzkien ipuin eta ateraldi eta erran eta ohitura guztiak! Hori kultura, hori herri-jakintza, hori aberastasuna kulturala!

– Eta guzti hori estetikarik euskaldunenaz emana. Euskaldun da axalez eta mamiz. Gure herriak sortu duen literaturaren arabera egina da Orixeren poema *Euskaldunak*.

Horregatik. “En él se engolfará, seguramente, con avidez, todo aquel que posea el euskera desde el regazo materno” (227 or.).

Baina ez horiek bakarrik. “Arrazako seme galduak ere beuren xaltzan aurkituko dira hor” (227 or.).

Poema honek “jendeen buru-bihotzak errestan bereganatuko ditu. Izan ere, ez da euskaldun bakar bat ere izango, irakurtzean, haren estetik gustatuko ez zaionik, eta gurea bezalakoa ez den literatura itxurazkorik, gezurrezko-rik, eta zentzugaberik arbuaiatuko ez duenik” (228 or.).

Eta honela bukatzen du: “Batere hartara jarri gabe, gure *Genio y lengua* entsegu txiki hau, poema honen garapen bat (desarrollo) besterik ez da izan” (229 or.).

Beraz guztiz egia da Ibar jaunaren ustetan, Orixek poemako lehenengo bertsoan dioen hura: “Herri baten arnasa mamitu dezadan”. Egia bihurtu da asmoa. Horra hor “mamitua” “euskal arimaren” fruitua den euskal izaera. Horra filma egina. Hor dauka euskaldunak bere ispilua edo miraila, zer den eta zer izan behar duen ikusteko eta ikasteko.

Atzo *Egunkaria* egunkaritik dei egin zidatenean, eta alde-aldera hitz gutxitan zuei askotan –akaso gehiegitan– esan dizuedana esan nienean, hala galdegin zidaten: Zu konforme al zaude Ibar jaunaren aburuarekin?

Euskaldunak –esan nien– ez nekiela gure euskal-heziketarako tresna gustozkoa zenentz. Hor agertzen zen herria, akaso, euskal-erri jakin bat zela, eta ez guztia. Baina bestela, *Euskaldunak* poemaren estetikarekin, eta haren balio literarioekin, eta zinezko herri baten ispilu dela esatearekin, eta bat eta beste, guztiz konforme nengoela Ibar jaunarekin”. Eta hori da nere egia.

Orain, haieri esan ez nien zerbait esan behar dizuet zueri. Har ezazue, nahi baduzue, Euskaltzaindiaren *Euskera* argitalpena, 44. liburukia, eta 613. orrialdean, honako hau irakurriko duzue: “Hitz batean, gizaki batena izatea beste mugarik ez du poema honek ederrean. Hobea izateko, jainko batena beharko zuen izan”. (*Euskaldunak* poemaren sortaroa eta haren ikuspegi orokorra”) Horra nik diodan miresmena *Euskaldunak* poemari.

Orain dela 46 urte juxtu-juxtu gertatua kontatuko dizuet. Azaroan iritxi zen Orixe Euskal-Herrira. Nik abenduaren 7an ikusi nuen. Garai haietan apaizgaiok geure herrietara etortzen ginen gure sotana eta beka eta guzti, abenduaren 8an seminariorako eske berezi bat egitera. Bezperatik etorri ohi ginen eta nik urte horretako zazpian ikusi eta agurtu nuen lehenengo aldiz Tolosan, haren arrebaren dendan. Arratsalde hura eta hurrengo eguna elkarrekin pasatu genituen gure beserrian. Ameriketatik etorri eta aurrena bisitatu zuen familia, ahaideen artean, gurea izan zen.

Abenduaren 9an seminarioan nintzen berriz. Zai-zai nituen lagunak, zer berri ematen ote nien Orixerenik entzuteko. Begiak itxita begiratuko nuke elkartu ginen lekua eta nola jarrita egon ginen ere zehazki esango nuke, haiek entzuten eta ni hitzegiten.

Nire berotasuna eta nire entusiasmoa haundiegiak iruditu zitzaizkien, nonbait, dena egia izateko, eta hala esan zuen norbaitek: "Osaba delako hitzeginen duk hik horrela". Hartan bukatu zen hangoa.

Handik hilabetera leku berean gaude, eta lagun berak. Oraingoan ni entzule naiz. Berriemaile Imanol Aldaregia da, oraintsu Donostiako Elizbarrutiko bikariotza utzi duen jauna. Gabonetan izan du Orixerekin egoteko aukera. Gure idazlea Lazkaoko beneditarretan da, eta hango Abata, Imanolen osaba Mauro Elizando da; eta bere osaba hau bixitatzera joan denean izan du egokiera Orixerekin egoteko.

Zer dio seminariora itzultzean eta gure koadrilari berri ematean? Hauxe hitzez-hitz: "Hik esaten huana baino askoz gehiago duk". Nik esaten nuena baino gehiago zen, beraz, hark ikusi zuena.

Badut lagun bat, betikoa eta guztizkoa, neri Tainkoak nolana erantsi izan dizkidana. Aldi batean, nik bi jainko nituela esaten zuen: Jainko jainkoa eta Orixe.

Handik laister hirugarren bat erantsi zidan: Xalbador. Nik batari eta besteari nien mirespenarengatik esaten zuen hori.

Aspaldian ez dit berritu jainko kontu hori; baina halakoren batean esan behar diot "Hi, zer edo zer izango hituan hik jainkotzat erantsi hizkidaan haiek. Mirakuluak egiten hasiak dituk. Hor zebilek Bizkaiko Xabier Amuriza miresgarria "Xalbadorren bapateko mirakulua" kontatzen eta kantatzen. Zerbait izango duk".

Baina orain kantatzen da Xalbadorren mirakulua. Ez 67an xixtuak jo zitzaizkionean. Haiek orduan txapelik ez zioten eman.

Nik 60. urtetik kontatzen dut Xalbadorren mirakulua. Edozeini eta edozeinen aurrean erakutsiko nuke gaur ere, nolako aldrebeskeria egin zen urte hartako txapelketan ere Xalbadorrekin.

Ez, ez nau eraman Orixe mirestera odolak. Odolak eraman ez ninduen bezala Xalbador mirestera duela 40 urte, eta duela 20 Xabier Amuriza mirestera, jaun honen inguruan alde-aldeko zenbait kontu entzuten zen garai haieran. Neroni ere epelak entzuna naiz Azpeitian hemen izendatuko ez dudan jaun batengandik. Bertsolari pranko banuen inguruan; baina defendatzailerik bat bakarrik ere ez.

Inori galdetu beharrik gabe bereganatu ninduen urrepeldarrak lehenengo aldiz ikusi nuenean. Inork esan gabe mirestu nuen Etzanoko semea, lehenengo aldiz txapelktara atera zenean. Eta inori galdetu beharrik gabe igerri nion Orixeri, ezagutu baino lehen, zernolako idazlea genuen.

Aita Villasante zenak Zaitegi jaunari galdegin omen zion Orixe mistikoa al zen. Arrasatearrak ez zion argirik egin. Izatekotan ere, lausotu egin zuen Orixe.

Nik nire 18-19 urterekin antzeman nion Orixe besteak ez bezaleko zer-bait zela. Artean ez neukan irakurria A. Estefaniak *Barne-muinetan* liburuxkaren hitzaurrean dioena. Jesuita honen esanetan, Orixeren garaiko poeta erlijiosoek, gurearekin konparatuta, ez dute erlijioso izatea beste antzik. Orixe bestelakoa da Estefaniaren iritziz. Xalbador bestelakoa den bezala, erlijio bertsoak idatzi izan dituzten beste bertsolariekin konparatuta.

Ez. Ni ez naiz Orixeren miresle eta zale, haren odolekoa naizelako eta azken urtetan etxean jaso nuelako.

Orixe-zale naiz, Lizardi-zale naizen bezalaxe. Ez nuen Lizardi ezagutu. Ni jaino nintzen urte eta hilabete berean hil zen. Orixeren lagun mina zenik ere ez nekien. Orixe ari eskainitako poesien berririk ez nuen. Baina ia-ia kordea glatzeraino liluratu ninduen Lizardik gaztetan. Orixe baino lehen liluratu ere.

Gogoan dut nola, mutil gazte nintzela, Lizardiren berri eman nion ni baino askoz zaharragoa zen euskaltzale eta nere adiskide bati, eta nola loriatu zen hura "Biotz-begietan" obrarekin eta nola ikasi ere egin zituen betiko poesia haietako esaldi batzuk.

Ez, ez. Ez dut aurreiritzirik izan, ezagutzeko aukera izan dudan obrekin. Nire usteen eta gustuen eta jakintza apurraren arabera ihardun dut. Eta harrokeria bada, harrokeria izan bedi, baina beste askok baino lehen aitortu eta ezagutu ditut haunditzat, geroak halaskotzat euki dituen zenbait fenomeno.

Buka dezadan.

Ados naiz Ibar jaunarekin *Euskaldunak* estetikoki epaitzean. Haundiz bezain harrigarri da ederrez. Euskaldunaren irudi miresgarria margotu digu Orixe bere poeman.

Ibar jaunak uste bezain baliagarri denentz gure nortasuna eraikitzeke, ez dakit.

Zertarako eman duzu, beraz, hitzaldia –diokezu, entzule–, galderei erantzuten ez badakizu? Ez dakit. Eskatu zitzaidalako, akaso.

Ongi esanak gogoan hartu, gaizki esanak barkatu.

## ORTIK ETA EMENDIK: EUSKAL LOKUZIOAK ETA FRASEOLOGIA BAINO ERE HARATAGO

Pello Esnal

Justo Maria Mokoroaren *Ortik eta emendik. Repertorio de locuciones del habla popular vasca* osatzen duten liburu biak aztertu ondoren, halako sentimendu gazi-gozoa sortzen da gure baitan. Batetik, gozoa; antzematen dugulako badela hor zerbait oso gurea dena. Bestetik, berriz, gazia; zail egiten zailgulako atzematzea zer den, zehatz-mehatz, gure-gurea den hori.

Lerro hauetan, gazi-gozo horren zergatia atzematen eta azaltzen saiatuko gara; eta, aldi berean, *Ortik eta emendik* obrak zabaltzen dizkigun atea erakusten.

Hasteko, ezinbestez jo behar dugu *Genio y Lengua* liburura. Hortxe baitago, *Ortik eta emendik* lanaren sustraia.

Bi alderdi-edo ditu *Genio y Lengua* liburuak: bata, soziolinguistikari dagokiona; eta bestea, hizkuntzalaritzari.

Lehenengoaz, honelaxe dio Joxe Manuel Odriozolak (1991: 96):

“Terminologia kontzeptuak gorabehera, Aitzol, Ibar eta gerra aurreko beste zenbait euskaltzale hizkuntzen gizarte-auziak jorratzen hasi zirenez, euskal soziolinguistikaren hastapen-elementuak xehetzen aitzindari ditugu.”

Hizkuntzalaritzaz, berriz, hizkuntzaren muinaz jardun zuen Mokoroak; sakon eta zorrotz jardun ere. Hango pasarte asko gogora ditzakegu. Hona hemen bat (1936: 64):

“¡Qué diferencia entre el habla recia, fibrosa y llena de garbo, que oímos aún hoy de nuestros padres, y la enervada, anémica y contrahecha en que va degenerando en las zonas híbridas [*bilingües* esan nahi du]! Aquélla respondía adecuadamente al genio al que servía de instrumento vivo; y ésta se resiente de las pérdidas vitales sufridas por el genio mismo.”

Eta lehentxeago, berriz (62-63. or.; egilearena berarena da letrakera etzana):

“En cualquiera de nuestras poblaciones hoy bilingües que no lo fuesen hace treinta o cuarenta años [gerra aurrekoak dira hitzak], escójase una fami-

lia de la clase normal, en la que los padres pertenezcan a la generación *netamente euskaldun* y los hijos a la del período de transición; y anótense, lápiz en mano, las palabras y formas verbales, giros y modismos, que, abundando en el lenguaje de los primeros, *no los usan ya* (aunque *los entiendan*) los segundos. Nosotros tenemos dedicado un mes entero a este ensayo y podemos ofrecer datos abrumadores.”

Gero, *Ortik eta emendik* aurkezterakoan, antzeko ideiak erabiliko zituen Mokoroak, Mikel Atxaga kazetariak jaso zituenez (Atxaga, 1990):

Gure aurrekoen euskara aberatsa zen. Baina erdara sartu-ahala euskara aldatzen ari zen. Belaunaldiz belaunaldi ari zen euskararen indarra ahultzen. Eta irakurtzen eta entzuten nituen esaerak paperean jasotzen hasi nintzen.

Hala, guztira, laurogei koaderno inguru bildu omen zituen bere bizitzan. Eta, hain zuzen, koaderno horietako esaerak ordenatuz osatu zuen “Ortik eta emendik” bilduma. Baina, berriro ere, utz diezaiogun hitza Mokoroari berari. Honela dio obra horren hitzaurrean (1990: 22; harena da letrakera lodia):

“¿Qué traté de registrar en esos cuadernos?... Por regla general, todo tipo de expresiones características del euskera que, además de hacer de él instrumento de más íntima compenetración para quienes se criaron en su ambiente, constituyen valiosos elementos estilísticos para dotar al lenguaje usado de especial viveza y colorido, gracia o energía. A mí se me habría ocurrido relacionarlas con lo que comúnmente se entiende por *giros o modismos*; pero, años más tarde, en visita que le hice en 1952, D. Julio Casares, el insigne Secretario de la Real Academia Española, me aconsejó que las llamase *locuciones*.”

Bai. Ezin egokiago dago adierazita hor zergatik egiten zaigun gozoa *Ortik eta emendik*: hortxe ditugulako mota guztietako euskal esapideak, euskararen muina azaltzen dutenak eta, aldi berean, gure hizkuntzaren giharra eta indarra, kolorea eta zaporea, gatza eta piperra, grazia eta arima eskaintzen ditutenak. Gozo-iturri gozoagorik!

Baina –betiko *baina* zirikatzailea– ez da dena gozo Mokoroaren obra mardulean. Badu alderdi gazirik. Eta hori ere azaldu nahi nuke hemen; ez, alderdi gozoa hondatzeko; gozoagotzeko baizik. Eta, hain zuzen, beste askotan ere laguntzaile izan dugun maisuari eskatuko diogu argia: Luis Villasante zenari. Izan ere, euskal fraseologiaz ere jardun zuen maisu handiak, *Ortik eta emendik* argitaratu baino bi urte lehenago, bere *Euskararen auziaz* liburu bikainean. Hona hemen pasarte bat (1988: 188):

“Hizkuntza bat menderatzeko ez da aski gramatika eta hitzak jakitea. Hor dago fraseologia, hots, esaeren mundua: lokuzioak, errefrau itxurako esapideak, etab. Esaeren mundu hau guztiz da berezia eta hizkuntzaren muinari hur-



bildik ukitzen diona. Arrotzarentzat santuario itxia gertatzen da, eta hortik –besteak beste–, hizkuntza erabiltzeko somatzen duen ezintasuna edo nekea.”

Eta aurreraxeago jarraitzen du Villasantek (1988: 189):

“Esaeren mundua gaizki ezaguna da, guti aztertua. Mundu horren barnean zer sartzen den, zer gelditzen den kanpoan etab. jakiteko, mugak ez daude beti garbi.”

Eta hortxe hasten gara topo egiten, hain zuzen, *Ortik eta emendik* obraren alderdi gaziarekin. Ez dakit nola esan: gauza bitxi asko aurkitzen ditugu hor; “gehiegi” ere esango nuke; gauza “bitxiegi gehiegi” ere bai, agian. Bat galdu egiten da hor. Bai: bi liburuki ezin bikainago ditugu eskuetan, baina ez gara eroso sentitzen horiekin.

Eta halaxe adierazi nuen Herri Literatura azpibatzordearen bilera batean. Orduko, erabakia genuen jardunaldi hauek egitea. Era berean, aukeratuak genituen gaia eta izena ere: *Euskal lokuzioak*. Eta, hain zuzen, bilera hartan izan nuen, besteak beste, Gloria Corpas Pastorren berri, Jabier Kalzakorta lankide eta adiskidearen eskutik. Eta berehala eskuratu nuen haren *Manual de fraseología española* liburua (1996), bidea argitzen hasiko zitzaidana. Hain da liburu argia eta argigarria!

Bai. Gloria Corpas Pastorrek lan benetan bikaina egin du esaeren mundua argitzen. Eta *Manual de fraseología española* liburua irakurri eta aztertuta gero, ezin errepika ditzakegu Luis Villasanteren goiko hitzak: “Esaeren mundua gaizki ezaguna da, guti aztertua”. Arrazoï osoz idatzi zuen Manuel Alvar Ezquerrek, hain zuzen, Corpasen liburuaren hitzaurrean (1996:10):

“Fue precisamente Julio Casares, el maestro de nuestra lexicografía, uno de los primeros en abordar los difíciles problemas que plantea el deslinde de las distintas unidades fraseológicas. Pero las cosas entonces no quedaron del todo claras, y ha habido que esperar a que soplaran vientos de fuera para que se reavivaran los rescoldos de la llama que alumbró Casares, hasta llegar a la almenara de este *Manual de fraseología española*.”

Hementxe ditugu guk ere, Gloria Corpasen eskutik, kanpoko haize horiek, hark ingelesaren mundutik ekarriak eta guk gaztelaniaren mundutik jasoa. Horiêi esker, argiago ikus dezakegu geure fraseologiaren eremua, eta egokiago juzgatu Mokoroaren *Ortik eta emendik* obra izugarria ere.

Bi gauza azpimarratuko ditut hemen. Lehenengoa, Gloria Corpasi jarraiki, egokiago datorkiola beste izenburu-ondo bat, Mokoroaren *Ortik eta emendik* obrari: alegia, *Repertorio de locuciones del habla popular vasca* ez baina, *Repertorio de unidades fraseológicas del habla pupolar vasca*. Beraz, *unidades fraseológicas*, eta ez *locuciones*. Izan ere, lokuzioak baino gehiago bildu eta argitaratu zituen Mokoroak: lokuzioez gain, baita kolokazioak eta enunziatu fraseologikoak ere; Gloria Corpasen terminologia erabiliz. Eta horrexe-

gatik izan dute jardunaldi hauek, hain zuzen, *Euskal fraseologia* gai eta izenburu.

Ez da terminologi kontu hutsa; bai baita kontzeptu- eta sailkapen-arazoa ere. Hiru alor bereizten ditu Gloria Corpasek fraseologian –lokuzioak, kolokazioak eta enuntziatu fraseologikoak– eta hirurak landu zituen Mokoroak, nahiz eta argitaratu, denak batera eta nahasian argitaratu zituen, *lokuzio* izenaren pean, Julio Casaresi jarraiki, ikusi dugun bezala. Mokoroak egin zuen bere eskuetan zegoena. Orain, guri dagokigu hark utzitako altxor paregabea lantzea; besteak beste, hark bildutako unitate fraseologikoetatik bereiziz zein diren lokuzio, zein kolokazio eta zein enuntziatu fraseologiko, eta alor bakoi-tzeko unitateak egoki sailkatuz. Horra hor noizbait egin beharko dugun lana, baina beste puntu bat argitu ondoren.

Eta horixe da, hain zuzen, azpimarratu nahi dudan bigarren gauza, hau ere Gloria Corpasen eskutik, eta lehenengoa baino ere askoz ere garrantzitsuagoa dena. Gordin azalduko dut, baina ez ikaratzeko eskatuz; berehala itzuliko-edo baitiot Mokoroaren lanari berez dagokion handitasuna, nahiz eta iruditutik kentzen ari natzaiola orain. Beraz, gordin esanda, Mokoroak “*Ortik eta emendik*” obran eskaini dizkigun asko eta asko ez dira unitate fraseologiko; beraz, ez dira ez lokuzio, ez kolokazio eta ez enuntziatu fraseologiko. Eta ez dira, ezaugarri bat falta zaielako unitate fraseologiko izateko, funtsezko ezaugarri bat.

Izan ere, Gloria Corpasen arabera, sei ezaugarri dituzte unitate fraseologikoen (1996: 20-32): 1) maiztasuna (frecuencia), 2) instituzionalizazioa (institucionalización), 3) egonkortasuna (estabilidad), 4) idiomatizitatea (idiomaticidad), 5) aldagarritasuna (variación) eta 6) mailaketa (gradación).

Lehendik, gutxi edo asko, ezagunak ditugu ezaugarri horiek, oro har bada ere. Eta, agian, laugarrena aipatu izan dugu gehien. Esaterako, honela dio Antonio Zavalak, *Ortik eta emendik* obraren hitzaurrean (1990: 12; harenak dira letrakera lodiak):

Biltze-lana egin du, beraz, Aita Mokoroak. Zer bildu ote du? Euskal esarak. “Esaera, ordea, esan-nai zabaleko itza da”.

Esaera esaten diogu atsotitz, zahar-hitz, zuhur-hitz, errefrau eta abarri. Erderazko *refrán*, *proverbio*, *adagio*, *sentencia* eta abar, alegia.

Esateko moduari ere *esaera* esaten diogu, ordea. Esateko modu horiei esaldi esaten zien Basarrik, orain denbora asko ez dela, bere idazlan batean [*El Diario Vasco*, 1985.08.03]:

“Izkuntza guztiak bezelaxe, gureak ere ba-du esaldi ederrik. Iñolako moduz itzez-itz beste izkuntzetara alda ezin ditezken esakerak dira. Jakingo dezute, noski, ‘amaika ikusteko jaiok gaituk’ esakera, euskaldun batek zer tanteratan erderatu zun: ‘*Para ver once hemos nacido*’.

'Bost ajola zioek orri' esateko, bide berdiña artuko zun, artara beartu ba'lute. '*Cinco le importa a ése*' esanik, lasai geldituko zan"

Gazteleraz *modismo*, *idiotismo* ta abar esan oi zaie olakoai. Ta, oiek gazteleratik euskerara itzez-itz itzulita, astakeri berdintsuak entzungo genituzke.

[...]

Esaera edo esaldi auek dira, esateko modu auek alegia, aita Mokoroak gure izkuntza zaarraren altxorretik bildu ta Euskalerrriari eskeintzen dizkionak".

Bai. Ezaugarri hori aipatzen du Antonio Zavalak, eta ezaugarri horretan ipintzen du arreta osoa, gainera. Eta ez da harritzekoa. Izan ere, Gloria Corpasek dioenez (1996: 26), unitate fraseologikoek ezaugarri hori omen dute funtsezkoena; ikertzaile ingeles eta iparramerikar gehienek arabera, behintzat. Baina ezaugarri funtsezkoena izanda ere, ez da bakarra, ordea; eta, gainera, beste batzuk suposatzen ditu aurretik: hiru; hain zuzen, Gloria Corpasek aipatzen dituen lehen hiru ezaugarriak: maiztasuna, instituzionalizazioa eta egonkortasuna. Alegia, oso labur eta trinko esanda: 1) maiztasuna: a) unitate fraseologikoa osatzen duten osagaiak elkarrekin azaltzea behin eta berriro eta b) unitate fraseologiko hori ere behin eta berriro azaltzea; 2) instituzionalizazioa: unitate fraseologikoak, maiztasun horri esker, behin eta berriro erabiliz, pixkana-pixkana zabalduz, hizkuntza talde zabal baten ondasun izatea; 3) egonkortasuna: unitate fraseologikoak, azkenean, a) finko eta irmo bihurtzea eta b) firmo eta irmo izate horretatik, askotan, espezializazio semantikora pasatzea. Hortik, ez du asko behar izango hurrengo urratsa egiteko: espezializazio semantiko horretatik idiomatiko bihurtzeko; alegia, lehen aipatu dugun idiomatizitatea (laugarren ezaugarria) eskuratzeko.

Ezaugarri horiek ikusiz, unitate fraseologikoaren bilakaera historikoa ere ikusi dugu: nola, alegia, dena delako esaera bat bihurtzen den unitate fraseologiko. Eta, hain zuzen, nire iritziz behintzat, horixe ditugu Mokoroak bildutako esaera asko eta asko: unitate fraseologiko izatera iritsi gabeko esaera; behin eta berriro erabili eta erabiltzen ez direlako, eta behar adina zabaldu eta finkatu eta irmotu ez direlako... Eta horrexegatik egiten zaizkigu bitxi eta bitxiegi... Eta horrexek ere sortzen digu, nire ustez, hasieran aipatutako sentimendu gazi hori, sailkapen ez oso egokiarekin batera.

Horiek argitu ondoren, argiago ikusten dugu, orain, zer egin dezakegun Mokoroak utzitako altxor handi horrekin: 1) hasteko, unitate fraseologikoak bereizi: zein diren unitate fraseologiko eta zein ez; eta gero 2) unitate fraseologikoak sailkatu; esaterako, Gloria Corpasek bereizitako hiru sail horiek osatu: a) kolokazioena, b) lokuzioena eta c) enuntziatu fraseologikoena.

Baina ez da nahikoa. Zer egin, izan ere, unitate fraseologiko ez diren esaera asko eta asko horiekin? Horiek ere gureak baititugu, nahiz eta bitxi gerta-

tu; oso gureak, gainera, nahiz eta nola baliatu jakin ez. Eta galdera horri ere erantzun beharrean gaude, baldin eta Mokoroaren lanari berea aitortu nahi badiogu. Eta horixe beste asmorik ez dugu. Zer egin, beraz, Mokoroak bildu eta unitate fraseologiko ez diren esaera horiek? Non sailkatu? Nola aztertu?

Esaera horiek zer diren badakigu. Horiei ere bete-betean dagozkie Villasanteren hitzak, lehen gogoratu ditugunak (1988: 188)

Esaeren mundu hau guztiz da berezia eta hizkuntzaren muinari hurbildik ukitzen diona. Arrotzarentzat santuario itxia gertatzen da, eta hortik –besteak beste–, hizkuntza erabiltzeko somatzen duen ezintasuna edo nekea.

Eta baita Antonio Zavalaren beste honako hauek ere, lehen aipatutako hitzaurrean idatzi zituenak (1990: 13):

Iztegia ta gramatika, atzerritar batek ere menderatu ditzazke. Ta, bearbada, bertako askok baiño obeto. Baiña beste zerbait falta du orrek oraindik, izkuntzaren jabe osoa izateko.

Beste zerbait orrek, iztegiak eta gramatikak baiño lan geiago emango dio, ta bein ere ez du ikasiko bertakoak bezin ondo.

Beste zerbait ori, esaerak ditugu.

Iztegi eta gramatikak geldi-antza bat dute, esaeren aldean. Mundu “estatikoa” baten berri ematen digute. Baiña mundua, bizitzaren eta bizidunen lekua ere bada. Ta bizitzaren berri ere eman bear digu izkuntzak... Egiteko ori, esaeren bidez egiten du geienbat. Esaerak, munduko dinamikaren berri ematen digute.

Ortarako, irudi edo metaforaren batez baliatzen dira askotan.

[...]

Izan ere, esaerak, arpegiko begiak in ikusten ez dan zerbaiten berri ematen digute askotan. Ez da besterik bear, esaerak izketarako duten balioaz. Ortik dator, ain zuzen, esaerak duten bereiztasunik arrigarrienetako bat: bat esan eta bestea ulertu bear dala. Itzak adierazten duten baiño esan-nai zabalagoa dutela.

Ori ala izanik, ez dago itzegiterik, irudirik eta esaerarik gabe. Ta ori, ez izkuntza au dalako edo bestea dalako. Izkuntza guztiak bere-berea dute ori.

Bai: hizkuntzaren alderdi dinamikoa; irudiak, metaforak; hitzak baino ere haratago joan beharra... Eta hori guztia aztertzeke, ez du balio hizkuntzalari-tza inmanenteak, honek formari soilik erreparatzen baitio, Koldo Mitxelenak esan bezala (1985: 180); gainditu beharrak daude honen mugak ere. Baina ez, soilik, esaerak aztertzeke; baita hitzak –edo hobeto esanda, hitzen esanahia– aztertzeke ere.

Gainditu. Baina nola? Honen erantzuna bideratzea ere beste lankide eta adiskide bati zor diot: Joxe Ramon Zubimendiri. Hark zabaldu baitzizkidan begiak, liburu baten berri eman zidanean. *Introducción a la lingüística cognitiva* du izenburua, eta Maria Josep Cuencak eta Joseph Hilfertyk idatzia da (1999). Bai. Hizkuntzalaritza kognitiboa ere landu beharrean gara, baldin eta aztertu nahi badugu Justo Mokoroak *Ortik eta emendik* obra erraldoian utzi ziguna. Baina horrek beste jardunaldi batzuk egitea eskatuko liguke.

Dena den, besterik ez bada ere, ekar dezagun hona aipatu berri dugun horretako pasarte bat. Honela dio metaforaren teoriaz; teoria berri honen ekarria garrantzizkoa baita hizkuntzalaritza kognitiboaren eraketan (1999: 24):

[La teoría de la metáfora] parte de la hipótesis de que la metáfora no es sólo una figura literaria, sino que es un mecanismo cognitivo que se utiliza para procesar información abstracta a partir de conceptos más concretos, simples y familiares. La metáfora –y también la metonimia– impregna el uso cotidiano del lenguaje.

Eta, hain zuzen, metafora eta metonimia horien adierazle dira, batetik, unitate fraseologikoak; baina, baita ere, unitate fraseologiko izatera iritsi ez diren hainbat eta hainbat esapide, Mokoroaren *Ortik eta emendik* eduki handiena hartzen dutenak; eta, are, esapide ere ez diren hainbat hitz solte. Baina beste baterako utzi beharko dugu gai hau. Hala ere, orain garbiago ulertzen dugu, batetik, nondik datorkion Mokoroaren *Ortik eta emendik* izenburuari azken zatia: *Repertorio de locuciones del habla popular vasca*; eta, bestetik, zergatik R.M. Azkuek (1989) eta Juan Mari Lekuonak (1982), esaterako, herri-literaturaren edo ahozko literaturaren baitan landu dituzten esapideak. Eta, azken batean, horrexegatik antolatatu ditu jardunaldi hauek, hain zuzen, Herri-literatura batzordeak. Izan ere, batzordeburuak dionez (Lekuona, 1982: 251):

Zenbat eta gehiago objektibatu euskal nortasuna eta euskal gordailu jatorra, hainbat eta zuzenago eramango ditugu egungo euskal arazorik larrienak: hizkuntza egungo kultur sistemetara bihurtu beharra, hizkuntza batu beharra, beste herriekiko harremanetan itzulpenez une oroz baliatu beharra. Eta arazo hauetan guztietan herri-esaerak dira, besteak beste, gure kulturaren erreferentzia utzi-ezina eta berezkoa.

Harrigarria ere bada. Mokoroaren omenez, euskal lokuzioei buruzko jardunaldiak antolatzen hasi ginen. Baina euskal fraseologiari buruzkoak egin ditugu azkenean. Eta hizkuntzalaritza kognitiboari buruzkoak ere beharrezkoak ditugula aitortu behar izan dugu. Eta soziolinguistek ere egin beharko dute zerbait, noski, Joxe Manuel Odriozolaren hitzetan “euskal soziolinguistikaren hastapen-elementuak xehetzen aitzindari” izandakoaren omenez.

Justo Mokoroa: gizon bat, gizon handi bat. Maitasun bikoitz handia: euskara eta Euskal Herria. Hiru azter-eremu: soziolinguistika, fraseologia, hizkuntzalaritza kognitiboa...

Augusto Comtek esan omen zuenez, gizon bakartzat hartu behar omen da mendeetako eta mendeetako gizakien zerrenda: beti bizirik dagoen eta beti ikasten ari den gizon bakartzat. Noizean behin, ordea, gizon handi bat tartekatzen zaigu zerrenda luze horretan eta eginkizun hirukoitzak uzten dizkigu ondorengoei. Asmatuko ahal dugu jaso duguna ondorengoei uzten; ahal izanez gero, zertxobait landuta!

## AIPUAK

ALVAR EZQUERRA, Manuel (1996): "Prólogo", in *Corpas Pastor*, 1996, I-III.

ATXAGA, Mikel (1990): "Justo Mokoroa: 'Belaunaldiz belaunaldi ari zen euskararen indarra ahultzen'", in *Eguna*, uztailak 5, 6.

AZKUE, Resurrección María (1989): *Euskalerrriaren yakintza III*, Madrid, Euskaltzaindia & Espasa Calpe, 3. argitalpena.

CORPAS PASTOR, Gloria (1996): *Manual de fraseología española*, Madrid, Gredos.

CUENCA, Maria Josep; HILFERTY, Joseph (1999): *Introducción a la lingüística cognitiva*, Barcelona, Ariel.

LEKUONA, Juan Mari (1982): *Ahozko euskal literatura*, Donostia, Erein.

MICHELENA, Luis (1985): *Lengua e historia*, Madrid, Paraninfo.

MOCOROA, Justo M.<sup>a</sup> "Ibar" (1936): *Genio y Lengua*, Tolosa, Librería de Mocoroa Hermanos.

MOCOROA, Justo M.<sup>a</sup> (1990): *Ortik eta emendik. Repertorio de locuciones del habla popular vasca*, Bilbao, Labayru, Eusko Jaurlaritza: Kultura eta Turismo Saila, Etor (bi liburuki).

ODRIOZOLA, Joxe Manuel (1991): *Genio y lengua* edo Euskararen gizar-te-arazoei buruzko pentsamendu-hastapenak, in *Bat*, 5, 91-98.

VILLASANTE, Luis (1988): *Euskararen auziaz*, s.l, s.n (Oñate, Editorial Franciscana Aranzazu).

ZAVALA, Antonio (1990): *Hitzaurrea*, in *Mocoroa*, 1990, 11-17.

## AITA JUSTO MARIA MOKOROAREN OMENEZ EUSKAL FRASEOLOGIAZ

### ONDORIOAK

Gure Herri Literaturaren lanketa, asmo eta helburu duen Euskaltzaindiaren Herri Literatura azpibatzerdeak antolaturik, VI. Jardunaldiak egin ditu Euskaltzaindiak Bilbon *Euskal Fraseologiaz*, eta ondorio hauetara iritsi:

1. Jardunaldiotan izan ditugun europa mailako bi fraseologo adituren eskuhartzea eskertu behar dugu; Gloria Corpas Pastor eta Alberto Zuñuagarena, hain zuzen ere. Era berean, eskertzen ditugu, baita ere, gure artean izan ditugun Jabier Kaltzakorta, Adolfo Arejita, Xabier Kintana eta Joxe Mari Aranalde irakasle-idazleen ikerketen emaitzak.
2. Orain arte landutako paramiologia eta modismoen lanketaz haratago, fraseologiaren hiru multzo berezi aurkeztu zaizkigu berrikuntza modura: kolokazioak, lokuzioak eta enuntziatu fraseologikoak.
3. Halaber, argi geratu da fraseologiaren sakonean dagoen kultur ikuspegi eta mundu soziologiko aberatsa, herri baten nortasunaren erakusgarri.
4. Unibertsitate mailako ikerketarako gomendio bat nabarmenarazi zaigu, hots, fraseologiaren corpusa gaurko euskarri modernoetan eman eta zabaldu beharra, ikerlari berrien lagungarri izan dadin.
5. Iritzi orokor modura beraz, Jardunaldiok berrikuntza bat dakarte fraseologiaren ikuspegian, ikerkuntzan eta dibulgazioan. Eta hau, esan beharrik ez, guztiz egoki eta onuragarri zaio Herri Literatura azpibatzerde honi.

*Bilbon, 2000.eko abenduaren 29an*





## LINGUISTIKA



# **EUSKARA ETA NAZIOARTEKO ARAUAK: ERABILERA OROKORRA, ERABILERA BEREZITUAK ETA ERABILERA GAINBEREZITUAK<sup>1</sup>**

*Juan Carlos Odriozola*

## **LABURPENA**

Euskararen erabilera orokorrak eta erabilera berezituak, funtsezko ezauzgarri komun bat dute: erabilera naturalak dira, hau da, gizakiaren ahalmen propioari zor zaion erabilera naturalaren arauetan oinarriturik daude biak ere, eta neurri batean edo bestean nahiko oharkabe egiten dira. Nazioarteko arauak erabilera berriak ekarri(ko) dizkiote euskarari. Nonbait gainberezituak diren erabilera hauek askotan artifizialtzat hartu beharko ditugu eta gizakiaren hizkuntza ahalmenari baino zehazkiago, gizakiaren logika-ahalmenari zor zaizkio, beti ere erabilera naturalen nolabaiteko euskarria edo abiapuntua behar dutelarik. Ez dira izango, beraz, ez naturalak ez eta oharkabeko jarduerakoak, baina, hala ere, besteekin batera aztertu eta arautu beharko dira, azken batean hiru erabilera motak neurri batean gainezarrira daudelako eta gainera hirurek batera osatzen dutelako euskara. Arautze hori gauzatu baino lehen, hizkuntzalaritzak deskribatu behar ditu hizkuntza gertaera horiek guztiak, tankera horietako erabilera guztien arteko aldeak agerian jartzeko.

## **0. SARRERA**

### **0.1. Nazioarteko arauen hastapenezko definizioa**

Lan honetan hizkuntzalaritza aplikatuko gogoeta orokor batzuk egin nahi ditut nazioarteko esparru berezituetaiko arauak euskararen barruan txertatzeko une-

---

<sup>1</sup> Lan hau egiteko Euskal Herriko Unibertsitateko UPV 033.310-HB 194/98 proiektuaren diru-laguntza jaso dut. Bestalde, Euskal Herriko Unibertsitateko Donostiako campusean euskara teknikoari buruz 2000ko irailean egindako jardunaldi batzuetan aurkeztu zen lana. Gainera eskertu egin behar ditut batetik Igone Zabalaren hizkuntzalaritza-iruzkinak eta bestetik Jazinto Iturbek nazioarteko magnitude eta unitateen basoan zehar ibiltzeko eman didan laguntza. Olatz Fresnedo eta Mertxe Martinez biokimikariei ere nire eskerronak adierazi nahi dizkiet, hizkuntzalaritzatik kanpoko profesional gisa eman didaten ikuspegiagatik.

an azaltzen diren hizkuntza gertaera berezien inguruan. Lehenengo hurbilketa batean, honelako ezaugarri orokorrak suma daitezke nazioarteko arau hauetan:

1) Arauok nazioartean onetsi diren jakintza-arloko adigai-sare batzuen berri ematen dute.

2) Tankera honetako arauak, munduan zeharko hizkuntzetan ez bezala kontzeptu-sareak era garbi, zehatz eta neutroan adierazteko egiten dituzte adituek, goi-mailako jakintza horretaz elkarrekin mintzatu ahal izateko.

3) Funtsean, ereduzko bi mota aipatu ohi dira bibliografian. Batetik, nazioarteko erakunde batzuk zenbait kontzeptu izendatzen saiatzen dira, izenak sortzeko arauak finkatuz eta izen-zerrendak osatzen joanez; adibidez, Kimiakako esparruan konposatuak izendatzeko sistema dago nomenklatura esan ohi zaien arau horien artean. Bestetik, adigaien arteko harremanen berri emateko sortzen dira nazioarteko hainbat arau sorta; hizkuntza artifizial esan ohi zaien azken hauen artean, esate baterako, Matematikako kontzeptuak eta harremanak adierazteko sistema anizkoitza dago.

4) Munduko hizkuntzetatik aske erabiltzeko asmatuak izan arren, ingeleza bezalako hizkuntza batean oinarriturik gauzatu eta plazaratzen dira nazioarteko arauak. Horretaz gainera, arauak erabiltzerakoan hizkuntza jakin baten ahozko edo idatzizko euskarria behar da neurri handiagoan edo txikiagoan.

## 0.2. Euskararen erabilera motak

Esparru honetan dagoen bibliografiatik abiatu eta euskara bezalako hizkuntza batean adigai hauek erabiltzeko unean, hasteko, hizkuntzaren erabilera moten arteko sailkapen garbi baten aldarrikapena izango da gure lan honetako lehenengo ekarpen xumea:

1) Hizkuntza jakin bat fonologia, hiztegi- eta morfosintaxi-lege naturalez osatua da. Legeak, oharkabe geureganatzen ditugu hizkuntzaren ohiko ikasketaprozesuan, eta hizkuntza horretaz hitz egiten dugunean ere, nahiko oharkabe erabiltzen ditugu. Oharkabe ala oharturik, komunitatearen hiztun guztiek ezagutzen dituzte lege horiek.

2) Lege horien erabileretatik ateratzen diren baliabideen artean hitzun gehienek ezagutzen dituzten baliabideek osaturiko multzoa hizkuntzaren erabilera orokorra dela esango dugu (Cabr  1999). Euskararen kasuan, hizkuntza erakunde jakin bat, hots, Euskaltzaindia egiten ari da hizkuntza osoaren deskripzio luze-sakona. Deskribapenaren azpian suma daitezkeen legeen formalizazioa, hizkuntzalaritza teorikoaren zeregina da nonbait.

2) Ortografia eta alfabeto-sistema jakin batzuen ikasketaprozesuak, nola edo hala hizkuntzaren ageriko kontzientzia dakarkio hiztunari. Badakigunez,

bestalde, Euskaltzaindiak eman ditu euskara idatzirako arauak. Idaztarauak ikastearekin batera hiztunak aurrera egiten du hizkuntzaren ikasketa-prozesuan. Horrela, hizkuntza orokorraren baliabide gehiago bereganatuz doa eta baliabideen artean egoeraren araberako bereizkuntzak egiten ere ikasten jarritzen du nonbait. Berriaz burutzen den prozesu bati hasiera ematen zaio eta, gainera, hastapenezko ikasketa sistematiko batean murgiltzen da hiztuna.

3) Euskaltzaindiaren helburu nagusia, alegia euskal gizartean euskara batua izenpean ezaguna dugun hori, bibliografia orokorrean hizkuntzaren aldiera formaltzat hartu izan da. Bestela esanda, dialektoen, lekuen eta gizarte mailen araberako aldaketak nonbait 'indargarbetzen' dituen aldaera bat izango genuke (Cabré 1993). Badakigu maila formalean defini daitekeen aldaera hori zein erabilera motaren gainean ezarri den ere: hezkuntza, informabideak, literatura... Euskaltzaindiak plazaratutakoak badu, alde batetik, euskara batua formalki gauzatzeko helburua, baina, bestetik, euskara zuzena edo euskara bera mugatzen du zenbaitetan.

4) Erabilera orokorraz gain, argotak bezalako hainbat erabilera berezi geureganatuz goaz. Hori dela eta, bibliografiak aho batez adierazten digu hizkuntzaren ikasketa-prozesu hori une batetik aurrera erabat sistematikoa eta berriazkoa izatera heltzen dela (Gutiérrez Rodilla 1998). Areago, ikasten ari garen hizkuntzaren erabilera horrekin batera errealitatea bera ere era berezi batez kontzeptualizatzen ikasten dugu. Edozelan ere, prozesu sistematiko horren pean ikasten dena erabilera berezietako bat besterik ez litzateke izango eta, egia esan, esparru zabal samarra dugu mugatzeko, erabilera berezietatik arikuko bagara. Gure lan honetan irizpide garbi bati eusteagatik, hizkuntzaren erabilera berezi horien artean, akademi ikasketetan (eta beraiekin batera, ikerkuntzan) azaltzen direnak erabilera berezituak direla esango dugu<sup>2</sup> eta haiek izango dira lan honen abiapuntu. Halaber bere egin dute erabilera berezituak hizkuntzaren erabilera orokorrerako gauzatua bide dagoen euskara batua delako aldaera formala.

Ez datoz bat idazleak mugak eta izaera finkatzerakoan, baina oro har esan dezakegu hizkuntzaren erabilera mota horiek hizkuntza orokorraren barruko azpimultzoak direla. Azken batean, hautu jakin batzuk egiten dira hizkuntza orokor horren barruan eta hizkuntzalaritzaren ikuspegi hutsetik, nekez asma daiteke erabilera horietan bakarrik azal daitekeen zerbait, hiztegiaren barruan

<sup>2</sup> 'Berezitu' terminoak nahiko hedadura handia dauka gaur eguneko euskararen baitan aldameneko hizkuntzetako 'lenguajes especializados' delakoaren baliokide gisa (*lenguajes especializados*). 'Berezi' ere erabil genezakeen hemen, baina oraingoz behintzat onartuko dugu 'erabilera berezi' direlakoen artean badaudela erabilera berezituak eta berezituak ez direnak. Lehenengokoen artean testuan adierazia dugun akademia eta ikerkuntza esparru horietako erabilera berezituak ditugu eta berezituak ez direnen artean, adibidez, lanbide-esparruetatik kanpo dauden argotak leudeke; azken hauen definizio sendoa aurkitu nahi izanez gero, esan genezake ez dutela berezitzat joko ditugunek bezala errealitatea beste era batera kontzeptualizatzen eta ez direla ikasketa sistematiko baten barruan ikasten (Cabré 1993 eta 1999).

ez bada behintzat. Hala ere, bibliografian ondo berezi dira erabilera hauek, baliabideen erabilera-maiztasuna, gaiaren tratamendua, erabiltzaile mota eta komunikazio-egoera direlako irizpideak erabiliz (Cabre 1993, Zabala 1999b eta 2000). Gure lan honen erdigune betean dago ordea erabilera berezitu horiek oro har hizkuntza (orokor)aren lege berberak dituela azpimarratzeko beharra. Alegia, hizkuntzalaritza teorikoak formalizatzeko dituen legeak, berberak dira hizkuntza orokorrean eta erabilera berezitu hauetan. Laburbilduz, hizkuntza natural baten legez ari gara.

Gainera, hizkuntzaren erabilera orokorrean nahiz berezituetan nagusi diren lege orokor horietatik ateratzen diren baliabideak ere bietan azaltzen dira neurri batean edo bestean, eta hortaz, Euskaltzaindiak zenbakien idaztarauak eta deklinabidea edo ehunekoen ikurra bezalako kontuez emandako hainbat arauk erabilera berezituaren gaineko eragina dute.

### 0.3. Lan honen helburua

Aipaturiko arauak nazioarteko adituen elkarteek sortzen dituzte. Nabari da, bestalde, giza (burmuinaren) ahalmenen artean, hizkuntza ahalmenarekin batera logika-ahalmenarekiko edo logika-harremanen adierazpide formalekiko harreman estuak dituztela nazioartean eratzen diren arauak. Hala ere, hizkuntza naturalak dituzte abiapuntu eta hizkuntza orokorraren hiztegi eta morfo-sintaxiaren zati handi bat eta areago hizkuntza baten fonetika osoa erabili behar dute ezinbestez.

Hona hemen, beraz, hizkuntzalaritza aplikatukoa izango den lan honen guneak:

1) Nazioarteko arauak hedatzeko erabili den ingelesaren (edo bestelako baten) baliabideak idatziz islatzeko arauak.

2) Ustez ingelesetik harantzagoko hizkuntza guztietan berdin egiteko pentsaturik bide dagoen zatia.

3) Euskaltzaindiak emandako euskara orokorraren deskribapena eta zenbait erabiletarako bide den euskara batuaren arauak.

4) Berezitutzat joko dugun euskara teknikoko diskurtso natural bat egiteko unean, hizkuntza orokorrari dagozkion baliabide eta arauen artean hartzen diren aukerak.

5) Baliabide eta arau horietaz baliatuz nazioarteko arauetarako lor daitekeen etekina.

6) Nazioarteko arauak baliabide eta arau horietatik kanpo eta diskurtso natural batetik kanpo ezarri dituzten baliabideak, euskararen erabilera berezi baten azpigerabilera bat sortuko dutenak.

Beste alde batetik, badakigu nazioarteko arau multzo ugari garatu direla gure hizkuntzan eta oro har ongi garatu direla, baina esparruan oraindik ere hizkuntzalaritza-hausnarketa sakonak behar dira, batez ere nazioarteko arau hauek gurean behintzat deskribaturik eta tipifikaturik ez dauden hizkuntza ger- taera bereziak sortzen dituztelako.

Eman dezagun sarrera honetan adibide sorta argigarri bat.

a) (1)ean hizkuntza orokorraren hitz soil batzuk (1a), hitz elkartu batzuk (1b) eta perpaus bat dugu (1c).

- (1) a azal  
b burdina gabezia, fosfato pilula  
c Entsaladari azukre apur bat gaineratuz, primerako zaporea lor- tzen da

b) (2)an erabilera orokorreko hitzari dariona baino kontzeptu zehatzago baten berri emateko sortu den hitz bat dago (2b) (Zabala 1998), hizkuntza oro- korraren hitzaren aldamenean (2a).

- (2) a azal  
b azalera

Horretaz gain, (1) sortako lege berberen azpian sorturiko hitz elkartuak (3a) eta perpausak ditugu (3b), erabilera berezitu batean sortuak badira ere.

- (3) a burdina-egitura, fosfato-emaile  
b kaltzio hidroxidoari azido klorhidrikoa gaineratuz kaltzio klo- ruoara eta ura lortzen da

c) Nazioarteko arauak sorturiko (4)koan, euskal hitz elkartuekin noizean behinkako antza baizik ez duten nomenklatura sistematikoko segida batzuk di- tugu.

- (4) burdina (II) oxido, glizerol-3-fosfato deshidrogenasa

Halaber, nazioarteko arauak sorturiko eragiketa-joskera artifiziala dugu (5)ekoan. Gainera erabilera berezituetan azaltzen diren edo erabilera berezi- tuetarako asmatu diren terminoak bakarrik erabil daitezke (5a).

- (5) P=F/S  
a #presioa berdin indarra zati azala  
b presioa berdin indarra zati azalera  
c \*presio berdin indar zati azalera


Ildo beretik, kimikako erreakzioen berri ematen duen joskera artifiziala- ren eta joskera naturalaren arteko baliabideak ditugu (6)koan.

- (6)  $\text{Ca(OH)}_2 + 2\text{ClH} \Rightarrow \text{Cl}_2\text{Ca} + 2\text{H}_2\text{O}$

- a kaltzio hidroxidoa gehi azido klorhidrikoa emateko kaltzio koruroa gehi ura
- b kaltzio hidroxido gehi bi azido klorhidriko emateko kaltzio koruro gehi bi ur
- c \*kaltzio hidroxidoa gehi bi azido klorhidrikoa emateko kaltzio koruro gehi bi ur
- d zea-oatxebi gehi bi atxe-zeele emateko zea-zeelebi gehi bi atxe-bi-o

Honen guztiaren argigarri gerta daitekeelakoan, hona (7)ko marrazkia.

(7)



hizkuntza jakin baten  
lege naturalek soturiko  
baliabideak



hizkuntza jakin baten  
lege naturaletatik kanpo  
soturiko balibabideak





(7)koan, hiztegia ez ezik hizkuntzaren gainontzeko baliabide guztiak islatu ditugu Cabrék (1993) jasoriko G. Rondeaturen marrazkian oinarriturik. Ikus bedi bertan erabilera berezitu batek alde orokorretik, erdibideko aldetik, alde berezitutik eta alde gainberezitu batetik hartzen dituela baliabideak. Alde gainberezitu hori nazioarteko arauk hizkuntzaren legeetatik kanpo ezarritakoa bera dela onartuko dugu gure lan honen helburuak erosoago betetzeko. Berez nazioarteko arauk gehienetan izango dute lege naturaletatik kanpoko alde hori, eta alderantziz, lege naturaletatik kanpo dagoen guztia nazioarteko arauk sortua izango da eta beraz alde gainberezitu bati egokitu zaio.<sup>3</sup> Bestalde, lan honetan aurrerantzean erabilera orokorra, erabilera berezitua eta erabilera gainberezitua direlako terminoak erabiliko ditugu, Rondeaturen marrazkian erabilerak baino zehazkiago 'aldeak' azaltzen badira ere: erabilera orokorrak bat egingo du erdialdeko borobilarekin eta erabilera berezituak borobil horretatik zein beste borobil guztietatik hartuko ditu baliabide batzuk; erabilera berezituaren barruan baliabideak alde gainberezitutik hartuko dituen izango da azkenik erabilera gainberezitua.

Bibliografian ugari dira nazioarteko arauen aipuak, beti ere giza hizkuntza naturalaren sistema osagarriak edo aukerakoak direla esaten delarik. Era berean jasotzen da erabilera hauen guztion arteko gainezarpena eta bereziki erabilera berezituaren eta gainberezituaren muga-lerro mehearen kontua. Cabréren (1993) iritziz hizkuntza artifizialak 1) asmatuak dira, 2) hizkuntza naturalaren oinarria dute, 3) alde aurreko kontzeptualizazio batetik abiatzen dira, 4) esangura bakarreko irakurketa eskaintzen dute eta 5) hiztegi- eta morfosintaxi-baliabideen multzo txikiez osaturik daude. Berezituak izan arren, artifizialak ez diren erabilerak, aldiz, 1) ez dira asmatuak, 2) hizkuntza naturalaren barrukoak dira, 3) onar dezakete osagai berriak alde aurretik ondo kontzeptualizatu gabe, 4) nolabaiteko sinonimia erakusten dute eta 5) hiztegi eta morfosintaxi osoa dute eskuragarri, zenbait aukera egiten badituzte ere. Beti Cabréren (1993) esanetan, erabilera berezitu hauek hizkuntza artifizialek edota nazioarteko arauk bezala, 1) nahiko kontzeptualizazio sendoa dute, 2) ez dute erabilera orokorrak bezain erraz onartzen osagai berririk, 3) oso sinonimia murrizta dute, 4) hizkuntzetan zeharreko ulerkuntzarako aukera handia eskaintzen dute eta 5) ez dute hizkuntzaren funtzio poetikoa eta emotiboa garatzen. Hizkuntzaren baliabide guztien berri emateko unean, (7)ko lau borobil barruan sarturiko baliabide guztiak izan behar dira kontuan.

Aurrean ikusitakoaren arabera erraz ikus daiteke nazioarteko arauk osaturiko sistema bakoitzak hizkuntzari dagozkion hainbat mailatako gogoetak egiteko aukera emango digula. Hala ere, bi sail nagusi daramatzen antolakuntza emango diogu lanari. Batetik nomenklatura esaten zaien sistemak izango

<sup>3</sup> Zorrotz jokatzuz gero onartu behar dugu gerta daitekeela erabilera gainberezitu batzuk lege naturalen barruan bere osotasunean gauzatzea. Azken fiabardura honek, dena dela, ez du eraginik izango lan honetan lege naturalak/lege artifizialak bereizkuntza horren inguruan eman nahi dugun ikuspegi nagusiaren gainean.

ditugu hizpide eta nazioarteko arauk baldintzaturiko hiztegi gintza aztertu beharko dugu. Bestetik, hizkuntza artifizial delako izenaren pean aipatu ohi diren sistemak izango ditugu aztergai, eta nazioarteko arauk baldintzaturiko joskera ikusiko dugu azken batean.

## 1. NAZIOARTEKO ARAUEK BALDINTZATURIKO HIZTEGIGINTZA

Nomenklatura esan ohi zaien arau hauek, hiztegi gintza hutsaz harantzagoko lana eskatzen digute: era daitezkeen izenen kopurua, batzuetan behintzat, mugagabea da, baina finkaturik dago bai izen bakoitza nola eratu, bai eta hizkuntza bakoitzaren harrobira noiz jo ere.

1.1 atalean, ondo zedarriztatu beharko ditugu mailegutzara ezinbestez garamatzaten arauak batetik, eta euskararen harrobiko hitzak txertatzeko nolabaiteko aukera ematen diguten arauak bestetik; areago, mailegutzara makurtzean ere zenbaitetan euskararen soinu- eta ortografia usadioaren arabera moldatu beharko direnak eta bestalde ikutu gabe utzi behar direnak ere ondo finkatu beharko dira. 1.2. atalean nazioarteko arauk euskararen baitan sortuko dituzten hitz elkartu arrotzak izango dira aztergai baina halaber zenbaitetan euskara orokorraren hitz elkartuak ere egin beharko direla ikusiko dugu. 1.3. atalean. nazioarteko arauk euskarari dakazkioten eratorbide berriak bilduko dira, baina, era berean, arauk zenbaitetan ezartzen duten eratorbide naturalen berri eman beharko dugu.

### 1.1. Mailegutzaren inguruan

Ezagunak dira euskal hitza zein den erabakitzeke Euskaltzaindiak erabili dituen eta erabiltzen ari den irizpideak, baina guztiok dakigu era berean erabilera berezituetan mailegutzara jotzeko beharra era ugaritara sumatzen duten hiztegi gileak daudela. Nazioarteko arauk irizpide berriak ekar ditzakete eztabaida-gune honetara: horrelako kasu gehienetan mailegutzara ala harrobira jotzeko aukerak arautuak daude. 1.1.1. atalean taxonomia sistema hirukoitza hartuko dugu hizpide eta 1.1.2. atalean agerian jartzen saiatuko gara Kimikako nomenklatura bezalako sistemek harrobira edo mailegutzara jotzeko aukerak zorrotz arautuak dituztela.

#### *1.1.1. Mailegutzarekiko hiru hurbilketa baliokidetarako arauak: taxonomia*

UZEIk (1984) egindako izendegian, hiru hurbilketa mota suma daitezke mailegutzarekiko, azken batean bizidunen maila bateko eta besteko talde-izenen hiru sistema baliokide eratu baitziren lan horretan.

## a) Maila guztietako taxon-izenak latin hutsez

Sailkapen horretan finkatu diren taxonek, hizkuntza guztietan zehar ikutu gabe utzi behar den latinezko segida bakarra dute.

Inolako salbuespenik gabe, bi hitzez eratuko dugu taxonomiaren oinarria den espezie-izena, beti ere latinararen joskera-arauak erabiliz: lehenengoa, espezieetik gora dagoen generoa deritzon bizidun multzo bat adierazten duen izen bat da eta bigarrena, genero horren azpian dauden espeziea bera adierazten duen izen edo izenondo bat. Horrela gure otsoak (8) izen bikoitza du. Espeziez gorako unitateek, latinezko hitz bakarra hartzen dute eta gure adibideko animalia ezagun hori, (9a)ko generoaren eta (9b)ko klasearen barrukoa da.

- (8) *Canis lupus* (espeziea)
- (9) a *Canis* (generoa)
- b *Mammalia* (klasea)

Latinezko izenak batez ere diskurtso naturaletik kanpo eta bizidun multzo baten ezaugarrien ordezkotza gisa erabiltzen dira. Izan ere, hizkuntzaren erabilera naturalean txertatzeko ez dira oso erosoak, baina, hala ere, bideragarriagoak bide dira latinezko izenarekiko aposizio bat eginez: goranzko mailakaketaren arabera, *espezie, genero, familia, orden, klase, phylum* eta *erreinu* taxonak adierazten dituzten izenak erabil ditzakegu aposizioaren bigarren osagai gisa.

## b) Taxon-izen mailegatu batzuen moldapenak

UZEIk (1983) adierazitakoaren arabera, alemaniera bezalako hizkuntza batzuetan, generotik goragoko taxon-izenak eratzeke unean, aipaturiko latinezko izen horiek erabiltzen dituzte batez ere (10a), edo, bestela, harrobiko hitz bat hautatu dute (10b) latinezkoaren ordezkotza gisa.

- (10) a Umbelliferae
- b Goldengewachse

Hala ere, alemanieran bertan zenbait kasutan (11), eta era orokorragoan gaztelania, frantsesa edo italiara bezalako hizkuntza batzuetan, latinezko sistema ahaztu gabe (12a), latinezko izenetatik abiatutako ohiko ebakera eta ortografiarako moldapenak ere egin dituzte berariaz, edo besterik gabe izenak beraz herriartu dira (12b).

- (11) Koniferen
- (12) a Coniferales
- b Coníferas, Conifères
- Seláceos, Selaciens

Euskararen kasuan ere horrela egitea erabaki zen. Oro har, latinezko izenetatik (13a) edo euskararekiko soinu-hurbiltasun handiena duen gaztelaniaren izenetatik (13b) abiatu ziren moldapen horiek egiteko.

- (13) a Koniferaleak  
b Selazioak

Oro har, beharrezkotzat jo izan da oso talde ezagunen kasuan euskarara egokitutako formak izatea eta hala egin da (14), zenbaitetan euskarak (mailegu irentsietan) duen morfologia egitura ere kontuan hartu delarik (15).

- (14) Poliketoak, Intsektuak  
(15) a Equinodermados, Rizópodos  
b Ekinodermatuak, Errizopopodeoak

UZEIk, euskal izenik ez duten familia eta orden ugariri esleitu zion mailegu moldatua. Larrañagaren (1996) lanean, adibidez, sistematikoki moldatu dira Euskal Herriko ornodun lehorrak biltzen dituzten klase, orden eta familien izen guztiak.

Herri mailako hitzez bereiztea zaila gertatu zenean ere, zientzi izenaren moldapena erabili zen maila batean edo bestean (16). Izen asko, bestalde, euskaraz ere herritartuak zeuden eta hala hartu ziren (17).

- (16) a birusak  
b paramezioa, anofelea  
(17) dalia, tenia, aktinia, ostra, zebra, kamelia

Esan gabe doa honelakoak jatorriz latinezko izenek duten zehaztasun berbera dutela.

- c) Harrobitik harturiko herri-izenak  
c1) Espezieetik goragoko izenak

UZEIrekin bat eginez, esan beharrekoa da, nazioarteko esparru honetan egonda ere, euskal harrobiko bizidun-izenak saihestezinak direla. Berez, nola edo halako tradizioa duten harrobiko izenak (18a) edo mailegu irentsiak (18b) izanda, latinezko izenen moldapena ez zen beharrezkotzat jo.

- |        |                 |             |           |
|--------|-----------------|-------------|-----------|
| (18) a | <i>Aves</i>     | #Abeak      | Hegaztiak |
| b      | <i>Animalia</i> | #Animalioak | Animaliak |

Zalantza-izpi bat suma daiteke ordea zenbait taldetan eta gaur egun behintzat oso ezagunak diren euskal harrobiko izen batzuen aldamenen mailegu moldatua ere eman zuen UZEIk (19a). Areago, zenbaitetan ez da latinezko izen jatorrizkoa ematen (19b) eta beste zenbaitetan hedatuagoa den mailegu moldatuaren aldamenen oso tradizio sendoa ez duen harrobiko izena dago (19c).

- |        |                 |              |              |
|--------|-----------------|--------------|--------------|
| (19) a | <i>Mammalia</i> | Mammalioak   | Ugaztunak    |
| b      |                 | Errodentioak | Karraskariak |
| c      | <i>Anfibia</i>  | Anfibioak    | Urlehorrak   |
|        | <i>Algae</i>    | Algak        | Gorbekak     |

Latinezko izenaren mailegutza baztertuz, zenbaitetan hitz berria eratu zuten.

(20) kotiledoibakarrak, kotiledoibikoak

Aurreko harrobiko hitzekin batera ordea, nahiko ezagunak eta eztabaida-tuak izan diren mailegu batzuei (Altonaga 1998a eta 1998b, Zabala 1999a), ez zitzaizkien esleitu ezagun samarrak diren harrobiko izenak.<sup>4</sup>

(21) Intsektiboroak (intsektujale)  
Karniboroak (haragijale)

c2) Espezie-izenak

Espezie-izen guztiei eman zaie euskal ordaina oro har eskuragarri zeuden izenak osatuz edo beste hizkuntzetatik izenak mailegatuz.

(22) *Triturus marmoratus* uhandre marmolaire  
*Triturus helveticus* uhandre palmatu

Espezieen zerrenda ia osorik plazaratzearekin batera egileek bi ideia al-darrikatu nahi izan dituzte: alde batetik, izen hauek erabateko baliokidetasuna dute nazioarteko latinezko izenekin, eta bestetik zerrenda osatzeak eman dien lana, euskararen diskurtso natural berezitua edo orokorra latinezko izenen eze-rosotasunetik askatu eta bizitasun berria lortzeko egin izan dute.

Aurreko guztia laburbilduz, nazioarteko taxonomia arauak moldatzeko aukerarik ez duten latinezko izenak eratzen dituzte (23-24), baina euskara bezalako hizkuntza batek, bestetik, badu aukera izenetako batzuk moldatzeko (25), edo nazioarteko sistemarekin erabateko baliokidetasuna bereganatuko duten izen arruntak erabiltzeko (26). Espezie-izenen kasuan gainera, harrobiko edo mailegu moldatuko ordain guztiak gauzatu dira hizkuntza honetan (27).

- (23) *Amphibia* (klasea)  
*Mammalia* (klasea)
- (24) *Triturus marmoratus*  
*Triturus helveticus*  
*Canis lupus lupus*  
*Canis lupus signatus*
- (25) Anfibioak
- (26) a urlehortarrak  
igelaren klasea  
b ugaztunak
- (27) uhandre marmolaire  
uhandre palmatu  
otso europar  
otso iberiar

<sup>4</sup> (21)eko bigarren zutabeak ez dira baztertu dietaren berri emateko baina, esan bezala, UZEIren (1984) lanean ez ziren erabili taxon-izenak eratzeko.

Gauzak horrela, zehaztasunaren inguruan egin izan den eztabaida beste norabait bidera liteke. Berez, edonolako izena eratzen dela ere, zehaztasuna bermaturik geratuko da hasieratik bertatik, eta ez da irizpide hori izango harrobiko izenak eratzea eragotziko duena. Hiru bide baliokide ditugu azken batean taxonomian.

### 1.1.2. Mailegutzaeren tokian tokiko mugetarako arauak: Kimikako elementu-izenak eta Fisikako magnitude- eta unitate-izenak

Arau hauek sistematikoki eramango gaituzte mailegutza eta moldapenera, baina zenbaitetan harrobiko izenak sartzeko aukera edo beharra gertatuko da. Kimikako elementuen izenak eta Fisikako magnitude- eta unitate-izenak aztertu behar ditugu ikuspegi honetatik.

#### a) Kimikako elementuen izenak

Hauetako bakoitza, elektroik-konfigurazio jakin bat duen atomo bati dagokio, eta bai maila makroskopikoan ezagutzen dugun gai bati ere. Beraz, nazioartean onetsi diren adigai batzuei izen bana esleitzeko lanak egin behar izan dira euskaraz behintzat. Izen horiek izango dira nazioarteko ikurrez eta zeinuz osaturiko joskerak artifizial idatziek euskaraz duten oinarria (ikus 2. sail nagusia).

Gai hauetako batzuk eguneroko bizitzan ezagun samarrak dira. Horri esker nonbait, baditugu euskal harrobiko zenbait hitz eta, jakina, horrelakoetara jo da nazioarteko sistemako kide hauei ordain sendoa emateko unean (28).

(28) berun, burdina, zilar, urre

Hala ere, elementu gehienek ez zuten inolako izenik euskaraz eta mailegatu egin behar izan dira ohiko moldapenak eginez. Zenbait kasu bakanetan, ordea, eztabaidatuagoa izan da eskuragarri zegoen hitza nazioartean onetsiriko kontzeptuari esleitu behar ote zitzaion. Horrela, Sarasolak (1997) plazartu zuen (29)ko *karbono* maileguari buruzko lehenengo kritika eta Odriozolak (1998b) ñabardura batzuk ekarri ditu eztabaida-gune honetara. Areago, (30)ekoak ere izan ditzakegu hizpide hemen.

	ESPARRU BEREZI- BEREZITUAN AUKERATUTAKOAK	HARROBIKO (LITERATUR) AUKERA	HIZTEGI BATUAK (ORAINGOZ) ONETSIRIKOAK
(29)	karbono	ikazgai	<u>karbono</u>
(30)	kobre merkurio	burdingorri zilarbizi	<u>kobre</u> <u>merkurio/zilarbizi</u>

Asko dira eztabaidan gogoan izan behar ditugun eragileak, mailegutzaeren aldekoak batzuk eta aurkakoak besteak:

1) Nazioartekotasuna dela eta, *karbono* ez da gure inguruko hizkuntza guzti-guztietan azaltzen, baina bai frantsesez eta ingelesez. Beraz, berbak hedadura handi samarra duela esan daiteke eta areago, euskaldun guztiok dakigun beste hizkuntza batean ere badela azpimarratu behar da bigarren irizpide nagusi gisa.

2) *Ikazgai*, *burdingorri* eta *zilarbizi* eskuragarri zeuden literaturan edota hiztegiatan baina eskuragarritasun hori ez zen maila berekoa kasu guztietan. Sarasolak (1996) baino lehenago ere, Azkuek (1905) eta Kintanak (1977) jaso zuten *ikazgai*. Elhuyarrek (1996a) bere aldetik, ñabardurarik gabe jaso zuen, baina Kimika esparrurako *karbono* mailegua gordez.

*Zilarbizi*, bestalde, lehendabizi Larramendiren hiztegian (XVIII.ean) ikus daitekeelarik, jaso zen Azkueren (1905) hiztegian ere, gure interesekoa den adiera eta guzti. Kintanak (1977) bere hiztegiaren hasierako argitarapenetan behintzat, ukatu egin zion adiera hori. Hitzza, beraz, *merkurio* maileguaren parean zegoen kimikako euskarazko testu modernoak idazten hasi zirenean. Elhuyarrek (1996a) eta Sarasolak (1996) ere onartu die adiera hori.

*Burdingorri*, lehendabizi XIX.aren bukaeran aurkitu delarik, ez dago Azkuerenean ez eta Kintanarenean ere. Beraz, nekez eskura zitekeen euskara teknikoaren hasierako garai haietan. Izan ere, Sarasolak askoz ere geroago plazaratu du hitza hustuketa-lan sakonaren ondorio modura. Bestalde, Elhuyarrenean badago.

Euskal hitzak direla baieztatzeko irizpidea bazen behintzat, literaturan (hiztegietatik kanpo) errotua egotearena ez bada ere. Horrekin batera, ez da ahantzi behar euskararen erabilera orokorrean edota literaturan har lezakeen edo bultza lezakeen adierazkortasun-balioa.

3) *Ikazgai*, *zilarbizi* eta *burdingorri* nahasgarriak gerta litezke bere egituretako buru diren *zilar* eta *burdin(a)* direla bide, eta, hortaz, eztabaida liteke, bai, *zilarra* ez denari *zilar* burua duen zerbait deitzea noraino har dezakegun eredu, berezko erabilera berezituatarako zein nazioarteko arauetako ikurren irakurketarako ere. Areago, *ikazgai* hitz elkartuaren osaerak baimentzen zuen beste adiera batekin jaso zuten Azkuek (1905) eta Kintanak (1977): ikatza egiteko gaia.

*Zilarbizi* delakoaren kasuan, gainera, eguneroko kontzeptu zabalei loturik doazen *vif-argent* eta *azogue* erdarazkoen parekotzat har zitezkeen eta azkenean baztertu egin zirela esan didate elkarrizketa batean.

Beste alde batetik ordea, gogoratu egin behar da termino izaera erabile-ra jakin batek ematen diola hitzari. Beraz, iharturik baleude bezala ulertuko genituzkeen hiru hitz (elkartu) ziren eta loturik idaztekoak izanda, *zilarbizi* eta *burdingori* berben kasuan nekez nahas litezke *zilar* eta *burdina* izen bera hartzen duten atomoekin berekin. Bestetik, ezin nahas daitezke era berean *zilar*

edo burdinaren inolako era makroskopikoarekin ere. Alde horretan, *ikazgai* baina egokiagoak izango ziren azken honek ageriko bigarren adiera bat baitzuen, edonola idatzita ere.

4) *Karbono, merkurio eta kobre* terminoek azken hamarkadotan erabileraz berezitan hartu duten tradizioa ere ez da alde batera utzi behar auzi hau epaitzerakoan. Izan ere, oso kontuan hartzekoa da hitz jakin bat hiztun-komunitatean txertatzeak eman ohi duen lana eta horretaz gain, Sarasolak (1997) oso ondo eginda egon ez arren sustraitzea lortu duten hitz batzuetarako eskatu duen "barkamen" bera merezi bide du gutxienez hamarkada biko tradizioa duen mailegu batek. Izan ere, Sarasolaren (1996) hiztegian ikus daiteke *karbono* ere lehendabizi 1936. urtean erabili zela hain zuzen ere Kimikako liburu batean. *Kobre* ere XVI.ean erabili zen.

5) Aurreko zehaztapen guztiak gogoan izan bide dituelarik, Euskaltzaindiaren (2000) Hiztegi Batuak (oraingoz) onetsi dituen hitzen aurrean eztabaida bukatutzat eman daiteke. Edonola, ikus bedi literatur erabilerarako edo erabilera orokorrerako nonbait utziz, *zilarbizi* ez dela baztertu.

b) Fisikako magnitude- eta unitate-izenak

Antzeko kontua dugu hemen. Hasteko, adigaiak nazioartean onetsi behar dira beti bezala. Bigarrenik, oro har hizkuntza jakin bateko adierazpidetik lortutako ikurrak ezartzen zaizkie horrelako adigaiei, nazioartean hau ere (ikus 2. sail nagusia). Bukatzeko, hizkuntza bakoitzaren erabilera berezitueta edo orokorrean dauden izenen auzia izan beharko dugu kontuan ostera ere. Magnitudeek eta unitateek tratamendu desberdinak jasotzen dituzte hiru maila hauen arabera.

Magnitudeei dagokienez, nazioarteko ikurrek hizkuntza bakoitzean islatuko dituzten hitz arruntak finkatu behar izan dira. Adigaiak askotan eguneroko bizitzan (eta, beraz, hizkuntzaren erabilera orokorrean) azaltzen direlarik, euskararen harrobiko izenak hautatu dira batzuetan (31a) eta mailegu irentsiak ere erabilera maila berean daude nonbait (31b) (IUPAC 1979, Euskaltzaindia 2000).

- (31) a luzera, indar  
b pisu, denbora

Areago, zenbaitetan hitz berriak asmatu dira (32a) edo tradizioko batzuei esangura-zabalkunde bat ezarri zaie (32b) (Ensunza 1983, Euskaltzaindia 2000).

- (32) a iragazkortasun, azalera  
b argitasun

Beste zenbaitetan ordea, mailegutza jo dute, hasiera batean antzeko harrobiko hitzak har zitezkeela zirudien arren. Hori dela eta, Hiztegi Batuan



behintzat onartu ez diren magnitude-izen batzuk aurki daitezke bibliografian (Ensunza 1983), nazioartean onetsiriko adigaia beregana lezaketen eta Hiztegi Batuan onartuak diren hitz batzuk baztertuz (33b).

- (33) a biskositate, fluxu (magnetiko)  
b likistasun, jario

Hirugarren maila batean, inolako eztabaidarik piztu ez duten maileguak hartu dira.

- (34) masa, entropia

Elementu-izenen esparruan baino egoera aldakorragoa dugu hemen: tan-  
kera askotako magnitudeak daude eta elementuen kasuan ez bezala Hiztegi  
Batuan bederen ez daude izen guztiak jasota.

Hizkuntzatik kanpoko arrazoiak direla eta, unitateen esparrua oso beste-  
lakoa da. Berez hizkuntzaren erabilera orokorrean ere azaltzen dira unitate-  
izen batzuk baina, zenbait kulturak izan ditzakeen unitate bereziak alde bate-  
ra utzirik,<sup>5</sup> unitate gehienak nazioartean sortuak dira eta, horrela, adigaia eta  
ikurra ez ezik ikurrak islatzen duen hitza ere mailegatu behar du euskarak beste  
hizkuntza batetik. Horrela, Ensunzak (1983) jasoriko unitate-izen gehienak  
maileguak dira eta erabilera bereziaren maila gora-behera, ez bide da (osa-  
tuz joango den) Hiztegi Batuan sartzeko eragozpenik izango.

Laburbilduz, nazioartean onetsiriko adigaiei laburtzapenak esleitzeaz gain  
hizkuntza bakoitzari harrobiko ala maileguzko hitzak esleitzeko aukera ematen  
duten sistemak ikusi ditugu, Kimikako elementu-izenen eta Fisikako magni-  
tude- eta unitate-izenen esku. Gogoratu behar da nazioartean ezaugarri jakin  
batzuk eta guzti onetsi diren adigaiok bere ikur nazioartekoak daramatzatela.  
Euskara bezalako hizkuntza batek maileguetara jo beharko du, baina nahas-  
ketarik gertatuko ez dela berma daitekeenean, harrobiko hitzak hauta ditzake-  
ela aldarrikatu dugu hemen. Hautua egin ahal izate horrek, hizkuntzaren hiz-

<sup>5</sup> UZEIren (1988) lanean dauden (i)koaren arabera behintzat, hain zuzen ere, kultura jakin  
batzuei dagozkienek eman diote euskarari harrobiko hitza erabiltzeko aukera. Hala ere, jatorriko  
hizkuntzatik sorturiko ikurrak mantentzen dira.

- (i) hazbete in  
oinbete ft  
oinbete libra ft.lb

Ikus bedi beraz nazioartekotasunaren inguruko eztabadaida sakonagoa behar duela esparru  
honek. Izan ere, UZEIren (1988) lanean, badira euskal harrobiko izena ez ezik euskal izen ho-  
rretatik sorturiko ikurrak ere badituztenak. Oro har nazioartean adigaiaz gain ikurra ere erabaki-  
tzen dela garbi dago eta oraingoz alde batera utzi behar ditugu kasu bakan hauek, bai eta esparru  
desberdinen artean nazioartekotasun horretan gerta daitezkeen gorabeherak ere.

- (ii) ampere-bira Ab  
argiurte A.u.  
bira/minutu b.min<sup>-1</sup>  
petrolio-tona baliokide ptb  
multiplo komunetan txikien m.k.t

tegi orokorra ondo ezagutzea eskatuko du batetik, eta bestetik esparru berezituari dagokion jakintza sakona ere oso garrantzitsua bide da, adigai/hitz harreman egokiak, hots, termino egokiak eratzeko. Hori dela eta, gure ustez hausnarketa gehiago egin behar da euskal hiztegi gintzan bederen, agian Zabalak (1999a) eta Altonagak (1998a, 1998b) taxonomiaz esandakoaren ildo beretik. Edonola, berriz esan behar dugu ez dirudiela terminoaren egokitasuna mailegu/harrobi hautuari dagokionik, eta batera ala bestera egitea, hizkuntz ideologia jakin batek ala beste batek bultzatuta gertatuko da ziurraski.

## 1.2. Hitz-elkarketaren inguruan

Nazioarteko arau batzuek nolabaiteko hitz elkartuak bideratzen dituzte: batzuetan, ez dute euskara naturalaren hitz elkartuen osaerarekin edo idaztararekin inolako zerikusirik eta, oro har, hizkuntzaren lege naturaletatik kanpoko hitz elkartuak izango ditugu horrelakoetan, baina beste batzuetan hitz elkartu arrunt horien antza dute edo, besterik gabe, euskal hitz elkartuak dira. Bi esparru hauen arteko ika-mikan eragile ugari izan behar ditugu gogoan.

1) Euskaltzaindiak (1987, 1991, 1992) euskal hitz elkartu guztien osaera deskribatzeaz gain hainbat idaztarau eman ditu erabilera orokorrerako: gainbegirada batean, mendekotasunezko hitz elkartuak marraz zein bereiz idatz daitezke (35).

- (35) a eskola(-) irakaslea  
(eskoletan lan egiten duen) irakasle bat  $\neq$  eskola
- b hizkuntzalaritza(-) irakaslea  
(hizkuntzalaritza irakasten duen) irakasle bat  $\neq$  hizkuntzalaritza
- c afari(-)kontuak  
(kontuen artean,) afaria(rena) = kontu bat

Aposizioak (36) eta atribuziozko hitz elkartuak (37) bereiz idazten dira

- (36) Euskaltel konpainia  
(Euskaltel izeneko) konpainia bat = Euskaltel
- (37) a bertsolari poeta  
poeta den bertsolaria
- b harri zilindroa  
zilindro itxura duen harria, zilindroa den harria

Elkarren arteko aposizioetarako, azkenik, Euskaltzaindiak ez du arau finikorik eman (38).<sup>6</sup>

<sup>6</sup> Elkarren arteko aposizioei dagokienez, Odriozolak (2000b) nabarmendu egin nahi izan du batetik berrelkarketa hau euskararen erabilera orokorrak sortutakoa dela baina bestetik oso maiztasun handiz azalduko dela erabilera berezituetan eta gainera erabilera berezituetarako idaztarauak

- (38) a Paris-Bonn ardatza  
 Parisetik Bonnera doan ardatz bat  
 b Kohl-Miterrand elkarriketa  
 Kohl eta Miterranden arteko elkarriketa  
 c hitzun/idazle koefizientea  
 hitzun kopurua idazle bakoitzeko

2) Aurrekoen artean, batez ere egitura ilunak saihesteko eta esangura korapilatsu batzuk ondo kodetzeko, zenbait hautu egin dira berezko erabilera berezituertarako eta zehazkiago mendekotasunezko hitz elkartuei begira (Odriozola 1997 eta 1998a, Zabala 1999a).

- (39) a animalia-bizkarroia  
 (animalietan bizi den) bizkarroia  $\neq$  bizkarroia den animalia  
 b molekula-emailea  
 (molekulak ematen dituen) emailea  $\neq$  zerbait ematen duen molekula

1.2.1. azpiatalean, euskararen legeetatik kanpoko hitz elkartuak ikusiko ditugu eta 1.2.2. azpiatalean euskararen ohiko legeek sortzen dituztenak.

### 1.2.1. Euskararen lege naturaletatik kanpoko hitz elkartuak

Osaeraren eta idaztarauen aldetik, nazioarteko arau batzuk era korapilatsuan gainezarrita daude euskal hitz elkartuekin. Hitz elkartuak euskararen lege naturaletatik kanpo dauden neurrian, nahiko hurbil ibiliko gara Euskaltzaindiak (1992) definituriko exoelkarteetatik.

a) Kimika ezorganikoko nomenklatura sistematikoa eta entzimen nomenklatura

Egiturak osagai bikoak dira. Kimika ezorganikoaren kasuan (Ordax eta Arrizabalaga (1994) bigarren osagaian izen gutxi batzuk ager daitezke, baina lehenengo osagaian, askoz ere elementu gehiago daude eskuragarri. Azken

---

ardura handiz finkatu beharko lirатеkeela. Izan ere, horrelakoak oso harreman estuetan egongo dira nazioarteko zenbait idaztaraurekin: hizkuntza askotan azaltzen dira eta hitz-hurrenkera gora-behera, nazioartekotzat jo daitezke berez.

- (i) a U-C-T segida,  
 b presio/bolumen diagrama  
 c azalera /ur-galera kurba  
 d cis-trans isomeria  
 e anerobiosi /aerobiosi aukera  
 f kobre/eztainu aleazioa  
 g likido/solido nahastea  
 h karbono-karbono lotura  
 i angelu leun/denbora zatidura

hauek bigarren osagaia mugatzen dutela esan daiteke. Hasiera batean, beraz, ados daude euskararen mendekotasunezko hitz elkartuekin.

- (40) a aluminio oxidoa  
aluminotik abiaturik eratutako oxidoa  
b aluminio hidroxidoa  
aluminotik abiaturik eratutako hidroxidoa

Entzima-izen (gomendatu)<sup>7</sup> eredu orokorrak ere (IUMB 1992, Odrizola 2000a), bi osagai dituelarik, euskararen mendekotasunezko hitz elkartuekiko antzekotasun berbera azaltzen du.

- (41) a alkohol deshidrogenasa  
alkohol batek parte hartzen duen erreazioan laguntzen duen deshidrogenasa  
b 2-deshidro-3-desoxi-L-arabinonato deshidratasa  
2-deshidro-3-desoxi-L-arabinonatoak hartzen duen erreazioan laguntzen duen deshidratasa

Kimika ezorganikoaren eta entzimen eruedetan sakonduz, ordea, berehala ikus daiteke euskarak sortuko lituzkeen mendekotasunezko hitz elkartuetatik harantzago joan daitezkeela nazioarteko egiturak. Kimika ezorganikoan, balentzia bat baino gehiago izan dezaketen elementuen kasuan adibidez, tartekatzen diren parentesi batzuen barruko zenbaki baten bidez (42) edo zenbait konposaturen kasuan aukera gisa aurrizki batzuen bidez (43) ematen da balentziaren berri.

- (42) a berun(II) oxido  
berun(II) hidroxido

<sup>7</sup> Izen sistematikoak, informazio zabalagoa ematen dutelarik, askoz ere korapilatsuagoak dira eta ezin hobeki islatzen dute erabilera gainberezitu baten eredu: nomenklaturak ematen dituen ondorioak erabiltezinak dira euskara berezituaren diskurtso naturaletan eta izenak zerrendetan bakarrik erabiltzen bide dira, erreazioaren ezaugarrien multzoaren ordezkari gisa nonbait (Odrizola 2000a).

- (i) izen sistematikoak  
a alkohol:NAD<sup>+</sup> oxidorreduktasa  
b azil-CoA:azetato CoA-tranferasa  
c fenilpirubato zeto—enol-isomerasa  
d L-tirosina—tRNA ligasa

6. oharren ildotik ikus bedi honelakoak elkarren arteko aposizoen ereduak direla. Izen gomendatu batzuk ere nahiko erabilgaitz gertatzen dira diskurtso naturaletan (iia). Horrelakoetan oso ohikoa da arauetatik kanpo dagoen izen bakun bat erabiltzea (iiib).

- (ii) izen gomendatuak  
a hidroximetilglutaril-CoA erreduktasa (NADPH)  
b [hidroximetilglutaril-CoA erreduktasa (NADPH)] kinasa  
(iii) diskurtso naturala  
a #hidroximetilglutaril-CoA erreduktasa (NADPH) kinasak hidroximetilglutaril-CoA erreduktasa (NADPH) inaktibatzen du  
b hidroximetilglutaril-CoA erreduktasaren kinasak hidroximetilglutaril-CoA erreduktasa inaktibatzen du

- b berun(IV) oxido  
berun(IV) hidroxido
- (43) a kloro(I) oxido / dikloro oxido
- b kloro(III) oxido / dikloro trioxido

Entzimen kasuan ere, bi osagaitik gorako segidak azal daitezke eta areago, marra bi osagaien arteko lotura adierazteko erabili beharrean osagai bakoitzak dituen azpiosagaien arteko loturak adierazteko erabiltzen da marra.

- (44) a ortselinato-depsido hidrolasa  
ortselinato-depsidoak parte hartzen duen erreakzioan laguntzen duen hidrolasa
- b sukzinil-CoA hidrolasa  
sukzinil-CoA-k parte hartzen duen erreakzioan laguntzen duen hidrolasa
- c azetato CoA-transferasa  
azetatoak parte hartzen duen erreakzioan CoA lekuz aldatuz laguntzen duen transferasa

Hori dela eta, ezin pareka ditzakegu bi edo hiru osagaiko egitura hauek euskararen mendekotasunezko hitz elkartuekin eta idaztarauak ere oso bestelakoak izango ditugu. Hala ere, Odriozolak (1997, 1998a) nabarmen utzi du ardura handiz bereizi beharko direla erabilera gainberezituko egitura hauek nahiko antzekoak diren erabilera berezituko hitz elkartu mendekotasunekoetatik.

- (45) erabilera gainberezitua
  - a aluminio oxido  
berun(II) oxido
  - b alkohol deshidrogenasa  
sukzinil-CoA hidrolasa
- (46) erabilera berezitua
  - a aluminio-konplexu  
berun-ekarpen
  - b alkohol-askapen

b) Kimika organikoa eta Biokimika: eratorpenaren eta hitz-elkarketaren artean

Ez da hau lekua bi nomenklatura zabal eta korapilatsu hauetan sakontzen hasteko. Esan dezakegu gutxienez hemen ere euskararen legeetatik kanpoko hitz elkartuak ditugula. Badago ordea nazioarteko arauen artean orain arte ikusi ez dugun gertaera bat: euskararen lege naturaletatik kanpoko erabide bat, eratorpenaren eta elkarketaren arteko zalantza azaltzen duena. Fenomeno hau zabal samarra bada ere, adibide bakar bat aipatuko dugu hemen: biokimikarien artean oso aspaldikoa eta ezaguna izan arren konpondu gabe dirauen erra-

dikal-izenen auzia. Odriozolak (2000a) hizkuntzalaritza hurbilketa bat egin nahi izan du irizpide garbien bila.

Nazioarteko erakundeek erabili ohi duten hizkuntzatik abiaturik, ingelesezko *-yl* bukaera bi tokitan azal daiteke nomenklaturan: talde kimiko batzuen izen beregainen bukaera gisa eta nomenklatura sistematikoak sortzen dituen segiden aurreko zati gisa (nonbait beste aurrizki batzuek hartzen duten toki berean). Euskarak (Ordax eta Arrizabalaga 1994), eta soinu-egituretan hurbil samar dagoen gaztelaniak (Peterson 1976b), *-ilo* bukaera ezarri dute lehenengo kasuan (47) eta *-il* bigarreneko egoeran bide daudenetarako (49). Frantse sak (48) *-yle* dauka (idatziz) lehenengo kasuan.

- (47) metilo
- (48) methyle
- (49) 2-metilheptano, dimetilpropano, 4-etil-5-isopropil-3,4-dimetil-7-propilundekano
- (50) 2-metiloheptano, dimetilopropano, 4-etil-5-isopropil-3,4-dimetilo-7-propilundekano

(47/49)ko adibideetan bereizkuntza gardena da. Esan beharrekoa da, ordea, nomenklatura honek duen kasuistika zabala ardura handiz banatu behar dela morfologi bereizkuntza horren arabera. Izan ere, Azkaratek (1990) euskal hitz elkartuei buruz egindako lanean, oso saio interesgarria eskaini zigan elkarketa eta eratorpenaren arteko mugaz edo mugarik ezaz. Ildo bereko lan handia dago oraindik egiteko euskararen erabilera gainberezitu hauetan, baina alderantzizko norabidekoa, nonbait: erabaki egin beharko da (47)koan bezala zeri esleituko diogun izen beregainaren izaera eta zeri (49)koan bezala aurrizki edo zati lotuaren izaera. Horrela, *-ilo* eta *-il* bukaerak azalduko zaizkigu hurrenez hurren, baina horrekin batera, (47)ra edo (49)ra egitea ez da erabaki inozoa izango. Lehenengoan izen kategoriako sarrerak lortuko ditugu euskararen erabilera (gain)berezituetarako eta hori tankera jakin bateko hiztegieta islatuko da. Bigarren kasuan, finkatu beharko genuke *-yl* eta aipatu ez ditugun bestelako zati mailegatu batzuk nazioarteko aurrizkitzat jotzeko aukerarik ote dagoen. Izan ere, egun (49)koaren aldeko aukera egin dela badirudi ere, (50)ekoa ez zatekeen bururik gabeko aukera bat izan.

### 1.2.2. Euskararen hitz elkartu naturalak

Nazioarteko arauak euskaratzerakoan zenbaitetan euskararen hitz-elkarketa naturaletara jo behar dugu entzimen izenenetan edo taxonomian.

#### a) Entzima-izenak

Ingelesaren usadiora makurtuz, entzima-izenen eredu orokorraren barruan parentesien artean eta aukera modura azal daitekeen eransgarria, ingelesaren

hitz elkartu arrunt bat da, hizkuntza horretan egin ohi den bezala marra batez islatua. Osaera honetako hitz elkartua badago euskaraz ere eta oraingo honetan geurean sar dezakegu ingelesak nazioarteko arauari eskaini bide dion marra hori.

- (51) L-tirosina-tRNA<sup>Tr</sup> liasa (AMP-eratzaillea)  
liasa (AMP-ziklatzaillea)  
(52) ATPasa H<sup>+</sup>/K<sup>+</sup>-trukatzaillea

Azpirarratu beharrekoa da euskararen lege naturalen txertatzeko aukera hau eta areago erabilera berezitan erabili ohi den marra erabili ahal izateko aukera ere, ingelesak eta euskarak elkarrekin izan ditzaketen antzekotasunei zor zaizkiela. Beraz, horrelako hitz elkartuak nazioartekotzat jo daitezke, baina ez da bidea hain gozoa izango tankera horretako hitz-elkarketarik ez duten gatzelania edo frantsesa bezalako hizkuntzetan. Edonola, nazioarteko arauak euskararen baitan sistematikoki sortzen dituen hitz elkartu naturalak ditugu.

## b) Taxonomia

1.1. azpiatalean ikusia dugu bizidunen espezie-izen guztiak osatu direla, euskararen diskurtso natural batean erabiltzeko aukera eskaintzeko asmoz. Izen horiek askotan euskararen hitz-elkarketa batetik sortu dira, baina entzima-izetan ez bezala, noizean behingo prozedura dugu hemen. Berez nazioarteko arauak latinezko izenatarako arauak bakarrik ematen dituzte eta aztergai ditugun hitz elkartu hauek, nazioarteko latinezko izenekiko erabateko baliokidetasuna izango duten izen naturalak lortzeko prozedura sistematikoaren aukerarako bat dira. Hitz elkartuen idaztarauak beraz, hizkuntza orokorrerako Euskaltzaindiak emandako aukeren artean erabilera berezituatarako egindago hautuei egokituko bide zaizkie.<sup>8</sup>

- (53) a itsas arrano, euskal bale,  
a' ipar-belatz, ogi-ARBOLA, ibai-lanproi, etxe-txakur  
a'' labemozorro, lusagar  
b ermitari-anemona, globoarrain, suge-arrain, katuarrain  
b' triku mairu  
c pago hostandi, lezka ostozabal, murgil lepagorri  
c' hiruosta, milazango  
d Milos sugandila, Hermann dordoka

<sup>8</sup> (53a-a''-a''')koak mendekotasunezkoak direla esan daiteke, loturik, marraz eta bereiz itxuratuta ager badaitezke ere. Mendekotasunezkoak jo behar ditugu era berean (53b)koak baina eredu horretan eta (53b')ko atribuziozko eredu (Euskaltzaindia 1992) osagaien arteko harreman berberari dagokio (ikus testuan hitz elkartuetarako sarrera modura dagoen 1.2. saila); hitz elkartu hauek, erabilera berezituari dagokienez behintzat, azterketa sakonago baten beharrea daude. Bestalde hitz elkartu exozentrikoak ikus ditzakegu, oro har izenen aldameneko izenondo gisa (53c) edo izen gisa (53c'). (51d)koak, aposizioak ditugu.

### 1.3. Eratorpenaren inguruan

Erabilera gainberezituko edota hizkuntzaren lege naturaletatik kanpoko eratorpenak izango ditugu hizpide 1.3.1 azpiatalean. 1.3.2. azpiatalean, bestalde, nabarmendu egin beharko dugu nazioarteko arauak zenbaitetan euskararen lege naturalen barruko eratorpena jotzera eramango gaituztela.

#### 1.3.1. Nazioarteko arauak ezarritako eratorbideak, euskararen erabilera gainberezitua

Esparru honetan euskaratik kanpoko aurrizkiak, erroak edota atzizkiak erabili beharko ditugu, baina batzuk besteekin lotzeko arauak garbi daudelarik, izen berriak itxuratzeo aukera izango du ikertzaile euskaldunak euskararen baitan. Areago, izen horiek euskaraz sortu eta nazioarteko esparrura itzul daitezke. Azken batean ez gara oso urrun ibiliko maila jasoko aurrizkien bi-dezko eratorpenetik (UZEI 1982). Nabarmendu beharrekoa da era berean aurrizkiak eta atzizkiak edo erroak moldatu egin beharko direla, euskararako mailegutzan erabiltzen diren ohiko arauen pean. Hemen biokimikako entzimen izenak hartuko ditugu eredu.<sup>9</sup>

<sup>9</sup> Kimika ezorganikako nomenklatura funtzionalaren eredu orokorra (Peterson 1976a, Ordax eta Arrizabalaga 1994) zerrenda txiki bat osatzen duten izenetako batek (*oxido, hidroxido...*) eta askoz ere zabalagoa den zerrenda osatzen duten izenondoetako batek eratzen du (i). Izenondoa, latinezko izen batetik eratorri da eta agian eratorri beharko da aurrerantzean ere, baina gero gainontzeko hizkuntzetatik iragan gabe euskararen soinu- eta grafi sistemen araberako moldapenak eginez. Edonola, jadanik euskaratuak daudenetan ondo samar ikus daiteke harrobiko izenek ez dutela tokirik. Azpimarratu beharrekoa da hori nazioarteko erabidea hitz-elkarketa izan gabe eratorpena izateari zor zaiola. Izan ere, testuan aztertu dugun nomenklatura sistematikoa (ikus 1.1.2 eta 1.2. azpiatalak), euskararen legeetatik kanpoko hitz-elkarketa batean oinarriturik dago eta beraz, onartzen ditu euskal harrobiko hitzak.

(i)	a	oxido plunboso, hidroxido ferriko				
(ii)	a	oxido plun <b>oso</b>	b	oxido plun <b>iko</b>		
(iii)	a	anhidrido <u>hipokloroso</u>	b	anhidrido <u>perkloriko</u>		
(iv)	a	ferrum	b	*ferro/burdina	c	ferriko/*burdiniko
(v)	a	plumbum	b	*plunbo/berun	c	plun <b>iko</b> /*beruniko

(ivc)koan ortografi aldaketa hutsa dugu, euskararen usadioaren arabera egina; (vc)koa ere esan genezake ortografi kontua dela, alde batera utzi behar baititugu lan honetatik nahiko urrun kokatu beharko lirartekeen zenbait hausnarketa, leherkari ezpainkarien aurreko sudurkarietan gertatzen diren aldaketei buruzkoak. Ikus bitez ordea beste bi hauek.

(vi)	a	stannum	b	eztainu	c	<u>estanniko</u>
(vii)	a	calcium	b	kaltzio	c	kalt <b>ziko</b>

(vi)koan ez dugu euskal harrobiko hitzik, baina bai aspaldian gurean sarturiko mailegu bat (vib): gaur egun ezarriko ez genukeen moldapen bat du (*s/z*) (Mitxelena 1961: 280 orr., UZEI 1982: 132 orr.). Horrekin batera gogora genezake garai bateko moldapen batzuk gaur egun indarrean ez daudela eta beraz ez direla elementu-izenetan jaso (viii), nahiz eta normalizazio prozesuak sorturiko hitz askotan eta askotan jaso izan (ix).

(viii)	radio, radon, rodio, rubidio, rutenio
(ix)	erradio (mat.), erradioaktibo, errefrakzio, erregresio



Entzima-izen batzuetan konposatu bat edo talde erradikal bat aditzera ematen duen erro bat erabili behar da *-asa* atzizkiaren euskarri gisa. Horrelako konposatu-izenen kopurua, hasiera batean behintzat, mugagabea da eta, beraz, pentsatzekoa da etorkizunean euskaldunak entzima izen berriak eratzeko aukera izango duela edo, bestela esanda, substratu-izena + -asa euskararen erabilera berezituak bere egin duen eratorbide berri bat dela (Odriozola 2000a).

- (54) L-arabinolaktona ==> L-arabinolaktonasa  
 trehalosa-fosfato ==> trehalosa-fosfatasa  
 glizerofosfodiester ==> glizerofosfodiesterasa

### 1.3.2. Nazioarteko arauak bideraturiko eratorpen naturala

Entzima-izenena edo taxonomiarena ditugu hemen aztergai.

#### a) Entzima izenen eredu orokorreko eranskinak

Entzima-izenen eredu orokorrak badu parentesien artean edo bestela doan aukerako eranskin-osagai bat: *-asa* daraman osagarriaren atzeko egile-izen eratorria. Izen hau, nomenklatura gauzatzen ari den erakundeak (IUBMB 1992) egindako argitalpenean, ingelesezko aditzetatik eratoritzen den *-ing* atzizkidun hitz bat da.

- (55) a (*R*)-Mebalonato: NAD<sup>+</sup> oxidorreduktasa (CoA-azetilatzailea)  
 b L-ornitina amoniako-liasa (ziklatzailea)  
 b L-tirosina-tRNA<sup>Try</sup> liasa (AMP-eratzailea)  
 c ATPasa H<sup>+</sup>/K<sup>+</sup>-trukatzailea

Nazioarteko esparru honek bada, euskarari honelakoak ezarriko dizkio (Odriozola 2000a): 1) aditz jakin batzuk sistematikoki (azetilatu) edo noizean behin (ziklatu) mailegatuak, 2) horrelako izenak aditzetatik sistematikoki eratorriak (azetilatzaile) eta 3) harrobiko aditz zaharretatik (eratu) edo mailegu irentsietatik (trukatu) eratorririko egile-izenak(eratzaile).

S- horren aurreko *e-* gaur eguneko euskaldunok ezinbestez egiten dugun soinu-aldaketa baten araberako moldapen bat da; ezinbestekotasun hori euskaraz berez gertatzen da, gaztelaniarekiko mendekotasunik gabe nonbait (Mítxelena 1961: 156 orr.). Edonola, gaztelaniaz ere ezinbestez egiten da txistukarien aurreko epentesia. Ez da horrela gertatzen frantsesez. Izan ere, euskararekiko harremanetan dagoen hizkuntza frantsesa izan ezik okzitaniera delarik, gaztelania frantsesa baina askoz ere hurbilago dago euskararen soinu-sistematik; kasu hau izango litzateke horren adierazle bat, baina baita balio luke hurrengo batean irizpide gisa ez gaztelaniaren esanetara ibiltzeko, euskararekin hobeki moldatzen diren egiturak ezartzeko baizik.

(vii)koan azkenik, euskara estandarrak eskatzen duen soinu baten araberako aldaketa egin da ortografian ere.

## b) Taxonomiaren harrobiko aldea

Hirugarren taxonomi sortako espezie-izen asko, eratorpenean oinarriturik eratu ziren, aldameneko hizkuntzen eta latinezko ereduaren eraginpean. Hala ere, ez dago esan beharrik eratorri horietako asko lehenagotik eginda zeudela, izenaren aldamenean jartzerakoan nazioarteko izenen baliokidetasun erabatekoa lortu badute ere. Edonola, nazioarteko arauk zeharka sorturiko eratorpen noizean behingoak ditugu eta ez dira entzimen nomenklaturak ezartzen duena bezain egonkorrak.<sup>10</sup>

- (56) Europa ==> otso europar  
 hautsi ==> zume hauskor  
 lore ==> ainarra loretsu  
 muskuili==> ibai-muskuilutzar  
 diamante ==> apoarmatu diamantedun  
 dragoi ==> dragoitxo  
 zaldi ==> zaldiko

## 2. NAZIOARTEKO ARAUEK BALDINTZATURIKO JOSKERA

Nazioarteko arauk baldintzaturiko hiztegitintzan, nazioartean onetsiriko kontzeptuei izena emateko erabideak aztertu ditugu. Nazioarteko arauk baldintzaturiko joskeran ordea, adigaiak izendatu ez ezik, adigaien arteko harremanak eta eragiketak adierazteko baliabideak ere izango ditugu ikusmiran eta joskera horretan oso maila desberdinak bereizi beharko ditugu. 2.1. atalean gainbegirada bat botako diegu izen-sintagmaren mailarainoko joskera naturala sortzen duten esparruei. 2.2 atal bakar batean bildu behar ditugu (perpau mailako) joskera artifizialtzat jo izan diren eta nazioarteko ikurrez eta zeinuez osaturik dauden sistemak.

### 2.1. Nazioarteko arauk sorturiko izen-sintagma naturalak

Aurrean ikusi ditugun nomenklaturek, dakigunez, kontzeptuak izendatu baizik ez zuten egiten, baina azpimarratu beharrekoa da erabide horien ondorioak askotan, izen soilak izan gabe, izen-multzoak edo (mugatzailedun) izen-sintagma direla. Hori dela eta, saihestezina zen joskeraren sail honetan behintzat labur bat egitea.

a) Taxonomiako latinezko izenak bizidunen ezaugarrien zerrenden buru modura erabiltzen dira batez ere. Horrelakoetan, ez dute harremanik euskal

<sup>10</sup> Gure oraingo zereginetatik kanpo daude esparru honetan sintaxia (*filosofiazko*) eta eratorpen morfologia (*oinarriko*) elkarrengandik zedarritzatzea.

joskerarekin (57). Diskurtso batean txertatzen diren neurrian, nolabaiteko izen nagusitzat hartu eta mugatzailerik gabe erabil bide daitezke (58a), baina agian, ezinbestez, mugatzailea eramango duen aposizio baten esku etorriko zaie erabilera onena (59).

- (57) *Canis lupus* (izenburua)  
 (58) a *Canis lupus* aztertuko dugu  
       b ?*Canis lupus*-a aztertuko dugu  
 (59) a *Canis lupus* espeziea  
       b \**Canis lupus* espezie

Mailegu moldatuei eta harrobiko izenei dagokienez, UZEIren (1984) egileek beraiek ere bere kezka azaldu zuten honen inguruan; alde batetik garbi esan zuten mugatzailearekin batera baino ez direla azaltzen horrelako izenak hizkuntzaren baitan, baina, bestetik, *-a* itsatsiaren inguruko arrisku ezaguna ekarri dute gogora, euskararen hiztegi-tradizioari eutsi eta mugatzailerik gabeko egiturak emateko.<sup>11</sup> Ez dugu lan honetan harantzagoko gogoeta teorikorik egingo, baina kontuan har bedi UZEIk (1984) mugatzailerik gabe emandako izen guztien artean batzuek joskeran sartzerakoan hartzen dutela mugatzailea (bai eta joskera izenburu bat eratzea besterik ez denean ere), baina beste batzuek egituran bertan daramatela mugatzailea. Hau da, hiztegi baten sarrera gisa ere mugatzailea hartu beharko luketela dirudi. Aposizioek behintzat hala behar dutela esan izan da euskal bibliografian (Euskaltzaindia 1991).

- (60) baratxuri, saguzar, katagorri  
       itsas arrano  
       sekuoia erraldoi  
       triku mairu  
       musker adardun  
       pago hostandi  
       Schreiber musker(ra)  
       Galapagoetako dortoka erraldoi(a)

Hala ere, UZEIren lana izendegi hutsa izan zen. Partzialagoak diren gaintzeko lanetan (CANTON, B., M.N. Diaz eta M.C. de Pablo 1992a eta 1992b, Larrañaga 1996) ohiko antolaketari eutsi diote: mugatzailearen izenburua eta azpian bizidun multzoaren ezaugarriak, laburbildurik.<sup>12</sup>

<sup>11</sup> Lan honetan atzera egin eta (13-15) adibideetan ikus daitekeenez ordea, generotik gora-goko izenen moldapenetan mugatzailearekin batera (eta pluralean) eratu ziren.

<sup>12</sup> UZEIren (1986 eta 1988) definizio-hiztegiaren aukera bakarrari, hau da, mugatzailea jasotzeari eutsi diotela esan liteke. Hala ere, ulergarria da bestelako lan batzuetan (Elhuyar 1993, LUR 1996, EHUGET 1998) *-a* itsatsiaren eta mugatzailearen arteko desberdintasunaren berri emateko asmo (metalinguistikoko) hori.


b) Kimikako nomenklaturek eta formulazioek berez mugatzailerik gabeko egiturak ematen dituzte eta horrela erabil daitezke zenbait kasutan. Ez dute beraz ezinbestez joskerarik sortzen.



a sodio hidroxido gehi azido klorhidriko emateko sodio kloruro gehi ur

b enea-zeele gehiatxe-zeele emateko enea-zele gehi atxebi-o

c) Entzimen nomenklaturak sortzen dituenak mugatzailearekin batera azaltzen dira beti, bai eta zerrenden izenburu direnean ere.



L-tirosina-tRNA<sup>Tyr</sup> liasa (AMP-eratzaile)

## 2.2. Nazioarteko laburtzapenak joskera-sortzaile gisa

Laburtzapen esan ohi zaion hizkuntza gertaera, anizkoiztasun eta eman-kortasun handikoa da hizkuntzen erabilera berezituetan, bai eta erabilera gain-berezituetan ere. Hasteko, Wüsterrekin (1998) batera gogoratu behar dugu ahozko jatorria duten hizkuntzak berak giza burmuinak bideratzen duen ordezkapen batean dautzala: soinu-osagai batzuen bidez adierazten dira kontzeptuak edota izakiak. Hizkuntza idatzian, bigarren ordezkapen bat egiten da nonbait: berriz ordezkatzten dira soinu-osagaiak hizkuntza bakoitzaren arabera grafi eta ortografi sistema jakin bat erabiliz. Europako hizkuntzen sistemetan, soinu jakin bat islatzen duen hizkia da oinarria.

Laburtzapenek, gehienetan, idatzizko jatorria dute eta idatzizko osagai bat laburrago adierazteko eratzen dira: hirugarren ordezkapen bat, beraz. Lan honetan nazioartean argi eta garbi onetsiriko kontzeptuei esleituriko laburtzapenak bakarrik aztertuko ditugu: nolabaiteko joskera artifizialarekin loturik dauden ikurrak eta zeinuak, Palazioren (1997) terminologia bereizkuntza geureganatuz. Batzuek zein bestek, jatorri idatzizkoak izan arren, giza hizkuntzaren bidezko irakurketa ahozkoa jasan ohi dute. Gauzak horrela, esan liteke nolabaiteko joskeraren isla direla.

Hizkuntza jakin bateko osagaietatik harturiko hizki batzuez osaturik dauden ikurrak, oro har izenak edo izen-sintagmak adierazteko eratzen dira eta hizkiak ez bezalako osagaienez osaturik dauden zeinuen izen edo izen-sintagma horien arteko harremanak edo eragiketak adierazten dituzte. Horrela, ikurrak, bakarrik azal daitezke, baina batez ere zeinuekin batera erabiltzen dira. Lan honetan hautatu dugun hizkuntzalaritza-ikuspegiari eutsita, ikurrak zeinuetatik banandurik aztertu behar ditugu, baina ikurren 2.2.1 azpiatalean ikusiko ditugun guztiak, zeinuen 2.2.2 azpiatalean azalduko zaizkigu berriro: zeinuak iku-

rrekin batera soilik erabiltzen dira, izen edo izen-sintagma horien artean nola-baiteko joskera adieraziz.

### 2.2.1. Ikurrak

Esana dugu laburtzapean hauek hizkuntza jakin bateko osagaietatik harturiko hizki batzuek osaturik daudela: latinezko *ferrum* hitzetik harturiko *Fe* hizkiek osaturiko ikurrak burdina delako gaia adierazteko hautatu zen. Zer esanik ez, nazioartean onetsiriko izakiari (burdina eta bere ezaugarriak) nazioartean esleituriko ikurrak (*Fe*) irakurketa desberdinak hartuko ditu hizkuntzetan zehar. Gerta daiteke gainera hizkien banakako ahoskapenak osaturiko irakurketa berezi bat sortzea (*efe-e*). Kasu batzuetan eta besteetan, ikurrak nolabaiteko izen-sintagma edo izenaren adierazle edo sortzaile dira eta, bestalde, kontzeptuak adierazten dituztela esan daiteke.

Ikurren artean, ikur gisa oso bereziak diren zenbakiak, magnitude-izenen ikurrak, unitate-izenen ikurrak eta hizki soilak aztertuko ditugu.

#### a) Zenbakiak

Munduko hizkuntzetan zehar dauden gramatika-osagai batzuen, hau da, kuantifikatzaileen (Euskaltzaindia 1985) laburtzapenak dira. Gainera, ezaguna da hizkuntzetan zehar erabiltzen den nazioarteko sistema hau hamartarra dela, baina erraz ikus daiteke bestalde hizkuntzek izaki-kopuruak adierazteko dituzten hitzen morfologiaren oinarria ez dela beti hamartarra.<sup>13</sup> Horrek, dena dela, ez dakar inolako eragozpenik ikur-adierazpide bakoitzari bere osotasunean hizkuntza jakin baten hitz bat bere osotasunean esleitzen baitzaio.<sup>14</sup> Izan ere, zenbakiak badute geroago ikusiko ditugun zeinuetatik hurbil dauden bi ezaugarri: irakurketa bakarria hizkuntza bakoitzean eta hizkiak ez bezalako osagaiak. Ikurren artean koka daitezke, bestalde, izen-sintagma natural baten osagai izan baitaitezke.

<sup>13</sup> Lan honetatik kanpo dago zenbatzaileen jatorria eta morfosintaxia aztertzea, baina begibistakoa da oso esparru interesgarria dela. Ikus bedi azpiosagai batzuek badutela izena izanaren zantza. Euskara eta frantsesaren kasuan gainera, ezaguna da sistema hamartarreko aldeak.

(i)	<u>hirurogei</u>	sesenta	soixante	sixty
	hirurogeita hamar	setenta	<u>soixante-dix</u>	seventy
	laurogei	ochenta	<u>quatre-vingts</u>	eighty
	ehun	cien	cent	a/one hundred
	<u>berrehun</u>	<u>doscientos</u>	deux cents	<u>two hundred</u>

<sup>14</sup> Wüsterrek (1998) egindako bereizkuntzaren arabera, ikur soilen segidak izan gabe, laburtzapean elkartuak izango genituzke bertan. Ildo beretik, adibidez Euskaltzaindiak ehunekoan adierazpideetan erabiltzen diren zenbakiak eta % ikurra bera zeinu soilizat hartu zituen eta aldameneko hizkuntzetan ez bezalako hitz-hurrenkera ezarri zuen euskararen hitz-hurrenkera naturalaren arabera. Bazegoen ordea ikur-atalak bananezinak direla pentsatu, hau da, zenbakiak eta % ikurra ikur elkartuak zirela eta hurrenkera zegoen-zegoenean uztea ere.

Hirugarrenik, idazleak izakiak zenbakitzeko ageriko asmorik ez duenean, zenbatzaileak ohiko grafi sistemaren bidez islatzen ditu hitz arrunt gisa eta nazioarteko sistema hamartarrera jo gabe.<sup>15</sup>

Laugarrenik, aurrerago ikusiko dugun bezala, ikur batzuekin batera azaltzen direnean, oro har nazioarteko joskera artifizia bat izan arren, gai dira bai ikurrak ordezkatzeko duen izenarekin izen-sintagma naturalak eratzeko, bai euskararen joskera naturalarekin inolako zerikusirik ez duten egiturak eratzeko.

b) Magnitude-izenen ikurrak<sup>16</sup>

Badakigu euskararen magnitude-izenak euskal harrobikoak zein maileguak izan daitezkeela (ikus 1.1.2. saila). Ikurrek bestalde, euskararen barruko hitz arrunta har dezakete irakurketa gisa (erdialdeko zutabea). Oinarritzko magnitude fisiko gisa erabilzen diren artean (IUPAC 1979) ikus daitekeen bezala (61), erdialdeko zutabeko euskararen hitzak (harrobikoa, mailegu irentsia zein mailegu berria delarik ere) ez du ezinbestez ikurraerik ageriko harremanik.

(63)	I	luzera	ele
	m	masa	eme
	t	denbora	te
	I	korrante elektriko	i
	T	tenperatura (termodinamiko)	te
	n	substantzia-kopuru	ene
	I <sub>v</sub>	argi-intentsitate	iube

Zeinuk adierazten dituzten Matematikako eragiketen partehartzaile modura erabiltzekotan, (mugatzailadun) hitz arrunteko irakurketa egiten da (64).

(64)  $v=L/t$       abiadura berdin luzera zati denbora

Bestalde, ikurrak hizkuntzaren hitz arruntak ordezkatzeko direla gogoan izanik, (63)ko eskuinaldeko zutabeaz hizkuntz gertaera berezia azaltzen dela esan dezakegu: ikurrari hitz arrunteko irakurketa eman beharrean hizkikako irakurketa ematen zaio. Hau, batez ere (64)koa baino korapilatsuagoak diren formulen irakurketetan (65) egin ohi da, gehien batez hitz arruntez osaturiko irakurketak izango lituzkeen zailtasunak saihesteko.

<sup>15</sup> Azter liteke oraindik erabilera orokorreko (i) zein berezituko (ii) diskurtso naturalean nazioarteko sistema noraino bidera daitekeen.

(i) a #Badira 2 arrazoi birusak biziduntzat hartzeko

b 2 elektroi komun dituzte

(ii) a #Ez ahaztu gure 2 lagunak etorriko direla afaltzera (idatzizko oharra)

b Erosi 2 esne-kutxa mesedez (idatzizko oharra)

<sup>16</sup>IUPACek (1979) *kantitate fisiko* erabiltzen du *magnitude* izenaren ordez. Fisikazko hausnarketa sakonetan murgildu gabe, *magnitude* berba uztea erabaki dugu, Fisikaren esparru berezietatik kanpokoentzat hitz ezagunagoa eta ulergarriagoa gertatuko delakoan.

(65) PV=nRT      pe ube berdin ene erre te

Gainera, (65)eko formularen inguruko iruzkinak diskurtso naturalean txertatzeko, ikurraren bidez adierazi eta hizkika irakur daitezke magnitude-izenak.

(66) a P-k oso balio handia hartu du  
b ?P-ak oso balio handia hartu du

Hala ere, testuinguru hau oso murrizta da: formula bera behar dugu aurrean. Bestelakoetan (UZEI 1988, Odriozola 1994, Ugarteburu eta Irazusta 1994) ez bezala gainera, hizkikako irakurketak ez bide du mugatzailerik. Formula aurrean ez dagoelarik, honelakoak nekez erabiltzen dira testu batean berezko hitzaren ordezkio gisa.

c) Unitate-izenen ikurrak

Ez dute hizkikako irakurketarik (67). Zenbakiekin batera,<sup>17</sup> izen-sintagma natural bateko (Euskaltzaindia 1985) irakurketa hartzen dute (67a) eta beraz, erraztasun osoa dute testu natural batean idatziz edo ahoz txertatzeko.

(67) a 10 m                                      hamar metro                                      \*hamar eme  
b 10m-ko luzera du      hamar metroko luzera du

d) Hizki soilak

Hizki soil batez edo hizki multzo batez osaturiko beste ikurrek oro har, hizkiei dagozkien (euskal) soinetan oinarrituriko irakurketak hartzen dituzte, hau da, hizkikako irakurketak. Zenbaitetan, ez dago beste irakurketarik (68a) eta beste zenbaitetan berezko irakurketa hori luzeegia eta korapilatsuegia gertatuko litzateke (68b). Zenbakiak erabat ezinbesteko bihur dezakete hitz arrunteko irakurketa (68c).

(68) a  $y=a+b$                                       y berdin a gehi b  
b  $E=(i-f)/(i+f)$       e berdin i ken efe zati i gehi efe  
E: selektibitate-indizea  
i: hartutako janarian osagai batek duen proportzioa  
f: animaliak gertu duen janarian osagaiak duen proportzioa  
c  $Rr=-7.544 + 1.04 \pm 0.018Fr - 1.238 \pm 0.251 Frxf$   
Rr: aldaratze-tasa. Fr: iragazte-tasa.  
f: materia partikulatuaren eduki organikoa  
c' \*aldaratze-tasa berdin minus zazpi-koma-bost-lau lau gehi bat-koma-huts-lau gehi ken huts-koma-huts-bat-zortzi iragazte-tasa

<sup>17</sup>Bakarrik erabiltzeko ulean murriztapen handiak daude.

(i) a m                                      metro                                      \*eme  
b m-tan neurtu                                      metrotan neurtu                                      \*emetan neurtu  
c \*luzeraren unitatea m-a da  
luzeraren unitatea metroa da

gehi ken huts-koma-bi-bost-bat iragazte-tasa bider aldaratze-tasa

c” erre-erre berdin minus zazpi-koma-bost-lau lau gehi bat-koma-huts-lau gehi ken huts-koma-huts-bat-zortzi efe-erre gehi ken huts-koma-bi-bost-bat efe-erre bider efe

Hizkikako irakurketa hartu (ohi) duten unitate-ikurrek bezala, honetan ere ez da mugatzailerik azaltzen.

(69) a Rr-k balio txikia du erre-errek balio txikia du

### 2.2.2. Zeinuak

Zeinuak, ohiko hizkuntza idatzizko hizkietatik kanpoko osagaiak dira eta ikurrek ez bezala irakurketa bakarra hartzen dute: hizkuntza bakoitzaren hitz jakin bat, nolabaiteko joskera artifiziale islatzen duena. Oro har ikurrei dagozkien izen edo izen-sintagmen arteko joskeraren adierazle dira eta konzeptuen arteko harremanak edo eragiketak adierazten dituztela esan dezakegu.

Euskararen baitan, konpondurik dago arazoan zati handi bat (ikus Ensunza 1983, 1987a, 1987b Matematika eta Fisikarako, eta Odriozola 1994 Kimikako formulaziorako). Hala ere, hizkuntzaren azterketa sakonago batek, alde batetik, zehazkiago adieraziko bide digu noraino urruntzen garen erabilera naturaletatik eta, bestetik, agerian utziko digu urruntze hori ez dela euskararena bakarrik eta areago erabilera naturala bezain egokia izango den erabilera nazioartekoa lortuko dugula.

2.2.2.1 azpiatalean eragiketa-zeinuak ikusiko ditugu, 2.2.2.2 azpiatalean matematikako esparru zabalean erabiltzen diren bestelako zeinu batzuk eta 2.2.2.3 azpiatalean azkenik, Kimikako formulazioa eta erreakzioen adierazpideak.

#### 2.2.2.1. Eragiketa-zeinuak

Matematika-eragiketen beraien zeinuak ikusiko ditugu lehenik eta geroago, fisikako unitate konplexuen biderkaketa- eta zatiketa-zeinuen inguruko berezitasun batzuk.

a) Matematika eta Fisikako eragiketa-zeinuak

Hurrenkerari begira Matematikako eta Fisikako adierazpideen kasurako behintzat (Ensunza 1983), onarturik dago nola edo halako adierazpide artifi-



zial hauen irakurketetan linealtasuna mantendu (70) eta ohiko euskara (71a) ez bezalako zerbait<sup>18</sup> egin behar dela.

(70) 4 - 2 = 2      lau ken bi berdin bi

(71) a    lau eguni bi egun kentzen badizkiozu bi egun geldituko zaizkizu

(lau eguneko oporrei bi eguneko bidaia kentzen badiozu, bi egun bakarrik geldituko zaizkizu)

b    (ahozko mailan behintzat)

lau eguni bi egun kentzen badizkiozu, geldituko zaizkizu bi egun

Hori dela eta, bereizkuntza garrantzitsua egin behar da hemen izen-sintagmaren barruko hurrenkeraren eta perpaus mailako hurrenkeraren artean: berez, Euskaltzaindiak (1993) deskribatutakotik abiatu eta Osa (1990) bezalako egileek garatutakoaren arabera, joskera naturaleko euskal izen-sintagmaren hurrenkera eta perpausarena ez dira zurruntasun maila berekoak. (71a)koa ohikoa da maila idatzian, baina ez da hurrenkera bakarra ahozko mailan. Matematikako batuketa, kenketa, biderkaketa, zatiketa eta erroen adierazpideok irakurtzerakoan erdialdean ageri diren = edo ==> bezalako zeinuen hartzen duten kokagunea euskararen erabilera naturaleko ahozko mailan aditzari ematen zaion kokagune bera da (71b) eta hortaz ezin esan daiteke nolabaiteko perpaus mailan gauzatzen den hurrenkera hori euskararen erabilera naturalarekiko apurketa denik.

Zeinu horiek aditzaren tankerako zerbait islatzen duten neurrian Zabalak (2000) eta Ortiz de Urbinak (1998) erabilera naturalaren baitan deskribatu duten komunikazio-estrategia bera erabiliko litzateke nonbait ulerkuntza errazten duen osagaia (aditza) aurreratuz eta ulerkuntza geldoagoa daraman osagai astunagoa atzeratuz.

<sup>18</sup>Ikus bedi adibide bakar baten inguruan euskara, gaztelania eta frantsesaren baliabide naturalarekiko gertatzen diren hurbiltze-urruntzeak.

- (i) a    bi gehi bi berdin lau  
 b    dos más dos igual a cuatro  
 b'    \*dos mas dos igual cuatro  
 c    deux plus deux font quatre
- (ii) a    #bik eta bik egiten dituzte lau  
 b    dos y dos hacen cuatro  
 c    deux et deux font quatre

Alde batetik frantsesa, = zeinurako benetako aditza hautatu duelarik, hurbilago bide dago erabilera natural batetik. Izan ere gaztelaniak ez ohi du aditza egiten (iib) eta euskararen baitan oso bazerreko irakurketa izango litzateke aditzarena (iia). Ikus bedi ordea erabilera naturaletik urrun ikusi dugun gaztelaniaren *igual* izenondo horretan badagoela naturalagotzat jo behar den zerbait: erabilera naturalean izenondoa osagarri gisa hartzen duen *a* preposizioa. Ez da ordea euskaraz pareko genitiborik egin.

Maila jakin bateko eragiketek (deribatuak, integralak, erroak...) <sup>19</sup>, izen-sintagma baten barruan islatzeko beharra azaltzen dute. Izan ere, oro har ikurra + zeinua + ikurra bezalako segidak itxuratzen dira eta, hortaz, zeinuaren irakurketak ikurraren irakurketarekin batera kokatzea zilegiztutzen duen preposizio edo postposizio bat behar duela esaten bide du edonolako hizkuntza-zen senak. Gure aldameneko hizkuntzen izen-sintagma arruntaren hitz-hurrenkera eta nazioarteko araua bat datoz; horrekin batera preposizioek duten izen aurreko kokalekuak gauzak errazten ditu eta beraz, benetako izen-sintagma arruntak erazten dira.

$$(72) \quad \begin{array}{l} \text{integral de } x \\ \text{intégrele de } x \end{array}$$

Perpausak baino askoz ere hurrenkera zurrunagoa duen euskal izen-sintagma eratu nahi izanez gero, nazioarteko adierazpidearen alderantzizko hurrenkera egin behar izateaz gain, korapilatsu samarra izan daitekeen ikurraren irakurketari postposizio atzikia erantsi beharko litzaioke aldameneko hizkuntzen preposizioen ordeaz. Adierazpidea handiagoa den neurrian (73b), irakurketa naturala gero eta bideragaitzagoa da, eta une batetik aurrera erabat oztopatuko litzateke bat-bateko irakurketa. Ikusi bestalde (74) adierazpideari dagokion aukera.

$$(73) \quad \begin{array}{ll} \text{a } \int x & \text{ixaren integrala} \\ \text{b } \int x^2 + 2x & \text{\#ixa ber bi gehi bi ixa-ren integrala} \end{array}$$

$$(74) \quad \begin{array}{l} \text{a } \text{integral ixaren} \\ \text{b } \text{integral ixa ber bi gehi bi ixa-ren} \end{array}$$

Ez dirudi, ordea, euskal posposizioak jaso eta hurrenkera apurtzea oso zentzuzkoa denik eta beste hizkuntza batzuetan izen-sintagmaren egiturarekiko begirune handi samarra erakutsi bada ere, erabat kanpora joan gara mota honetako adierazpideen euskararen bidezko irakurketetan (75).

$$(75) \quad \begin{array}{l} \text{a } \text{integral ixa} \\ \text{b } \text{integral ixa ber bi gehi bi ixa} \end{array}$$

Izen-sintagmaren mailan, beraz, benetako apurketa ezarri da erabilera naturalarekiko. Hala eta guztiz, berriz esan behar dugu beste erabilera zuzen guztiak bezain zilegi izango den erabilera adostu bat lortuko dugula hemen ere, nazioarteko arauak eskatuta.

Ikus bedi laburtuz hizkuntza bakoitzak bere euskarria emateko anean zenbait gauza ezar ditzakeela edo, alderantziz, baldintzapen zurrunak ezarri behar baldin badira zenbaitetan hizkuntza horren ohiko bideetatik erabat urrun joan gaitzkeela.

<sup>19</sup>Halaber, logaritmoa, esponenziala, funtzioa, (n elementuren) permutazioak, sinua, kosi-  
nua, tangentea, kotangentea, sekantea eta kosekantea, gutxienez.

## b) Unitate konplexuetako biderkadura eta zatidura-zeinuak

Aurrean ikusitako eragiketekin batera dauden biderkaketa eta zatiketaren inguruko zehaztapen batzuk ikusiko ditugu, unitate-adierazpideen kasurako.

Idatziz ikurrak erabiltzen dira (ikus 2.2.1 azpiatala). Zatidurak (76a-77a), bestalde, eragiketaren zailtasunaren arabera, txandaka ditzake nolabait naturaltzat jo behar den irakurketa (76b) eta nazioartekotzat jo daitekeena (76c). Bestalde, batera erabili behar dira biak, unitate-izenak eta magnitude-izenak joskeraren bidez lotu nahi ditugunean (77). Izan ere, zatiketaren irakurketa arrunta eta magnitude-izenekiko lotura *-ko* berean oinarriturik baitago (82d) (Ensunza 1983).<sup>20</sup>

- (76) a 2 m/s  
 b bi metro segundoko  
 c bi metro zati segundo
- (77) a 2 m/s-ko abiadura  
 b bi metro zati segundoko abiadura  
 c ?bi metro segundokoko abiadura

## 2.2.2.2. Bestelako zeinuak

Tarte txiki bat egin behar da eragiketen esparrutik kanpo dauden zeinuen gainbegirada bat emateko.

a) Ensunzaren (1983) arabera, idatzitakoa ondo ulertzen delarik, parentesiak, makoak eta giltzak ez dira islatuko irakurketan. Horrela, (78a) zein (78b) formulek, azalduko irakurketa bera izango lukete. Hala ere, Ensunzak berak beste kasu batzuetan emandako aholkuaren arabera, isilunez balia gintezke formula biak elkarrengandik bereizteko unean bederen (79).

- (78) a  $A + BC$             a gehi beze  
 b  $(A+B)C$             a gehi beze
- (79) a  $A + BC$             a gehi/beze  
 b  $(A+B)C$             a gehi be/ze

<sup>20</sup>Bestetik, biderkaduraren berri ematen duen ikurraren irakurketa ez da beti irakurtzen ahoz. Hau, Ensunzak (1983) adierazi duenez, irakurketaren zailtasun mailaren arabera egingo da. Biderkaketarena nonbait jakintzat ematen da zatidura batean esku hartzen duten bi osagaietako batean biderkaketa horrek parte hartzen duenean; horrela, biderkadura zatiduraren azpikoa dela esan daiteke, baina edonola azpimarratu behar da hau guztia ezinbestez akordioz erabakitzen dela horrelako ez dutelako inolako harremanik hizkuntzaren ohiko baliabideekin.

(i)  $\text{kg/m.s}$                     kilogramo zati metro segundo  
 $\text{m}^2.\text{kg.s}^2.\text{A}^2$             metro karratu kilogramo zati segundo karratu ampere karratu

Berriz ere, parentesi horiek ez dira irakurtzen edo ez dira hitzen bidez irakurtzen. Sistema hauetan beraz, ez da hain arrunta irakurketa batean banan banako irakurketa aurkitzea.

b) Hona bukatzeko matematikako esparruetan zehar erabiltzen diren beste zeinu batzuk, Ensunzaren (1983) lanetik zuzen hartuak:

(78)	$a > b$	a handiago b
	$a \leq b$	a txikiago edo berdin b
	$a \parallel b$	a paralelo b
(79)	$R(z)$	erreal z
(80)	$p \wedge q$	p eta q
	$p \perp q$	p ala q
	$p \rightarrow q$	baldin p orduan q
	$d(x,y)$	(distantzia x y)
	$\partial S$	muga S

Zeinuok nolabaiteko ikurren arteko juntura lana egiten dute. Zenbaitetan badute nola edo halako irakurketa arrunta baina gehienetan zeinuaren irakurketatzat hartzen den hitz horrek gauzatzen duen juntura nekez sar daiteke ohiko euskal joskeraren barruan: euskararen erabilera gainberezitua dugu osterara ere. Zenbaitetan ahozko islarik ez izatea ere gerta daiteke.

### 2.2.2.3. Kimikako formulazioa eta erreakzioen adierazpideak

Azpiatal bakar batean bildu nahi izan dugu Kimikako formulazioarekin zerikusia duen guztia. Alde batetik, 2.2.1. azpiatalekoekin batera sailkatzekoak izango liratekeen ikurrez eta hemengo zeinuez osaturiko formulazioari berari botako diogu gainbegirada bat. Bestetik, 2.2.2.1. azpiatalean ikusiak ditugun Matematikako eragiketen antzerako erreakzioen adierazpideak izan behar ditugu kontuan.

a) Nazioarteko laburtzapenez osaturiko Kimikako formulazioa, sistema korapilatsua da oso: molekula bakoitza osatzen duten atomoen proportzioak, zenbait atomo-taldeaketa, karga elektrikoak eta bestelakoak islatzen dira, elementu-izenen ikurrak ez ezik azpiindize edo goiindize gisako zenbakiak,<sup>21</sup> eta +, - edo marra bezalako zeinuak erabiliz. Gainera, magnitude-izenen ikur batzuen kasuetan bezala, Kimikako formulazioak bi irakurketa ditu aukeran. Lehenengoan, lan honetan zehar ikusi izan ditugun nomenklaturen arabera izen nazioartekoak lortzen dira, azken batean euskararen edonolako izen arruntak bezalakoak baina ikurrez eta zeinuez osaturiko segida batez ordezkatuak. Nomenklatura hauek ikasi egin behar dira, jakina.

<sup>21</sup> Azpiindize edo goiindize modura joateak zeinu izaera ematen die berez ikur eta zeinuen artean dauden zenbakiei: kontuan har bedi *azpi* irakurri beharko dela zenbakiaren aurretik.

- |   |                                   |
|---|-----------------------------------|
| (81) idatzizkoa   | ahozkoa (eta idatzizkoa)          |
| CaCl <sub>2</sub>   | kloruro kaltziko /kaltzio kloruro |
| CH <sub>3</sub> -CH <sub>2</sub> -CH <sub>2</sub> -CH <sub>3</sub> edo C <sub>4</sub> H <sub>10</sub> | butano                            |
| Ca <sup>2+</sup>  | kaltzio (katioia)                 |

Kimika-formulazioko idatzizko osagaietatik beste irakurketa bat atera daiteke: hizkiek hizkuntza arruntean izan lezaketena. Hemen ere euskararen barruan txertatzeko diren nolabaiteko izenak lortzen dira (82).

- |      |                                      |
|------|--------------------------------------|
| (82) | ahozkoa                              |
|      | zea-zeele-bi                         |
|      | ze-atxe-hiru ze-atxe-bi ze-atxe-hiru |
|      | zea-bi-plus                          |

Formula hauek testuetan txertatzen dira, adibidez formula bat aurrean dugularik zenbait iruzkin egin behar ditugunean. Horrelakoetan erabaki egin behar da bietatik zeini eutsiko diogun deklinabideko atzizkia itxuratzerakoan.

- |      |  |   |                             |
|------|--|---|-----------------------------|
| (83) | CaCl <sub>2</sub>  |   |                             |
|      | CH <sub>3</sub> -CH <sub>2</sub> -CH <sub>2</sub> -CH <sub>3</sub> | + | datiboa, inesiboa, elatiboa |
|      | Ca <sup>2+</sup>   |   |                             |

Odriozolak (1994) Euskaltzaindiaren biltzar nagusi batean aurkezturiko lanean azaldu zuenez, aukeran, nonbait naturala den (81)ekoari eman behar zaio lehenetsuna eta areago, euskararen barruko irakurketa zuzena bermatzeko, komenigarria da *-a* mugatzailea laburtzapenen barruan ez dagoela onartu eta idatziz jasotzea.

- |      |   |
|------|---|
| (84) | ahozkoa (eta nahi izanez gero idatzizkoa )                |
|      | kaltzio kloruroari, kaltzio kloruroan, kaltzio klorurotik |
|      | butanoari, butanoan, butanotik                            |
|      | kaltzio (katio)ari, kaltzio (katio)an, kaltzio (katio)tik |

Gauzak horrela, honelaxe idatziko genituzke formulak testu batean txertatuak:

- |      |  |
|------|--|
| (85) | CaCl <sub>2</sub> -ari, CaCl <sub>2</sub> -an, CaCl <sub>2</sub> -tik  |
|      | CH <sub>3</sub> -CH <sub>2</sub> -CH <sub>2</sub> -CH <sub>3</sub> -ari, CH <sub>3</sub> -CH <sub>2</sub> -CH <sub>3</sub> -an, CH <sub>3</sub> -CH <sub>2</sub> -CH <sub>3</sub> -tik |
|      | C <sub>4</sub> H <sub>10</sub> -ari, C <sub>4</sub> H <sub>10</sub> -an, C <sub>4</sub> H <sub>10</sub> -tik   |
|      | Ca <sup>2+</sup> -ari, Ca <sup>2+</sup> -an, Ca <sup>2+</sup> -tik   |

Ondorioz, hizkikako irakurketari ere mugatzailedun irakurketa ezarriko diogu zeharka. Bigarren aukera honetan nahiko hurbil ibiliko gara joskera naturaletik.

- |      |  |
|------|--|
| (86) | ahozkoa  |
|      | zea-zeele-biari, zea-zeele-bian, zea-zeele-bitik |

ze-atxe-hiru ze-atxe-bi ze-atxe-hiruari, ze-atxe-hiru ze-atxe-bi ze-atxe-hiruan, ze-atze-hiru ze-atxe-bi ze-atxe-hirutik  
 zelau-atxe-hamarrari, zelau-atxe-hamarrean, zelau-atxe-hama-rretik  
 zea-bi-plusari, zea-bi-plusean, zea-bi-plusetik


$C_4H_{10}$  eta  $Ca^{2+}$  laburtzapenen kasuan ikus daitekeen bezala, nomenklaturako irakurketa naturalari lehentasuna emateak ez du hizkikako irakurketa zuzena bermatzen beti.

b) Erreakzioen adierazpideetako erdialdeko  $\Rightarrow$  edo  $\Leftrightarrow$  zeinuaz, alde batetik matematikako eragiketez eta hurrenkeraz esandako guztia errepika liteke, baina bestalde, badago ikurrekin lotuago dagoen beste zerbait. Izan ere, erreakzioen adierazpideetan gai guztiek proportzio beretan parte hartzen dutenean ez da formulazioaz harantzagoko osagairik erabiltzen eta nazioarteko beste joserako artifizialean baino naturalago gelditzen den irakurketa egin daiteke (87a), hizkikako irakurketaz gain (87b).



- a sodio hidroxidoa gehi azido klorhidrikoa emateko sodio kloruroa gehi ura
- b enea-zeele ghiatxe-zeelel emateko enea-zele gehi atxebi-o

Proportzio ezberdinen berri eman behar denean, (bat ez diren) zenbakiak erabiltzen dira gai bakoitzaren aurrean. Horrelakoetan ere, zilegi da (87a)koan egindako irakurketa natural bera egitea, baina horrela informazio gutxiago ematen da eta, gainera, gai guztiek proportzio berean parte hartzen dutela ulerlezake irakurleak.



kaltzio hidroxidoa gehi azido sulfurikoa emateko kaltzio sulfatoa gehi ura

Erabat naturala inoiz ez den irakurketa batez ari bagara ere, zenbakiak erabilerak eragotzi egiten du mugatzailearen agerpena, joserako naturalean ari bagina bezala (89a). Horren aukera modura, mugatzailearik gabeko irakurketa (89b) edota hizkikako irakurketa (mugatzailegabea) (89c) egin daitezke, zenbakiak eta guzti.

- (89) a \*kaltzio hidroxidoa gehi azido sulfurikoa emateko kaltzio sulfatoa gehi bi ura
- b kaltzio hidroxidoq gehi azido sulfurikoq emateko kaltzio sulfatoq gehi bi ur
- c zea-oatxebi gehi eselau-atxebi emateko zea-eselau gehi bi atxebi-o

**BIBLIOGRAFIA**

- ALTONAGA, K., (1998a). 'Pandaren dieta eta hiztegi-kontuak'. *Elhuyar* 129: 30-35.
- ALTONAGA, K., (1998b). 'Ajeak eta ajeak ez direnak'. *Berba* 26.
- AZKARATE, M., (1990). *Hitz elkartuak euskaraz*. Mundaiz. Donostia.
- AZKUE, R.M., (1905) *Diccionario Vasco-español-francés*. Euskaltzaindia, Bilbo 1984
- CABRÉ, T., (1993). *La terminología*. Antártida. Bartzelona.
- CABRÉ, T., (1999). *La terminología. Representación y comunicación*. Institut Universitari de Lingüística Aplicada. Universitat Pompeu i Fabra. Bartzelona.
- CANTON, B., M.N. Diaz eta M.C. de Pablo, (1992a). *Euskal Herriko hegaztiak*. Kriselu. Donostia.
- CANTON, B, M.N. Diaz eta M.C. de Pablo, (1992b). *Euskal Herriko ugaztunak*. Kriselu. Donostia.
- ELHUYAR (19993). *Hiztegi Entzikopedikoa*. Elhuyar. Donostia
- ELHUYAR (1996a). *Euskara-Gaztelania hiztegia*. Elhuyar. Donostia.
- ELHUYAR (1996b). *Euskal Herriko Fauna (Ornodun lehortarrak)* Donostia.
- ENSUNZA, M., (1983). *Alfabetatze zientzifikoa. Zebakiak. Unitateak. Irakurketa. Eragiketak. Esamoldeak*. Udako Euskal Unibertsitatea. Bilbo.
- EHUGET, (1993). *Geologia Hiztegi Entziklopedikoa*. Elhuyar. 1998.
- EUSKALTZAINDIA (1985). *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (I)*. Bilbo, 1991.
- EUSKALTZAINDIA (1986). *Hitz berriei buruz. Euskaltzaindiaren erabakiak*.
- EUSKALTZAINDIA (1987). *Hitz-elkarketa 11*. Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA (1991). *Hitz-elkarketa 13*. Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA (1992). *Hitz elkartuen osaera eta idazkera*. Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA (1993). *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna*. Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA (2000). *Hiztegi Batua (eskuizkribua)*.
- GUTIERREZ RODILLA, B.M., (1998). *La ciencia empieza en la palabra*. Ediciones Península. Barcelona.
- IUBMB (1992). *Recommendations (1992) of the Nomenclature Committee of the international Union of Biochemistry and Molecular Biology*. San Diego.
- IUPAC (1979). *Kantitate eta unitate fisiko-kimikoetarako sinboloen eta terminologiaren eskuliburua*. Udako Euskal Unibertsitatea. Iruñea, 1985.
- KINTANA, X., (1977) *Euskal Hiztegi Modernoa*. Ekin, Bilbo.
- IUPAC (1979). *Kantitate eta unitate kimiko-fisikoetarako sinboloen eta terminologiaren eskuliburua*. Udako Euskal Unibertsitatea. Iruñea 1985.
- LARRAÑAGA, J., (1996) *Euskal Herriko Fauna (ornodun lehortarrak)*. Elhuyar. Donostia.

- LOPEZ PIÑEIRO, J.M. eta Terrada Ferrandis, M.L. (1990). *Introducción a la terminología médica*. Salvat. Bartzelona.
- LUR, (1996). *Eskolarako Hiztegi ENTziklopedikoa*. Lur.
- MITXELENA, K., (1961). *Fonética histórica vasca*. Gipuzkoako Foru Al-dundia, Donostia 1976.
- ODRIOZOLA, J.C., (1994). 'Formulazio kimikoa eta euskal deklinabidea' *Euskera* 39 (3): 743-754.
- ODRIOZOLA, J.C., (1997). 'Hitz-elkarketen idaztarauak zientzia esperimen-taletan'. *Nazioarteko Terminologi Biltzarra*: 691-708. Donostia.
- ODRIOZOLA, J.C., (1998a). 'Elkarketen idaztarauak: oxigeno elementua baina oxigeno-molekula'. *Ekaia* (8): 129-135.
- ODRIOZOLA, J.C. (1998b) 'Euskara batuaren ajeak: zaharren gaixotasun ari-nak eta gazteen astelehenen goizeko biharamuna' *Campus* 47: 3
- ODRIOZOLA, J.C., (2000a). 'Entzima-izenak euskaraz' *Ekaia* (argitaratua bide-an).
- ODRIOZOLA, J.C., (2000b). *Elkarren arteko aposizioak: hizkuntza komunak erabilera berezietarako gordea zuen altxorra* (eskuizkribua).
- ORDAX, F. & A. Arrizabalaga, (1994). *Formulazioa eta nomenklatura kimi-kan*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.
- ORTIZ DE URBINA, J., (1998). *Axularren ezen konpletiboa eta hizkuntz pro-zesamendua* (eskuizkribua).
- OSA, E., (1993). *Euskararen hitzordena, komunikazio zereginen arabera*. Eus-kal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.
- PALAZIO, G. (1997). *Hitz-laburtzapenak euskal hizkuntzan. Laburkinen era-bilerari begirada kazetagntzan. Laburkindegi orokorra (Siglak, akroni-moak, laburdurak eta sinboloak)*.
- PETERSON, W.R., (1976a). *Formulación y nomenclatura. Química inorgáni-ca*. Edunsa. Ediciones y distribuciones universitarias S.A. Bartzelona, 1996.
- PETERSON, W.R., (1976b). *Formulación y nomenclatura. Química orgánica*. Edunsa. Ediciones y distribuciones universitarias S.A. Bartzelona, 1996.
- SARASOLA, I., (1996). *Euskal Hiztegia* Kutxa Fundazioa. Donostia.
- SARASOLA, I., (1997). *Euskara batuaren ajeak* Alberdania. Donostia.
- UGARTEBURU, I. eta J. Irazusta, ((1994). 'Osasun zientzietako laburtzape-nak' *Euskera* 39 (3): 1173-1184.
- UZEI (1982). *Maileguzko hitzak*. Donostia
- UZEI (1984). *Biologia 11. Landare eta animalien izenak. Izendegia* UZEI. Donostia 1990.
- UZEI (1986). *Biologia 12. Botanika hiztegia*. UZEI. Donostia 1990
- UZEI (1988). *Laburtzapenen gidaliburua (siglak, ikurrrak eta laburdurak)*. El-kar. Donostia
- WÜSTER, E., (1998). *Introducción a la teoría general de la terminología*. Institut Universitari de Lingüística aplicada. Bartzelona.
- ZABALA, I., (1994). 'Laburtzapenen deklinabidea' *Euskera* 39 (3): 735-742.




ZABALA, I., (1998). 'Azal/gainalde/azalera/gainazal'. *Ekaia*, 9: 147-150.

ZABALA, I., (1999). 'Zehaztasuna eta gardentasuna'. *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

ZABALA, I., (2000a). 'Hitz-hurrenkera euskara teknikoan' *Ekaia* 12: 143-166.

ZABALA, I. (2000b). 'Euskararen zientzia eta teknikarako erabileraren hizkuntz berezitasunak' *Ekaia* 12 (argitara bidean).



## GRAMATIKA



## GRAMATIKA: ZENBAIT GALDERARI ERANTZUNEZ

*Gasteizen, 2001eko martxoaren 12an*

*Jesus Mari Makatzaga,  
Gramatika batzordeko idazkaria*

Iñaki San Torcuato jauna

San Torcuato jauna, agur:

Zuregandik jaso ditugun galdera batzuen erantzuna ematera natorkizu le-  
rro hauen bidez.

1. Lehendabizikoan galdetzen diguzu ea zuzena den *Ni bizi naizen lagu-  
narekin joan naiz mendira* perpausa ala nahitaez esan behar den *Nirekin bizi  
den lagunarekin joan naiz mendira*.

Lehendabizikoa zuzena da eta ez da nahitaez bigarrena erabili behar.  
Dena den, era honetako zalantzak argitzeko egokiena *Euskal Gramatika. Le-  
hen Urratsak V (Mendeko perpausak I)* gramatikan esaten duguna irakurtzea  
zenuke; ikus 184-197 orrialdeak (bereziki 189 orrialdea, 2.2.7.1. *Kasu para-  
lelismoa* izeneko azpiatala).

2. Esaldi hauetatik zein da zuzena eta zergatik:

a) *Ez didate utzi hor sartzea*: EZ

b) *Ez naute utzi hor sartzea*: EZ

c) *Ez didate utzi hor sartzen*: BAI (*utzi* aditzak erregimen hori agintzen  
duelako: NORK-NORI aditza da erabilera horretan eta *zertan utzi* eskatzen du,  
*-tzen* alegia).

d) *Ez naute utzi hor sartzen*: EZ

Beste perpaus hau ere onartzekoa da:

e) *Ez naute utzi hor sartzera*: BAI (iparraldeko tradizioan).

3. Gauza barbera hauekin:

a) *Debekatu egin didate hor sartzea*: BAI (*debekatu* aditzak erregimen  
hori eskatzen duelako)

b) *Debekatu egin didate hor sartzen*: EZ

c) *Debekatu egin naute hor sartzea*: EZ

d) *Debekatu egin naute hor sartzen*: EZ

Beste hau ere egokia izan liteke:

e) *Debekatu egin naute hor sartzetik* (iparraldeko tradizioan).

Dena den, *debekatu* aditza *Orotariko Euskal Hiztegian* argitaratua denez, han aztertu ditzakezu literatur tradiziotik bildutako adibideak. Ikus VI aleko 52. eta 53. orrialdeetan.

Besterik gabe; zure eskaerari erantzun egokia eman diogulakoan, hurrengo batera arte.

## GRAMATIKA: BURUZ ALA BURUZKOAK

Gasteizen, 2001eko martxoaren 12an

Jesus Mari Makatzaga,  
Gramatika batzordeko idazkaria

Ainhoa Segura andrea Leintz euskaltegia

Segura andrea, agur:

Zuregandik jaso ditugun galdera batzuen erantzuna ematera natorkizu le-  
rro hauen bidez.

a. *Zenbat liburu irakurri dituzu animaliei buruz? Ala Zenbat liburu ira-  
kurri dituzu animaliei buruzkoak?* Biok ondo.

*Komentario asko entzun dut gai horri buruz ala Komentario asko entzun  
dut gai horri buruzkoa.* Lehendabizikoa ondo; bigarrenak buruzkoak behar du.

*Irakurri ditudan liburuak maitasunari buruzkoak dira ala Irakurri ditu-  
dan liburuak maitasunari buruz dira.* Biok ondo.

Era horretako perpausetan bi aukerak (*buruz nahiz buruzkoak*) ondo dau-  
de Gramatika batzordearen ustez; hori bai, betiere izenlaguna atzeratzen zaion  
izen sintagma absolutiboan delarik. Ezinezkoa baita honako perpaus hau egi-  
tea:

*\*Liburu batean irakurri dut nazionalismoari buruz.*

Absolutiboan doalarik, bai, ordea:

*Liburu bat irakurri dut nazionalismoari buruz.*

b. Norekiko birdeklinabidea, izenlaguna denez, beti izenaren aurrean ja-  
rri behar dugu? Hau da, *Errespetu handia du gurasoekiko* edo *Gurasoekiko  
erakusten duen errespetua* bezalako esaldiak oker daude?

Ez dugu uste *-kiko*-k nahitaez izenlagun izan behar duenik, badira-eta hor  
ematen dituzuen adibideak bezalakoak, eta ez gutxi, euskararen literatura tra-  
dizioan. Ez genuke esango, beraz, horko adibideak okerrak direnik. Hori bai,  
Iparraldeko tradizioan, *-kilako* (*-kiko*-ren baliokidea) sistematikoki erabiltzen  
da izenlagun gisa; ez du adizlagun erabilerarik. Hegoaldeko tradizioan ere,

esan dugun bezala, adizlagun erabileraren lekukotasunak badiren arren, izenlagunarenak askoz ere ugariagoak dira; alegia, *Gurasoekiko errespetu handia dut* edo *Gurasoekiko harremanak hoztu egin dira aspaldion*.

c. *Nongo(a), norenganako(a), norekiko(a), buruzko(a), aldeko(a), kontrako(a)* ... kasuek izenak kenduz gero, *-a* mugatzailea hartzen dute. Norenzako eta norako kasuek ere har lezakete mugatzailea? Hots, *amarentzakoa* edo *gelarakoa* esateari zuzen deritzozu?

Bai; ezin esan dezakegu horiek biak agramatikalak direnik. Hori bai, oso emankorrek ez direlakoan gaude. Izan ere, logikaren arabera horiek erabil badaitezke ere (eta erabili ere egin izan dira), eguneroko jardunean horiek baino arruntagoak diren formak erabili izan ditugu askoz sarriagotan euskal hiztunok; hala nola, genitiboa (*amarena*), adizlaguna (*amarentzat*) nahiz *-ko* atzizki hutsa (*gelakoa*).

Alegia,

*Oparien artean, zein da amarentzakoa?* baino gehiago, *zein da amarena?*

*Oparien artean, zein da amarentzakoa?* baino gehiago, *zein da amarentzat?*

*Gortinetan, zein da gelarakoa?* baino gehiago, *zein da gelakoa?*

Besterik gabe; zure eskaerari erantzun egokia eman diogulakoan, hurrengo batera arte.



## GRAMATIKA: *EURO-A DELA ETA*

*Gasteizen, 2001eko martxoaren 12an*

*Jesus Mari Makatzaga,  
Gramatika batzordeko idazkaria*

Joxe Ramon Zubimendi jauna JAGONET zerbitzuko arduraduna.

Adiskide hori:

Zuk bidalitako azken hizkuntza kontsultaren erantzuna ematera natorkizu lerro hauen bidez, *Euro* hitzaren inguruko zalantzak biltzen dituenarena, alegia.

Azpimarratuta eta letra beltzean datoz Gramatika batzordearen ustez hobestekoak diren formak (galderetan agertzen ez ziren aukerak dira batzuk):

- a) *Txanponak eurotan* / Txanponak euroetan
- b) Txanponak euro centetan / Txanponak euro xentimotan / Txanponak euro xentimoetan / *Txanponak euro(-)zentimotan*
- c) Euro bat eta 5 xentimo / *Euro bat eta 5 zentimo*
- d) Euroaren 10 xentimo / *10 euro(-)zentimo*
- e) *2 eurokoa, 5 eurokoa, 10 eurokoa, 50 eurokoa* / 2 eurotakoa, 10 eurotakoa, 50 eurotakoa
- f) Euroaren 2 xentimokoa / euroaren bi xentimotakoa / *2 euro(-)zentimokoa*
- g) 2 xentimokoa / 2 xentimotakoa / *2 zentimokoa*
- h) 5 xentimoko txanpona / 5 xentimotako txanpona / *5 zentimoko txanpona*
- i) Euroaren 5 xentimoko txanpona / euroaren 5 xentimotako txanpona / *5 euro(-)zentimoko txanpona*
- j) *5 euroko billetea* / 5 eurotako billetea
- k) *50 euroko billetea* / 50 eurotako billetea

- l) Txanponak: *1 euro* (jakina, ahoz “euro bat” esan beharrekoa) / *euro 1 2 euro*  
*euroaren xentimo bat / 1 xentimo / 1 euro(-)zentimo*  
*euroaren 2 xentimo / 2 euro(-)zentimo*  
*euroaren 5 xentimo / 5 euro(-)zentimo*  
*euroaren 10 xentimo / 10 euro(-)zentimo*  
*euroaren 20 xentimo / 20 euro(-)zentimo*  
*euroaren 50 xentimo / 50 euro(-)zentimo*
- m) Billeteak: *5 euro*  
*10 euro*  
*20 euro*  
*50 euro*  
*100 euro*  
*200 euro*  
*500 euro*  
*500 euro*

Oharra:

Hitz elkartu bidez eman dugun egituran (*euro(-)zentimo*), denboraren poderioz lehendabiziko osagaia galduz joango da seguruenik, eta *2 euro(-)zentimo* esan beharrean *2 zentimo* esango da; hala ere, oraingoz hitz elkartu osoa emango genuke.

Zure eskaerari erantzun egokia eman diogulakoan, nahi duzun arte.

## ONOMASTIKA



Mikel Gorrotxategi Nieto, licenciado en Filología Vasca y secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca-EUS-KALTZAINDIA,

CERTIFICA:

Que el nombre euskérico del concejo de *Alegria* del municipio de *Alegria / Dulantzi*, en su forma euskérica académica actual es: *Dulantzi*. Asimismo, que el gentilicio de dicho pueblo es *dulantziar*.

Que *Dulantzi* es claramente un topónimo euskérico, documentado en 1025, 1257, 1294 y 1332 como *Dullanzi*, *Dulanci*, *Dulance*, *Dullanci* y *Alegria de Dulanci*, como aparece, por ejemplo, en la obra de Gerardo López de Guereñu *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia. Dicho nombre todavía se mantenía vivo para designar una zona de dicho municipio en 1694. Que *Dulantzi*, fue usado en lengua vasca por el pueblo hasta épocas más recientes, como se observa en la toponimia menor donde entre otros se recoge dicho nombre, en el siglo XVIII, en el nombre: *Dulancisarri*. Posteriormente el nombre castellano *Alegria* terminaría por imponerse desapareciendo *Dulantzi* del uso oral, como se ve en la toponimia donde aparece *Alegria* y *Alegeria*.

Que, de acuerdo con el artículo décimo de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera, se ha de respetar en todo caso la grafía académica propia de cada lengua, salvo en el caso en que ambas formas sean sensiblemente diferentes, en el que ambas tendrán consideración oficial.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao, a diez de enero de dosmil.

V.º Bueno



H. Knörr



Mikel Gorrotxategi

Mikel Gorrotxategi Nieto, Euskal Filologian lizentziatua eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzorde idazkari denak, ondoko

### DIKTAMEN HAU EMATEN DU:

Elkargo Akademiko honek prestaturiko eta onartutako *Euskal Herriko Udalen Izendegian*, bere 484. zenbakia daraman izena, eta orain arte Administrazioaren erabilera ofizialean *Orduña* deitua, euskal aldaera ofizialean **Urduña** dela. Halaber, herritarren izena *urduñar* da.

*Urduña* izena, *nn* eta *ni*-z idatzita, latinez ez baitzegoen *ñ* grafemarik, lehendabiziko idazkietan agertzen da, nahiz eta geroko agiritan *Orduña* aldaera (*Ordunia*, *Ordunna*, *Hordunna* eratara idatzita) nagusituko zen. Tamalez, gaur egun ditugun idazki gehienak XVI. mendeko kopiak izanik, sarritan Simancasen eginak, ez dira oso baliagarriak. Zernahi gisaz, izen jatorrak, *Urduñak*, bizirik dirau Orozko ibarreko euskaldunen artean, hurbilenekoak aipatzeagatik. Beste lekukoen artean Aita Gorostizaga frantziskotarrarena dugu, Oñatiko Bidaurreta komentuko kapelau ohiarena. Aipaturiko izen hori erabiltzen zuen, Aita Luis Villasante euskaltzainburu zenak bilduta.

Ez da hau euskaraz aitzineko izen baten bizi-iraute bakarra, eta modu berean aipatu ahal dugu *Otxandio*, XII. mendean horrela jasoa, *Ochandiano* izen ofiziala izango zuen hiribildua sortu baino lehen. *Otxandio* aldaera izan da, eta da, jakina denez, euskaldunen artean izen bakarra, eta egun ofiziala.

Izenaren lehendabiziko aipua, zeinetan *Urdunia* agertzen den, Alfonso III.aren *Kronikan* agertzen da, 1075ean, Lope Santxezek Donemiliagako monasterioari eginiko oparian bezala. 1477an, Aiarako jaunaren kontrako epaian, *Urdunna* irakur dezakegu. Juan Ramon Iturritza y Zabalak 1793. urtean eginiko *Historia General de Vizcaya* liburuaren 41. izkribuan honako hau agertzen da: “*franca carta in Urduña*”.

Eta hala adierazteko eta bertako Udalbatzari bidaltzeko, izenpetzen du Bilbon, bimilagarreneko martxoaren zazpian.

On ikusia



H. Knörr Borràs, batzordeburua



Mikel Gorrotxategi

Mikel Gorrotxategi Nieto, licenciado en Filología Vasca y secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca-EUS-KALTZAINDIA,

CERTIFICA:

Que el nombre euskérico del municipio que figura con el número 484 en el *Nomenclátor de los Municipios del País Vasco* realizado y editado por esta Real Academia, y conocido en su forma oficial romance como *Orduña*, es: **Urduña**. Asimismo, el gentilicio de dicho pueblo es *urduñar*.

La forma *Urduña*, con las grafías *nn* y *ni*, debidas a la falta en latín del grafema *ñ*, aparece en la primera documentación de la villa, aunque posteriormente es desterrada por la forma *Orduña* (escrita de diferentes maneras: *Ordunia*, *Hordunna*, *Ordunna*, etc.). Desdichadamente, la mayoría de la documentación que se conserva es copia realizada en el siglo XVI de documentos anteriores, en muchos casos en Simancas, por lo que su valor es relativo. En cualquier caso la vigencia del nombre primigenio, *Urduña*, es clara, puesto que hoy en día está en uso, entre otros, en boca de los vasco-hablantes del valle de Orozko, por citar los más cercanos. Se puede mencionar, por ejemplo, el testimonio del padre franciscano Gorostizaga, antiguo capellán del convento de Bidaurreta en Oñati, que empleaba esta forma, tal como recogió el padre Luis Villasante, anterior presidente de Euskaltzaindia.

No es este el único ejemplo de pervivencia de un nombre anterior en euskera, y se puede citar el caso de *Otxandio*, forma recogida en el siglo XII, antes de su fundación como villa (que oficialmente se llamaría *Ochandiano*). La forma *Otxandio*, como se sabe, ha sido y es la única usual entre los vascohablantes, y hoy en día es la oficial.

La primera mención del nombre consta en la Crónica de Alfonso III, donde aparece *Urdunia*, al igual que en el año 1075, en la donación de bienes que realizó Lope Sánchez al monasterio de San Millán. En 1477, en la sentencia contra el señor de Ayala, todavía podemos leer *Vrdunna* (léase *Urduña*). En la *Historia General de Vizcaya* de Juan Ramón de Iturriza y Zabala, realizada en el año 1793, en la escritura número 41, aparece "franca carta in Urduña".

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao a siete de marzo de dos mil.

VºBº



H. Knörr Borràs,  
Presidente de la Comisión



Mikel Gorrotxategi

Mikel Gorrotxategi Nieto, licenciado en Filología Vasca y secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca-EUSKALTZAINDIA,

CERTIFICA:

Que el nombre euskérico del concejo de *Luyando* del municipio de Ayala / Aiara en su forma euskérica académica actual es: ***Luiaondo***. Asimismo, que el gentilicio de dicho pueblo es *luiaondoar*.

Que *Luiaondo* es claramente un topónimo euskérico, documentado en el siglo XV como *Luyaondo* y en el XVI con la forma sincopada *Luyando*, como aparece, por ejemplo, en la obra de Gerardo López de Guereñu *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia.

Que la forma *Luxando*, propuesta por esta Academia en el Noménclator de 1986, aunque gozó de cierta difusión es una forma secundaria, con fonetismo que no puede tener reflejo en la forma oficial y secular de *Luiaondo*.

Que, de acuerdo con el artículo décimo de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera, se ha de respetar en todo caso la grafía académica propia de cada lengua, en este caso el euskera, salvo en el caso en que ambas formas sean sensiblemente diferentes, en el que ambas tendrán consideración oficial. Teniendo en cuenta lo anteriormente expuesto es correcta la denominación única propopuesta por la Junta Administrativa del concejo.

Y para que conste y surta los efectos oportunos, expide la presente en Bilbao, a dieciocho de septiembre de dosmil.

VºBº



H. Knörr Borràs,  
Presidente de la Comisión



Mikel Gorrotxategi



## LAUDIO IZENAZ IRIZPENA

*Laudio* da, zalantzarik gabe, Arabako herri honen izena euskaraz, eta horrela ageri da Euskaltzaindiaren bi izendegietan, *Nomenclátor de los municipios del País Vasco Euskal Herriko Udal izendegia*, (1979), eta *Relación de las poblaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco / Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak* (1986).

Herritarren izenaz denaz bezain batean, forma bat baino gehiago ditugu, baina ohikoena eta gomendagarriena *laudioar* da.

Eskura dugun agiri kopuru ugarian honako puntu hauek azpimarra ditzakegu:

1. *Laudio* forma euskaraz idatzitako testuetan aurkitzen dugu. Gogora dezagun, adibidez, kristau ikasbide ezaguna, *Laudioko* euskaraz, zeinen ar gitaraldi zaharrena 1828koa baita. Azalean garbi irakurtzen dugu: "Laudiyoco abade jaunen encarguz eta costuz". Udalaren agiri ofizial batean, 1823an, Ameriketatik etorritako galderari erantzunez, hau irakurtzen dugu: "... que este Valle de Llodio en Bascuence se llama *Laudyo*". Eta berdintsu 1844an: "... es cierto que este valle de Llodio en Basquenze se llama *Laudyo*" (ikus Natxo Urkijo eta Felix Muguruzaren lanak).

Forma honek bizirik dirau euskaldunengan, batez ere haran honetan eta ingurukoetan. Horren erakusgarri hoberena Deustuko Unibertsitateko irakasle eta Euskaltzaindiko urgazle den Juan Manuel Etxebarriaren tesietan (1988), bai eta harrezkeroko lanetan ere ikusten dugu. Juan Antonio Mogelek a *Laudio* forma aipatzen du, *Peru Abarka* eleberriaren 27. orrialdean (eleberri hori, jakina denez, XIX. mendearen hasieran idatzi zuen Mogelek, baina 1881era arte ez zen argitaratu). Ebakera hirusilabakoa da: *Lau-dí-o* (bigarren silaba delarik azentuduna).

2. *Laudio* aurkitzen dugu gaztelaniaz idatziriko dokumentuetan ere. Aipadezagun *Laudio* deitura, XVI. mendetik, adibidez, *Pedro de Laudio*, Arabako Batzar Nagusietako agirian, 1503ko urtarrilaren 9an. Mende berean *Laudio* deitura dakusagu Lantziego Errioxako herrian. Aipa ditzagun orobat Lekamañako bost bataio-agiri, XVIII. mendekoak, zeinetan *Laudio*-ko herritarrez mintzatzen baita (F. Barrenengoa, *Onomástica de Tierra de Ayala*, II. liburukia, Gasteiz 1989, 76. orrialdea).

3. Euskal testuetatik kanpo, hots, latinez eta gaztelaniaz idatzitakoetan, forma arrunta *Llodio* da, idazkera horrekin (hots, Ll-). Inoiz, hala nola 1073

eta 1124. urteetan (Donemiliagako kartularioan) *Lhodio* aurkitzen dugu: *Llodio* irakurri behar da, jakina. *Flaudio* forma ere ageri da, bitan, Done Petri elizaren sagarako dokumentuan, 1095. urtean (ikus Ruiz de Loizagaren edizioa, *Scriptorium Victoriense*, 1996); garbi dago *Llaudio* irakurri behar dela orobat.

4. Aditu gehienak bat datoz: *Laudio* izenaren jatorria *nombre Claudius*, da, Meyer-Lubkek proposatu bezala (*Revista Internacional de Estudios Vascos* 14, 1923), edo hobeki *Claudianus*, Mitxelenaren arabera (*Apellidos vascos*, 1953, eta *Emerita* 24, 1956). Bilakaera guztiz erregularra da, latinezko *Cl-* mul-tzoa *L-* soila bihurtu delarik. Gogora, adibidez, latinezko *clarus*, Mendebaldeko euskaraz *laru*. Bokalen arteko *n* letraren mututzea arras erregularra da halaber.

5. Hasierako *Ll-* hori gaztelaniaren gertakaria da, nabari denez. Horko eta inguruko leku izen anitzetan ikusten dugu: *Llanteno*, *Llaguno*, eta abar.

6. Gaztelaniak eraginda dugu ere *au* diptongoa *o* bihurtzea. Kontuan izan, adibidez, latinezko *causa*, euskaraz *gauza*, gaztelaniaz *cosa*. Diptongoa eromantzezko diptongoetan soildu da berebat: kide den *San Glorio* mendatea, Cantabria eta Leon artean, lehen *San Claudio*, eta bide beretik etorri zaizkigu Oviedoko *San Cloyo*, eta *San Clodio* Ourense eta Lugoko herriak.

Zer esanik ez, gaztelaniazko *Llodio* hedatuz joan zen, *Laudio* euskarazkoaren kaltetan. Bigarren hau ahozko erabilerara ia bakarrik mugatu zen, oraintsu arte euskara ez baita ofiziala izan, jakina denez, 1980. urtera arte.

Herritarraren izenari datxekola, *laudioar* ikusten dugu eskualdea ongi ezagutzen zuen Jose Paulo Ulibarri Okondokoaren gutundegian (Arabako Foru Aldundiak argitaraturiko *Gutun liburua* deritzanaren 147. orrialdean aurkitzen da hitza). Forma hori erabiltzen da *Laudioko* zenbait izenetan, hala nola *Laudioar txirrindulari elkartearen*.

Adierazi den guztia kontuan harturik, egokituz jotzen dugu *Laudio* euskal izena, bai eta *laudioar* herritarrarena ere.

Bilbon, bi milako urriaren hogeian.

Henrike Knörr,



Onomastika batzordeburua

Mikel Gorrotxategi,



Onomastika batzorde idazkaria

\* \* \*

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak Angeluko Udaletxean, irailaren 15ean egindako batzarrean onartua, eta Bilboko egoitzan gaur egindakoan berretsia.

## DICTAMEN SOBRE LAUDIO

*Laudio* es sin duda alguna el nombre de la población alavesa en euskara, y así figura en las dos obras realizadas por esta Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia: el *Nomenclátor de los municipios del País Vasco Euskal Herriko Udal izendegia*, del año 1979, y *Relación de las poblaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco / Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak*, del año 1986.

Por lo que respecta al gentilicio, entre las diferentes formas existentes, la más usual y al mismo tiempo recomendable es *laudioar*.

Del conjunto de la abundante documentación cabe destacar los siguientes hechos:

1. La forma *Laudio* consta en textos escritos en lengua vasca. Recordemos, por ejemplo, el conocido catecismo en el habla del lugar, y cuya edición más antigua es de 1828. En la portada de las sucesivas ediciones se lee claramente “Laudiyoco abade jaunen encarguz eta costuz” (es decir, “por encargo y costeado por los curas de Llodio”). Un documento oficial del Ayuntamiento, del año 1844, dice expresamente: “... es cierto que este valle de Llodio en Basquenze se llama *Laudyo*” (citado por Urkijo, Zenbait apunte Laudioko euskaraz).

Hay que señalar igualmente que esta forma sigue viva entre los vascohablantes, principalmente de este valle y cercanos, como puede verse, por ejemplo, en la tesis doctoral (1988) y trabajos posteriores de Juan Manuel Etxebarria, profesor de la Universidad de Deusto y miembro correspondiente de Euskaltzaindia. Juan Antonio Mogel cita igualmente la forma *Laudio* en la pág. 27 de su novela *Peru Abarka* (escrita a principios del siglo XIX pero no publicada hasta 1881). La pronunciación es trisílaba: *Lau-d-í-o*

2. También encontramos *Laudio* en numerosos documentos escritos en castellano. Podemos citar, por ejemplo, el apellido *Laudio*, atestiguado en Álava, desde el siglo XVI, por ejemplo, *Pedro de Laudio*, en el acta de las Juntas Generales de 9 de enero de 1503. En el mismo siglo consta el apellido *Laudio* en la villa riojana de Lanciego. Mencionemos también las cinco partidas de bautismo de Lekamaña, del siglo XVIII, en que se habla de personas naturales de Laudio (ver F. Barrenengoa, *Onomástica de Tierra de Ayala*, tomo II, Vitoria-Gasteiz 1989, página 76).

3. En textos no vascos, es decir, latinos y castellanos, lo normal es la forma *Llodio*, con esa grafía (es decir *Ll-*). En alguna ocasión, como el año 1073 y 1124 (cartulario de San Millán) encontramos *Lhodio*, que evidente ha de leerse *Llodio*. Hay también la forma *Flaudio*, dos veces, en el documento de la consagración de la iglesia de San Pedro, el año 1095 (ver la edición por Ruiz de Loizaga, *Scriptorium Victoriense*, 1996); salta a la vista que ha de leerse igualmente *Llaudio*.

4. Según opinión general entre los especialistas, en el origen del nombre tendríamos una forma *Claudius*, tal como propuso Meyer-Lübke (*Revista Internacional de Estudios Vascos* 14, 1923), o más bien *Claudianus*, según Mitxelena (*Apellidos vascos*, 1953, y *Emerita* 24, 1956). La evolución es completamente normal, con simplificación del grupo latino *Cl-* en *L-*. Piénsese, por ejemplo, en *clarus*, vasco occidental *laru*. En cuanto a la *n* entre vocales, la caída es asimismo regular.

5. Es patente que la inicial *Ll-* es fenómeno romance, como se aprecia en multitud de nombres de lugar de la zona y alrededores: *Llanteno*, etc.

6. Es igualmente fenómeno castellano la conversión del diptongo *au* en *o*. Téngase en cuenta, por ejemplo, el latino *causa*, vasco *gauza*, castellano *cosa*. El diptongo se ha reducido también en topónimos romances, como en el caso paralelo del puerto de *San Glorio*, entre Cantabria y León, anteriormente *San Claudio*, además de *San Cloyo* en Oviedo, y *San Clodio*, pueblos de Ourense y Lugo.

No hace falta decirlo, la forma romance *Llodio* se extendió en perjuicio de la forma vasca *Laudio*, que quedó restringida casi exclusivamente al uso oral, dada la falta de consideración oficial de la lengua vasca hasta fechas recientes.

En lo que se refiere al gentilicio, ya consta *laudioar* en el epistolario de alguien que conocía bien la zona, como era Jose Paulo Ulibarri, natural de Okondo (véase la página 147 de su *Gutun liburua*). Mencionemos que esta forma se emplea en entidades actuales de la villa, como en *Laudioar txirridulari elkarte*.

Por todo lo expuesto, cabe reiterar la idoneidad de la forma vasca *Laudio*, así como del gentilicio *laudioar*.

Bilbao, a veinte de octubre de 2000.

Henrike Knörr,



Presidente de la Comisión  
de Onomástica

Mikel Gorrotxategi,



Secretario de la Comisión  
de Onomástica

Mikel Gorrotxategi Nieto, licenciado en Filología Vasca y secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca-EUS-KALTZAINDIA,

CERTIFICA:

Que el nombre euskérico del concejo de *Respaldiza* del municipio de Aia-ra / Ayala en su forma euskérica académica actual es: **Arespalditza**. Asimismo, que el gentilicio de dicho pueblo es *arepalditzar*.

Que *Arespalditza* es claramente un topónimo euskérico, documentado en 1095 como *Arespaldizaca* y en 1371 como *Arespaldiza*, como aparece, por ejemplo, en la obra de Gerardo López de Guereñu *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia. Igualmente se recoge en 1715 en el archivo parroquial de Baranbio como se ve en la obra de F. Barrenengoa *Onomástica de la Tierra de Ayala*, publicada por la Diputación Foral de Álava.

Que *Arespalditza*, era, sin duda alguna, el nombre empleado en lengua vasca por el pueblo, aunque la administración, siguiendo la costumbre suprimió la vocal inicial, forma que con el paso del tiempo llegó a convertirse en común por ser la forma oficial y haberse perdido el euskera en la zona.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao, a veinticuatro de octubre de dos mil.

Mikel Gorrotxategi,

Mikel Gorrotxategi Nieto, licenciado en Filología Vasca y secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca-EUS-KALTZAINDIA,

CERTIFICA:

Que el nombre euskérico de la junta administrativa de *Quejana* del municipio de *Ayala/Aiara*, en su forma euskérica académica actual es: *Kexaa*. Así mismo, que el gentilicio de dicho pueblo es *kexaar*.

Que *Kexaa* era, sin duda alguna, el nombre empleado por el pueblo, aunque con la pérdida del euskera predominó después el nombre de *Quejana* empleado en la escritura, que por norma tiende a mantener formas arcaicas. De esta forma la forma *Kexaa* sigue viva en el valle de Orozko así como en la cuenca del Nervión en los pueblos de habla vasca. La pérdida de la consonante *n* entre vocales es una de las características de la fonética vasca, tanto en palabras de origen euskérico, como *ardoa* o *gazta* de *\*ardano* y *\*gaztan*; como en préstamos latinos, *katea* y *area* en castellano *cadena* y *arena*, así como en la toponimia, como se ve en las localidades de *Aramaio* (A), *Otxandio* (Bi), *Argomaiz* (A), *Lazkao* (Gi), *Galdakao* (Bi), *Dorrao* (Na), *Miñao* (A) entre otras.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao, a veintuno de febrero de dos mil uno.

VºBº



H. Knörr Borràs,  
Presidente de la Comisión



Mikel Gorrotxategi

## **MENDEURRENAK**





GERHARD BÄHR-EN OMENEZ

*Gernika, 2001-II-08*



## **GERHARD BÄHR-EN IRUDIA**

### **Gernikako Europako Herrien parkean jarri**

Otsailaren 8an, eguerdiko 12etan, Gernikan, Europako Herrien parkean, Gerhard Bähr-en brontzezko irudia jarri zuten Bizkaiko Diputazioak eta Gernikako Udalak. Irudiaren egilea Luis Larrinaga da. Ekitaldi xume honi auresku dantzarekin eman zitzaion hasiera, eta ondoren brontzezko irudia esaltzen zuen ikurriña kendu zuten Han-Peter Bähr-ek eta Josu Bergarak.

Hauek izan ziren ekitaldian: Gerhard Bähr-en semea den Hans-Peter eta Brigitte horren emaztea; agintari hauek: Josu Bergara, Bizkaiko Ahalduen Nagusia, Miguel Angel Aranaz, Gernikako alkatea, Ana Madariaga, Bizkaiko Kultura Diputatua, Gotzon Lobera, Bizkaiko euskara sustazeko zuzendaria, Juan Ramon Larrañaga, Legazpiko alkatea, Esteban Alzelai eta Antonio Azurmendi Gerhard Bähr-en Mendeurren Batzordekoak; Euskaltzaindiko Zuzendaritzakoak: Jean Haritschelhar, Henrike Knörr, Patxi Goenaga, Jose Antonio Arana Martija eta Beñat Oihartzabal; horiez gain, Jose Luis Lizundia idazkariorde-kudeatzailea eta Juanjo Zearreta, Pello Telleria eta Iñaki Kareaga Euskaltzaindiko langileak ere han izan ziren.

Hauek hitz egin zuten: Miguel Angel Aranaz, Gernikako Alkateak, Hans-Peter Bähr-ek eta Josu Bergarak, Bizkaiko Diputatu Nagusiak. Amaieran, Hans-Peter Bähr-ek, bere aitak hainbeste maite izan zuen euskara ikertzeko 500 euroko txeketa eman zion Josu Bergarari. Ondoren, Josu Bergarak txeke hori Jean Haritschelharri eman zion, eta Euskaltzainburuak, diru-laguntzaga-tik eskerrak emanez eta han bildu zirenak agurtuz, ekitaldiaren amaierako hitzak esan zituen.

Brontzezko irudian, euskalariaren hitz hauek daude idatzita:

“Zein nahi garaitan Euskalerriko gauzak darraizkit:  
batez ere, euskera maitea”.

Gerhard Bähr.



## DESCUBRIMIENTO DEL BUSTO DE GERHARD BÄHR

*Hans-Peter Bähr*

Excelentísimo Señor Diputado,  
Ilustres Señoras y Señores,  
Queridos amigos,

Nos hemos reunido para descubrir el busto de Gerhard Bähr, mi padre. Es para mí un gran honor estar aquí presente y poderles dirigir unas palabras, no solo como hijo del homenajeado, sino también como miembro de la familia Bähr.

En primer lugar deseo expresar mi más sentido agradecimiento a los hombres y mujeres que pueblan estas tierras. Ellos no solo han sabido conservar los recuerdos de un hombre de las letras, sino que lo han revivido con este gesto.

Yo no conocí a mi padre personalmente. Por desgracia murió en una guerra criminal sin poder finalizar su tarea de investigación del vascuence. Hoy yo veo a mi padre por primera vez, en toda la extensión de la palabra, en tres dimensiones.

Nacido en Legazpia hace un siglo, mi padre y su familia tomaron estas tierras como a su propia patria. Mi abuelo también marcó hitos en el ambiente técnico: la aplicación de nuevos métodos de beneficio, explotación y procesamiento del mineral, nuevos medios de transporte, la introducción de nuevos dispositivos desde generadores hasta el teléfono.

Mi padre aprendió el euskera de niño. Se lo enseñó su hermana Mercedes; siendo ésta la única niña, no disfrutó del privilegio de educarse con maestros particulares como mi padre. Ella fue a la escuela donde aprendió el euskera directamente de sus compañeros para luego enseñárselo al futuro lingüista.

Gerhard Bähr además de lingüista fue también un hombre de múltiples aptitudes e intereses. Obviamente, su interés principal se centró en los idiomas y esto en todos sus aspectos, pero no solo se interesó por investigar la lengua de los vascos, sino también investigó la lingüística relacionada con la etnología.

Dando un vistazo retrospectivo, se transluce que los tiempos más felices de la vida de Gerhard Bähr fueron los que pasó aquí en la región vasca. Este país, su idioma y su gente lo marcaron para siempre. Y esto no solo vale para él, sino para toda la familia Bähr. Hoy puedo decir que la influencia y el amor por el País Vasco se ha transmitido a hijos y a nietos. Hemos encontrado en este país amigos sinceros y nos sentimos felices de que los lazos perduren a través de las generaciones. Hago votos para que así continúe.

La ciudad de Gernika marca un punto focal: el corazón del alma vasca. Al mismo tiempo refleja para todo el mundo el terrorismo brutal de los fascistas de mi propia patria. De otro lado, la instalación de un busto de mi padre, alemán, en el parque de los Pueblos de Europa de Gernika simboliza las buenas y positivas relaciones entre nuestros pueblos.

Hace poco entramos en un nuevo milenio. Esperamos de todo corazón que el futuro traiga paz, también para esta región, dentro de una Europa unida y feliz.

**DESCUBRIMIENTO DEL BUSTO  
DEL VASCÓLOGO ALEMÁN  
GERHARD BÄHR**  
(Con motivo del centenario de su nacimiento)

*Josu Bergara Etxebarria,  
Diputado General de Bizkaia*

Egun on, jaun-andreok!

Hona bildu gara Gerhard Bähr euskalari alemaniarren irudia jendaurre-ra azaltzeko.

Nos encontramos en el Parque de los Pueblos de Europa, lugar simbólico, para descubrir el busto del vascólogo alemán Gerhard Bähr. Este año se cumplen 80, desde que en 1921 fuera nombrado académico correspondiente de la Real Academia de la Lengua Vasca.

Aunque su infancia transcurrió en Legazpia, no tuvo un contacto inmediato con la cultura y la lengua vascas. En un principio fue instruido por profesores llegados de Alemania, para inculturizarlo con el mundo germano. Posteriormente, fue enviado a un prestigioso colegio de Alemania.

Participó en las dos guerras mundiales que asolaron el continente europeo en el siglo xx. Fue después de terminada la Iª Guerra Mundial, cuando, una vez en Legazpia, se interesó vivamente por la lengua vasca.

Tenía 19 cuando comenzó a estudiar euskera. En los dos que permaneció en Legazpia, antes de volver a Alemania, consiguió un profundo conocimiento del mismo. Desde entonces se convirtió en un incansable estudioso de este idioma y mantuvo relaciones con los vascólogos más importantes de la época, como Resurrección María de Azkue y el alemán H. Schuchardt.

Su amor por el euskera siempre se mantuvo vivo a pesar de la distancia que le separaba de Euskal Herria.

Murió en Berlín el año 1945, durante los últimos días de la 2ª Guerra Mundial.

Su legado al euskera es de un gran valor; así y todo, es tanto más importante la labor desarrollada de difusión de la cultura y la lengua vascas en el mundo.

Es en estos momentos de incertidumbre política y de conflicto político casi permanente, cuando debemos recordar y tomar en consideración las figuras de personas que divulgan y prestigian el nombre de Euskadi allí donde se escucha.

Y ha sido un artista vasco, concretamente, un bilbaíno, D. Luis Larrinaga, el artífice de esta escultura con la que la Diputación Foral de Bizkaia pretende rendir un sencillo y emotivo homenaje a la figura de Gerhard Bähr, con motivo del centenario de su nacimiento, cuya conmemoración tuvo lugar el pasado año 2000. Deseamos poner, así, el colofón a toda una serie de actos celebrados en Euskadi, para recordar la figura de este alemán, embajador de los vascos en el mundo.

De esta forma, la institución foral quiere mostrar su reconocimiento y su agradecimiento a este hijo de Legazpia por el gran trabajo que desarrolló en su corta vida en favor del euskera. Sus publicaciones y sus investigaciones son, sin duda, una gran aportación para nuestro idioma.

Esta escultura servirá para guardar en nuestra memoria a uno de los hijos más ilustres de esta tierra.



## **GERHARD BÄHR**

En agradecimiento a todo el Pueblo Vasco y especialmente a la Ciudad de Gernika entrego este cheque de quinientos (500) euros a Josu Bergara Etxebarria, Diputado General de Bizkaia como contribución simbólica para la continuación del estudio e investigación de la lengua vasca, tal y como hubiese sido el deseo del homenajeado, mi padre, Dr. Gerhard Bähr.

Gernika, 8 de febrero de 2001

Hans-Peter Bähr



## ESKER ONEKO HITZAK

*Gernikan, Europako Herriak parkean,  
2001eko otsailaren 8an,*

*Jean Haritschelhar, euskaltzainburua*

Josu Bergara, Bizkaiko diputatu nagusi jaun agurgarria, jaun-andreok. Eguerdi on.

Hans-Peter Bähr jaunak, orain bertan, eman dizu txeke bat euskara, gure hizkuntza maitearen lagungarri eta, zuk, berehala, Euskaltzaindiari eskaintzen diozu.

Egia da Euskaltzaindia euskararen murgildua dela, hain zuzen euskararen zaintzaile eta bultzatzaile delako eta sekulan baino gehiago eskaintzen dizkio bere lan guztiak Euskal Herri osoari.

Opari hau hartzearekin nahi dizkitzuet bai zuri, eta bai Bähr jaunari ene eskerrik beroenak eman Euskaltzaindiaren izenean. Bai, eskerrik beroenak, bihotz-bihotzez.



R. M. AZKUREKIKO OMENALDIA

*Lekeitio, 2001-II-22*



## **EUSKALTZAINDIAREN BATZARRA LEKEITION** **(Barne Jardunaldiak)**

*Jaione Murelaga,  
herriko alkatea*

Egun on, guztioi. Ondo etorri Lekeitiora

50 urte beteko dira aurtan, azaroan hain zuzen, Azkue handiak itzi gintuenetik. Resurreccion Maria Azkue lekeitiarrak harro senti eragiten gaitu, eta merezi duen neurriko omenaldia antolatzea dogu gure erronketariko bat. Gure onespenik beroena eskeini behar diogu.

Gure belaunaldiko gurasoen maisu eta erreferentzia argia zen Azkue. Lekeitiarron maisu ez ezik, euskaldun guztiona be bai. Euskal kulturari eta hizkuntzari berari honek egindako ekarpena ikaragarri handia izan da: linguistika, literatura, musika, folklorea,... arlo erabat ezberdinetan ekarpen garrantzitsuak egiteko gauza zen.

Gaur, hemen, alkartu zaretenok osatzen dozuen elkartearen sortzaile be izan dogu. Euskaltzaindiaren sortzaile eta lehenengo presidentea. Eta gizon handi honen omenez zuen bilkura hau gure herrian egitea esker ona adierazteko hasiera baino ez da.

Lekeitioko Udalak eskerrak emon nahi dizkizue, zuek hemen izatea ohore handia da-eta guretzat. Bide batez, atzo berbalari izan zinetenoi be eskerrik beroenak.

Bestalde, oraingoan Azkuek batu izan bagaitu be, asteon itzi gaituen beste kultura gizon handi bat aitatu beharra daukat Bitoriano Gandiaga. Poeta aparta, fina eta sentikorra. Berak horrenbeste miresten zuen lurak hartu egin dau. Agur eta ohore, Bitoriano Gandiaga.

Beste barik, azarorako ekitaldien egitaraua osatu bezain laster izango dozue honen berri.

Har ezazue Udal honen ondo etorria eta eskerrik asko.





## AZKUE ETA LEKEITIOKO KULTUR GIROA

*Jose Antonio Arana Martija,  
euskaltzaina*

Ia gizaldi beteko kulturaren historia laburtu behar dut hemen, Lekeitiokoa hain zuzen. Resurreccion Maria Azkue da, izatez, hitzaldino honen ardatza, haren sormen lanak gogora ekarriz eta inguruan, haren jaioterrian, gertatutakoak gomutatuz. Ez da laburtze lana erraza izaten, baina agindutakoaren arabera, mugak jarri dizkidate eta, ahaleginduko naiz bildutako datuak laburbiltzen, bide batez aspergarri izan ez nadin zuen, entzuleon, mesedetan.

Azkue jatorriz eta jaiotzez lekeitiarra zela ez da dudarik. Joane Josepe Azkue Zalbidegoitia, zamudioztarra, Lekeitioko osagile izan zen urte askotan eta Maria Inazia Barrundia Atxabal lekeitiarrarekin ezkondu zen hemen, zeinetatik jaio zen Eusebio Maria Azkue Barrundia, poeta eta kantaria (1813-1873). Sehaskatik entzun zuen ba Resurreccionez euskara bizia eta musika ere, aitaren eta Alfonso anaia nagusiaren ahotsetan. Alfonso Maria hau Bermeon jaioa zen (1845-1894) eta Eusebioren beste bi alaba ere. Mundakan gero, itsaso gaitan irakasle jarraituz, beste hiru seme-alaba izan zituen Laureana Ozerin lehen emaztearekin, 1856an hil zen arte. Hurrengo urtean, Maria Karmen Aberasturirekin ezkondu, beste hiru seme-alaba izan zituen. Eta Lekeitiora irakasle lanpostuan jarraituz etorri zenean, 1863an hain zuzen, jaio zen gure Azkue Aberasturi jauna hurrengo urtean, eta beste hiru seme-alaba gazteagoak. Eusebio Maria poetak Lekeition izan zuen lehen semea Resurreccion Maria izan zen.

Ettxeko aita-seme kantariak aipatu ditut eta badauka honek zerikusirik Lekeitioko kulturarekin. Euskal Herrian eraiki zen lehendabiziko Aristides Cavaille-Col famatuaren organoa Lekeition kokatu zen, Juan Maria Blas Altuna (1828-1868) organista zelarik. Organo eder honen inguruan izan ziren kantari, Andra Maria parrokiaren, Eusebio eta Alfonso aita-semeak. Resurreccionez ez zuen Altunarekin kantatu, 1864.eko abuztuaren 5ean jaiota, organista hil zenean lau urte baino ez zituelako. Baina bai hurrengo organistarekin, hots, Joakin Maria Belasko (1835-1918) lekeitiarrarekin, zeinekin musika ikasi zuten baita Jose Luis eta Buenaventura Zapirain musikari lekeitiarrek. Alfonso anaia eta Belasko organista izan zituen ba Azkuek lehen musika maisuak. Parisen, Bruselan eta Kolonian goi mailako ikasketak egin baino lehen, ahaztu ezin duguna da 1883an etorri zela Lekeitioko notaritzara Bizente Goikoetxea Errasti

aramaioarra (1854-1916), Euskal Herrian izan dugun musikari puntarengoa eta honekin ere hobetuko zuela Azkuek musikagintza, hark Valladolideko katedralean, 1888an, kapera maisu lanpostua lehiaketan irabazi zuen arte. Bizente Goikoetxea Lekeitiora heldu zen urtean jaio zen hemen Alejandro Valdes Goikoetxea (1883-1956), haren loba, musikari ona benetan. Eta ezin ahaztu Lekeitioko musika bandaren zuzendaria izan zela (1915-1918) Feliziano Beobide Udakiola tolosarra. Gero etorriko dira Domingo San Sebastian, Iñaki Aretxabaleta eta beste, musikari lekeitiarrak. Denok Azkueren adiskide minak.

Kulturaren edozein arlotan izan zituen Azkuek lagunak, laguntzaileak, irakasle eta ikasleak. Historia da, behar bada, gutxien landu zuen arloa. Ez zaletasunaren faltaz, astiaren gabeziak baizik. Gaztaroan ibili zen Udaletxeko artxiboan, dokumentu batzuk kopiatuz, zeinen eskuizkribuak gordetzen diren Euskaltzaindiaren artxiboan. Ordurako ezagutzen zuen Antonio Cavanillas-ek argitaraturiko *Lequeitio en 1857* liburua. Gero irakurri zuen 1911n Pio Barojak kaleratu zuen *Las inquietudes de Shanti Andia*, Jon Etxaidek 1959an euskarara itzulia. Eleberri honetan agertzen den Luzaro herria Lekeitio da. Azkuek berak egindako *Ortzuri* operan Mendiri herrian gertatutakoak musikatzen ditu; eta herri hori, berak dioskunez, Lekeitio da. Historiaurrea eta arkeologia ere gogokoak zituen, haren lan askotan ikusten denez. Eta zelan ez Lumentxako koba, 1921.eko abuztuaren 12an Barandiarenek aurkitu zuena, Azkue Lekeitioan oportetan zegoela. Historiako datuak ugari ematen dizkigu haren edozein motako lanetan. Bat aipatzearren, Amancio Urriolabeitiak idatzitako "El escudo de Lekeitio" (*Euzkerea*, 1932-33) iker lanean Azkue hurbil izan zuen. Lekeitiorekin zerikusirik daukan datu historiko hau ere ematen digu Eusebio Erkiagak: Zita enperatrizaren aitortle izan zela Azkue uda batez, bederen.

Azkueren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko bi sari iragarri zituen Lekeitio udalak 1964an. Irabazleak: Koldo Mitxelena eta Juan Thalamas Labandibar. Erreteriarren lan saritua honako hau: *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue*; eta irundarrarena: *La mentalidad popular vasca según R. M. de Azkue*. Euskal kulturaren beste arlo batzuk ikertu eta landu bazituen gure lekeitiarrak, saritutako bi lanak zuzen-zuzen doaz bi lan garrantzitsu aztertzerari: *Hiztegia* eta *Euskalerrriaren Yakintza*, Azkueren bizitzako lehen eta azken lan handiak, hain zuzen. Nolabait euskara eta folklorea. Hogei urtekin, 1884an, hasi omen zen Azkue, berak dioskunez, tarteka-marteka datuak biltzen, gero bizitza luze ugarian garatuko zituenak. Baina ezinezkoa da gaur eta hemen bilakatu zuen oihanean sartu; nahiko izango da —eta hori da hitzaldiño honen helburua— Lekeitioko lorategitxoari begirada ematea.

**Euskara.** Bilboko Euskal Katedra irabazi zuenean aurkeztu zuen Salamanca 1888.eko martxoaren 27an idatzi zuen euskarazko lehen lana, "Gran-kanton arrantsaleak", Lekeitioko inguruko itsasoan 1840 urtean gertatutakoa edesten díguna, zeinen originala E. S. Dodgsonen Parisko Bibliothèque Na-

tional-era eraman zuena eta faksimilaturik *Euskera* aldizkarian argitaratu zuena (1988, 2, 379-389). “Peru Matraka ta Pedranton” da bigarren idazkia, *La Abeja* aldizkarian argitaratu zuena (1889-1890). Katedrako ikasleentzat prestatu zuen *Euskal Izkindea* ere Lekeition ernaldua da (1891) zeinetan aitortzen duen “neure ama maitea, bere ez-iakinean, izan dai nire ikaslerik onena” eta ordurako Maria Karmen Aberasturik, nahiz eta mundakarra izan, Lekeition, lekeitiarra eginez, hogeita hamar urte zeramatzan. Baina euskarazko lanik luzeena, liburu neurrikoa, *Bein da betiko* dugu (1893), orduan Lekeition egiten zen euskara ezagutzeko erudia, ezkerreko orrialdeetan bizkaieraz idatzia baitago eta eskuinekoetan “lekeitiarrez”. Eusebio M<sup>a</sup> Azkue aitaren olerkiak biitzen dituen *Parnasorako bidea* argitaratzen duenean semeak (1896), Lekeition 1860an kantatzen zen Gabon Kanta edo bilantziko bat ematen digu. *Euskalzale* aldizkarian ere (1887-1889) zenbat Lekeitioko kanta, ipuin, gertaera eta abar Lekeitiokoak eta “lekeitiarrez”. *Hiztegia*, *Morfologian*, *Euskalerriko Yakintzan* zenbat eta zenbat Lekeitioko berbak, hizkuntzaren erabilerak, atsotitzak, ekanduak, eta abar ematen dizkigunak kontaezinak dira. Azkenik, Erizkizundi irukoitza dela eta, Lekeitioko euskara ikertzeko jaso zituen erantzunak 64 urteko Gregorio Ajubitak eta 37 urteko Florentino Etxeberriak eman zizkioten. Hara hor Lekeitioko euskara Azkuerengan bildua. Badaude, jakina, beste euskal idazle batzuk Lekeition; baina horren berri Andres Urrutia euskaltzainak eman digu hurrengo berbalditxoan.

**Folklore.** Labur arituko naiz gai honetaz ere, nahiz eta Azkuek ikerketan arlo honetan lan oparoa egin. *Euskalerraren Yakintza* izenburutzat daukaten lau tomoak, *Euskalzale* aldizkaria, hainbat idazlan solte eta herri kantuei dagokionetik *Cancionero Popular Vasco* begiratzeari beharrezko dugu. Baina altxor guzti honetatik, zuoi Lekeitiokoak aukeratuta eman behar dizkizuet.

Dantza. Bi dantza berezi ezagutzen dira aspaldidanik Lekeition:

1. *Kaxarranka*. Juan Irigoienek (RIEV, 1927) 1607an dokumentatuta dagoela dantza hau diosku. Azkuek ez du izen hori erabiltzen, San Pedroren zortzikoa baizik (*Cancionero*, 286 zb.) eta doinua ematen digu. Jesus Guridik *Hamar euskal melodiak* orkestrarako obran erabiltzen du doinu hau, VIII. atalean, “Danza” deituz.

2. *Neska dantzea*. Hala deitzen dio Azkuek eta dantzatzeko “Doniennetako zortzikoa” ematen digu (*Euskalzale*, 1897). E. Erkiagak, osteran, *Andra-aurreskua* deitzen dio San Juan egunean, Eguzki Jaian, neskatxek egiten duten dantzari.

**Kantak.** Milaka kanta bildu zituen Azkuek Euskal Herrian eta hauetatik mila baino gehiago argitaratu. Lekeition bildutakoak hogeita hamarretik gorakoak dira. Nork kantatu zizkion (eta zenbat) aipatuko dut orain: Maria Inazia Aboitiz (1), Guillerma Akarregi (2), Juan Maria Altuna (1) Eusebio Ma Azkue (1), Maria Karmen Aberasturi (4), Alfonso Azkue (1), Aurora Azkue (2), Diana Azkue (1), Crisostoma Bengoetxea (13), Jose Luzio Etxeberria (1), Ur-

sula Torre (1), Luzia Zabala (7). Berak ere jaso zituen zuzenenan txistularien doinuak. Eta argitaraturikoen artean badaude dantzarako diren kantak: mahai-ganekoak (almute dantzak Nafarroan) haur dantzak, eta abar. Zehaztasun gehiago nahi edo behar duenak Azkueren Kantutegira jo beharko du eta gauza bitxiak aurkituko ditu.

**Bestelakoak.** Ezin ditut aipatu barik utzi, labur baino ez bada ere, *Euskal ezkontza*, abuztuaren 6an Gora-Buru elkarteak antolatzen duena, eta San Antolinetako *Antzarrak*.

Amaitzera noa. Azkuek asko maite zuela bere jaioterria denok dakizue, eta harro sentitzen zela lekeitiarra izateaz. Abuztuaren 5ean, jaiotza eguna ospatuz, hasten zituen oporrak, beti Lekeition, inoiz hutsik egin barik. Dakizue-nez, 1951.eko urriaren 22an, iluntzean, lana amaitu ondoren Ibaizabal erreke-ra erori zen eta hesteritisekin azaroaren 9an hil. Duela berrogeita hamar urte. Salbatzera joan zitzaion Fernando Voz Peñari esan omen zion: "Ken, ken; uger egiten badakit, Lekeitiokoa naiz eta". Jaio zenetik hil arte, Azkue lekeitiarra.

## LEKEITIOKO EUSKALGINTZA, BI URTEREN MENDEAN (1875-1939)

*Andres Urrutia Badiola*

Arratsaldeon danoi. Hasi baino lehen, eskerrak emon behar gaurko honen antolatzaileei, eta batez be Lekeitioko herriari, zuen artean egoteko abagune ederra eskaintzen deuskuzuelako Euskaltzaindikoei.

Niretzat, gogoangarria eta pozgarria be bada hemen egotea, urte luzeetan bizi izan nazalako Goikokalean eta zeresanik ez, nire familiaren eta nire bizitzaren zati esanguratsua hementxe dagoalako.

Zeri buruz jarduteko asmoa dodan be, bistan-bistan daukazue, hau da, zer izan zan Lekeition harako euskalgintza —hau da, euskara, euskaltzaletasuna eta enparauak— orain dala ehun urte luze. Zehatz-mehatz esateko, bigarren karlistadan hasi eta azkeneko gerla zitala gertatu arte.

Badot horretarako gidari apartekoa eta trebea. Lekeitiar bete-betea. Elizondokoa dozue bera eta haren izena esan orduko erraz ezagutuko dozuena; hain zuzen be, gure Eusebio Erkiaga zana.

Haren lumatik hamaikatxo saio doguz hartuta Lekeitioko gorabeheretan. Bateko, olerkiak, goratuak eta aipatuak; besteko, **Arranegi** elebarria (1957) zuzen eta moldez Lekeitioko zokondo guztiak arrotu eta astindu zituana. Ahaztuezinak, hortik be, haren antzerkiak, “**Amandarrikuak**” eta besteak.

Ez dira horreek, halan da guztiz be, nire oraingo kontuak. Gaurkoan, beharbada, eta euskararen errekatik joanda, hona ekarriko dodazan izen batzuk hur-hurrekoak izango jatzuez eta beste batzuk, ostera, aspalditxoagokoak.

Idazlearen treotzarean sartuko doguz gure zerak, ea hortik zeozer atarateko modua daukagun, guztion gozagarrirako.

Hasierako tituluari urte bi desbardin ipini deutsadaz. Lehena 1875. urtea; hurrena 1939. urtea. Horreek dira Eguzkitza euskal idazlearen jaiotza eta heriotza datak. Bigarrenari laster igarriko deutzazue, gerra amaierako urtea dalako. XIX. mendekoa, ostera, nondik norakoa Lekeitioko autuetan? Bada, gogora ekarriko doguzan idazleen artean Eguzkitza aukeratu dogu hari mataza bilbatzailea, haren bizitza bitartean gertatu ziralako gaur hemen aitatuko ditu-

danak. Izan be, urte bitarte horretan bizi ziran Azkuetar biak, Eguzkitza bera eta Erkiaga gaztea, gure euskalgintzaren katean katebegi preziatuak.

Esan legez, 1875. urte horretan jaio zen Eguzkitza abade euskaltzalea, gero be Lekeitiora etorria eta euskalgintzan ibilia.

## Eusebio M. Azkue

Betoz kontuak harira. Bi urte arinago, Eusebio Azkue (1813-1873), Lekeitioko Nautikan maisu ibilitako Eusebio bera, hila zan Lekeition. Olerkari fina, asmamen handikoa, hamaikatxo gai eta arlo berbaneurtuaz jorratu ebana. Berori Lekeitiokoa izan ez arren, urte mordotxo egin eban bertan, nautika irakasle eta, esan legez, euskal olerkigina, harako *Parnasorako bidea* osatzen dauan olerki sortaren egilea. Harek ezin berarenak batu bizi bitartean eta haren seme izanak, Don Resurreccion M. Azkuek, artez eta zentzuz –eta ikutuz, itxura danez– bilbatu zituan, danon eskura geratu eitezan.

Zelangoa, halandabe, Eusebio Azkueren eitea Lekeition? Gure ustez, olerkien bidez emotekoa. Entzun dagiguzan, bada, haren bertsoak, sasoiari sasoi euskalgintzaren lekuko:

“Emen dagoz Bermeo / mutil abilakaz / eta Ondarroa andia / arrantzaleakaz. / Emen da Lekeitio / leorrez ta itsasoz / bardinik eztaukana / bere alboan inos”.

Eusebio Azkuek ipintzen deusku begibistan euskalgintzaren giroa Lekeition bertan. Horretarako, lagungarri oso, behinolako jesuiten kolegio izandako horren alboan –izena bera be, *Konpainia* daukan eliza horren aldamenean–, Nautika eraikina, Nautika etxea. Hantxe bertan, inguruko gazte asko ikasgin, lehorrekoari agur egin eta itsaspilotu, kapitan eta makinista izateko ikasketa eta gertukerak ibili. Nautika ez eze, Latinidade ikasketak be hur-hurrean, lehorretik arimazai izan beharko ebenak egoki zertuteko. Latinidade horretara dator, 1904. urtean, gure zerrendaren bigarren gizabanakoa, Juan Bautista Eguzkitza. Berari buruz jardun aurretik egin dagiogun koxkatxo bigarren Azkueri, Don Resurreccion sonatuari.

Koxkatxo dinot, hala esaten jakolako itsasaldean ezer ordaindu barik eta geroago ordaintzekotan dendatik etxera eroaten diran jatekoak eta abarrekoak erosteari. Gu be, koxkan gagoz On Resurreccionegaz eta koxka hori Jose Antonio Arana Martija euskaltzainkideak aspaldiko honetan gitxitu dualakoan nago.

Nire aldetik, ha zala eta, besterik ez, hauxe baino: urteetan ibili zala Lekeitioko gorabeheretan sartuta. Bilbon bizi arren, Lekeitiokoak beti Azkue kezkatu, beti arranguratu. Gramatika, Hiztegi, Abestegi eta gainerakoetan ugari-ugari Lekeitioko aitamenak.

Berba batez esateko, Azkue batengandik Azkue batengana, Lekeitiok euskalgintzari eskaini deusan euskaltzalerik egokiena eta zertuena.

### Aita Kandido Basabe S. J. (1867-1928)

Aldi bereko eta sasoi bateko lekeitiar umekondoak izan ei ziran Aita Kandido Basabe eta Resurreccion M. Azkue. Hiru urte zaharrago, antza danez, Azkuetarra. Bi-biok mutil bihurriak, arrantzan, txoritan edo jolasetan. Gerora be, biok elizgizon. Bata, Basabe, jesuita; bestea, Azkue, abadea. Basabe, edoze-lan be, ezezagun samarra lekeitiarren artean. Izan be, aita Kandido Basabe jesuita dogu, jesuita bizkaitarra, jesuiten konpainiak euskarari emon deutozkan idazle trebe eta esku-erakutsien hurrenkeran berebiziko tokia eta aipua mereziko leukeana. Harenak dira San Iñazioaren *Gogoetak*, euskaraz emonak. Harenak, eskuliburutxoak eta bestelako lanak be. Autore fina, segurua, bizkaieraz jatorra eta Lekeitioko euskararen testigantza ezin hobea eskuz-esku ekartzen deuskuna, inongo galbahe eta iragazirik bage, ahozko mailatik idatzizko arlora hainbat gai igarota. Horra hor, lehen esan legez, aita Basterretxea jesuita lekeitartuaren jarraitzaile sutsua, tradizio baten partaide jakina.

Aita Kandido Basabe mixiolari izan zan. Dirala lauogei urte, Basabe mixiolari zala esan eta berehala dator gure burura gizon bizardun eta jantzi luzedun hareen irudia, azal baltz-horiko andra-gizonak inguratua. Bestelako mixiolaria izan jakun, barriz, aita Kandido Basabe. Hain zuzen be, herririk herri ibiltzekoa, Bizkaian zehar mixioak emoten ekiana.

Kezka zituan horrek Bizkaia eta horren berbeta. Eusebio Erkiaga herrikideak berebiziko lana emon eban aita Kandidoren aztarrenak azaltzen eta haren intziria azpimarratu zituan. Euskara eta erlijioa. Euskararen aldetik, aor perlatxo bi, egun be balio handikoak: *ereti* (tarte, abagunea) eta *ailagina* (neurri halakoa).

Begoz, Bizkaikoarena lekuko, Eusebio Erkiagaren hitzak, aita Kandidoren azken borondatea zala eta:

«Aita Kandido Basabe mixiolari erriko ospatsua izan zan. Jesus-en Biotza-renganako eraspenaren zabaltzaille asperreziña, apostolu ta erlegiño idazlea Bizkaia-n. Oraindiño gogoan ta bizi-bizi dirae gure erriko askorengan, aren berba ta esaera ta idazlan ta jarraibide ederrak. Guri dago-kigu zer guzti oneek batzea, Aita Kandido-ren irudia ta nortasuna, zan giñean eta zan lakoxea ezagutu ta jakiñerazoteko. Nik neuk —darrailo Aita Goikoetxeak— itzaldi askotan ezagutu neban Aita Kandido-ren asmo ta guraria, baiña batez bere, aren azkenengo geiso-aldian. Errege-egunez iz-tarra ebagi eutsen, pasmuak arturik eukalako. Bere geisote orretan beti egoan alai, ta kantari bere bai, zerurik urre-urrean egoala uste ebalako. Jaungoikoa ikusteko gogoz egoan, ta baita berak, bere apostolukuntzan

salbau zituan arimak bere. Arako eskelea dalakoa, eriotzea iragarriko eban il-barriaren idazkunea, berbere eskuz idatzi eban. Bizkaiaren salbakuntzeagaitik eskeintzen eban guztia.

«Errialde orretan ordezkoa aurkituteko eragozpenak-edo izango zireala susmaurik, esan eban: «Arazo ori, zeruan erabagiko dot.» Eta an egoan, Aita jesulagun bateri esan eutsan: «Berori izango da nire ordezkoa, oiñordekoa». Eta olantxe jazo zan. Arik ganeko 23 urtetan, oiñordeko Aita arek, 108 erritan egin zituan bere itzaldiak, erri bakotxean 15 egun inguru emonik, arimen aldeko lan mamintsu orretan.»

Betor, haren euskara atsegina gurera, berbak bere-beretan emonak:

«Zorionekoa, zer nai ta axe daukana da.»

«Baña gauzen didarretara gortuta, neure griña zitalai jaramon eginda, gauzarik-gauza ibilli naz, neure zoriontasunaren egarria nun asetuko... Eta olan da guzti be, euren, gauzen atzean nabil, gau ta egun geratu barik, ainbeste alegiñegaz, beste zeregiñik ezpa neuko lez, neure arimatxo au zokondo batean, mantar zatarra lez baztertutrik itxita...» (Gog. 33 orrialde).

«Zer deutso gizonari, mundu guztia irabazi arren, bere arimea galtzen ba dau?»

### Juan Bautista Eguzkitza (1875-1939)

Lehenengo haria etena dogu 1904. urtean. Urte horretan dator Lekeitiora Juan Bautista Eguzkitza lemoar abade euskaltzalea. *Jaungoiko-Zale* bazkunkoa, euskaltzain osoa, erlijio idazlea, sermoilari aparta, eta Lekeitio hogeitahiru urte bizi zana, gerraren zitalkeriak bertatik uxatu arte. Uxatu eta berehalakoan hil zan. Zerk ekarri eban Eguzkitza Lekeitiora? Aurretik aitatu dogun Latinidade katedrak ekarri eban ha itsasaldera. Latin irakatsi bitartean, ekin eta ekin euskalgintzan, sorreratik bertatik (1919) hil arte. Azkue bera be, miresle eta bultzatzaile. Haren irakatsia, gizarte arazoetan batez be, ez txikia. Lekeitio idatzi eban, berba batez esateko, liburu aitzindaria izango zana, *Gizarte-azua* (1935). Artean, ha beti ekinean, AVASC eta abarrekoak zabalduz eta plazaratuz.

Lemoarrak, edozein modutan, ez eban Lekeitio alboratu eta artikulu zogarria eskaini eutsan, etnografia aldetik, *Kaxarrankaren* inguruan.

### Eusebio Erkiaga (1912-1993)

Irakaslea batetik eta ikasleak bestetik. Ikasle horien artean, urtenena, Eusebio Erkiaga. Gazte-gazterik hasi da idazten, abetzaletasunak bultzatuta. Olerkiaz zein berbalauaz, idazle dabil *Euzkadi* egunerokoan, *Euskal Orria* sailean,



kronikak gora, kronikak behera Lekeitiotik Bizkaia osora. Lekeitioko barriak mota askotakoak dira: jaiotzak, heriotzak, arrantza kontuak, politika kontuak, batzokiko albisteak...

Batzokiko horretan azpimarratzekoa euskal antzerti abertzalea. Abertzaletasun horretan Erkiaga be idazle eta tarteko, hainbat lekeitiarren artean. Horixe be Rufo Atxurra lekeitiar errimea, herri honetako historia, agerikoa zein ixilpekoa, goitik behera ezagutu eta menderatzen dauana.

Erkiaga ez da bakarra. Gogora eta ekarri dagigun argira Ramon Erze ha be, erbestean hil zana, Mexiko aldean, soziologian maisu eta jakitun. *Ekin* euskal asterokoaren zuzendaria izan zan gerra aurrean.

Lekeitiok baeukan gerra aurreko giro horretan bere zeresana. 1936. urtean, inor gitxik igarri ez arren, gerra heldu hurren zan. *Euskaltzaleak* alkarteak deituta, badator Lekeitiora VII. Olerti eguna. Erkiaga gaztea, hoge-hogei-tabost urte ditu eta antolatzaileen artean dogu. Festa horren kronika bidaltzen dau Bilboko *Euzkadira*. Zuzeneko barri emoten deusku horrek, antzerti, olerki, eta abarrez zer egin dan kanporatzeko. Ibilian-ibilian be, harek emoten deutsa gorlpena Lekeitioko euskalgintzari, jakin barik, horixe izango zala euskalgintza horren azken ekitaldia urte luzeetan.

Orduan be, Resurreccion Azkue tartean zela, umeen azterketak, azkue-tarren aldeko hitzaldiak (Urkiaga, Labayen, Ariztimuño eta Altzo aba hizlariak) eta erakusketa. Olerti-sariketak, bertsolariak eta abar be, hantxe bertan.

Ordukoa, itxaropentsu zana, laster zapuztuta. Harrezkeroko urte baltzen historia ezaguna dogu.

Oroigarri, hirurogeita bost urte geroago, Erkiagaren idatzia, gerra aurreko lekeitiar euskalgintzaren adierazlea:

«Udaletxean lau bat egunetan, Azkue'tarren lanen erakusketa egon da. Iruzpalau mai idartziz eta liburuz beterik: elerti-saila, euzkel-saila eta eresi-sailetan bananduta.

Egokiro iñuan "Lauaxeta"k: Azkue'tar Eusebi zanaren irudi bat aurrian gebala, eta Azkue'tar Berpizkunde Mirena geurekin geunkala ospatu ditugu jayak. Lekeitio'k, alakoren baten be, goratu ditu bere seme argiok.

\* \* \*

Emen izan ditugu Euzkaltaindi'koak, emen izan ditugu olerkariak, idazleak, euskeltzaleak. Geure jayak apainduten, geure errikideok aintzatuten. Pozik artu zaitue gure onek, eta erriaren izenez, eskerrak emon gura dautzuez Jai-Batzordea'k eta Lekeitio'ko "Euskaltzaleak".

Gomuta samurren artean beyoa esker-agiritxu au bere...»

Eta hasieran esan dodan legez, neurea be bai.



# EUSKALGINTZA LEKEITION 1970-1977 INGURUAN

*Mitxel Kaltzakorta Mentxaka*

## 0. SARRERA

Fetxak eta datuak ez daukadaz argi, baina gitxi gorabehera 1970tik 1977ra artean zer egin zan Lekeition euskearen alde, horren barri emongo dot hemen. Ordura arte (1970 urtea) euskerea katakunbetan egoan (Juanito San Martinen simila erabilita), Frankoren diktaduraldia zan-eta. Artikulu honetan neure irakurketatxoa egin nahi dot zelan urten eban euskereak katakunbetatik Lekeition, eta horretarako zelako ekintzak egin ziran. Ekintzok hiru arlotan sartu ditut:

1. Euskerazko eskolak
2. *Sustraia* aldizkaria
3. Bestelakoak

## 1. EUSKERAZKO ESKOLAK

Euskerazko eskolak 1970an hasi eta 1977ra arte iraun eben (gero, AEKren eskolak etorri, eta beste historia bat hasi zan). Lau eskola mota emon ziran epe horretan: Lehenengo, akademia batekoak; ondoren, Gaztedi elkarte-koak; gero, baimen bako eskola partikularrak eta azkenez, gau eskolak.

### 1.a. Akademiako eskolak

Maria Diaz de Haro kalean, Enrike Antonen akademian hasi ziran emoten Lekeition lehenengo euskerazko eskolak frankismoan, 1971-1972 kur-tsoan. Akademia legeztatuta egotea aprobetxatu zan, eta Angel Ugarteburu be-rrituarra eta Jon Barbarias lekeitiarra izan ziran irakasleak (aurrelariak, lehe-ngoak Lekeition). Jendea batzeko ahoz-ahoko propaganda egin zan, eta 10-12 lagun batu ziran, gazteak gehienbat. Eskolak astean egun bitan emoten zi-

---

(1) Eskerrak emon gura deutset Josetxu Llerandi, Angel Ugarteburu eta, batez be, Sabiño Madariagari, behar hau egiteko datu argigarriak emon deustez-eta.

ran, eta ikasleetan Andres Urrutia be ibili zan, gaur egun, dakigunez, euskaltzain osoa.

### 1.b. Gaztedi elkarteko eskolak

Elkarte honetan, bertoko kideak gazteak-eta, mogimendu handia egoan arlo askotan, eta euskeran be irrikia sortu zan, ez zan normala-eta ahoz euskaraz bizi eta ez idazten jakitea. Josetxu Llerandi irakasle zala, 10-15 gazteko talde bat egin eta euskerazko eskolak hasi ziran 1972-1973 kurtsosan. Ikas-taro bi emon ziran: bata, neguan; bestea, udan.

### 1.c. Eskola partikularrak

Aurreko eskola mota biak legezko erakunderen baten babesean emon ziran, baina honako hau bestelakoa gertatu zan. Nik neuk antolatu neban, eta gauzak behar diran moduan egin nahirik —hau da, legez— alkatearengana jo neban baimen eske. Idazkariarengana bialdu ninduan, eta honek esan eustan horrelakorik (euskerazko eskolak emotea) ez zala inoiz egin Lekeition, ez egola aurrekaririk, berak ekiala behintzat, eta berba egin behar ebal goiko agintariekin (gobemadorea bera be aitatu eban), eta itxaroteko. Nik erantzun neutsan ondo ustean nentorkiola, fede onez, ikusita herrrian ezelako baimen barik emoten zirala eskola partikularrak urteak joan eta urteak etorri eta edonon eta edonork (baita neuk be, elektrizitate eta elektronikari buruz), batez be udan. Eta horren erakusgari herria kartelez josita egoten zala eskola partikularrak eskaintzen ebezanak. Itaundu neutsan ea inork eskatu ete eutsan baimenik eskolak emoteko. Isildu egin zan. Eta esan neutsan nik be eskolak emongo nebazala beraren baimen barik. Kontuz ibilteko esan eustan. Eta holan amaitu zan udaletxera egin neban osterea baimen eske.

Ni neu be gaztea orduan, eta ausardia akuilu, atzera barik aurrera egin neban. Hasi nintzan propaganda zabaltzen eskolak emon behar nebazala, eta modu bitara egin be: batetik, ahoz eta bestetik, denda eta kale jakin batzuetan propaganda-paperak ipinita.

Orduko bikarioagaz berba egin, eta baimena emon eustan Gizarte Etxeko lokaletan eskolak emoteko. Sei bat ikasle batu ginan, gaztetxoak gehienak, eta holan emon nebazan lehenengo eskolak Lekeition 1972-1973 urtean.

Urte honetan bertan eskola publikoko zuzendariagaz be berba egin neban eskoletan bertan euskerazko eskolak emoteko eskola-ordutik kanpo. Baina harek be esan eustan konsultatu egin behar ebal inspektoreagaz. Jentea orduan oso legala, estua zan legeekin, ez eben nahi konpromisorik, eta beti euken atetik adina maratila guri eta euskerari zoztor eragiteko.

### 1.d. Gau eskolak

Ordurako Ondarroan hasita egoazan gau eskolak emoten. Euskaltzaindiaren babesean emoten ziran, eta oker ez banago, JAGON sailaren barruan, *Bizkaiko Alfabetatzea izenagaz*.

Lekeition gau eskolak Gizarte Etxean hasi ginan emoten elizearen baimenagaz hasi be, 1973an eta Josetxu Llerandi eta biok ginala irakasle. Hogeitabat bat ikasleko taldea osatu genduan, gehienbaten gazteak, eta lau urtean emon genduzan eskolak, 1978an hasi zan arte AEK.

Eskola hareetatik beste irakasle batzuk sortu ziran, hurrengo urteetan eskolak emon ebezanak, baita hainbat irakasle be, gaur egun irakaskuntzan (hainbat mailatan) beharrean dabilzanak.

Gure eskualdean (Lea-Artibai) gau eskolak zabalduko, ikastaro batzuk antolatu genduzan Markinan, monjetan (beti legezko erakundeen babesean), zapatu arratsaldeetan, irakasleak egiteko, formatuteko. Izan be, Lekeitio eta Ondarroan bakarrik emoten ziran gau eskolak (eta ez Markinan). Ikastaro haretako eragile nagusiak, besteei ezer kendu barik, lekeitiarrok izan ginan. Berrogeiren bat ikasle batu genduzan maila bitan, eta hizkuntzeagaz gainera, Euskal Herriaren historia be emon genduan.

## 2. SUSTRAIA ALDIZKARIA

*Sustraia* aldizkaria Gaztedi elkarteak sortu eban 1977ko gabonak aldean-edo. Ahal zenean argitaratuten zanez, ahaldenkari bihurtu zan (hile bitik behin-edo), nahiz eta lehenengotan hilabetekari izateko asmotan jaio. 250 ale kaleratuten ziran zembakiko, eta Azkueri eskainitakoan 1000 garauraino, heldu zan. Guztira 51 zembaki plazaratu ziran, eta 1987an ezkutatu egin zan.

Aldizkaria sortu barri-papertzat sortu zan, Gaztedi elkarteko kirol, mendizaletasun eta abarren barri emoteko. Aldizkariaren ardura batez be euken Julen Atxurra (Pototo), Tetxu Meabe eta Aitor Etxebarriak. Gauzak holan, 4 ale kaleratu ebezan Sustraiaren lehengo aldi honetan. Baina Gaztedi Elkartearen desegin egin zan, eta bertako Pototo eta Aitorri kimu barriak gehitu jakezan, besteak beste, Sabiño Madariaga, Miren Agur Meabe, Jose Ramon Zubizarreta, Miren Bego Antxustegi eta Mirari Escribano, eta holan hasi zan *Sustraiaren* bigarren aldia. Hurrengo zembakietan, 5etik aurrerakoetan, indarra galdu eban Gaztediko barriak, eta beste batzuk biztu ziran: herriko pertsonetikiko alkarrizketak, poesia, ipuinak, eskoletako umeen beharrak, eta abar. Orduko idazle bik liburu bana be badauke argitaratuta gaur. Pertsona askok lagundu eban artikulua idatziz, herritarrak nahiz kanpotarrak, besteak beste, Andres Urrutia euskaltzainak.

Argitaratutako aldizkarietan bat atera zan berezia Azkue handiari eskainia. Bikaina be bikaina kaleratu zan, aurrekoak ez legez: koloretan eta inprentako letra eta guzti. Artistak Erramun Landa eta Bittor Txakartegi izan ziran. Herritar askok be hartu eben parte hiztegia prestatuten, eta Eusebio Erkiaga eta Jon Juaristi idazleak lagundu eben artikulu banagaz.

Zelako euskera mota erabilten zan, erantzun behar da batuan-edo (zelako edo halako euskara batuan) idazten zala gehienbaten, gehienak euskara batuan alfabetatuta egoazan-eta. Baina beste batzuek, bizkaieraz idazten eben, eta batek edo bestek, lekeitiarrez.

Inprimatu, multikopistaz egiten zan hasikeran, gero, 25 zenbakiraino-edo, fotokopiak egiten ziran, eta azkenengo aleak, inprenta baten. Azkueren ale berezia —lehen esan dot— koloretan atera zan, Lankide Aurrezkiak diruz lagundu eban-eta.

Aldizkaria saldu, eskuz egiten zan, batez be toki jakin batzuetan (jende asko paseoan zebilen tokietan), batzuei kaparradea emonez eta beste batzuei abarketea sartuta, baina beti be eskean.

Erregelen 89. artikulua inguruan, Satrustegiren iritzia ez dago behar bezala jaso eta egiten zaion erreferentzia kentzea proposatu du. Ohar hori onartuta, ontzat eman da agiria.

*Euskaltzainburuaren hitzak*

Andres Iñigo jaunaren ama hil dela aditzera eman du euskaltzainburuak. Euskaltzaindiaren dolulina azaldu dio Iñigo jaunari. Hiletetan Erakundearen ordezkaritza zabala izan zela esan du.

Satrustegi jaunak galdetu du ea zalantzazko kasuetan etimologiaz balia ote daitekeen. Miren Azkaratek erantzun dio zalantza argitzeko balio badezake, sar litekeela irizpideen artean. Ahal dela, tradizioa eta hiztegiatiko erabilera izango dela nagusi. Etimologia ere sar liteke, gehiagarri gisa, behar denean.

Andres Urrutiak galdetu du ea hilaren 15erako egin behar diren oharrak euskaltzainek eskuartean duten zerrendari buruzkoak izan behar duten. Baietz erantzun zaio. Bestalde, *abal* eta *abandonu* hitzak direla eta, ageri diren bezala aurkeztuko diren galdetu du. *Abaldun*, adibidez, berria da. Horien ondoan, oharrak egitean, *abalkide* eta honen antzeko beste zenbait ere aurkez ote daitezkeen jakin nahi luke. Baietz erantzun dio Miren Azkaratek.

Befiñ Oihartzabalek dio oharrak beti egin daitezkeela. Printzipioz, halako gauzetan hobe litzateke, hala ere, zuhur jokatu. Zalantza du zerrendan ageri den *abaldun* horrek zenbait baldintza betetzen ote dituen. Hitz berriak proposatu nahi badira, baina gutxieneko baldintzak bete gabe, behar-beharrezko denean bakarrik egin beharko litzateke hori.

Ondoren, Xabier Kintanak azaldu du zenbaitetan Unibertsitatean erabiltzen den lexikoa apunte mailan geratu dela, ez dela liburu izatera iritsi. Bigarren itzuli honetan horrelako hitzak sar litezkeela uste du. Hamabost urteko tradizioa izan dezakete hitz batzuek. Hitz horiek biltzeko eskubidea izan beharko litzateke. Maġutasuna behar litzateke.

Miren Azkaratek erantzun dio esanaz gaurko bizitzan beharrezko diren hitzak sartu beharra ere irizpidea dela. Arlo semantiko jakin batzuk osatzeko orduan beharrezko gerta daitezke hitz batzuk.

*“Instituto Geográfico Nacional” delakoak bidalitako zerrenda aztertzea eta onartzea.*

Madrileko “Instituto Geográfico Nacional” delakoak hitz generikoen zerrenda bat helarazi dio Euskaltzaindiari oniritzia eman diezaion. Miren Azkaratek azaldu duenez, erdal hitzen euskal ordainak aztertu ditu Euskara Batuko batzordeak, baina pentsatu du zerrenda euskaltzainen bilerara ekartzea zela hoberena.

Azterketa errazteko asmoz, 1988an Euskaltzaindiak egindako proposamena ere gehitu zaio zerrendari. Eta zenbait hitzetan Euskara Batuko batzordearen iritzia ere bai. Hitz askotan inolako oharririk ez da eta, beraz, besterik gabe onartzekotzat ditu batzordeak.

Xarriton jaunak frantsesarentzat ere gauza bera egitea eskatuko luke. Zerrenda osatzeko eskatzen du. Haritschelharrek erantzun dio bakoitza bere txandan egingo dela.

H. Knörren ustetan, eskari bat iritsi zaio Euskaltzaindiari eta horri erantzun behar zaio. Frantsesez egitea geroko zerbitzu litzateke. Alfabetikoki zerrendatzea eskatu du, bestalde. Erantzun zaio alfabetikoki ordenatua etorri zela euskarazko zerrenda baina gaztelania jartzerakoan lehenbiziko hurrenkera hori hautsia gertatu dela.

Ohar hauen ondoren, banan-banan aztertu da zerrenda. Problemarik ez dutenak lehendabizi. Hauek besterik gabe ontzat eman dira. Ondoren zenbait eztabaida izan da:

*Bainuetxea* (= balneario) botoetara eman da: 12 alde. Kontra 1. Beraz, *bainuetxea* onartu da.

*Trenbide/burdinbide* bikotearen aurrean eztabaida sortu da. Gero, bozkatu da eta honako emaitza izan du bozketa horrek: *burdinbidea*-ren alde, 9 eta *trenbidea*-ren alde ere 9. Emaitza honen aurrean biak proposatzea ere aipatu da, baina ez da onartu. Berririo bozkatu da: *burdinbidea*-ren alde orain ere 9 boto izan dira, baina *trenbidearen* alde, 10. Abstentzio bat ere izan da. Horrela, *trenbidea* ezartzea onartu da. Beraz, *F.C.*-ren ordain gisa *T.B.* proposatuko da.

*Erribera*-ren kontua ere eztabaidatu da. Bozketaren ondoren, *erribera*-ren alde: 15 boto. Kontra 1 eta abstentzio bat.

*Laguna*-ren ordain gisa zer eman eztabaidatu da ondoren. “Lago” zein “laguna” hitzen ordaintzat *aintzira* ematea proposatu da. Hamalau boto izan ditu proposamen honek bere alde. Zenbaitek *idoi* hitza proposatu badute ere, honek hiru boto besterik ez du bereganatu.

“Parador”-entzat *paradorea* ematea onartu da.

“Paso entre montañas” delakoak zer esan nahi duen argitzeko eskatuko zaio IGN-ri, ordaina eman baino lehen.

“Ayuntamiento” hitzaren bi adierentzat bi ordain desberdin ematea erabaki da: *udala* eta *udaletxea*.

Beste eztabaidarik ere izan da. Horien ondoren, “arroyo”-rentzat *latsa* ematea erabaki da; “regata”-rentzat, *erreka* eta “río”-rentzat *ibaia*. Orobat, “abrigo”-rentzat, *harpea* emango da; “cueva artificial”-entzat *koba*; “cueva”-rentzat *haitzuloa*; “sima”-rentzat *leizea*.

Eta eztabaida eta bozketa hauen ondoren, ontzat eman da zerrenda.

### *Barne-erregelen aldaketak*

Aurreko bileran bozkatu gabe gelditu ziren bi aldaketa ekarri dira onartzeko: 11. artikuluari dagokiona bata eta 89.ari dagokiona bestea.

89. artikuluari dagokionez, idazkariak azaldu du zein den bi idazkeren arteko aldea: batean “batzordeburuak” aipatzen dira batzordekide gisa, idazkera berrian “bi kide” aipatzen diren bitartean:

89. art.

Testu zaharra:

“Euskaltzaindiaren izenaz plazaratzen diren argitalpenen ardura, organigramaren arabera, Zuzendaritzari dagokio. Eginkizun hori argitalpen batzordearen bidez gauzatu da eta honela osatuko da batzordea: euskaltzainburua, euskaltzainburordea, idazkaria, diruzaina, Iker eta Jagon sailburuak, batzordeburuak eta, idazkari lanetan, Argitalpen eragilea.”

Testu berria:

“Euskaltzaindiaren izenaz plazaratzen diren argitalpenen ardura, organigramaren arabera, Zuzendaritzari dagokio. Eginkizun hori argitalpen batzordearen bidez gauza-



tuko da eta honela osatuko da batzordea: Zuzendaritzakideak eta beste bi kide. Idazkari lanak, Argitalpen eragileak egingo ditu.”

Bozketak honako emaitza izan du: hamaika, testu berriaren alde; bost, kontra eta lau abstentzio. Beraz, proposaturiko idazkera berria onartu da.

11. bis. 2. artikulua dela eta, J. A. Aranak bakarrik aurkeztu zuen ohar bat bere garaian. Ohar honen ondorioz, Zuzendaritzak bi testu eman ditu aukeran:

11. bis. 2

A. aukera

“Zuzendaritzakideen kargu uztea, honako arrazoiengatik gerta daiteke: heriotza, ezintasuna eta dimisioa. Ordezkoen hautaketa, gelditzen den denbora epealdia artekoa izango da. Hutsartea gertatu ostean, ondorengo bilkuran iragarriko da eta hurrengo hileko osoko bilkuran hautatuko da.”

B. aukera

“Zuzendaritzakideen kargu uztea, honako arrazoiengatik gerta daiteke: heriotza, ezintasuna eta dimisioa. Ordezkoen hautaketa, gelditzen den denbora epealdia artekoa izango da. Hutsartea gertatu ostean, ondorengo bilkuran iragarriko da eta hurrengo hileko osoko bilkuran hautatuko da. Buruaren eta buruordearen kasuan, duten errepresentazio balioagatik, lehenaren kargu uzteak bigarrenarena daramake. Zernahi gisaz, buruorde izan denak euskaltzainburutza hartuko du, buru eta buruorde hautaketa berria gauzatu arte.”

Lehen testuaren alde mintzatu da H. Knörr. Haren ustez, hobeki ziurtatzen ditu euskaltzain gutzien eskubideak.

Bozkatu ondoren, A aukera onartu da (13 boto), B aukeraren kontra (5 boto).

### *Eskuartekoak*

#### *Herri literatura jardunaldiak*

Abenduaren 28 eta 29an Bilbon egingo diren Jardunaldien berri eman zaie idatziz euskaltzainei, parte hartzeko gonbitarekin batera.

#### *Frantziako CNRS-ren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena.*

Lankidetzak aurrera ateratzeko eta dirulaguntzak eskatzeko orduan horrelako hitzarmenak nahitaezko gertatzen direla azaldu du euskaltzainburuak. Ontzat eman da, aho batez, hitzarmena sinatzea.

#### *Azken ordukoak.*

#### *Iratzederren gutuna.*

Iratzederrek gutuna egin dio euskaltzainburuari Bellokeko Abadeak “Euskaltzaindiko bilkuretarat joateetik gelditzeko ordua” iritsi dela adierazi diola esanaz. Dimisio gutuna dirudien honi buruzko iritzia eskatu die euskaltzainburuak euskaltzainei.

Formalki dimititu ez duenez, euskaltzainburuak Iratzederri idatziko dio eskatuz bere baitatik uzten duela adieraz dezan, arrazoiak emanaz. Bestalde, abadeari ere idatziko zaio Euskaltzaindiaren erregelen berri emanaz. Gutun hauen erantzuna jasotzean, hartuko da erregelen arabera erabakia.

*Nafarroan euskararen inguruan sortu den ondoeza dela eta gutuna.*

Nafarroako presidente den Miguel Sanz jaunari zuzendutako gutun zirriborro bat aurkeztu zaie euskaltzainei. Nafarroan euskararen egoera aldarazi nahi duen dekretu berria dela eta, Euskaltzaindiaren kezka eta ondoeza agertu nahi da. Oraingoz, proiektu bat besterik ez denez, Euskaltzaindiak bere kezka agertu besterik ezin du egin. Proiektu soil bat ezin baitu Euskaltzaindiak kritikatu. Euskaltzaindiaren eskari bat dela adierazi du Andres Urrutia jaunak. Estilo kontu batzuk zuzendu ondoren, aho batez onartu da gutunaren testua.

*“Euskaldun unibertsal” izendapenerako proposamenak*

“Euskaldun unibertsala” ohorezko izendapena gauzatzeko proposamenik ba ote den galdetu zaie euskaltzainei. Nolanahi ere, datorren hilaren 10.a baino lehen egin beharko litzateke proposamena. Zenbait izen hartu dira ahotan. Azkenean, J. M<sup>a</sup> Setien apezpiku jaunaren aldeko proposamena mahairatu du Charritton jaunak. 15 boto izan dira proposamenaren alde. Abstentzioak, 3.

*JAGONET-en aurkezpena.*

Miren Azkaratek jakinarazi du datorren ostegunean egingo dela JAGONET kontsulta zerbitzuaren aurkezpena.

*Batzar eguna aldatzeko eskaria.*

Miren Azkaratek abenduko bilera 29tik 22ra aurreratzea eskatu du, egokiago iruditzen baitzaio Eguberriak baino lehen egitea. Onartu da, baina arratsalderako iragarrita zeuden gertakizunak ere egun horretara aurreratuko dira. Euskaltzain ohorezko berriei agiriak banatzea egun horretan izango denez, dagokienei behar bezala emango zaie aditzera.

Azkenik *Hiztegi Batuaren* argitalpenaren berri galde egin du Andres Iñigok. Las-ter izango dela kalean erantzun zaio, *Euskera* aldizkariaren ale berezi gisa.

Eta hirurak hamar gutxitan amaitu da bilkura.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*

## AGERIKO BATZARRA

*Donostian, 2000.eko azaroaren 24an*

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, 2000.eko azaroaren 24an, arratsaldeko bostetan eman dio hasiera Euskaltzaindiak T. H. Wilbur eta J. Allières euskaltzain ohorezkoen eta Peter Etxeberria euskaltzain urgazle zirenen omenezko bilkurari.

Honako jaun-andre hauek bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, H. Knörr buruordea, P. Goenaga idazkaria eta J. A. Arana diruzaina mahaian, eta P. Altuna, Miren Azkarate, P. Charriton, A. Iñigo, X. Kintana, J. M. Lekuona, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin eta Andres Urrutia euskaltzainak, eta honako euskaltzain urgazleak: R. Badiola, G. Barandiaran, Andolin Eguzkitza eta J. L. Lizundia.

### *T. H. Wilburren hilberria.*

Hasierako agurraren ondoren, euskaltzainburuak Andolin Eguzkitza jaunari eman dio hitza Terence Harrison Wilbur irakasle eta euskaltzain ohorezkoaren hilberri txostena irakurtzeko. 1924an jaioa, hirurogeita hamasei urte bete gabe hil zen, hogeita hemeretzi urtez irakasle lanetan jardun ondoren germanistikaren arloan. Txostengileak Wilbur jaunarekin izandako harremanen berri eman du eta haren lanen goraiapamena egin: Schuchardt-i buruzkoak, euskal gramatikazkoak (*Prolegomena to a Grammar of Basque*) eta beste hainbat lan aipatuz.

### *Peter Etxeberriaren hilberri txostena.*

Ondoren, William Douglass jaunak prestatu eta Jon Artzak euskaratutako Peter Etxeberria euskaltzain urgazle zenaren hilberri txostena irakurri du H. Knörrek.

Aita lekeitiarra, ama Apatamonasteriokoa; euskaldun eta euskaltzale sutsua; legegizon ospetsua.

### *Jacques Allières jaunaren hilberri txostena.*

Jean Haritschelhar euskaltzainburuak irakurri du Allières euskaltzain ohorezko zenaren hilberria.

Allières irakaslearen ikerketetan euskarak parte handia izan duela azpimarratu du hizlariak. Euskal Herriko Hizkuntza Atlasaren premia aspaldi ikusi zuen. Gaskoinaren ikasle, euskal aditzaren aztertzaile, eskema egokiak asmatuz, etab.

Gaskoinaren eta euskararen arteko kidetasunak aztertu zituen. Euskarari dago-kionez, liburu ederrak eta erabilgarriak utzi zituen. Euskararen enbaxadorea mundu guztian: Japonian, Ipar eta Hego Ameriketara, Georgian eta Europa osoan.

Euskaltzaindiarekin lotura berezia izan zuen: urgazle, euskalariaren biltzarrean partaide, gero euskaltzain ohorezko. Norbaitek goraipatu badu euskara munduan, hori da izan Allières.

*H. Knörren hitzaldia: "Jacques-Auguste de Thou Leizarragaz mintzo"*

Hilberri txostenen ondoren, H. Knörr jaunak beste txosten labur bat aurkeztu du "Jacques-Auguste de Thou Leizarragaz mintzo" izenburuarekin. Politikari honek idatzitako oroitzapenetan Leizarragari egindako ikustaldia aipatzen da. Aipamen-testu hori ekarri du Knörr jaunak gogora.

Eskerrak eman dizkio ondoren euskaltzainburuak hizlariari eta elkarrizketa labur bat sortu da. Testuan ageri den *Saint Jean de pié de Porc* horretaz Xabier Kintanak dio mapa zahar batean berak ere *port-en orde* *porc* ikusi zuela eta harrigarri egin zitzaiola. Haritschelhar jaunak erantzun dio esanaz aldi bat baino gehiagotan erabili izan dela hori: "St. Jean pie de cochon". *Atapuerca* bera ere ez ote da *atapuerta*? galdetu du Kintanak. J. L. Lizundiaren arabera, Merino Urrutiarentzat euskal toponimia inguru horretaraino iristen da. Belorado inguruko toponimia azterkizun dagoela.

Eta horrenbestez, seiak hoge gutxitan amaitu da arratsaldeko bilkura.

## Bilbon, 2000.eko abenduaren 22an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,  
H. Knörr, buruordea,  
P. Goenaga, idazkaria,  
J. A. Arana, diruzaina,  
M. Azkarate,  
P. Charritton,  
J. L. Davant,  
A. Iñigo,  
X. Kintana,  
E. Larre,  
J. M. Lekuona,  
B. Oihartzabal,  
F. Ondarra,  
Tx. Peillen,  
J. San Martin,  
J. M. Satrustegi,  
Andres Urrutia eta  
Patxi Zabaleta  
euskaltzainak,  
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudea-  
tzailea.

Plaza Barriko egoitzan bildu da Euskal-  
tzaindia, 2000.eko abenduaren 22an, hi-  
leroko batzarra egiteko. Bilerari goizeko  
10ak eta erdietan eman zaio hasiera. Bil-  
dutakoen izenak ezkerreko zutabeen ja-  
soak ageri dira. Ezin etorria adierazi dute  
P. Altunak, X. Diharcek, Pello Salaburuk,  
Ibon Sarasolak eta A. Zavalak.

### *Aurreko batzar-agiriak onartzea*

Inork ez du oharrik egin eta aho batez  
onartu dira azaroko bi agiriak

### *L. Villasantek utzitako hutsartea*

Euskaltzainburuak hil berri den L. Villa-  
sante gogoratu du bileraren hasieran.  
Legeenez, hutsartea aldarrikatu du eta  
hautagaiak aurkezteko bi hilabeteko epe-  
ari hasiera ematen zaiola aditzera eman.  
Bozak martxoan izanen dira.

Hilberri txostena San Martin jaunak pres-  
tatuko du. Urtarrileko bilkuran egingo da.

### *1. Hizkuntza arauak: Hiztegi Batua*

#### *1.1. Unibertsitateko jakintza arlo nagusietako terminologia biltzeko lan-proposamena.*

Izenburu horrekin aurkeztu du Xabier Kintanak, eskatu zitzaion bezala, bere pro-  
posamena. *Hiztegi Batuko* bigarren itzulirako irakaskuntza arloan premiazkoenak diren  
hitzen bilketa nola egin aurkeztu du. Arlo desberdinetako informatzaileez baliatuko da  
hitzak biltzeko. Informatzaile hauei helaraziko zaien gutuna ere aurkeztu du Kintanak.  
Asmoa martxoaren amaierarako proposamenak eskuan izatea litzateke. Gero, bahetze  
lanaren ondoren, euskaltzainei helaraziko zaizkie zerrenda desberdinak.

Aurkezpenaren ondoren, zenbait argitasun eskatu diote euskaltzainek txostengile-  
ari. Knörr jaunak bere bildurra agertu du “galbahetzeaz”: hitz samalda hori behar be-  
zala iragaztea arazo izan liteke. Iturrien fidagarritasuna ere ongi neurtu behar litzate-  
ke. Kontuan hartu behar da, halaber, nazioarteko hitzak diren ere.

Miren Azkaratek ongi iritzi dio proposamenari, baina tentuz ibili behar dela uste  
du berrehun hitzeko multzo hori proposatzeko ahal horrekin. Arkitekuran, adibidez,

zail ikusten du kontua. Bereizi egin beharko litzateke arloen artean. Bigarren itzulian zer sartzea komeni den erabaki behar da, zuhurtasunez jokatzu.

Kintanak erantzun dio esanaz informatzaileei emateko diren oharren artean bi multzo daudela: garrantzitsuak eta garrantzizko izanda ere, bigarren mailakotzat hartzen direnak. Honen arabera, gauzak txukun samar eraman litezke. Egingo den lanak unibertsitaterako balioko du eta, aldi berean, Euskaltzaindiarentzat.

Beñat Oihartzabalen ustez, jakintza arlo batzuetan oso kontzeptu zehatzak badira ere, beste batzuetan oso labainkorrak dira. Horrelakoetan lekukotasuna eta testuinguru ematea behar beharrezkoa da.

Urrutiak gaineratu du Administrazio arloko lantaldean ere hasi direla urratsak egi-ten eta Kintanaren teknika bera aplikatuko dutela. Fitxak talde guztietan bateratsu egi-tena komeniko litzatekeela uste du. Bestalde, prestatzen diren zerrendak alfabetoaren arabera aldian-aldian tartekatzen joan beharrean, saio berezietan aztertzea eta onartzea komeniko litzatekeela esan du. Bidezko ikusi da eta hala erabaki da.

### 1.2. *Instituto Geográfico Nacional delakoaren zerrendan zintzilik utzitako "paso entre montañas" onartzea.*

Onomastika batzordeko buru gisa, Knörr jaunak behar zen kontsulta egin zuen "paso entre montañas" horren adiera zehatzaz. Onomastika batzordean aztertu da kontua eta *mendi lepoa* proposatzen dute ordain egokituz. Bateko eta besteko iritziak eman dira. Azkenean bozkatu da eta hamabi boto izan ditu proposamen honek bere alde. Bi hitzetan emango da eta ez elkarturik.

#### Araugai berrien aurkezpena

Batetik, *Hiztegi Batuko a-aberats* zerrendari Urrutiak, Kintanak eta Satrustegik egindako oharrak jaso dituzte euskaltzainek hurrengo bileran aztertzeko.

Gramatika batzordetik iritsitako hiru araugai berri ere eskuratu dituzte euskaltzainek, hurrengo bilkurarako oharrak egiteko: a) *Behar izan* aditzaren jokabidea aditz iragangaitzekin; b) *nahi/gura izan* aditzen jokabidea aditz iragangaitzekin eta c) zehargaldera orokorretako aditz-atzizki indargarria: *-(e)nenz, -(e)netz, -(e)netz*.

### 2. 200. urterako egutegia

Jose Luis Lizundiak aurkeztu du 2001.eko egutegia. Irailean, Lafitteren omenaldia dela eta seigarren egun bat gehitu behar zaiola esan du. Onartu da. Horrenbestez, larunbatean, irailaren 22an, ekitaldi berezi bat izango da Lafitteren figuraren inguruan.

### 3. Eskuartekoak

#### *Iratzedarren euskaltzaintzari uko egitea*

Iratzederri eta Belloc-eko abadeari idatzitako gutunak irakurri ditu euskaltzainburuak. Ondoren, Iratzeder jaunak erantzundakoa irakurri du. Euskaltzaindiaren barne-erregiek diotenarekin bat, hiru hilabete pasatzen uztea proposatzen du euskaltzainburuak. Horien buruan ikusiko da zer egin behar den kasu honetan. Ontzat eman da proposamena. Nolanahi ere, Satrustegi jaunak adierazi du Iratzedarren gutunak arauak

eskaten duena ongi betetzen duela. Hiru hilabeteko epe horretan eska lekizkiokeen arrazoiak emanak dituela jadanik. Epeari eusteari ongi deritza, baina arrazoi gehiago eskatzea ez dela komeni, horrek sor lezakeen nahasmendua alferrikakoa izango bailitzateke.

*Conseil Général des Pyrénées Atlantiques delakoarekiko hitzarmena.*

Euskaltzainburuak Kontseilu Nagusiarekin sinatutako hitzarmenaren berri eman du. Orain Euskaltzaindiak diru laguntza handiagoa izango du. Hitzarmenaren hizkuntzaz ere gorabeherak izan dira. Bayrou jaunaren gutunaren kopia eman zaie euskaltzainei non onartzen baitu Euskaltzaindiarekikoa euskaraz ere emango dela. Gutun horretan interesgarriena, euskaltzainburuaren ustez, Erakundeari aitortzen zaion "autorité incontestable" delako hori da. Biarnesekin ere gauza bera egingo da. Eta hori aurrerapauso handitzat har daiteke Frantzian: Administrazioak hizkuntza txikiei ere men egin behar izan baitie.

*Nafarroako Gobernuaren dekretu berria euskarari buruz.*

Nafarroako Administrazioan euskararen erabilpena mugatuko duen dekretu berria dela eta, Euskaltzaindiak bere jarrera agertu beharra duela ikusi du Zuzendaritzak. Gutun-zirriborro bat prestatu du Andres Iñigok, Andres Urrutiaren, Patxi Goenagaren eta Jose Luis Lizundiaren laguntzarekin eta hori aurkeztu zaie euskaltzainei. Oraingoz ezagutzen den testua ere banatu zaie euskaltzainei, egin diren aldaketak behar bezala marcatuta.

Satrustegi jaunak gogorarazi du dekretuaren testu ofiziala ez dela oraindik atera. Beraz, haren proposamena da behin-behineko testua onartzea eta gero, zerbait aldatu behar izanez gero, aldaketak egitea. Zabaletaren aburuz, gutuna ez litzateke bidali behar dekretua atera arte. J. San Martinek testua postaz bidali beharrean eskuz-esku eta gauzak azalduz egin beharko litzatekeela dio. Bestalde, "Lingua navarrorum" delakoa aipatzeari garrantzi handia ematen dio. Aipatzea onartu da. Beste zenbait ohar ere egin dira. Horiek guztiak prestatuko da testu berria.

*Argitalpen berrien banaketa*

Aspaldi agindutako bi CD ROM banatu zaizkie euskaltzainei: batetik, *Euskera* aldizkariarena (1919-1979) eta *OEH-ko testu-corpora*. Bigarren hau behin-behineko lana da, Euskaltzaindiaren batzordeetan eta erabiltzeko moldatua. Biak *Aurten Bai* Fundazioak prestatu ditu.

*Hiztegi Batua*-ren argitalpena ere banatu zaie. Hau *Euskera*-ren ale berezi gisa kaleratu da. Hau dela eta, Satrustegi jaunak galde egin du ea pentsatu den *Hiztegi* honen aurkezpen on bat egitea. Haritschelhar jaunak esan dio Zuzendaritza berriak ikusiko duela zer egin eta nola.

Eta horrenbestez, hamabiak eta erdietan amaitutzat eman da bilera.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*

## **EUSKALTZAINDIAREN KARGUAK HAUTATZEKO BILKURA BEREZIA**

Bilbon, Plaza Barriko Euskaltzaindiaren egoitzan 2000ko abenduaren 22an, 12:30etan bildu dira J. A. Arana, M. Azkarate, P. Charritton, J. L. Davant, P. Goenaga, J. Haritschelhar, A. Iñigo, X. Kintana, H. Knörr, E. Larre, J. M. Lekuona, B. Oihartzabal, P. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin, J. M. Satrustegi, A. Urrutia eta P. Zabaleta euskaltzainak eta J. L. Lizundia Idazkariorde-kudeatzailea.

J. Haritschelhar euskaltzainburuak hartu du hitza Barne Erregelaren bi puntu hauek orotarazteko:

a) 58. artikulua arabera, euskaltzain izendatu zaharrena buru eta izendatu berriena idazkari izanen dira mahaia osatuko dutenak. Hortaz, J. Haritschelhar buru eta A. Iñigo idazkari. Baina Haritschelhar jauna euskaltzainburu izateko hautagai denez, J. M. Satrustegiri tokatzen zaio mahaiburu izatea.

b) Kontuan izanik L. Villasanteren hutsunea, gehiengo nagusia lortzeko 12 botu batera behar dira.

Mahaia osatu ondoren, M. Azkaratek P. Altuna eta I. Sarasolaren ahalak mahaia-  
ren aurrean aurkeztu ditu eta J. M. Satrustegik, A. Zavalarena. J. M. Satrustegik oroi-  
tarazi du erregelaren 11. bis. artikulua dioen ordena segituko dela hautaketan.

1) Euskaltzainburua. Hautagaia: Jean Haritschelhar.

X. Kintanak idatzi bat irakurtzeko hitza eskatu du. Azaldu dituen ideia nagusiak honako hauek izan dira. Hasteko, eskerrak eman dizkie zuzendaritzako kideei eta bereziki Jean Haritschelharri. Euskaltzaindiaren zerbitzurako egindako lanagatik eta aitzinean lan horretan segitzeko prest egoteagatik. Baina hurrengo agintaldia lau urterakoa izanen denez, gobernu-programaren lerro nagusien azalpena eskatu dio eta zuzendaritza osatuko duten pertsonena. Kintana jaunak, hobetu beharrekoen artean puntu hauek azpimarratu ditu: gizabidea eta elkarrenganako errespetua, epe ertaineko eta epe luzeko plangintza orokorra bere lehentasun-ordenarekin batera eta zuzendaritzak hileroko bilkuretan jardun garrantzizkoen berri ematea.

J. Haritschelharrek erantzun du X. Kintanak programari buruz eskatzen duena bideratzeko egiten dituela Euskaltzaindiak bi urtetik bi urtera Barne-jadunaldiak eta jardunaldi horiek izaten direla, hain zuzen, irizpideak finkatzeko, lan prozedurari dagozkion erabakiak hartzeko, batzordeak berritzeko, etab. Horretaz gain, euskaltzain guztiekin lan egiteko prest dagoela azpimarratu du.

Ondoren, P. Charritton izan da hitza hartu duena. Berak dioenez, desoreka handia dago batzordeen artean. Esaterako, Hiztegi Batuaren batzordearen lanei sekulako denbora eta dirutza ematen zaion bitartean Gramatika batzordeari ez zaio behar adina-



ko garrantzia ematen eta Euskaltzaindiaren Gramatika oraindik ez dagoela egina oroi-tarazi du. Hortaz, Gramatika batzordeak urteroko aurrekontuetan diru kopuru egonko-rra izan dezan eskatu dio hautagaiari. M. Azkaratek erantzun dio ez duela uste Gramatika batzordearen arazoa diru kontua denik, lanerako prest dauden pertsona egokiak izatearena baizik.

Bozketaren emaitzak:

1) *Euskaltzainburua*. Hautagaia: Jean Haritschelhar.

- J. Haritschelhar jaunak: 11 boto
- Zuri: 11 boto

Bigarren bozketaren emaitzak:

- J. Haritschelhar jaunak: 12 boto
- Zuri: 10 boto

2) *Euskaltzainburuordea*. Hautagaia: Henrike Knörr.

Bozketaren emaitzak:

- H. Knörr jaunak: 18 boto
- M. Azkarate andreak: boto bat
- J. L. Davant jaunak: boto bat
- A. Iñigo jaunak: boto bat
- Zuri: boto bat

3) Idazkaria. Hautagaia: Patxi Goenaga

Bozketaren emaitzak:

- P. Goenaga jaunak: 12 boto
- Zuri: 10 boto

4) Diruzaina. Ez da hautagairik aurkeztu.

Jose Antonio Aranari kargu horretan segitzeko asmorik ez duen galdetu zaio. Bere burua ez duela aurkezten, baina beharrezko botoak aterako balitu, kargua hartzeko prest legokeela erantzun du.

Bozketaren emaitzak:

- J. A. Arana jaunak: 16 boto
- A. Iñigo jaunak: 4 boto
- Zuri: 2 boto

5) *Iker* sailburua. Hautagaia: Beñat Oihartzabal.

Bozketaren emaitzak:

- M. Azkarate andreak: 11 boto
- B. Oihartzabal jaunak: 10 boto
- Zuri: 2 boto

M. Azkaratek berarengan konfidantza jarri dutenei eskerrak eman dizkie, baina argi utzi nahi izan du, gehiengo nagusia aterako balu ere, ez lukeela hartuko kargu hori, alde batetik ez diolako logikarik ikusten aldez aurretik inork deus esan gabe *Iker* sailburu izateko berari botoak eman izanari eta, bestetik, bere asmoa *Jagon* sailburu izaten segitzekoa delako.

Bigarren bozketaren emaitzak:

- B. Oihartzabal jaunak: 12 boto
- A. Urrutia jaunak: 3 boto
- X. Kintana jaunak: 2 boto
- M. Azkarate andreak: boto bat
- Zuri: 4 boto

6) *Jagon* sailburua. Hautagaiak: Miren Azkarate eta Andres Urrutia.

Bozketaren emaitzak:

- A. Urrutia jaunak: 13 boto
- M. Azkarate andreak: 9 boto

Hortaz, Euskaltzaindiaren Barne Erregelaren 11. bis. eta 11.2. artikuluen arabera, hurrengo lau urteetarako, Euskaltzaindiaren Zuzendaritza honako euskaltzain hauek osatuko dute:

- *Euskaltzainburua*: Jean Haritschelhar
- *Euskaltzainburuordea*: Henrike Knörr
- *Idazkaria*: Patxi Goenaga
- *Diruzaina*: Jose Antonio Arana
- *Iker* sailburua: Beñat Oihartzabal
- *Jagon* sailburua: Andres Urrutia

Eta horrenbestez, 13:30etan amaitutzat eman da bilkura berezi hau.

Mahaiburuak	Idazkariak
Jose Mari Satrustegi	Andres Iñigo

## AGERIKO BATZARRA

*Bilbon, 2000.eko abenduaren 22an*

Bilbon, Euskaltzaindiaren Plaza Barriko egoitzan, 2000. urteko abenduaren 22an, arratsaldeko ordu bata eta erdietan, eman zaio hasiera Euskaltzaindiaren batzar irekiari. Urriko bilkuran izendatutako euskaltzain ohorezko berriei beren agiriak banatzea da bilkuraren xedea.

Batetik, goizeko bilkuretan izan diren euskaltzainak bildu dira: J. Haritschelhar, euskaltzainburua, H. Knörr, buruordea, P. Goenaga, idazkaria, J. A. Arana, diruzaina, M. Azkarate, P. Charritton, J. L. Davant, A. Iñigo, X. Kintana, E. Larre, J. M. Lekuona, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin, J. M. Satrustegi, Andres Urrutia eta Patxi Zabaleta.

Euskaltzain ohorezkoen artean honako hauek: P. Andiazabal, K. Etxenagusia, X. Gereño eta J.A. Retolaza.

Urgazleak: A. Arejita, G. Aurrekoetxea, R. Badiola, L. Baraiazarra, E. Etxezarreta, J.L. Goikoetxea, M. Gorrotxategi, J.M. Larrarte, J.L. Lizundia, A. Muniategi, K. Rotaetxe, P. Uribarren eta J.J. Zearreta.

Lehendabizi, idazkariak goizeko bilkuraren berri eman die batzartuei. Hileroko ohiko batzarrean hartutako erabakiak laburbildu ditu lehenbizi eta ondoren, zuzendari-tzarako hauteskondeen berri eman die.

Gero, 2001. urterako onartu den akademia egutegia azaldu zaie bilduei.

Azkenik, euskaltzain ohorezko berriei, batzarrean zirenei, izendapen agiriak banatu zaizkie. Bileran agiriok jaso dituztenak honako jaun hauek izan dira: Jose Antonio Retolaza Iburgengoitia eta Pierre Andiazabal. Gainerakoei, Junes Casenaveri, Suzuko Tamurari, Jan Brauni, Bitoriano Gandiagari eta Mariano Izetari, beste bide batez helaraziko zaizkie izendapen agiriak. Dena dela, Suzuko Tamurak gutun luze bat igorri du, euskaltzainburuak irakurri duena, eskerrak emanaz eta bere ezin etorria adieraziz.

Euskaltzainburuak zorionak eman dizkie izendatu guztiei, eta ordubietan amaitutzat eman da bilkura irekia.

## Donostian, 2001.eko urtarrilaren 26an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,  
H. Knörr, buruordea,  
P. Goenaga, idazkaria,  
J. A. Arana, diruzaina,  
M. Azkarate,  
P. Charritton,  
J. L. Davant,  
A. Iñigo,  
X. Kintana,  
E. Larre,  
J. M. Lekuona,  
B. Oihartzabal,  
C. F. Ondarra,  
Tx. Peillen,  
J. San Martin,  
Ibon Sarasola  
J. M. Satrustegi,  
Andres Urrutia eta  
Patxi Zabaleta  
euskaltzainak,  
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudea-  
tzailea eta  
J. J. Zearreta, ekonomi eragilea (3.  
gaian).

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioa-  
ren jauregian bildu da Euskaltzaindia,  
2001.eko urtarrilaren 26an, hileroko ba-  
tzarra egiteko. Bilera goizeko hamarrak  
eta laurdenetan hasi da. Bildu diren eus-  
kaltzainen izenak ezkerreko zutabea-  
soak ageri dira. Ezin etorria adierazi dute  
Xabier Diharcek eta Txomin Peillenek.

### *Euskaltzainburuaren hitzak*

Euskaltzainburuak urte berri on opa die  
bildutako guztiei. Ondoren, azken bilku-  
ran hautatuak izan ziren zuzendaritzaki-  
deci, H. Knörr buruordeari, P. Goenaga  
idazkariari, J. A. Arana diruzainari, Beñat  
Oihartzabal ikersailburuari eta A. Urrutia  
Jagonsailburuari dei egin die mahaira,  
Barne erregelen 11.6 artikulua arabe-  
ra, karguaz jabetzeko. Ekitaldi labur ho-  
nen ondoren, atzera beren aulkietara itzu-  
li dira. Mahaiari euskaltzainburua,  
buruordea eta idazkaria gelditu dira.

### *Aurreko batzar-agiriak onartzea*

Andres Iñigo jaunak hauteskunde batzarreko agirian botu zenbaketan okerren bat  
egon behar duela adierazi du. Ikersailburuaren hautaketan bi boto zuri ageri dira bai-  
na bakarra izan behar duela esan du. Hala zuzenduko da.

Bestalde, M. Azkaratek Altunaren eta Sarasolaren ahalak ez ezik, Salabururena  
ere bazuela adierazi behar dela esan du euskaltzainburuak. Hori ere behar bezala zu-  
zenduko da.

Eta beste oharrak gabe onartu dira hiru agiriak.

### *Hizkuntza arauak.*

### *Hiztegi Batuko a-aberats zerrenda onartzea.*

Lehenbizi Xabier Kintana jaunaren oharrak eztabaidatzeari ekin dio batzarrak.

**Abarizia / abarizios** sarreretan ematen den *Zah.* marka ez du gustuko ohargileak. Horren ordez, hala ere, batzordeak ez daki "hobe" behar duen ala zer. Zer proposatuko lukeen galdetu zaio. Gaur gutxi erabilia dela esatea eta hitz patrimonial gisa uztea nahi luke. "Zah." jarriz gero –erantzun zaio– esan nahi du ez dela gutxi erabilia, batere ez baizik.. Ibon Sarasolak hartu du ondoren hitza esateko *keria*-ren bidetik edo *diruzale*-tik joan daitekeela aterabidea. Tradizioaren bilakaerari ezin zaiola uko egin eta *abarizia* baztertua gertatu da tradizioan. Azkenean bozkatu da eta honako emaitza izan du bozketak: 9 "Zah."-en alde. Kontra inor ez. Hortaz, "Zah." markarekin utziko da.

**Abegitsu / abegikor.** Kintana jaunak *abegikor* hitzari leku egitea eskatzen du. Eztabaidatu da kontua eta ondoren bozkatu da. Hiztegi Batuko lantaldeak esandakoari eustea proposatzen du Euskara Batuko batzordeak. Proposamen honen alde, zazpi boto izan dira. Biak sartzearen alde bozkatu dute beste zazpi eta zuri, bostek. Bozketan honen ondorioz Ibon Sarasolak oraingoz ez sartzea proposatu du. Horrek ez du kentzen erabili ahal izatea. Eta jendeak erabiltzen badu, beti izango litzateke aukera gero sartzeko. Patxi Goenagak biak kentzea proposatzen du. Hau ere bozkatu da eta aldeko zazpi boto atara ditu. Ondoren, *abegitsu*-ren aldeko botoa eman dute hamar euskaltzainek. Eta biak sartzearen aldeko agertu dira hiru. Horrela, atzera-aurrera hauen guttien ondoren, zerrenda dagoen bezala uztea erabaki da.

Ondoren Satrustegi jaunaren oharren eztabaidari ekin zaio.

**Ababol** hitza dela eta, Miren Azakarate andreak galdetu du ea sartzekotan *Naf.* marka behar ote duen.

Sarasolak desadostasuna ikusten du Satrustegik bere garaian agindu zuenaren eta hemen egiten duenaren artean. Osagarri gisako hitzak eskaini behar omen zituen. *Amapola*-ren zein ordain ditugun jakin beharko genuke lehenbizi eta gero ikusi ea behar dugun hitz berririk. Hemen hiztegiak eta horrelako kontuak aipatzen dira. Hau argitu behar litzatekeela uste du Sarasolak.

J. M. Satrustegik erantzun dio esanaz beldur dela hiztegi desorekatu bat egiten ez ote den ari Euskaltzaindia. Errespeto handiena behar dute aurrekoengandik jasotako hitzek. Prozedura eztabaidatu zenean hiru puntu onartu ziren: 1) hitz bat euskalki batean baino gehiagotan ageri bada, aski indarra du; 2) hiztegiaren baldin badaude; 3) inon ez badaude, orduan beste iturriak bildu. Hirugarren honi heldu dio Sarasolak, baina berak ekarritako hitzak hiru irizpideotan oinarrituta ekarri dituela.

Nafarren artean *ababol* esaten duenik baden galde egin du Sarasolak. Satrustegik erantzun dio berak entzuna duela baina ez dakiela erabiltzen den. H. Knörrek, berriz, *ababol* hitza erdaraz erabiltzen dutela dio. Gereñuren hiztegiaren ageri dela. Aragoen era biltzen da. Baina ez dakiela euskaraz zer pasatzen den. Zabaletak eta Iñigok diote ez dutela ezaguna.

Gauzak horrela, bozkatzea proposatu da. Baina proposamena erretiratu egin du, azkenean, Satrustegik berak. Hala onartu da.

**Abadeki** sartzeta onartu da 'apaizgaia' adierarekin.

**Abemaria jo** esapidea sartzeta eskatzen du ohargileak. Zerrendan *abemarietako* jo dago jaso. Ez da onartu Satrustegiren eskaria. Bestalde, *Abemaria-etzila* sartzekoa litzateke baina horrela ala *Abemari etzila* behar ote lukeen eztabaidatu da. Azkenean

bidezkoagoa iritzi zaio *Abemaria ezkila* azpisarrera gisa ematea eta sinonimo gisa *ilun ezkila*.

**Abarrikatu** sartzea proposatzen du Satrustegik. Zerrendan ageri den *abarrakitu* hitza zaharkitua ote den zalantzan jartzen du. Nolanahi ere, hitz beraren aldakiak dirateke. Azkaratek duda du ea merezi ote duen aldaera hau ere sartzea. Kintanak proposatzen du batetik bestera bidaltzea: e. oharrarekin. Sarasolak *Naf.* oharrarekin joatea egokiago litzatekeela dio: *Naf.* ‘*abarrakitu*’. Hala onartu da.

**Abegor\*** ageri da zerrendan. Honen parean *abegorri*-ri ere leku egitearen aldeko da Satrustegi. Hemen ere lehengo zalantza bera agertu da: hitz beraren aldaerak badira, *abegi* izanik zaharrena eta erabiliena, neke da beste bi hitzak onartzea. Azkenean *abegor*-en sarrera zerrendatik ezabatzea erabaki da.

Hamabietan batzarra eten egin du euskaltzainburuak, ETA-ren azken hilketara dela eta nahi duenak diputazioko gainerako langileekin batera kalean egiteko den bilkura isilean parte har dezan.

Hamabiak eta erdietan berriro ekin zaio bilkurari. Andres Urrutia jaunaren oharak hartu dira aztergai.

**Abadira** hitza sartzea eskatzen du ohargileak. Hitz honi leku egiten bazaio, jarraipena eskatuko du. Horregatik, komeni da irizpideak finkatzea. Eta sartu ez arren, irizpideak finkatzea komeni dela dio modu sistematikoan jokatzeke.

Sarasolak dio *Hiztegi Batuan* egongo dela, seguruenara, “abadejo” izeneko arrainarentzat hitzen bat, baina ezin bilatu. Galde egin du ea ez ote litzatekeen bideren bat asmatu beharko Internetarako, adibidez, erdaratik abiatuz euskal ordaina zein den jakin nahi duenarentzat ordain hori modu errazean bilatzeko tresnaren bat. Euskaltzaindiak horretan pentsatzen hasi beharko lukeela. *Hiztegi* horretan erdaratik sartutako euskal materialak ere badirenez, horiek identifikatu beharko lirateke.

Oraingoz **abadira** ez sartzea erabaki da. Gero, arrainekin eta gainerakoekin sistematikoki eginez gero, ikusiko da.

**Abal** hitzari Urrutiak Zuz. marka jarriko lioke. Onartu da eta ‘*bermea*’ adiera duela esango da. *Abal(-)emaile* hitzari, berriz, ‘*bermea ematen duena*’ adiera erantsiko zaio. *Abalkide* ere sartzea onartu da.

**Abantari** sartzea onartu da..

**Abantzamendu** hitza dela eta, eztabaida labur bat sortu da. Iparraldeko euskaltzainek berek ez diote oso abegi ona egin hitz hori sartzeko proposamenari eta Urrutia jaunak erretiratu egin du.

**Abarras** sartzeko eskaria ez da onartu. *Trementina* litzateke nazioarteko hitza.

**Abarrategi** sartzea eskatzen du Urrutiak. Baina **abartegi** hitza dagoeneko jasoa denez eta, hain zuzen, forma erregularra berau denez, ez da onartu proposamena.

**Abazuza** dela eta Urrutiak egindako oharra ontzat eman da: “abazuza. e. **babazuza**” bezala jasoa geratuko da.

**Abenderri** hitzari leku egin behar zaiola uste du Urrutiak. Abenda-ren parean arraza hobetsi den bezala, abenderri sartzea egoki ikusten du, beti ere nazio hobetsiz.

Hitz hauek duten arazoa da guztiz ideologizatuak daudela. Gainera, kasu honetan badirudi hitzak ez duela lortu bere tokia izatea. Ohargileak azaldu du bere asmoa hitz horren erabilera baztertzea dela. Baztertzeko modua ez aipatzea bada, onartuko lukeela isilik uztea. Zabaletak aipatzea nahiago luke, behar diren oharrekin. Bozkatu da eta hamasei boto izan dira sartzearen alde: “e. **nazio**” oharrarekin emango da.

**Abenturazale** sartzea onartu da.

**Aberasketa** ez da sartuko, adierak arazoak sortzen baititu eta erabili ere ez delako erabili.

**Aberaspide**-ri dagokion ortografia zuzenketa onartu da: *s-z* idatziko da.

Azkenik, H. Knörrek aurkeztutako oharra eztabaidatu dira.

**Abaila** eta **abiadura** hitzen ondoan *lastertasun*-i lehenetsua ematea nahi luke ohargileak. Miren Azkaratek erantzun dio esanaz zerrenda dagoen bezala, lehenetsua hori nolabait ziurtatua dagoela, adiera azaltzeko *lastertasuna* ematen baita. Luze joan da hitz honen adierari buruzko eztabaida. Honela aldatua gertatu da sarrera hori azkenean: **abaila** iz. ‘abiada, oldarra’ Adibide egokia bilatzen saiatuko dira hurrengo bilerarako. Batez ere “ímpetu” adiera argitzen lagunduko duen adibidea bilatu nahi da.

**Abandonatu**-rentzat alorren bat gordetzea eskatzen du Knörr jaunak. Zuzenbide alorrerako markatzea onartu da. “du ad. 1 Zuz. 2 h. ‘utzi’; ‘alde batera utzi’, ‘bertan behera utzi” ezarriko da. Gero, azalpena ematearren adibide egokia bilatzeko txosten-txo bat prestatuko du Urrutia jaunak hurrengorako.

**Abantaila** hitzari adibideren bat eransteko eskaria egiten du ohargileak. Ez da onartu, jadanik ohar hori nolabait jaso dagoelakoan.

**Abantzu Ipar.** eta *Naf.* markekin emango da. **Enantzu** hitza ere aipatu da. Dirudienez, *abantzu*-ren forma bat besterik ez litzateke. Beste zenbaitentzat bi hitz desberdin dira. Larre jaunaren ustez, adibidez, ‘rendimiento’ esan nahi omen du. *Enantzo* ere esaten omen da erdaraz, Ondarra jaunaren ustez.

Gero *abantzu*-ren bigarren sarreran jasotzen dena eztabaidatu da. Adibide on baten bila jardun dute euskaltzainek. Azkenean honako hau emango da: *langile hori abantzu handikoa da*. Bigarren sarrera honetako lehen adiera dagoen bezala utziko da: iz. “aurrerapena, aitzinamendua, trebezia” besterik gabe. Bigarren adierarako *enantzu* sartzea onartu da, *Ipar.* eta *Naf.* markekin. Lehenbizikoari *Ipar eta Naf.* jarriko zaio.

**Abar**-en sarreran ematen den “eta abar luze bat” delakoari dagokion oharra kentzeko proposamena egin du batzordeak. Kalko desagokia dela esatea aski dela esan da. Horren ordez erabil “eta abar eta abar”. Hala onartu da.

**Abat** sarreran, hitz elkarketarako abat- forma sartzeko eskaria ez da onartu. Horrela erabaki baitzen bere garaian.

**Abelbide**-ren ordainaren forma egokia (*altxunbide* ala *altxonbide*) zein den aurrerago erabakitzeke utzi da.

Kintanak eskatu du dagoeneko argitaratua dagoen **abao** hitzari *Bizk.* marka jartzea.

**Abendu**-ren ondoan *etorrera* hitza sartzeko eskaria egin du Knörrek. Ez da onartu.

**Abeniko** hitza adiera bakarrarekin -‘hitzarmena’- ematea onartu da.

Ondoren, Miren Azkarate andreak zerrendan jasoak dauden gainerako oharrak azaldu ditu:

**Abaroan eduki** azpisarrera kenduko da. **Abasberuan**-i lehentasuna eman nahi lioke Sarasolak. Hala ere, **abespeluan** emango da. Abasberuan\* e. **abespeluan** ‘jo ta ke’.

**Abasto** agintzen dute testuek. Hala onartu da: adlag. her. ‘ugari nahikoa’. abastu\* e. **abasto**.

Honenbestez, amaitutzat eman da hiztegi batuari buruzko oharren azterketa. Hurrengo bilerarako gelditzen dira gramatika kontuak. Gai zerrendako 1.1.2 puntua ere (“*Eguneroko hitzen lantaldearen proposamena*”) hurrengorako utzi da.

*Madrilgo “Instituto Geográfico Nacional” delakoari emandako erantzunaren arau barioaz.*

Madrilgo “Instituto Geográfico Nacional” delakoak egindako eskariari emandako erantzuna sartu da bilerako gaien karpetan “hizkuntza arau” gisa. Sarasolak bere harridura erakutsi du. Idazkariak azaldu du horren kontsulta egin ziola Telleria jaunak eta argi esan zitzaiola Euskaltzaindiaren erabaki hori ez dela arau bat, jasotako kontsulta bati Euskaltzaindiak emandako erantzuna baizik. Horrenbestez, Euskaltzaindiaren erantzuna dela esango da. Urrutia jaunak gogorarazi du Euskaltzaindiaren arauetan erabaki mailak bereizten direla. Hori aztertu beharko litzatekeela berriro, eta horren arabera argitara eman *Euskera*-n.

*Erakundearen herrialde ordezkariak izendatzea.*

Zuzendaritzak, barne-erregelen arabera, datozen bi urteetarako lurralde ordezkarien izenak proposatu ditu. Aldaketa bakarra Gasteizkoari dagokio: orain arte P. Goenaga izan da. Honek aldatzea eskatu du eta H. Knörren izena proposatzen da. Onartu da proposamena. Hortaz: Nafarroan Andres Iñigo jaunak jarraituko du; Gipuzkoan J. M. Lekuonak; Iparraldean Charritonek eta Araban H. Knörrek.

*Eskuartekoak*

*Nafarroako gobernuburuari egindako gutuna.*

Erantzunik ez da jaso. Satrustegi jaunak dio gutuna bidali duela Euskaltzaindiak, baina beste zerbait ere egin beharko litzatekeela. Inoiz prentsaurrekoak eta egin direla, eta, behar bada, orain ere horrelako zerbait egin behar litzatekeela, erdibidean geratu gabe. Prentsaurrekoa egiteko zer asmo dagoen galdetu du. Lizundiak azaldu dio oraingoz banaketa soilean gelditzea erabaki zuela zuzendaritzak. Zabaletaren ustez, zuzendaritzak prestatu behar luke Satrustegik dioena. Euskaltzaindiak bere iritzia eman behar luke ahal den abarrotsik gehiena ateratzeko moduan. Hori ongi ikusia izango litzateke. *Zabaltzen*-ekin gertatua ere aztertu behar litzatekeela dio. Egoera orokorrari buruzko iritzia eman behar luke Euskaltzaindiak.

Ondoren, Urrutia jaunak hartu du hitza: zuhurtziaren izenean jokatu da horrela, Eusko Ikaskuntzaren arazoa ere hor baitzegoen. Baina Euskaltzaindia erakundea da eta



erakundetik erakundera jardun behar du. Ondoren galde egin du ea komeni den aurre-  
ra egitea. Nafar euskaltzainek zer uste duten galdetu du. Gauzak ongi neurtu behar dira.  
Egiten denak ondorioak izan baititzake. Gogoeta egin behar da.

Txarritonek dio Euskaltzaindiak bilera orokor bat egin behar lukeela, propio, ego-  
era salatzeko.

Satrustegiren ustez egoera berdinean lehen ere izan da Euskaltzaindia Nafarroa-  
ko agintariek. Aldatu den bakarra da Euskaltzaindiak emandako erantzuna. Lehen han  
punta-puntan joan zen Euskaltzaindia, bidegabekeriak salatuz. Orain ere, epelkeriarik  
gabe, ongi pentsatu eta jasandako eraso salatu behar da.

San Martin jaunak gogorarazi du lan bat egina duela *Egan*-erako Euskaltzaindia-  
ren sorrera eta abar azalduz. Han erregearen hitzak gogoratzen dituela Euskaltzaindia-  
ren betebeharrak zein diren azalduz.

### *Hurrengo bilera*

Hurrengo bilera Lekeition izango dela gogorarazi zaie euskaltzainei. Han egingo  
dira barne-jardunaldiak. Euskaltzainburuak oroitarazi nahi izan du han gogoeta egingo  
dela datozen bi urteetako lanaz, baina hori baino zerbait gehiago ere egin daitekeela  
jardunaldi horietan. Gauzak pentsatuak eramatea eskatu die. Bilkura otsailaren 23an eta  
24an izango da.

### *Epaimahaiak*

Madrilgo Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeritzak urtero antolatzen dituen sa-  
rikerietarako epaimahaikideak izendatzeko eskaria helarazi dio Euskaltzaindiari. Hona-  
ko sari hauetarako: Premio Nacional de las Letras Españolas; Premio Nacional de Li-  
teratura (Poesía); Premio Nacional de Literatura (Narrativa); Premio Nacional de  
Literatura (Ensayo); Premio Nacional de Literatura (Literatura Dramática); Premio Na-  
cional de Literatura Infantil y Juvenil; Premio Nacional de Premio Nacional de Tra-  
ducción. Literatura batzordearen esku utzi dira izendapenok.

Eta horrenbestez, hirurak hamar gutxitan amaitutzat eman da bilera.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*

## Lekeition, 2001.eko otsailaren 23an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,  
H. Knörr, buruordea,  
P. Goenaga, idazkaria,  
J. A. Arana, diruzaina,  
P. Altuna,  
M. Azkarate,  
P. Charritton,  
J. L. Davant,  
A. Iñigo,  
X. Kintana,  
E. Larre,  
J. M. Lekuona,  
B. Oihartzabal,  
C. F. Ondarra,  
Tx. Peillen,  
J. San Martin,  
Ibon Sarasola  
J. M. Satrustegi,  
Andres Urrutia eta  
Patxi Zabaleta  
euskaltzainak,  
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudea-  
tzailea.

### *Euskaltzainburuaren hitzak*

Euskaltzainburuak eskerrak eman dizkio harrera onagatik eta esandako hitzengatik. Ondoren, Bitoriano Gandiagaren heriotza aipatu du eta Euskaltzaindiaren dolumina agertu galera handi horrengatik. Haren hil berri txostena Jaun Mari Lekuonak egingo du.

### *Aurreko batzar-agiriak onartzea*

Andres Iñigo jaunak *abantzu* hitzari buruzkoa behar bezala jaso ez dagoela esan du. Hitz honen bigarren sarreran ematen diren azalpenetan, *aurrerapena* eta *aitzinamendua* ez ezik, *trebetasuna* ere aipatzea onartu zela. Bestalde, sartzeta onartu zen *enartzu* hitzari *Ipar.* eta *Naf.* markak ipini behar zaizkiola. Zuzenketa horiekin, ontzat eman da agiria.

### *Hizkuntza arauak*

#### *Hitzegi Batuko 2. itzulia: "Eguneroko hitzen lantaldearen proposamena"*

Miren Azkarate andreak "Eguneroko hitzen lantaldearen proposamena" izeneko txostena irakurri du, nola osatua egongo den, zein prozedura izango duten eta zein egutegi.

2001.eko otsailaren 23an, Lekeitioko udaletxean, bildu da Euskaltzaindia hileroko batzarra egiteko. Goizeko hamarrek eta hamarrean eman zazio hasiera bilerari. Batzartuen izenak ezkerreko zutabearen jasoak ageri dira. Ezin etorria adierazi dute Xabier Diharceek eta Pello Salaburuk.

### *Lekeitioko alkate andrearen agurra*

Bilera hasi aurretik Lekeitioko alkate andreak ongietorri hitz labur batzuk eskaini dizkie euskaltzainei. Azkueren heriotzaren berrogeita hamargarren urteurrena gogoratzen den honetan, bere poza azaldu du. Azkue euskalgintzaren erreferentzia puntu dela eta Lekeitio harro dagoela hartaz. Eskerrak eman dizkio Euskaltzaindiari hileko bilera Lekeitioko herrian egiteagatik eta udalaren izenean ongi etorria egin.

Xarriton jaunak dio espainolezko hitzak bakarrik aipatzen direla. Taldekideen ize-  
nak aipatzean ere Hegoaldeko jendea soilik aipatzen dela. Baitezpadako zaio Iparral-  
deko norbait sartzea. Irulegi irratiko Pantxika Maitiaren izena aipatu du, bereziki. Mi-  
ren Azkaratek erantzun dio begi onez ikusiko lukeela norbait, baina oso zaila dela  
Iparraldeko norbait aurkitzea.

Xabier Kintanaren ustez, lankideak norberaren ingurukoak izatea ona da, baina  
horrelako lanetarako, aholkulari multzo zabal bat eratzea komeni da, kontsultak nori  
egin izateko. Askotan euskalkietan barreiatutako hitzak bilatu beharko baitira.

Urrutiaren ustez, informatzaileak behar beharrezko dira han hemenka barreiatuak.

Azkarate andreak erantzun die esanaz jadanik badirela informatzaileak hiztegi  
kontuetarako. Hauei eman dakieke hitza.

Patxi Altunaren aburuz, denbora galtzen ibili beharrean jendeak burua baduela  
pentsatu behar da eta taldekoek ere galderak egin ditzaketela beren inguruan.

Ohar hauen ondoren, onartu da txostena. Iparraldeko norbait bilatuko da eta sa-  
rea ere zabalduko da.

### *Hiztegi batua: abandonatu.*

Hitz honi buruzko argitasun gehiago ekartzekotan geratu zen Andres Urrutia.  
*Abandonu* dagoen bezala utziko da. *Abandonatu* hitza, berriz, honela emango da: 1  
Zuz. 'pertsonak, gauzak edo ekintzak utzi, babesik gabe jarri'. Eta bigarren sarrera da-  
goen bezala laga.

"Abandonuak egin" ere esaten omen da Zuberoan. Hau, hala ere, aurrerago az-  
tertzeke utzi da.

Ondoren, Miren Azkaratek galde egin du ea hilero-hilero onartutako zerrenda  
hauekin zer egin behar den, ea zuzenketa guztiak bigarren itzulia amaitu arte zerrenda  
osoan txertatu gabe utzi behar diren. Eztabaida labur bat piztu da honetaz. Azkenean,  
oztopo teknikorik ez bada behintzat, webgunean zerrenda bakarrean ematea proposa-  
tzen da, kolore bidez berezirik adibidez. Gainera, arauen sailean ere argitaratuko dira,  
apurka-apurka, beste edozein arau bezala.

### *Hurrengo hitz zerrendaren eta araugaiaren aurkezpena.*

*Aberatsaile-abolizionista* hitz zerrenda berria aurkeztu zaie euskaltzainei hurren-  
go bileran aztertzeke. Zerrendan bertan jasoak diren oharrak ere kontuan hartzeke es-  
katu zaie.

Hiztegi zerrenda honetaz aparte, *-(e)LAKO / -(e)N* atzizkidun izen osagarriei bu-  
ruzko gramatika araugaiaren testua ere eskuetan jarri zaie euskaltzainei hurrengo bile-  
ran onartzeke.

### *Ibon Sarasolaren oharra aurreko arau batez.*

Ibon Sarasolak jadanik onartua den arau batean *-Komunztadura aposizioetan* ize-  
nekoan, hain zuzen- huts bat bide dagoela esan du. Han zuzentzat ematen den *Paulo*  
*seigarrena aita santua* ez dago ondo. *Paulo seigarren aitasantuak* edo behar omen luke.

Urrutia jaunak prozedura kontua aipatu du: bat-batean ezin dira zuzenketak egin. Oharra idatz dezala eskatu dio eta hurrengoan tratatuko dela. Gramatika batzordeari galde egingo zaio.

*Gramatika arauak:*

*“Behar izan aditzaren jokabidea aditz iragangaitzekin”*

Beñat Oihartzabalen aurkezpen labur baten ondoren oharrak eztabaidatzeari ekin dio batzarrak. Xabier Kintanak 3. paragrafoan *“behar izan aditzak izan laguntzailea har baitezake”* esaten duen lekuan *“... har dezakeenez...”* idaztea eskatu du. Ontzat eman da.

Knörr jaunak ere zenbait zuzenketa proposatu ditu: 13. adibidean *“bertze aldera”* jarri behar du eta ez *“bertzea aldera”*.

Eta bestelako oharrik gabe, ontzat eman da araua.

*“Nahi/gura izan aditzen jokabidea aditz iragangaitzekin”*

Hemen ere Knörr jaunak zenbait huts hauteman ditu. Bestalde, testuen grafia ere bateratzea on litzatekeela dio.

(15-16) bitarteko adibideen ordeztasun batzuk jasotzea eskatu da, horiek *behar izan*-i baitagozkio eta ez *nahi izan*-i. Arauan bertan 1.A-n jasotzen den (a) adibidean ere *“Bihar mintzatu nahi natzaizu...”* eman bedi eta ez, *“bihar mintzatu beharko natzaizu...”*

B atalean, berriz, *“Iparaldeko euskalkietan”* esan beharrean *“Ipar Ekialdeko euskalkietan”* esango da.

Arauaren espiritua onartu da baina argitaratu aurretik Gramatika batzordeak zuzenketa hauek denak egingo ditu eta hurrengo bilerarako ekarriko da testua osatua eta orekatua.

*Zehargaldera orokorretako aditz-atzizki indargarria: -enz, -enentz, -enez ala -enetz?*

Arau honetan ere zenbait zuzenketa egitea onartu da: Batetik (11) adibidea behar bezala zuzendu behar da: *denz ez, denez* behar du. Horrenbestez, adibide horren lekua 3. atala da. Beraz, (14) adibidearen ondoren eman behar da.

(17) adibidearen erreferentzia ez da zuzena: *Proverbes*-en ordeztasun, *Neurtitzak* jarri behar da.

Azkenik, arauaren beraren testuan ere zenbait zuzenketa egitea onartu da: 1.b-n *azaldu den* jarri behar da eta ez *azaldu dan*. 2. atalean, *-(e)netz* atzizkia aipatuko da eta ez *-enetz*. Atal honetako (b) adibidea ere argiago emango da: *Askotan banago gizon horrek besterik ikusten ote duenetz*.

*Eskuartekoak*

*Iratzederren gutun berria.*

Euskaltzainburuak gauzak nola joan diren azaldu du: lehenbiziko gutunean ez zen egiazki dimisiorik. Hori adierazi zitzaion. Gero beste gutun bat egin zuen. Baina igo-

ri duen azken gutunak aurreko guztiak ezeztatzen ditu eta hala kontsideratuko du Euskaltzaindiak. Bidezko iritzi diote honi euskaltzainek.

*Literatur sarietarako epaimahaikideak.*

Aurreko batzarrean Literatura batzordearen esku uztea erabaki zen Madrileko Sari Nazionaletako epaimahaikideen izenak proposatzea. Honako hauek dira: Poesiarako, Jon Kortazar; Narratibarako, Lurdes Otaegi; Saiakerarako, Patri Urkizu; Antzerkirako Aizpea Goenaga eta Haur literaturarako, Xabier Etxaniz.

Itzulpenerako inor ez bidaltzea proposatzen dute eta gutun bat idaztea euskararen kasu berezia aipatuz.

Eztabaida sortu da. Euskaltzaindia ez dago planto egiteko. Azkenean, arazoa sari emaileekikoa denez, egoki ikusi da norbait bidaltzea eta horrekin batera gutun bat ere egitea Ministerioari. Gauzak horrela, Kintana jauna igortzea erabaki da. Gutuna ere idatziko du zuzendaritzak.

“Premio de las Letras” delakorako Hendrike Knörr jauna izendatu da.

*L. Villasanteren hutsartea betetzeko hautagaiak*

Hautagaiak aurkezteko azken eguna izanik, honako bi hautagai hauek izan dira aurkeztuak: Andolin Eguzkitza jauna aurkeztu dute Juan San Martinek, Jose Antonio Aranak, Xabier Kintanak eta Andres Urrutiak. Koldo Zuazo jaunaren aurkezle izan dira Patxi Altuna, Patxi Ondarra eta Miren Azkarate. Haugaia hauek bakoitza bere *curriculum*-arekin aurkeztu dira. Bozketa datorren batzarrean izango da.

*Hurrengo bilera Iruñean*

Hurrengo bileraren xehetasunak eman zaizkie azkenik euskaltzainei. Iruñean izango da hilaren azken ostegunean eta ostiralean. Ostegun arratsaldean, Nafarroan euskarak duen egoerari buruzko jardunaldiak izango dira eta ostiral goizean ohiko batzarra. Jardunaldien ondorio gisa, mezu bat igorri nahi zaie Nafarroako gizarteari eta agintari.

*Armeniako Baskologia katedra*

Armenian, hiriburuko unibertsitatean, Baskologia katedra bat zabaldu berri dela aitzera eman zaie euskaltzainei. Zortzi ikaslerekin eman zaio hasiera eta Sarkisian iraklearen ardurapean izango da.

Eta horrenbestez, ordubiak eta hamarrean amaitutzat eman da bilera.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*

## EUSKALTZAINDIAREN XII. BARNE JARDUNALDIAK

*Lekeition, 2001.eko otsailaren 23an eta 24an*

Euskaltzaindiak aldiro-aldiro egiten dituen barne jardunaldiak izan dira Lekeition otsailaren 23an arratsaldean eta 24an goizez.

Jardunaldioi hasiera eman die euskaltzainburuak otsailaren 23an, arratsaldeko 4ak eta laurdenetan. Bilduak:

- J. Haritschelhar, H. Knörr, P. Goenaga, J. A. Arana, B. Oihartzabal, A. Urrutia, P. Altuna, I. Sarasola, P. Charritton, E. Larre, P. Ondarra, J. San Martin, J. L. Davant, X. Kintana, A. Iñigo, M. Azkarate, J. M. Lekuona, Tx. Peillen eta J. M. Satrustegi euskaltzain osoak.
- J. A. Aduriz, G. Aurrekoetxea, R. Badiola, M. Gorrotxategi, J. M. Makatzaga, I. Segurola eta J. R. Zubimendi, batzorde-idazkariak; J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea; J. J. Zearreta, ekonomia eragilea; P. Telleria, eragile teknikaria; I. Kareaga, informatika arduraduna eta A. Okariz, prentsa arduraduna.

Ongietorriaren ondoren, batzordez batzorde aztertu dira gauzak: orain zertan diren eta datozen bi urteetarako asmoak eta planak zein diren.

1. **Orotariko Euskal Hiztegi**az hitz egin du lehendabizi Iñaki Segurolak. XIII. liburukiak dagoeneko kalean izan behar zuen, baina oraindik ez da iritsi. Urtarrilaren 22tik prest egon da liburua, baina ezin izan da eraman inprimategira. Aurreko liburukietan ageri diren hitzekiko loturak (perde → berde, adibidez) markatzeko programa bat pasatu behar zaio zerrendari. Baina material hori ez dio *Aurten Bai*-k pasatu batzordeari.

Bilduek hainbat argitasun eskatu dituzte, baina atzerapena zuzentzea zail ikusten da. Ibon Sarasolaren hitzetan *Aurten Bai*-ren kontuari ez diote irtenbiderik ikusten.

2. **Hiztegi Batuko lantalde**az mintzatu da ondoren J. A. Aduriz jauna. Une honetan Hiztegi Batuaren "bigarren itzuliko" formak proposatzea da lantaldearen xede nagusia, zerrenda horretako hitzen adieraz eta erabileraz argitasunak eskainiz behar dezan.

Bestalde, metodologiak eta lan-egutegiak aurreko jardunaldietan agindutakoa ongi betetzen ari direla esan du. 2001. eta 2002. urteetan *l-z* arteko hitzetara iritsiko baita prestatana. Hala ere, ba omen da agindu bai baina bete ez dutenik, hots, euskaltzainei eta gainerako iritzi-emailei helarazi behar zitzaizkien proposamenak. Hauek atzeratzea erabaki zen lehendik euskaltzainek eskuartearen zuten lanarekin eta materialarekin nahasterik ez sortzeko. Kontua da joan den uztailan banatu zela bigarren itzuliko *a-*

*amuzki* partea. Ondoko hila beteetan egingo da zati gehiagoren banaketa. Hurrengo itzulian pentsatzen hastea ere ez dute baztertzen lantalde honetako kideek.

EEBS zertan den galde egin da elkarrizketaren haritik. Patxi Goenagak erantzun du, Euskaltzaindiak UZEI-rekin duen hitzarmenaren arabera, dagoeneko SGML formatura pasatuta dagoen corpus-zatia kontsultagai izan daitekeela. Oraindik ez da zehaztu erabat kontua, zeren Gramatika batzordearentzat behintzat egokiago zela zirudien CDROM bidez ematea sarcan "eskitzea" baino.

3. **Gramatika batzordearen** berri eman du ondoren batzorde idazkari den Jesus Mari Makatzaga jaunak. Une honetan *EGLU VI* liburukia prestatzen ari dira: aditz jokatuzko adberbio-perpauak aztertzen dira hemen: kausa, helburu, modu, denbora, kontzesio, baldintza eta horrelakoak. Liburuki hau 2003. urtean egin liteke kalean.

Hortik aparte, araugaiak prestatzen eta hizkuntza kontsultei erantzuten ere izango du lana batzordeak.

4. Ondoren, **EHHA**-ren izenean Gotzon Aurrekoetxeak hitz egin du, zenbait irudi eskainiz ordenagailuaren bidez. Datuen informatizazioari dagokionez, lanaren bost ataletatik hiru eta laurden edo daude informatizatuta. Datuen lanketari eta mapagintzari begira, berriz, lehen bi liburukiak prest daude argitaratzeko. Orotara 10-12 liburuki izango dira.

Datozen bi urteetarako honela planteatu dute lana: 2002.aren erdialderako amaituko da 4a deitu atalaren informatizatzea eta 4b-rekin hasteko moduan izango dira. Horrek esan nahi du atal bat eta erdi geldituko zaiela eginkizun 2002. urtearen amaieran.

5. **Onomastika** batzordearen berri eman du batzorde idazkari den Mikel Gorrotxategik. 2001-2002 epean gauzatzeko dituzten egitasmoak aipatu ditu: Arabako Hego Mendebaldearen toponimiaren azterketa amaitzea; barrendegietako (Trebiño eta Turzios) herri izendegiak lantzea; EUDEL-ekiko hitzarmenetik sortutako lanak, izendegi berezituak osatzea, adibidez; Administrazioaren eskarici erantzutea eta exonomastika lantzea, besteak beste. Zenbait argitalpen ere begiz joak dituzte.

6. **Literatura batzordearen** berri eman du Joan Mari Lekuonak. Batetik, literatura hiztegia lantzen dihardute. Eta, bestetik, herri literatura mailan ere segitzen dute beren jardunaldiak eta bilkurak egiten.

7. **Jagon sailari** dagokionez, Jose Ramon Zubimendik azalpen argigarria eskaini du JAGONET egitasmoari buruz, zer den, nola funtzionatzen duen eta abar. *Demo* txiki bat ere egin du, jendeak ikus dezan egiatan nolakoa izango den Euskaltzaindiak eskainiko duen zerbitzu garrantzitsu hori.

Sail horretako sustapen batzordearen zereginei buruz, berriz, Andres Urrutia Jagon sailburuak eman du. TAALUNIERi buruzko jardunaldiak antolatuko dituzte. Bestetik euskararen estatusari buruzko legeria aztertzea eta hizkuntza eskubideei buruzko materialak biltzen joatea dute helburu. Azkenik, ponte izendegiaz bake-justizia arloan ere lan egiteko asmoa agertu dute.

8. **Azkue Biblioteka** batzordearen eginkizunak zertan diren azaldu du Jose Antonio Aranak. Katalogatze lanetan dihardu bibliotekak eta lan horrek sortzen dituen arazoez lan egin behar du batzordeak (gaiak, terminologia, izendegi arazoak, ...). Katalogatzeari berari dagokionez, 2001. urtean Lacombe-ren biblioteka katalogatuko da eta

Azkue Bibliotekako aldizkariak eta liburutegira iristen diren lan berriak ere bai. La-combe-ren bibliotekako lanik interesgarrienak digitalizatu ere egingo dira, gainera. Hurrengo urtean, berriz, *Euskera* aldizkaria katalogatzea espero dute. Halaber, antzinako ondarearen katalogatzeari ere ekingo diote.

9. **Argitalpen** batzordeak esku artean dituen lanez aritu da Ricardo Badiola jaunna. Ohiko materialen argitaratzeaz gainera, webguneak sor ditzakeen aukerez ere arduratu beharko dela adierazi du.

\* \* \*

Ostiraleko jarduna hemen amaitu da, arratsaldeko zortziak eta laurdenetan.

Larunbatean, goizeko bederatzia eta erdietan ekin dio lanari Euskaltzaindiak. Bilduak:

- J. Haritschelhar, H. Knörr, P. Goenaga, J. A. Arana, B. Oihartzabal, A. Urrutia, P. Altuna, I. Sarasola, P. Charritton, E. Larre, P. Ondarra, J. San Martin, J. L. Davant, A. Iñigo, M. Azkarate, J. M. Lekuona, Tx. Peillen eta J. M. Sastrustegi euskaltzain osoak; eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea; J. J. Zearreta, ekonomia eragilea; P. Telleria, eragile teknikaria eta A. Okariz, prentsa arduraduna.

Euskara Batuko batzordearen ibilbideaz gogoeta egitea eta batzordeak berritzea zen helburua.

10. **Euskara Batuko Batzordearen** izacraz eta eginkizunaz gogoeta egiteko ordua iritsi dela uste izan dute zenbait euskaltzainek. Argi dago, nolana ere, oraingo martxan zail izango dela Euskaltzaindiak gizartearen aurrean duen erantzukizunari behar bezala aurre egitea.

Bigarren itzulirako hogeit mila hitz sartu nahi badira, hilean bostehun hitz beharko lirake aztertu. Horrela, lau urtetako lana izango luke Euskaltzaindiak. Arazoa da nola helarazi 500 hitz horiek euskaltzainen eskuetara. Norbaitek bi eguneko bilkurak egitea ere proposatu du, baina hori gaurkoz ezinezko ikusten da.

Prozeduraz luze hitz egin da. Orain arte onartutako planean ez da erraz ikusten jau urtetan nola burutu daitekeen lan hori. Orain arteko prozedura luzeegia eta konplikatu egia ikusten da:

- 1) Hiztegi Batuko Lantaldea —> 2) Euskara Batuko batzordea —> 3) Osoko Bilkura —> 4) Euskaltzainen oharrak —> 5) Euskara Batuko batzordea —> 6) Osoko Bilkura.

Baina bide horretan Euskara Batuko batzordea erabat deuseztea ere ez dirudi oso egokia denik. Uste hori azaldu dute behintzat euskaltzain gehienek piztu den eztabaidan.

Azkenean, honako eskema hau onartu da:

- 1) Hiztegi Batuko lantaldea (+ Miren Azkarateren oharrak) —> 2) Osoko Bilkura (hona etorriko lirake lantzen diren zerrenda bereziak ere, zuzenean) —> 3) Euskaltzainen oharrak —> 4) Euskara Batuko batzordea —> 5) Osoko Bilkura.



Ez dago oso garbi sistema honek behar bezala funtzionatuko duen. Horregatik, proba gisako bat egingo da: 300 hitzeko zerrendekin hasiko da Euskaltzaindia eta sei hilabeteko epea emango dio bere buruari. Proba garai horretan behintzat Euskara Batuko batzordeak segituko luke bere zereginetan, nahiz eta lan hori gehienbat birtuala (internet bidez, alegia) izan daitekeen.

Honekin batera, Euskara Batuko batzordeari kide bat gehiago eranstea onartu da: H. Knörr.

Gero, P. Goenagak eskatu du Miren Azkaratek bere gain hartu duen lan horretan laguntzaile gisako norbait izendatzea, Jose Antonio Aduriz bat, esaterako. Onartu da eta behar diren urratsak egingo dira laguntza hau bideragarri izan dadin.

Ondoren mahaigaineratu den galdera izan da ea onartutako prozedura horrek hiztegi kontuetatik kanpo ere balioko duen. Eztabaidatu ondoren bozkatu egin da: 8 boto izan dira ezetz erantzun dutenak, 6 baietz erantzun dutenak eta lau zuri. Beraz, hiztegi kontuetatik kanpo Euskara Batuko batzorde horrek ez du egitekorik izango: proposamenak zuzenean iritsiko dira batzordeetatik euskaltzainen eskuetara.

Ildo honetatik, Andres Iñigok honako eskari hau egin du: Madriloko Instituto Geográfico Nacional delakotik egindako kontsulta hartan zenbait kontu aski badaezpada-ko edo izan litezkeela. Bereziki, *ibar* hitzarekin ikusten du arazoa. Izan ere, *Arangu-  
-renge ibarra* esaten da. Horregatik, Onomastika batzordeak kontua hobeki ikusi arte *Euskera-n* ez argitaratzeko eskatu du. Onartu da proposamena

#### *Batzordeak eraberritzea*

Jardunaldietako eginkizun nagusietako bat batzordeak eraberritzea izaten da. Bilkura honetan onartu diren aldaketak edo eraberritzeak gutxi izan dira, batzordeek, funtsean, orain arteko osaera berarekin segitzea erabaki baitu Euskaltzaindiak. Eraberritzea honela egin da:

1. **Orotariko Euskal Hiztegi**an ez da aldaketarik.
2. **Hiztegi Batuko** lantaldean Piarres Charritzonek uko egin dio bere postuari eta, haren ordez Charles Videgain proposatu da, berak nahi izanez gero.
3. **Gramatika** batzordean ez da aldaketarik.
4. **Dialektologia** batzordean ez da aldaketarik.
5. **Onomastika** batzordean, H. Knörrek utzi egin du burutza. Andres Iñigok har-  
-tzea proposatu da eta onartu. Amaia Usabiaga izendatu da batzordekide. Jean-Baptiste Orpustan batzordekide izatetik aholkulari izatera pasatu da. Bestalde, Patxi Ondarra, Elena Martinez de Madina eta Hector Iglesias aholkulari izendatu dira. Aholkulari izateari utzi diote, berriz, Roldan Jimeno Arangurenek eta Eugenio Riañok.
6. **Herri Literatura** azpibatzerdean ez da aldaketarik.
7. **Literatura Ikerketa** azpibatzerdean Karlos Otegik idazkari izateari uzten dio eta haren lekuan Lourdes Otaegi izendatu da. Luis Mari Mujikak batzordekide izateari utzi dio, eta batzordekide berri hau izendatu da: Ur Apalategi.
8. **Euskara Batuko** batzordean H. Knörr izendatu da batzordekide.

**9. Corpus** batzordean Miren Azkaratek utzi egin dio buru izateari eta haren lekuan A. Urrutia izendatu da.

**10. Corpuseko Euskalkien** lantaldean ez da aldaketarik.

**11. Corpuseko Komunikabideen** lantaldean ez da aldaketarik. Ez da jarriko komunikabideen ordezkarien izenik.

**12. Sustapen** batzordean, ez du batzordekide izaten jarraitzen P. Goenagak, Arabako ordezkari izateari utzi dionez gero, eta J. San Martin eta J. L. Lizundia aholkulari izendatu dira.

**13. Argitalpen** batzordean, P. Altunak batzordekide izateari utzi egin dio. Zuzendaritzako kideez gain, J. San Martin eta Miren Azkarate izendatu dira.

**14. Azkue Biblioteka** batzordean ez da aldaketarik.

**15. Lege** azpibatzerdean Jon Castañaresek utzi egin dio kide izateari eta J. A. Arana Martija izendatu da.

**16. Ekonomia** azpibatzerdean: ez da aldaketarik.

Eta ordu bata laurden gutxiagotan amaitutzat eman dira Euskaltzaindiaren XII. Barne Jardunaldiak

## AGERIKO BATZARRA

*Iruñean, 2001.eko martxoaren 29an*

Nafarroan euskarak bizi duen egoeraren aurrean Euskaltzaindiak batzar berezia antolatu du *Euskara Nafarroan* izenburupean. Jardunaldi horretara euskaltzainei ez ezik euskalgintzan dihardutenei ere dei egin die Euskaltzaindiak. Hona hemen bildu diren euskaltzainen izenak: J. Haritschelhar, H. Knörr, P. Goenaga, J. A. Arana, B. Oihartzabal, A. Urrutia, P. Altuna, M. Azkarate, P. Charriton, J. L. Davant, A. Iñigo, X. Kintana, E. Larre, J. M. Lekuona, F. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta P. Zabaleta. Euskaltzain oso hauez gainera, J. M. Jimeno Jurio euskaltzain ohorezkoa eta J. Cortes Izal, J. L. Lizundia, P. Salaberri eta J. J. Zearreta urgazleak ere bildu dira.

Bilkura arratsaldeko seietan hasi da. Mahaiburu Jean Haritschelhar jauna izan da, hizlari gisa parte hartu dutenak lagun zituela.

Euskaltzainburuaren agurraren ondoren, Jose M<sup>a</sup> Satrustegi euskaltzainak hartu du hitza “Nafarroako euskararen azkenaldiko historia” gai hartuta. Euskaraz hitz egin du lehenbizi, gaztelaniaz ondoren.

Bigarren hizlaria Andres Iñigo euskaltzain eta Nafarroako ordezkaria izan da. “Euskararen egungo egoera Nafarroan” izan da aztertu duen gaia.

Ondoren, Andres Urrutia eta Patxi Zabaleta euskaltzainen artean aurkeztu duten txostena etorri da: “Euskara Nafarroan, legearen ikuspegitik”.

Azkenik, Juan San Martinek eskaini du berea: “Giza eskubideak, era orokorrean eta hizkuntzaren arloan”.

Ondoren zenbait galde-erantzun izan dira (agintariei dei egin zaien ala ez, zein izango diren Euskaltzaindiaren ekintzak, etab.) eta zortziak laurden gutxitan amaitutzat eman da ekitaldia.

## EUSKALTZAINDIAREN BATZAR BEREZIA

*Iruñean, 2001.eko martxoaren 29an*

“Euskara Nafarroan” izenburupean egindako ageriko jardunaldiaren ondoren, iluntzeko zortziak eta laurdenetan, Euskaltzaindiak batzar berezi bati ekin dio Iruñeko Gurutze Plazako Institutuan.

Honako hauek bildu dira: J. Haritschelhar, H. Knörr, P. Goenaga, J.A. Arana, B. Oihartzabal, A. Urrutia, P. Altuna, P. Charritton, J. L. Davant, A. Iñigo, X. Kintana, E. Larre, J. M. Lekuona, F. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin, J. M. Satsutegi eta P. Zabaleta euskaltzainak eta J. L. Lizundia idazkariorde-kudeatzailea.

Batzar gai bakarra honako hau izan da: Euskarak Nafarroan bizi duen egoeraren aurrean adierazpena prestatzea.

Testu-zirriborro bat aurkeztu da eta atalez atal aztertu eta eztabaidatu da. Azke-nean, aho batez onartu da testua honako izenburuarekin: *Euskararen egoera Nafarroan. Euskaltzaindiaren adierazpena*. Testuak gaztelerazko bertsioa ere izango du eta baita frantsesezkoa ere. Bestalde, Nafarroako gizarteari ez ezik, agintari eta erakunde ofizialei eta akademikoei, Espainiakoei zein Europakoei eta nazioartekoei, zabaltzeko asmoa agertu da.

Batzarra gaueko hamarrak laurden gutxitan eman da amaitutzat.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*

## Irüñean, 2001.eko martxoaren 30ean

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,  
H. Knörr, buruordea,  
P. Goenaga, idazkaria,  
J. A. Arana, diruzaina,  
B. Oihartzabal, Iker sailburua,  
Andres Urrutia, Jagon sailburua,  
P. Altuna,  
M. Azkarate,  
P. Charritton,  
J. L. Davant,  
A. Iñigo,  
X. Kintana,  
E. Larre,  
J. M. Lekuona,  
F. Ondarra,  
J. San Martin,  
J. M. Satrustegi,  
eta  
Patxi Zabaleta  
euskaltzainak,  
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudea-  
tzailea eta  
J. J. Zearreta, ekonomi eragilea

Irüñeko ordezkarietan bildu da Euskaltzaindia, 2001.eko martxoaren 30ean, hileroko batzarra egiteko. Bileraren goizeko bederatzia eta erdietan hasi da. Bilduren euskaltzainen izenak ezkerreko zutabearen jasoak ageri dira. Ezin etorria adierazi dute Xabier Diharcek, Txomin Peillenek, P. Salaburuk, I. Sarasolak eta A. Zavalak.

### *Aurreko batzar-agiriak onartzea*

Ohartxo bana egin dute P. Altunak eta J. A. Aranak. Lehenak, goizeko bilkurako parte hartzaileen artean bere izena agertzen ez delako. Bigarrenak, arratsaldeko bilkuran, Azkue Bibliotekari buruz esaten dena osatzeko: Lacomberen biblioteka katalogatu ez ezik, lanik interesgarrienak digitalizatu ere egingo direla aditzera ematea eskatu du.

Ohar hauekin, ontzat eman dira otsaileko bi agiriak.

### *Mailegua*

Idazkariak Zuzendaritzan hartutako erabakiaren berri: Herri aginteengandik jaso beharrekoa oraindik jasotzeko dagoenez, berehala egin beharreko ordainketei aurre egin ahal izateko mailegu bat eskatzea. Hogei miloikoa izango da eta diruzainari emango zaio ahala mailegu hori bidera dezan.

### *Hizkuntza arauak.*

*Gramatika: -(e)n / (e)lako.*

Patxi Goenagak zenbait xehetasun eman ditu arauaren asmoa zein den argitzeko. Xabier Kintanak galde egin du ea ez ote litzatekeen komeni bi atzizki horien artean bati lehentasuna ematea, *-(e)lako* baita maizenik erabiltzen dena. Azken batean, -erantzun zaio- arauaren xedea ez da *-(e)n* eta *-(e)lako*-ren artean dagokeen desberdintasuna argitzea, izenaren osagarri diren perpausetan euskara baturako forma onartuak zein diren finkatzea baizik. Eztabaida labur baten ondoren ontzat eman da araua.

*Hiztegi Batua: a-aberats zerrendako abadira hitzak.*

Hitz hau dela eta, aurreko bilkuran txosten bat ekarriko zela agindu zen. Miren Azkaratek ekarri du txosten hori, baina jarraitu beharreko metodoari buruzko kezka eman du aditzera: banan-bana egin beharrean modu sistematikoagoan egitea komeniko litzateke. Hiztegi Batuko lantaldeak egin lezake lan hori. Lan sistematiko horren xedea zerrenda bereziak osatzea izango litzateke gero Euskaltzaindiaren eskuetan jartzeko. Bidezko ikusi da proposamena. Horregatik, oraingoz, **abadira** hitza ez da zerrendan sartuko. Gero, arrain, hegazti, eta abarren zerrenda osatzen denean ikusiko da zer egin.

*Aberatsaile-abolizionista zerrenda.*

Oharra aztertzeari ekin aurretik, Azkarate andreak emandako epeak errespetatzeko eskatu die euskaltzainei. Hori egin ezean, zail gertatuko zaio Euskaltzaindiari ezarritako epeak betetzea.

Ondoren, aurkeztu diren oharrak aztertzeari ekin dio Euskaltzaindiak.

Satrustegi jaunak egindako oharra *-abere xehe* azpisarreraren parean *abere larri* ere sartzeari besterik gabe onartu da.

H. Knörren oharrak aztertu dira gero.

*abere buru* sartzeari ez da onartu *abelburu* jadanik sartua baitago. Knörr jaunak erretiratu egin du azkenean oharra.

*abesti, abestu* sarrerak direla eta, ohargileak *kanta* eta *kantatu* hobestea eskatzen du. Hitzok jadanik arautuak daudela erantzun zaio eta hobespen markarik gabe arautuak, hain zuzen. Kintanak ere, Knörrekin bat, bereizketa egitea nahi luke. Satrustegi jaunak adierazi du honek beldurra ematen diola, horrela ezina gertatuko baita erabakitako 300 hitzak onartzera iristea. Ez da onartu Knörren jaunaren oharra.

*Abesbatz* izenaren ondoan ere *koru* nahiago luke Knörrek. Lehengo arrazoi berregatik, ez da onartu.

*abian* sarreraren, adibideak garbi utzi beharko omen luke *abian + izan* behar duela. Miren Azkarateren aburuz, jasotako adibideek aski garbi uzten dute laguntzaileak zein izan behar duen. Dena dela, bi adiera bereiztea onartu da: lehenbizikoa, jadanik ematen dena, adibide eta guzti. Eta bigarrenean 'berehala' esan nahi duela adieraziko da, Oxobiren adibide bat emanaz.

*abiadura* hitza *Ipar.* eta *Naf.* soilik ote den zalantzan jartzen du ohargileak. Hala ere, horrela arautua dago jadanik. Ohargilearen aburuz, bestalde, *abiadura-palanka* bezalakoak ez dira egokiak, *abiadura* hitzarentzat onartua den adierarekin ez baitator bat. Nahiago luke, agian, *joanera* edo. Euskara Batuko batzordeak Hiztegi Batuko lantaldearen proposamena bere egiten duela adierazi du M. Azkaratek, zerrendatik *abiadura-kaxa* kenduz. Bozkatu da eta Euskara Batuko batzordearen oharra onartu da, 15 bo-torekin. Knörr jaunarena, beraz, ez da ontzat eman.

*Abiadura* kontu hauekin Etxepareren obra aipatu denez, Charritton jauna kexu agertu da idazle haren obra guztiak ez daudelako corpusean sartuak. Sartzeari besterik gabe onartu da.

*Abiamen* sarrerarako ohargileak proposatzen duen adibidea ez da onartu. Bestalde, *Zah.* marka kentzea erabaki da.

*Abiatu*-rentzat, aditz iragankor gisa, onartu da ohargileak proposaturiko adibidea sartzea: “ikerketak abiatu dituzte”.

*Abikultura* ez sartzea onartu da.

Andres Urrutiaren oharrak aztertu dira ondoren.

*Abere*-rentzat zenbait azpisarrera proposatzen ditu Urrutia jaunak:

*abere beltz* azpisarrera sartzeko proposamena, eztabaidaren ondoren, erretiratu egin du azkenean proposatzaileak.

*abere hiltegi* sartzea ez da onartu: aski da *hiltze* sarrerarekin. Beraz, ez da onartu oharra.

*abere azoka* dela eta ere eztabaida piztu da. Hitzak, euskal morfologia legeen arabera, inolako oztoporik ez badu ere, ez da hiztegian sartu beharrekotzat ikusi.

*abere lapur* sartu ala ez bozkatu da: 9 alde, 1 kontra. Beraz, *abere(-)lapur* sartuko da.

*Aberrante* alhora utzi da, gero alorkako zerrenda berezietan etor daitekeen hitza baita.

*Aberrigabezia* hitzari leku egitea eskatzen du ohargileak, *aberri* hitzaren familia osatze aldera eta *aberrigabe*-ren haritik tiraka. *Aberrigabe* onartua badago ere, ez da esaten zer esan nahi duen. Nolanahi ere, inon ez da esaten hitz horren esanahia ‘apátrida’ denik. Horrenbestez, hitz horren adiera argitzea arazo izanik, horren gainean beste hitz bat ematea, inongo lekukotasunik gabe, arazoa konpondu beharrean bikoiztea izango litzatekeela esan zaito ohargileari. Eztabaida luze eta norako argirik gabearen ondoren, ohargileak erretiratu egin du proposamnea.

*Aberri-etsai* ez da onartu.

*Abertimendu*: eztabaida luzearen ondoren honako hau onartu da: *abertitu*: Herr. h. **ohartarazi**, **jakinarazi**, **abisu eman**. *Abertimendu* Ipar. eta Herr. h. **abisu**.

*Abiazio* maileguarentzat ordain hobeak proposatuko litzuzke ohargileak, baina, azkenean, ohar hau ere erretiratu egin du Urrutia jaunak.

*Abiltasan* sartzeko eskaria ere ohargileak berak erretiratu du.

*Abolizio* hitza sartzea onartu da, sinonimotzat *ezeztatze* emanaz. *Abolitu* hitzarentzat ere gauza bera onartu da.

### ***Abonagarri-agertze* zerrenda aurkeztea.**

Azkarate andreak hurrengo bilerarako aztergai izango den zerrenda (*abonagarri-agertze*) aurkeztu du. Dokumentua ongi ulertzeko beharrezko diren oharrak azaldu ditu: 10 puntuko letretan ematen direnean esan nahi du ezer ez dela aldatzeko. ‘EARau’ esaten badu, zerbait gehitzen dela esan nahi du. Gainerakoetan, euskaltzainek jadanik es-

kuetan duten duela hilabete batzuetako txosteneko oharrak ere kontuan hartu behar dira. Izartxoaz ezartzeak hitza sartzeko dela esan nahi du.

*Jagonet-eko galdera.* Haserrearazi, narritatu. Haserrearazi da gure nahia.

*Luis Villasante euskaltzainaren hutsarteak betetzeko bozketa.*

Ordezko botoak zituzten euskaltzainek beren ahalak aurkeztu dituzte lehenbizi. Hauen balioaz eztabaida labur bat izan da. Ordezkapen guztien bidez kotasuna onartu ondoren, bozketa egin da. Zenbaketak honako emaitza hau izan du: Andolin Eguzkitza jaunaren aldeko izan dira hamahiru boto. Koldo Zuazoren aldeko, berri, hamar. Horrenbestez, Euskaltzaindiaren erregelen arabera, Eguzkitza jauna gertatu da euskaltzain berri hautatua, lehen itzulian nagusitasun osoa erdietsi baitu.

*Prentsaurrekoa.*

Ondoren, Euskaltzaindiak Nafarroan euskarak bizi duen egoeraz adostutako adierazpenaren azken irakurketa egin da, kazetarien aurrean irakurri aurretik. Gero eten egin da bilkura. Hamabietan prentsaurrekoa izan da. Komunikabide ugari bildu du ekitaldi honek. Euskaltzainburuak irakurri du euskarazko testua eta Jagon sailburuak gaztelaniazkoa. Ondoren, galde-erantzunen tarteak ireki da. Kazetariak egindako itaunei Jagon sailburuak erantzun die.

Hamabiak eta hogeitabostean berriro lanari ekin dio batzarrak.

*2000. urteko kontu errendapena.*

J. J. Zearretak eman ditu 2000. urteko kontu errendapenari buruzko xehetasunak. 2000.eko aurrekontua berezia gertatu dela esan du, informatika ezarpena dela eta. Eskatutako argitasunak eman ondoren, ontzat eman da aipatutako kontu errendapena.

*Eskuarteak*

*Kulturaren Euskal Kontseilurako ordezkaria izendatzea.*

Kultura sailburuaren eskariz, sortu berri duten Kulturaren Euskal Kontseilurako Euskaltzaindiaren ordezkari izango dena izendatzea onartu da. Juan San Martin proposatu du Zuzendaritzak. Onartu da proposamena.

*Datorren hileko bilkurez.*

Euskaltzainburuak gogorazi du hurrengo bilkuran omenduko direla hil berri diren euskaltzainak: L. Villasante euskaltzainburu ohiaren hil berri txostena J. San Martin euskaltzain osoak irakurriko du; Mariano Izeta euskaltzain ohorezkoarena Pascual Rekalde jaunak; Pedro Pujana euskaltzain ohorezkoarena P. Uribarren euskaltzain urgazleak eta Bitoriano Gandiaga euskaltzain ohorezkoarena, Juan Mari Lekuona euskaltzain osoak.

Hirurak hogeita bost gutxitan eman da amaitutzat bilera.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*



## Bilbon, 2001.eko apirilaren 27an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,  
P. Goenaga, idazkaria,  
J. A. Arana, diruzaina,  
B. Oihartzabal, Iker sailburua,  
Andres Urrutia, Jagon sailburua,  
P. Altuna,  
M. Azkarate,  
P. Charritton,  
J. L. Davant,  
A. Eguzkitza,  
A. Iñigo,  
X. Kintana,  
E. Larre,  
J. M. Lekuona,  
F. Ondarra,  
Tx. Peillen,  
J. San Martin,  
J. M. Satrustegi eta  
Patxi Zabaleta euskaltzainak,  
eta J. L. Lizundia idazkariorde-kudea-  
tzailea.

*Hizkuntza arauak: Hiztegi Batua*

**1. Aberatsaile-abolizionista zerrendan zintzilik utzitako hitzak: abialdi, abiaraz-  
le, abertitu eta abisu.**

Eztabaidan dago *abertitu*-ren sarreran *abisu eman* adiera eman ala ez. Eta, ho-  
rrenbestez, *abisu eman* azpisarrera behar den ere eztabaidan dago. *Abisu eman* azpisa-  
rreza ez ematea erabaki da. *Abertitu*-ren sarreran, berriz, *abisatu* ere emango da adie-  
ren artean.

*Abialdi*-ri buruz, EEBS-eko datuak eman dira. Esanahiari buruzko eztabaida txi-  
ki baten ondoren, hitza zerrendan uztea erabaki da.

*Abiarazle* sartzea onartu da. Adibide gisa, *Windows abiarazlea* jasoko da. *Abia-  
tzaile* hitza, berriz, kendu egingo da zerrendatik.

**2. Abonagarri-agertze hitz-zerrenda.**

Euskaltzainen oharren azterketari ekin aurretik, Miren Azkaratek hurrengo ze-  
rrendaren buruan datozen oharren azalpena egin du. Hemendik aurrera kontuan hartu  
beharreko oharrak dira eta aurreko batzarrean onartutakoaren arabera, zerrenda-zati  
guztiek eramango dute hasieran ohar multzo hori.

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan bildu da  
Euskaltzaindia, 2001.eko apirilaren 27an,  
hileroko batzarra egiteko. Bilera goizeko  
hamarrak eta laurdenetan hasi da. Ezke-  
rreko zutabearen jatorri ageri dira bilduen  
izenak. Ezin etorria adierazi dute Xabier  
Diharceek, H. Knörrek eta I. Sarasolak.

*Aurreko batzar-agiriak onartzea*

Oharrik gabe onartu dira martxoko hiru  
agiriak.

*Euskaltzain berriari ongi etorria*

Lanari ekin aurretik euskaltzainburuak  
ongi etorria egin dio Andolin Eguzkitza  
euskaltzain berriari.

Lehenbizi, Satrustegi jaunaren oharra jarri dira mahai gainean.

*Aborrezitu* hitza dela eta Miren Azkaratek *Zah.* marka ezartzea eskatuko luke, onenean ere. Hala onartu da: *Zah.*, 'gaitzetsi, zapuztu, higuindu' gisa emango da.

*Aborritu* hitzaren ustezko adieraz izan da ondorengo eztabaida. Ea *aborrezitu*-ren baliokide den ala ez, eta abar. Azkenean botoetara jo da. Biak, *aborritu* eta *aborrezitu*, kentzearen aldeko agertu dira bederatzia euskaltzain. *Aborrezitu* atxikitzearen alde, bost. Beraz, biak zerrendatik kanpo utzi dira.

*Absolbizio* sarrera onartu da: *Zah.* 'absoluzioa'. *Aralarko absolbizio eguna*.

*Adaro* hitza hiztegieta ageri da. Sartzea onartu da, 'hortzik gabeko eskuare modukoa, ikuilu eta abarrak garbitzkeo erabiltzen den tresna' adierarekin.

*Adobe* hitzaz txostena ekarri da. Nazioarteko hitza denez, sartzea onartu da. *Tekn.* markarekin joango da.

*Adobo* hitzaren aurrean *adobo/adobu* zalantza sortu da. Azkarate andreak proposatu du sortu berria den lantaldearen iritzia eskatzea, batetik, hitza sartu ala ez eta, bestetik, zein formatan sartu erabakitzeko. Geroko utzi da, hortaz.

*Agai*: 'haga luzea' adierarekin ontzat emateko puntuan egon da batzarra. Gero herekin ala gabe behar duen eztabaida luzea sortu da eta azkenean ez sartzea erabaki da.

*Afarrasta* ez da onartu.

\* \* \*

Ohar hauen ondoren, Ondarra jaunarenak eztabaidatzeari ekin diote euskaltzaiek:

*Aditu*-ren eratorriak 'entzun' ala 'ulertu' adierarekin lotzen diren erabakitzea eskatzen du. Erantzun zaio gehienetan adierazia dagoela lotura hori. Zernahi gisaz, kontua geroko uztea erabaki da.

*Adrendu* eta *adrendu hartu* hitzetan delako "g. er." oharra kentzea erabaki da. *Adrendu hartu*-rentzat 'era hartu' esanahia emango da. Adibide gisa, berriz, honako hau: *Makina berriari adrendu hartu dio*.

*Afari-lege* azpisarrerarako adibide baten bila jardun dute euskaltzainek. Azkenean, adiera argitzeko 'afari arina' dela esango da. Eta adibide gisa, *afari-legea egin du*

\* \* \*

Xabier Kintana jaunak aurkeztutako oharren eztabaidari ekin zaio ondoren.

*Abordatu*-ren ondoan *abordaje* eta *abordatze*-ri ere leku egitea eskatzen du ohar-gileak. *Abordatze* sartzea onartu da, baina *abordaje* hurrengo itzulirako uztea hobeki ikusi da.

*Abrelata* erdaratik maileguaren ordain egokitza *irekigailu* proposatzen du Kintanak. Miren Azkaratek nahiago du, berriz, *poto-irekitzeko* moduko bat. Eztabaida luzea piztu da. Azkenean, (*poto*-)irekitzeko hitza sartzea erabaki da. Gero aipatu den beste kontua da ea *abrelata* hitzak berak, bere izar eta guzti, agertu behar duen ala ez. Zenbaitek uste du hitz horri ez zaiola sarrerarik zor. Irizpide gisa, *OEH*-n edo litera-

turan ageri den hitza balitz, sartzekoa litzateke, bestela ez. Horren arabera, *abrelata* ez sartzea erabaki da.

*Abrigo*-ren ordaintzat Hiztegi Batuko batzordeak proposatzen duen *beroki* baino nahiago lituzke ohargileak *gaineko* eta *soingaineko*. Hala ere, bi hitz horiek jadanik arautuak ditu Euskaltzaindiak. Azkenik, “*Heg. h. beroki*“ ematea onartu da.

*Accesit* sarrerari buruz, forma egokituari eman ala ez eztabaidatu da. Azkenean, latinez bezala ematea onartu da: *accessit*.

Hemen hiztegi kontuak utzi eta eskuartekoei ekin diete euskaltzainek.

### *Eskuartekoak.*

#### 1. *Eguneroko Hitzen Lantaldea osatzeko Miren Azkarateren proposamena*

*Hiztegi Batuko* bigarren itzulia osatzeko izendatu zen Eguneroko Hitzen Lantaldea kide berriz osatzeko proposamena ekarri du Miren Azkaratek. Iparraldetik Xan Othaburu proposatu du. Horrez gainera, Paskual Rekalde eta Alex Bengoetxea nafarrak eta Igone Etxebarria bizkaitarra ere proposatu ditu. Ontzat eman dira izenok.

#### 2. *Kintanaren berriematea Liburuaren Zuzendari Nagusiarekin Madrilen izandako bileraz.*

Itzulpen-sariak direla eta, orain arte izan diren gorabeherak konpontze aldera, Euskaltzaindiak gutun bat helarazi zion Liburuaren Zuzendari jaunari. Xabier Kintanari, bestalde, epaimahaikide izendatua izan zenez, sariketaren arduradunekin harremanetan jartzeko eskatu zitzaion. Izandako elkarrizketen berri eman du bere txostenean Kintana jaunak.

#### 3. *Webguneko edukien mantentzeaz*

P. Goenagak aurkeztu du Iñaki Kareagak prestatu eta Zuzendaritzan onartutako txostena. Webgunearen mapa eta edukiak eguneratzeko prozedura finkatzea da helburua. Funtsean, informatikariaren zuzeneko solaskidea idazkaria eta honen agindupean egongo den eragile teknikaria izango dira. Ontzat eman da proposamena.

#### 4. *OEHko bulegoen lan kudeaketa.*

Ondoren, Lizundia jaunak Orotariko Hiztegiarendako prestatzen ari diren bulego berriak zertan diren azaldu du. Lanak aurrera doaz eta maiatzaren azken alderako dena prest izatea espero da.

#### 5. *Sarasolaren ordezkapena XV. Biltzarreko batzordean*

Sarasolak bere dimisioa aurkeztu du, arrazoi pertsonalengatik, XV. Biltzarrean zituenean betebeharreratik. Ondorioz, batzorde akademikoan utzitako hutsunea betetzeko, H. Knörr jaunaren izena proposatu du Zuzendaritzak eta hala onartu da.

#### 6. *Euskaltzaindiaren diru egoera*

J. A. Arana diruzainak azaldu du zein den egoera. Urtarrilean jaso beharrekoak beti atzeratu egiten dira eta aurten ere hala gertatu dela adierazi du. Herri-aginte guztiek sinatu ezean ezin omen da ordainketarik egin. Horrek oraindik atzerapen handia-

goa dakar, Nafarroako gobernuak atzeratu egin baitu sinadura. Hala ere, azkenean ordainketa horiei ekiteko bidea aurkitu omen da. Jaurlearitzatik etorri behar zuen dirua jadanik iritsia omen da. Gipuzkoako eta Arabako Diputazioek zuzen jokatu omen dute. Bizkaian bi arazo daudeke: bata diru ekarpena bera. Hau bideratua dago. Bestea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaintzeko luzamendua. Hau ere onartua omen dago. Honek sortzen dituen korrituak Euskaltzaindiak ez omen ditu ordaindu beharko.

### 7. Bestelakoak.

*Mintzoa* argitaletxeak *Lingua Navarrorum* delako aipamena ageri den testuaren faksimilea argitaratu du eta ale bat Euskaltzaindiari eman opari gisa, bere estudio eta guzti. Euskaltzainburuak oparia eskertu du.

Bestalde, Bizkaiko Diputazioak argitara berri duen errepede-mapa berriaren ale bana oparitu zaie euskaltzain guztiei.

Eta ordubiak eta hamarrean eman da amaitutzat bilera.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*

## AGERIKO BATZARRA

*Bilbon, 2001.eko apirilaren 27an*

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 2001.eko apirilaren 27an, arratsaldeko lau eta erdietan eman dio hasiera Euskaltzaindiak hil berri diren euskaltzainen omenezko bilkurari.

Honako jaun-andre hauek bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, P. Goenaga idazkaria eta J. A. Arana diruzaina mahaian, eta Befiat Oihartzabal, P. Altuna, Miren Azkarate, P. Charritton, J. L. Davant, A. Eguzkitza, A. Iñigo, X. Kintana, E. Larre, J. M. Lekuona, F. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta P. Zabaleta euskaltzainak; J. A. Retolaza, euskaltzain ohorezkoa; eta J. A. Aduriz, G. Aulestia, R. Badiola, S. Garcia Trujillo, M. Gorrotxategi, J. L. Lizundia, P. Uribarren, M. Ruiz Urrestarazu eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak. Eta gonbidatuen artean, omenduen sentitartekoak eta adiskide ugari ere bildu da aretoan.

Euskaltzainburuaren hasierako agurraren ondoren, idazkariak hartu du hitza goizeko bilkuraren berri laburra emateko. Gero, hilberri txostenak irakurri dira.

### *Luis Villasante euskaltzainaren hilberri txostena*

Luis Villasante euskaltzainburu zenaren omenezko hitzaldia Juan San Martin euskaltzain jaunak egin du. Villasanteren bizitzaren eta lanen berri xehea eskaini du hizlariak. Lan oparoa Villasanterena. Hein batean, Villasanteren historia Euskaltzaindiaren historia ere badela aitortu du hizlariak. Euskara batua gauzatzeko orduan, haren lana guztiz funtsezkoa izan zela gogoratu du. Iratzederren poema baten irakurketarekin eman dio amaiera hitzaldiari.

### *Mariano Izeta euskaltzain ohorezkoaren hilberri txostena*

Paskual Rekalde jaunaren eskutik etorri da hurrengo hitzaldia. Mariano Izeta euskaltzain ohorezko zenaren irudia aurkeztu du, bere alderdi nabarmenenak erakutsiz, gizon bezala, euskaltzale, herrizale eta abertzale bezala. Bertsozale, idazle, itzultzaile ere izan zen. Kazetari lanetan ere aritu zen. Euskaltzale eta herrizale handiaren irudi aberatsa eskaini du hizlariak.

### *Pedro Pujana euskaltzain ohorezkoaren hilberri txostena*

Patxi Uribarren euskaltzain urgazleari egokitu zaio Pedro Pujana euskaltzain ohorezkoaren gomuta-hitzaldia egitea. Anbotoko harkaitz sendoaren antzeko tantaiarekin konparatu du hizlariak. Haren bizitza eta euskararen aldeko lanak ekarri ditu gogora: apaiz ikasketak, jesuita izandako urteak, eskal aditzari eskainitako lanak, Bizkaiko foruaren itzultzaile gisa burututakoa, eta abar.

*Bitoriano Gandiagaz Juan Mari Lekuonak eskainitako hitzaldia*

Euskaltzaindiak ohoratu nahi izan duen laugarren euskaltzaina Bitoriano Gandiaga izan da, euskaltzain ohorezkoa eta poeta ezagutua, maitatua eta estimatua, hizlariaren hitzetan. Poeta handiaren bizitza eta elkarrekin izandako harremanak gogoratu ondoren, haren estetika berezia eta erabilitako gaiak aipatu ditu hizlariak. Horien artean leku berezia dute lurak, etxeak, euskarak, gizarteak eta erlijioak.

*Rosa Mari Artza gogoan*

Jose Luis Lizundiak egin du Rosa Mari Artza zenaren hilberri txostena. Rosa Mari Artzak bere bizitzako urterik gehienak Euskaltzaindiari eskaini zizkion. Lizundiak urte luzeetan lankide eta adiskide izan zuenaren ikuspegia eskaini du. Ozta-ozta amaitu ahal izan du, emozioak hitzei traba egiten baitzien maiz. Euskaltzaindiak Rosa Mari Artza beti gogoratuko du langile fin gisa ez ezik, militante isil eta ezezagun horietako gisa ere.

Hilberri txosten zerrenda ohi baino luzeago honen ondoren, euskaltzainburuak hartu du hitza hizlariari eskerrak emateko. Euskaltzaindiaren euskarri izan direnak gogoratu direla, baina bizitzak aurrera segitzen duela gogorarazi du: hilak gogoan atxikitzen ditu Akademiak baina geroari buruz jardun behar du beti lanean. Horren froga da, adibidez, Villasante zenaren ordezkotza izateko A. Eguzkitza izendatu izana.

Arratsaldeko seietan amaitu da bilkura.

**BATZAR-AGRIEN  
ERANSKINA:  
HIZTEGIGINTZAZ**





**«ADMINISTRAZIO-ZUZENBIDEA»  
HIZTEGIRAKO LANTALDEA:  
PROPOSAMENA**

*Bilbo, 2000-X-26*

*Andres Urrutia Badiola*

1. Nondik norakoak
2. Helburuak
3. Osaera eta kokatzea
4. Finantzaketa
5. Egutegia

## **1. Nondik norakoak**

Euskaltzaindiak Hiztegi Batuaren lanketari ekin dio azken urteotan. Bukatua, du, dagoeneko, Hiztegi Batu horren lehen itzulia. Lehenengo itzuli horretan, besteak beste, Euskal Akademiak nahitaezko izan ditu oinarri batzuk, hala nola, Orotariko Euskal Hiztegia (OEH) eta Euskararen Egungo Bilketa Sistematikoa (EEBS). Oinarriok aspalditik finkatu ziren, eta zer gehitu eta zertan osatu ere izan dezakete horiek gaur egun, batez ere oraintsuagoko testugintzaren aldetik.

Bide horretatik, Euskaltzaindiaren azken bilkuretan behin eta berriro azaleratu da hiztegiintzarako osagarrien premia. Izan ere, Hiztegi Batu horren bigarren itzulia hastear du Euskaltzaindiak, eta hirugarren itzuli baterako itxaropenean ere, badabil gure Erakundea.

Hartara, bigarren itzulirako irizpideak berrikitan onetsi ditu Euskaltzaindiak. Irizpide horietan ageri-agerian dugu Hiztegi Batu horretara barneratu beharra, aldez aurretik ikusitako oinarriekin batera, bestelakoak ere, alegia, arloz arlo landutako hiztegi berezietako hitzak.

Jakina da arlo berezietako hitzek edo berbek, neurri handi batean behinik behin, terminologiaren esparrua uki dezaketela. Bestalde ere, aspaldian du esana Euskaltzaindiak, egiteko horretan bere burua sartzeko adina baliabide ez duela.

Aldiak aldi, halakoak Hondarribian aldarrikatu izanak (*Euskera*, 1982) ez dakar, inondik ere, Euskaltzaindiak bere burua aldendu behar duenik arlo berezietan profitagarri izan dezakeen eduki mugatu horretatik.

Osoko Biluran azaldua da, halaber, jorraketa berezi hori nonbaitetik hasi beharra; eta esparruok zehazterakoan, *administrazio-zuzenbide* esparru horri beti aitortu ohi zaio berebiziko garrantzia, euskararen normalizazio bidean. Gogora dezagun, bide batez, Eusko Jaurlaritzaren «Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia» eta antzeko ekimenak, agintarienak zein gizartearenak.

Baten batek uste dezake, horiek irakurri eta gero, hiztegi handimandi baten asmotan dabilela ekimen hau. Hala ere, helburua ez da, geroago azalduko denez, hiztegi bereziak oso-osorik moldatzea, baizik eta hiztegi gintza berezi horretatik hiztegi gintza batu eta orokorrera zer ekarri zehaztea eta berori ustiatzea, euskal gizarteak izan ditzakeen premiak aintzat hartuta. Euskaltzaindiaren emaitza, dudarik ez izan, baliotsuago eta baliagarriago izango da horretara jokatuz gero. Ildo horretatik proposatzen da Hiztegi Batuko lantaldearen barnean “Administrazio-Zuzenbidea” lantalde berezia eratzea, orain artekoari eutsi eta aurrerantzean modu zabalagoan jarduteko. Hitz batez esateko, euskal hiztegi gintzaren arlo berezietan bizi dena, neurri neurtuan berderen, guztion plazara ekartzea.

## 2. Helburuak

«Administrazio-zuzenbide» lantalde horren egitekoak honetara labur daitezke:

a) Hiztegi Batuko bigarren itzulirako zerrenda egokia prestatu, administrazio-zuzenbidearen munduan dabilen kontzeptu oinarrikoenak Hiztegi Batura biltzeko. Lagin horren norainokoak, esanaren arabera, mugatua behar du izan. Inondik ere ez arlo horretako terminologia osoa eratu beharrekoa. Hasiarako helburua, beraz, 400-600 hitz jasotzea izango litzateke. Arlo honetako hitz orrokoenak zein diren zehaztu eta Euskara Batuko batzordearen eskuetan jarri, Hiztegi Batura joan daitezten. Betiere, Euskaltzaindiaren Osoko Bilkurak beroriek onesteko. Horixe izango luke eginkizun lehena lantalde horrek. Hitzak, alabaina, ez solteak eta lokabeak, ezpada lotuak eta euren inguruabarrekin emanak, hitzok nork, non, noiz eta nola erabili dituen kontua argigarri izan dakigun.

b) Bada, orobat, Hiztegi Batuko hirugarren itzulirako helbururik lantalde horretan. OEH eta EEBS izan ditugu orain arteko zutabe nagusiak, lehen itzuli horretan behintzat. Bigarren itzulirako irizpideek barneratu dituzte aurreko horiek, bai eta, modu berean eta lehen esan legez, ahozko euskara eta arlo desberdinetako hiztegi bereziak ere.

Aurreko material hori gaurkotu beharrak berez dakar, lehenbailehen, multzo horretara bilduta ez dagoena batu eta sistematizatzea, lehendik ere dagoena ahaztu gabe. Bi xede, beraz, honako honetan: a) aurreko iturburuak (EEBS batik bat) gaurkotu eta osatzea; eta b) horra bildu gabekoa molde egokian zeru eta lotzea.

Puntu horri dagokionez, bi testu-multzo dira ekartzeko modukoak:

b.1. Historian zehar landutakoak, jatorrikoa nahiz itzuliaren bidezkoak. Hor ditugu XIX. eta XX. mendeetako testuak. Horiek lantaldearen gordailura ekarri» eta banan-banan aztertu, bertatik irabazgarri izan dezakeguna zorrotz jakiteko.

b.2. Azken hogeita bost urteotan, euskal administrazioek ondu duten horretatik ere hasita, EEBS delakoa alor horretan eguneratu, alor horretako espezialisten irizpean. Aipa ditzagun, besteak beste, herrialde historikoetako aldizkari ofizialak, Euskal Autonomia Erkidegokoa eta Nafarrokoa, IVAP/HA-EEren liburugintza, zuzenbide-fakultateen testuak... Oro har, EEBS bilduma jarri, administrazio-zuzenbideari dagokionez behintzat, hedatzeko eta garatzeko tenorean.

Horiek sortuko lukete halako datu-base aberasgarria, Euskaltzaindiak eta administrazioek edota herritarrek ere egungo baliabide informatikoen bitartez aise eskuratuko luketena. Euskaltzaindiak berak ere oso erabilgarri izan dezake hori, sarri-sarri etorri izan ohi zaizkion eskabide eta kontsultak (EUDEL, udalak, foru aldundiak ... ) argitzeko, eta gero ere etor dakiagokeenei (JAGONET, bestelakoak ... ) artez eta egokiro erantzuteko.

c) Langintza horretatik ere badator hirugarren ondorengorik. Labur dazagun kontua. Euskal Herrian, Katalunian ez bezala, ez gara gauza izan Administrazioaren esparruko berbagintzan guztiok batera ibiltzeko. IVAP-HAEE, UZEI eta Zuzenbide Fakultateak dantzan ibili dira, bakoitzak bereari eutsiz. Azken boladetan, bistan da, gero eta batasun-zantzu nabariagoak somatzen dira nonahi, euskarazko administrazio-zuzenbide berbakera dela eta. Zalantzarik flimifioena ere ez izan. 400-600 hitzeko hiztegia ondu, hitz horien euskal morfologia finkatu eta Hizteg! Batuan txertatu: horra hor aurrerakada ezin hobea euskalgintzaren esparruan, Euskaltzaindiak bultzatua eta onetsia (horretan ere, Euskaltzaindiak bere egitekoa beteko luke, Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko legerien arabera erakunde aholkuemailea den aldetik).

### 3. Osaera eta kokatzea

Helburuak azalduta, lantalde horren osaera eta kokatzea izango lirateke orain ukitu beharrekoak, helburu horiekin lotuta baitaude bi puntu hauek, estu-estu lotuta izan ere.

#### a) Osaera

Nahitaezko dirudi lantalde horren osaerak bi multzo desberdin izatea. Lehenari legokioke, osaera onartzearekin batera, 400-600 hitz horiek moldatu eta zerrendatzea. Osaera horretan, beraz, jarraikoak: Euskaltzaindiaren ordezkariak (zuzendari eta idazkaria), IVAP-HAEE (ordezkaria), INAP (ordezkaria) eta Ipar nahiz Hego Euskal Herriko Zuzenbide Fakultateak (ordezkari bana).

Bigarrenari bestelako eginkizuna esleituko litzaioke, hau da, zuzendariaren eta idazkariaren azpian, bi bekadun lanean aritzea, hitz zerrenda horiek prestatu eta lantalde horren kideei igortzeko. Haien oharrak jaso, papereratu eta hileroko bileretarako materialak antolatu eta txukundu. Orobat, lehen esandako testuak ordenagailuetan sartu eta sailkatu. Testu horiek zein izan eta nola sartu, lehenago aipatu lantaldearen eskuetan legoke, langintza horren irizpideak Euskaltzaindiarekin bat etor daitezzen.

#### b) Kokatzea

Kokatze horrek bi esanahi ditu: aurrena, egiturarena eta hurrena, lekuzearena.

Aurrenari dagokionez, argi dago horren kokatze berezkoa Hiztegi Batuko lantaldean dagoela, lantalde berezi gisa. Lehendik ere izan dira eta orain ere badira eite horretakoak Euskaltzaindiaren organigraman. Horrek harreman sendoak izan beharko lituzke Hiztegi Batuko lantalde orokorarekin eta abian izan daitezkeen bestelako lantalde bereziekin, guztiok batera ibil gaitezzen.

Hurrenari buruz, ostera, ez ahaztu Euskaltzaindiak badituela lantalde franko, euskal geografian eta hiriburuetan barreiatuak. Ez da komeni, beraz, osterantzeko egitura pisutsuak sortzea, ezpada arin aldatzekoak eta, hala balitz, behalakoan suntsitzekoak ere.

Hortaz, kokatzeak dakar, lantaldeari buruzko gorabeheretan, bilerak Euskaltzaindiaren egoitzan edo ordezkaritzetan egin ahal izatea. Bekadunen lana, aldiz, bi modutan antola daiteke: Euskaltzaindiaren egoitzan edo ordezkaritzetan bertan, edo hortik kanpo. Areago, guztiz egingarria izan daiteke unibertsitatearen edo beste erakunderen batekin ituna sinatzea, bi bekadun horiek Euskaltzainditik kanpo ezartzeko. Buruan izan, horien lana, epe luzerako lana eta egitekoa dela. Horrek ahalbideratzen ditu, hain zuzen ere, tankera horretako irtenbideak.

## 4. Finantzaketa

Esandakotik dator, etorri ere, aurreko horrek finantzaketa-prozesu osoa behar izatea.

Euskaltzaindiaren barruan, datorren urteko aurrekontua finkatua dugula eta, bi norabide izan ditzakegu erabilgarri:

a) Proiektuaren zenbatekoa zehaztu eta gure aurrekontuaren barruan jarri. Euskaltzaindia izango litzateke proiektu honen erantzule, Hiztegi Batuko aurrekontuaren barruan, lantalde horri dagozkionak (eta bestelako lantaldeei ere dagozkienak, jakina) ordaintzeko. Horrek bere ondorioak ekarriko lituzke Euskaltzaindiak duen diru-iturri horretan (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Foru Erkidego eta hiru aldundiekin eginiko ituna).

b) Proiektu berezi moduan ulertuta, egingarri izan daiteke ekimen hau itun berezi baten bidez gauzatzea; horretarako, proiektua IVAP/HAEE eta INAP erakundeekin batera bidera daiteke eta diru-horniketa ere haiengandik jaso, kopuru esanguratsuan behinik behin.

Nolanahi den ere, lantalde horren izatea eta ezaugarriak onesten badira, berehalakoan antola daiteke aurrekontu hori, eta diru-kopuruak zehaztu.

## 5. Egutegia

Kronograma baten bidez adierazita, hauxe izango litzateke lantalde horren eginkizuna:

2000. urtea bukatu baino lehen	Lantaldea osatu/bekadunak hitzartu
2001. urtea	<b>Lantaldea</b> Lehenengo hiru hilabeteetan: hitzak zehaztu. Jarraiko hilabeteotan, hitzok landu: 35 hitz hileko x 9 hilabete= 315 hitz.
	<b>Bekadunak</b> Bekadunen lanari hasiera eman. Ordenagailuan testuak sartu eta sailkatu. (XVIII. eta XIX. mendeak) Lantalderako hitz zerrendak prestatu, haren zuzendariaren eta idazkariaren mende.
2002. urtea	<b>Lantaldea</b> 35 hitz hileko x 5 hilabete=175/200 hitz. Zerrenda bukatu eta Euskara Batuko batzordera eraman (ekaina-iraila)
	<b>Bekadunak</b> Urte osoan, ordenagailuan testuak sartu eta sailkatu. (XX. mendea) Lantalderako hitz zerrendak prestatu, haren zuzendariaren eta idazkariaren mende.
2003. urtea	<b>Bekadunak</b> Testuak bukatu (ekainean)

Bistan denez, aurreko hori hurbilketa laburra baino ez da. Hasi eta gero, lanak berak eragingo du arinago edo baratzago jokatzea. Hasian hasi, ostera, bat-bateko aldaketak eta egokierak asma daitezke, unean uneko premiei erantzun egokia emateko.

Laburbilduta, gogoratu lantalde honetarako erabili diren irizpideok:

a) Helburua ez da “administrazio-zuzenbidea” hiztegi berezi osoa egitea, baizik eta hiztegi berezi horretatik hiztegi batu eta orokorrera zer ekarri zehaztea, neurri batean behintzat, eta hori modu egituratu eta sistematikoan lantzea. Hiztegi Batuak bere joanean jarraitu beharko du, bilkuraz bilkura, orain arte bezalaxe. Lantalde honen lanak amaitu eta gero, hitz hauek Euskara Batuko batzordera etorriko lirake. Artean, halakorik agertuko balitz gure bilkuretako lanean, ezaugarri, inguruabar eta bestelakoak eskura izango genituzke, egoki zehaztuta eta gure eztabaiden argigarri. Zeresanik ez, Euskaltzaindiari egiten zaizkion eskabide eta kontsultetan ere (JAGONET, zenbait administrazio ... ) erantzun oinarridunak emateko aparteko aukera emango duela.

b) Bada helbururik ere, datu-base aberasgarria osatzeko, testugintza juridiko-administratiboaren lekukotzat izan ditzagun, Ipar zein Hego Euskal Herrikoak. Gure hiztegitintzan horiek ere lagungarri ditugulakoan nago.

Horrexegatik eskatzen dut, hain justu ere, proposamen hau Euskaltzaindiak onestea, eta aldi berean, «Administrazio-zuzenbidea» hiztegirako lantaldea osatzeko pausoak eman ditzadan baimena luzatzea.

Esan gabe doa testu honi buruz zuek izan ditzakezuen iradokizunak, kritikak, oharrak eta osterantzekoak, onargarriak ez ezik, aberasgarriak ere badiudala eta, jakina, aintzat hartu beharrekoak.

## KOMUNIKABIDEEN LANTALDEA: PROPOSAMENA

*Bilbo, 2000-X-28*

*Miren Azkarate*

### 1. Osaera

1999ko otsailean Baionan egin genituen Bame Jardunaldietan irakurri nuen *Jagon saila: gaurko egitasmoak* izeneko txostenean, Jagon sailean bi batzorde egin, eta hauen barruan lantaldeak sortzeko proposamena aurkeztu nuen. Baionan onartutako antolamoldearen ondorio dira Euskalkien lantaldea eta Komunikabideena. Azken honek, 2000ko ekainaren 16an egin zuen sorrerako bilera, hauek izanik han bildu zirenak:

Xabier Onaindia, *Bizkaia Irratiko* ordezkaria

Irene Arraras, *Euskaldunon Egunkarikoa*

Mila Eizmendi eta J. L. Agirretxe, Topagunekoak

Asier Larrinaga, EITBkoa

Txema Auzmendi, *Herri Irratikoa*

Onintza Irureta eta Katixa Garate, *Argiakoak* (ezin etorria adierazi zutenak)

Iñaki Iñurrieta, *Zabalik* astekariko ordezkaria (ezin etorria adierazi zue-na).

Argi zegoen hasieratik Iparraldeko jendea falta zela, eta ahaleginak egi-ten ari gara hori osatzeko.

Euskarazko hedabideetako hizkuntza arduradunen foro iraunkorra sortzea genuen helburu lantalde hau antolatzean. Euskaraz lanean jardutean sortzen zaizkien arazoak plazaratu, elkarren artean eztabaidatu eta irtenbide bateratua emateko bidea eskaini nahi genien, eta kezka edo buruhauste den edozer eztabaidatzeko gunea.

Bi ordu eta erdiko bileraren ondoren, hauexek izan ziren ondorioak:

1) Banaketa-zerrenda berezia sortzea Jagoneten barruan, zerrenda murritua, lantalde horretako kideentzat eztabaidagune egokia izan zitekeelakotan.

2) EITBek eta Euskaldunon Egunkariak dagoeneko duten materiala aprobetxatuz, artxibaturik dituzten akatsen zerrendako 20 kasu aukeratu eta lantaldearen esku jarri. Ondoren, guztion artean eztabaidatu eta ikusiko da hedabide bakoitzak proposatutako irtenbidea egokia den ala ez.

3) Kazetaritzan sarrien agertzen diren erdal esamoldeen eta euskaraz eman zaien ordainen bilketa-lana egiten hasi. Gero guztien artean erabakiko litzateke zer hobetsi, guztiak ordain bakar hori erabiltzeko (eta Euskaltzaindiak ikusiko luke hobetsitako esamoldea onartzekoa den ala ez).

Uste dut dagoeneko antolatua dagoen lantalde honek (Iparraldeko kide pare bat gehituaz) ez lukeela arazo handiegirik izango oinarriko terminoen zerrenda aurkezteko, batez ere kontuan izanda hasiera-hasieratik erakutsi borondate ona eta dituzten materialak guztion esku uzteko prestasuna.

## 2. Lanerako prozedura

Hedabide bakoitzak duen datu-basean oinarrituta (EITBek eta *Euskaldunon Egunkariak* informatizaturik dute materiala), beharrezkoen iruditzen zaizkien hitzak zein diren eztabaidatu beharko lukete lehenik.

Ondoren, hitz horietako bakoitza eztabaidatzean hauek dira kontuan izan beharko dituztenak:

a) hitza zein testuingurutan erabiltzen den (eta horretarako dituzten corpusez baliatu beharko dute). Izan ere behin baino gehiagotan ez da hitza bera, sintagma osoa baino irtenbide egokia eskatuko duena. (*Caída* esateko *erorketa*, edo *eroriko* edo zer behar dugun eztabaidatzean, garrantzitsua da haiek esatea zein testuingurutan duten hitz horren beharra. Erdarazko “la caída del euro” esateko, ala “la caída de un ciclista). Izan ere, ezin dugu ahaztu euskaraz lan egin arren sarri asko erdaraz heldu zaien testua edo berria (edo dokumentala ...) euskaraz nola eman asmatu behar izaten dutela.

b) Proposatzen duten hitza hedabide guztiak erabiltzen duten ala batzuek bakarrik. Azken kasu honetan, lehiari dabilen formak, Hiztegi Batuko bigarren itzuliko irizpideen argitan aztertu beharko dituzte. Ahal bada, proposamen bateratua egin; eta, bestela, lehiakideak aurkeztu, bakoitzari erabilera-txostena erantsiaz.

c) Hitza euskal ondarekoa den ala ez. Euskal ondarekoa bada, OEHN egongo da ziurrenik, edo ahozko erabilerakoa bada, azpieuskalkiren batekoa izango da.



d) Hitza euskal ondarekoa izan arren, adiera berriren batean erabiltzea proposa dezakete. Eta hala balitz, hedabide guztiek hala egiten duten ala ez (edo nork bai eta nork ez) argi utzi beharko dute.

e) Hitza mailegua bada, oro har Hiztegi Batuko bigarren itzulirako onartu genituen irizpideen arabera jokatu beharko dute:

– maileguaren nazioartekotasuna neurtu

– oso hedatua ez bada, gutxieneko baldintza behintzat betetzen duen ala ez esan

– Iparraldean eta Hegoaldean forma desberdinak erabiltzen badituzte, guztientzat balio dezakeen forma proposatzen ahalegindu. Eta lortzen ez bada, alde bakoitzeko mailegua aurkeztu, izan duen erabileraren berri ematen duen txostena erantsiaz.

f) Beti ere argi utzi beharko litzaike lantaldeari dagokiola proposamena egitea; kontua ez dela erdal terminoen zerrenda osatu, eta Euskaltzaindiari galdetzea euskaraz nola esan behar diren.

g) Lantalde horretatik datozen proposamenak Euskara Batuko batzordeak eta euskaltzain osoek aztertu ondoren, argibide gehiagoren beharra ikusiko balitz, lantaldeari eskatuko litzaioke informazioa osatzea (nahiz honek ez duen baztertzen Hiztegi Batuko lantaldeari ere argibiderik eman dezakeen galdetzea).

Irizpide hauek begien aurrean izanik, eta lanerako hilabete batzuk emanaz, uste dut emaitza onak lor ditzakegula.



**UNIBERTSITATEKO  
JAKINTZA ARLO NAGUSIETAKO TERMINOLOGIA  
BILTZEKO LAN-PROPOSAMENA**

*2000.eko abenduan*

*Xabier Kintana Urriaga*

**Atariko**

Euskaltzaindiak amaitu berri du Oinarrizko Hiztegi Batuaren lehen itzulia. Bildu dituen 20.000 hitz horiek, oro har, literatur tradizioan oinarrituak dira, eta maiztasun handia duten berbak ditugu. Bestalde, begien bistan dago onarturiko hitz horiek duten garrantzia, hortik atera daitezkeen hitz elkartu eta eratorri ugari askotarako abiapuntu direlako, eta hori jadanik ongi islatzen da argitaratze-enpresa batzuek kaleratu dituzten beste hiztegi batzuetan.

Oinarrizko hiztegi hori, ordea, neurri handian, euskaldunok oraintsu arte izan dugun bizimodu tradizionaleri dagokie, hots, giza harremanak, artzaintza, nekazaritza, arrantza, eskulangintza, merkataritza eta erlijioa bezalakoei. Dakigunez, gure hizkuntzaren ofizialtasunik ezaz, euskarak sarrera berantiarra izan du irakaskuntza, administrazio eta hedabideen munduan eta, beraz, aski normala da arlo horietako lexikoa aurrekoak bezain landurik ez aurkitzea.

Halere, garbi dago azken hamarkadetan euskarak lehenago izan ez dituen arlo horietara ere heldua dela eta gero eta jende gehiagok diharduela gure hizkuntzaz esandako eremuotan. Eta, horrek, jakina, etengabeko zalantzak eta duda-mudak sortzen dizkie erabiltzaileei, irakasle-ikasleei batik bat. Alde horretatik, egoki litzateke Euskaltzaindiak premia hori dutenei nolabaiteko laguntza eskainiko balie, orain arte ere, beste eremu batzuetan maiz egin duenez. Izan ere, gure Akademiaren izateko arrazoi nagusia hizkuntza zaintzea da, baina hizkuntza ez da deus, berari bizia ematen dioten hiztunez ahantziz gero.

Irakaskuntzari doakionez –beste arloak biltzeko proposamenak Euskaltzaindira duela bi hilabete aurkeztu zirenez gero– gogoan izan behar dugu ez garela ezerezetik abiatzen. Ofizialtasuna izan baino lehenago ere, hirurogeiko hamarkadan ikastolak, gerra aurreko saio labur eta berehala moztu haien ondoren, indar berriaz birpiztu eta Euskal Herri osoan zehar hedatu ziren, lehen eta bigarren mailako irakaskuntza euskaraz emateko asmoz.

Hasiera ez zen erraza izan. Garai zaharrek utzia ziguten testu-liburu ia bakarra *Xabiertxo* ezaguna zen eta irakasleek ahalegin handia egin behar izan zuten hutsune hori betetzeko. Lan horretan lagundu nahirik, Euskaltzaindiak bere 8 urte arteko ikastola hiztegia prestatu eta eskaini zuen, gure Akademiak gizarte premietarako zeukan sentiberatasuna orduan ere erakutsiz.

Hiztegitxo hura, bere on-txar guztiekin ere, lagungarri eta mesedegarria izan zela ezin uka, baina laster urri gelditu zen. Irakaskuntza aurrera joan ahala, gero eta gai berri gehiago ukitu beharra zegoen eta Euskaltzaindiak –euskararen batasunaren auzian murgildurik, bestalde– ez zuen baliabiderik asko premia berri horiei nahi bezala erantzun ahal izateko.

Beharrak zaharra merkatura baina, eta arazoa irakasle interesatuek berek konpontzen saiatu behar izan zuten, zenbait antolakunderen laguntzaz. Alde horretatik, ez da ahanzteko U.Z.E.I.k egindako lan mardula, unibertsitate arloko hiztegi monografiko ezagun bezain erabiliak plazaratuz. Udako Euskal Unibertsitateak ere lan ederra eskaini zuen, ordurarte, Euskal Herriko Unibertsitatearik ezaz, sakabanaturik zeuden arlo ezberdinetako irakasle-ikasleei elkartu eta zientzi gaiak euskaraz tratatzeko aukera ematean.

Giro horretatik, ondoren Elhuyar eta Lur taldeak sortu ziren, Entziklopediak eta irakaskuntzarako testu- eta kontsulta-liburuak plazaratuz. Azkenean, autonomia politikoak gure hizkuntzari ekarri zion ofizialtasunak, gainera, euskararen eta euskarazko irakaskuntzak merkatu zabala ireki zuen eta horrek ordurarte gurean erdara hutsean argitaratzen zuten beste enpresa batzuk (Santillana, Anaya, Edelvives, Edebe...) euskal alorrean sartzera bultzatu zituen, bertoko ordezkarietzan euskal taldeak antolatuz (Zubia, Haritza, Giltza) eta aldi berean bertoko beste editorial batzuk sortu ziren (Ibaizabal, Elkar, Erein...) euskal testugintzan lehiakidetzat interesgarria eraginez.

Bestalde, unibertsitateari dagokionez, behialako Bilboko Unibertsitatearen oinarrien gainean 1980an UPV/EHU sortu zenean, euskara, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofizial bilakatu zen eta unibertsitatearen estatutuetan bertan euskarazko testugintza bultzatzeko asmoa argi agertu zen: Horrela, 246. artikulua honela dio: “Unibertsitateak euskaraz egindako irakaskuntza-materialak eta ikerlanak argitaratzeari eragin eta bultzatzea egingo dio”; horretarako duen Argitalpen Zerbitzuen bidez egin eta egiten duena, hain zuzen.

Gogoan izan behar da, bestalde, Euskal Herriko Unibertsitatea bera era-itu aurretik ere, bazela Leioan irakasle talde bat beren kontura, zientzien arloko irakasgai batzuk (fisika, kimika, biologia, matematika...) euskaraz ematen hasiak, horretarako apunteak eta liburuxkak prestatuz. Horiexek erein zuten, hain zuzen, unibertsitateko euskal irakaskuntzaren hasierako hazia eta, horren ondorioz, irakasgai horiek harrezkero hogeitaz hamar urte baino gehiagotan irakatsi dira gurean euskaraz inolako etenik gabe, Euskal Herriaren historia osoan goi mailako irakaskuntzan ordurarte inoiz lortu gabeko tradizioa eta segida erdietsiz.

Noski, anitz arlo berritan aurretiko askorik eta tradizio atxikigarriak ez zegoenez gero, jakintza gaiak irakasteko erabili behar zen lexikoari dagokionez, borondaterik onenaz egindako saio guztiek ez dute arrakasta bera izan. Gogoan izan ordura arte deus gutxi zegoela euskaraz argitaraturik zientzia arloan Jean Etxeparek mendearen hasieran osasunaz eginikoak eta Jokin Zaitetik RIEVen (1933, 61) zelulari buruz idatziriko artikulua kenduta, Gabriel Jauregi arabarraren *Pisia* (1935) eta *Kimia* (1936) zirela aitzindari bakarrak. Hori dela eta, unibertsitate-premiei erantzun nahirik, hasieran asmatu hitz batzuk, denboraren arian praktikak berak baztertu eta berba egokiagoek ordezkatu dituzte. Gehienetan, ordea, ongi asmatu zutela aitortu beharra dago. Edonola ere, interesgarriena, irakasleen beren jarrera izan da, euskara kontuan beti ikasteko prest eta beren lana Euskaltzaindiaren araukin bat berregokitzeko gertu azaldu dira eta.

Esandakoagatik, beraz, badugu hor, irakaskuntza ertain eta unibertsitarioan, arlo zabal bat, aspaldiko urteotan aski ongi landua, Euskaltzaindiak bere hiztegi batuaren bigarren itzulian kontuan hartu behar lukeena.

## Lan egiteko prozedura

Irakaskuntzan erabiliriko euskal lexiko berezia biltzeko, ondoko prozedura hau proposatzen da.

Alde batetik koordinazio-taldea eratuko da, EHUan lanean ari garen Xabier Alberdik, Iñaki Ugarteburuk, Juan Karlos Odriozolak eta Xabier Kintanak osatua. Talde honen zeregina ikastegietatik heltzen zaizkion hitz zerrendak aztertu eta sailkatzea izango da, hitz bakoitzaren forma zuzena eta lekukotasunak egiaztatuz.

Gaur egun, oro har, unibertsitate mailako euskal irakaskuntza nagusia UPV/EHUan gertatzen bada ere, ez da ahanzi behar badirela gurean beste unibertsitate batzuk ere (Deustuko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate pribatua, Nafarroako Unibertsitatea Publikoa, Mondragon Unibertsitatea eta Baionako Unibertsitatea) eta horiekin ere, eskaintzen duten euskarazko irakaskuntzaren garrantziaren arabera, harremanak izatea aurrizkustea da.

Era berean, koordinazio-taldeak harremanak izango ditu Euskaltzaindirako lan egiten duten beste bi taldeekin, hots, komunikabide eta zuzenbide-administrazio arloko lexikoa biltzen dutenekin, diziplinarteko hitz berezien kasuan horiei informazioa eman, kontsultak egin, argibideak eskatu, zalantzak azaldu eta, ahal den neurrian guztion artean proposamen bateratuak aurkeztu ahal izateko.

## **Informatzaileak**

Informatzaileak edo hitz-biltzaile aholkulariak Unibertsitateko Jakintza Arlo desberdinetako irakasleak izango dira. Hauek, arlo bereko beste euskaldun irakasleekin bildu ondoren, beren jakintza arloko adar ezberdinei dagozkien hitz berezi beharrezkoenak bilduko dituzte. Horretarako, koordinatzaileek hitz horiek hautatzeko eta aurkezteko metodologiatzko arau zehatzak bidaliko dizkiete aurretik, terminologia horren garrantzia, maiztasuna eta bateratze-maila kontuan izan dezaten, beti ere Euskaltzaindiak bigarren itzuli honetako hitzetarako onartu dituen irizpideekin bat. Hitz horiek, beren testuinguru eta lekukotasunez horniturik, koordinatzaile-taldeari igorriko dizkiote.

Irakaskuntza Ertainari dagokionez, badirudi bigarren itzuli honetan EEBS corpusetako datuek aski ongi biltzen dutela arlo horretako lexikoa, eta, beraz ez dela beharrezkoa hor gehiago sakontzea. Edonola ere, hor argibide edo daturen bat beharko balitz, Jose Ramon Zubimendi prest legoke bere laguntza eskaintzeko, Hezkuntza Saileko Ikasmaterialetan aditu gisa.

## **Unibertsitateak argitaraturiko terminologia liburua**

Irakasle elebidunak hautatzeko, Euskal Herriko Unibertsitateak 1988. urtetik aurrera euskara-probak egin izan ditu, horien bitartez irakaslegaien hizkuntza gaitasuna neurtzeko. Proba horiek errazteko asmoz, unibertsitateak 1998an *Euskara-probak* izeneko liburua argitaratu zuen. Hor arlo desberdinetako terminologia zerrendak eskaini zituen, euskal irakaskuntzan ari ziren irakasleengandik jasoak, maiztasuna, garrantzia eta erabilgarritasuna kontuan izanda. Arlo bakoitzetik ehun bana hitz, oro har.

Liburu horrek dagoeneko hiru argitaraldi izan ditu, Euskaltzaindiaren arauak plazaratu ahala terminologia zuzendu eta eguneratuz. Unibertsitatearen aspaldiko erabileran finkaturiko hitzok, beraz, terminologia bilketa-lan hau egiteko oinarritzat har daitezke.

Hitz horiek ondoko jakintza arloei dagozkie:

Arkitektura, Artea, Biologia, Ekonomia, Filologia, Filosofia, Fisika, Geografia Geologia, Historia, Gizarte Zientziak, Heziketa Fisikoa, Informatika, Informazioa, Ingeniaritza-Teknologia, Kimika, Matematika, Meataritza, Nautika, Osasuna, Pedagogia eta Psikologia. Bada Zuzenbidea ere, baina arlo hori, administrazioarekin batera, Andres Urrutiak eta bere taldeak beren gain hartu dutenez gero, ez dugu guk ukituko.

## Egitekoa

Informatzaileei, zeinek bere arloan, liburu horretan agertzen diren berbak kontuan izanda, guztira berrehun bana hitz proposatzeko eskatuko zaie, goian esan den bezala, horiek hautatu eta aurkezteko arau zehatzak ahoz eta idatziz aurretik emanaz.

Hitz-zerrendak bidaltzeko epea martxoaren bukaeran amaituko da.

Ondoren, koordinazio-taldeak Euskaltzaindiak bigarren itzuli honetarako irizpideak kontuan izanda, jakintza arlo bakoitzean euskarazko irakaskuntza-tradizioaren pisua gogoan izanik, jasoriko zerrendetako hitzak aztertu, galbathetu eta, bere kasuan zuzendu eta gero, Euskaltzaindiko Euskara Batuko batzordeari bidaliko lizkioke, hala baleritzo, onartzeko proposamenarekin.

Lan hau udarako amaiturik egon liteke, baina arlo ugari direla kontuan izanik, zuhurrago dirudi atzerapen batzuk gerta daitezkeela pentsatzea. Edonola ere, kasurik txarrean, udazkenerako amaituko litzateke.

## Kostuaz

Oinarritz, lan horretan ari diren guztiak UPV/EHuko langileak dira eta zeregin honetan beren lan-orduen barruan lihardukete. Beraz, alde horretatik ez da inolako diru-kosturik aurreikusten. Horrek ez du esan nahi, noski, Euskaltzaindiak, esker onez, haiekin nolabaiteko kortesia ez izatea, (aipamen edo diplomaren bat, afariren bat...). Inoiz gerta daiteke baina, koordinazio-bileraren bat Donostian eta Gasteizen egin beharra, horrek aldean dakarkeen bidaia-dieten gastu txikiekin, baina edonola ere oso gutxi izango lirateke.

## Azken oharra

Badira, goian aipaturikoez gain, beste arlo batzuk, gure irakastegietan ematen ez diren arren, gogoan izan beharrekoak: albaitaritza, arrantza, astronomia, edo erlijioa, adibidez. Kasu horietan euskaltzainek, norik bere lanbide, interes edo zaletasun berezien arabera, nolabaiteko bilketa-proposamenak ere egin litzakete.

\* \* \*

## Informatzaileentzako gutuna

Adiskidea:

Zure jakintza arloko euskal lexikoari buruz hitz egin genuenaren bidean, gutun honen bidez gogoratu nahi dizut hiztegitxo berezitu hori biltzeko orduan, kontuan izan behar diren irizpideak, lan egiteko metodologia toki guztietan antzekoa izan dadin: Horrek, zer esanik ez, gure koordinazio lana erraztu egingo du.

1) Guztira berrehun hitz inguru izango dira, eskuarki zuen arloan erabiliak.

2) Jakintza arloaren barruan multzo edo atal ezberdinak egonez gero, hitz horiek eremu ezberdinen artean banatuko dira, eskaintzen den lexikoan azpiarlu guztiek nolabaiteko lagin orekatua izan dezaten.

3) Proposatzen den hitza multzo edo berba-konstelazio jakin baten osagarri izanez gero, komeni da multzo horretako gainerako kide nagusiak ere aurkeztea, lagina orekatua izan dadin. Gauza bera esan daiteke antonimo nabarmenez ere. Adibidez: *joniar / doriar / korintoar* (Artean), *belarjale / haragijale / orojale* (Biol.), *defizit / superabit* (Ekon.), *likido / solido / gas* (Fis.), *antiklinal / sinklinal* (Geol.), *erreforma / kontrarreforma* (Hist.), *branka / popa / ababor / istribor* (Naut.)

4) Hitz horiek gutxieneko tradizioa izan beharko dute, hau da, ez dira atzo goizean asmatuak izango, eta jakintza arlo horretako erabiltzaileen artean aspaldiko urteotan ezagunak eta zalantzarik gabe onartu eta adostuak izango dira.

5) Proposatzen diren hitz horiek ongi dokumentaturik aurkeztuko dira, bai testuinguru egokian eta bai orain arte non erabili izan diren argi azalduz (liburu, liburuxka, entziklopedia, apunte...). Aldamenean erdarazko itzulpena edo euskarazko azalpena izango dute.

6) Nazioarteko hitzak badira, hori azaldu behar da, inguruko hizkuntzetako ordainekin (espainiera, frantsesa, ingelesa, alemana, adibidez). Kasu hauetan ez da beharrezkoa euskarazko testuen lekukotasuna ere jartzea.

7) Komeni da hitz horiek bi multzotan banatzea: a) garrantzitsuenak eta b) garrantzizkoak izanik ere, bigarren mailako kontsidera daitezkeenak. Garrantzitsuenen artean, jakintza-arlo konkretu horretakoak izateaz gainera, eguneroko bizitzako hizketara ere iragan direnak jarriko dira (*akupuntura, eleantiztasun, estres, euro, farmako, fisioterapeuta, flotagailu, homeopatia, trilobite...* gisakoak).

8) Bildu dituzuen hitz bereziak proposatu aurretik komeni da Euskaltzaindiak oraintsu atera duen hiztegian berba horiek ba ote datozen ikustea,



hala izanez gero, horien lekuan beste kontzeptu batzuk adierazteko hitz ez jarriak proposatu ahal izateko.

9) Euskaltzaindiaren hiztegian agertzen ez diren hitzez gainera, aurretik forma onartua duten beste batzuk ere proposa daitezke, adiera bereziren bat dutenean; adibidez, *adar*. ‘animalien eta zuhaitzen kima’ esanguraz gainera ‘aulkiaren edo ohearen atzeko irtengunea’. Era berean, azpisarrera interesgarriak ere proposa daitezke: *ahaide nagusiak*, *elur-jasa* adibidez.

10) Hitzak letra xehez eta mugatu gabe jarriko dira, hau da, *mendi*, *etxe*, *zuhaitz* gisa, eta ez *mendia*, *etxea*, *zuhaitza* itxuran. Era berean, alfabetoaren arabera ordenaturik aurkeztuko dira.

11) Zuen lana errazteko asmoz, honekin batera zerrenda bat bidaltzen zaizue, EHUak argitaraturiko Euskara-Probak liburuan zuen arlorako proposatu diren hitzekin, eta horietatik Euskaltzaindiaren zerrendan **letra beltzez** zeintzuk agertzen diren azalduz, alferreko errepikatzerik egin ez dadin.

12) Eskertzekoa litzateke zuen zerrendak paperean eta disketean UPV/EHUko Euskararako Kabinete Teknikora bidaltzea.

13) Bidaltzeko epea 2001.eko otsailaren bukaeran amaituko da.

14) Edozein zalantza izanez gero, Xabier Kintanagana jo dezakezue.

Hitzen lekukotasunak jasotzeko, gai bakoitzari buruzko liburu berezietuz gainera, besteak beste, iturri orokor hauek ere kontsulta daitezke:

UZEI-ren hiztegi monografikoak.

Placido Mujikaren *Diccionarios Castellano-Vasco* eta *Vasco-Castellano. Diccionario Retana de autoridades del euskera*.

KOLDO MITXELENAREN *Orotariko Euskal Hiztegia*.

*2000 hiztegia*.

*Euskararako hiztegia*.

IBON SARASOLAREN *Euskal Hiztegia*.

*Lur Entziklopedia*.

*Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*.

*Elhuyar hiztegia...*

Adibide gisa, hona hemen proposamen-hitzak aurkezteko eredu batzuk:

**adar**. Euskaltzaindiak aipatzen dituen 4 esangurez gainera, 5 ‘aulkiaren edo ohearen atzeko irtengunea’ eta 6 ‘zapata estuak jantera laguntzeko esku-tresna, eskuarki metalezkoa’ erants daitezke. Ikus *Orotariko Euskal Hiztegia*.

**latin arrunt = herri-latin:** **latin** hitzaren azpisarrera gisa sartzeko. Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia*, latin hitzean, 1996. *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*, 1995, *Elhuyar hiztegia* 1996. UPV/EHUko Euskara-probak liburua, 1999, 47.orr.

**Burdin Aro:** **burdina** hitzaren azpian sartzeko, Ikus **erdi** hitzean **Erdi Aro** azpisarrera. Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia*, **aro** hitzean. *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*, 1995. *Elhuyar Hiztegia* 1996. UPV/EHUko Euskara-probak liburua, 1999, 55. orr.

**hego-ekialde eta hego-mendebalde:** azpisarrera gisa sartzea komeni da, **ipar-ekialde** eta **ipar-mendebal(al)de** hitzekin egin den bezala.

**nukleiko:** Azido nukleikoak nukleotidoen polimeroak dira. Bi mota daude, nukleotidoaren azukrea zein den kontu... Kimika 1 *Hiztegia*, UZEI 1980 68 orr. *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*, 1995. *Elhuyar Hiztegia*, 1996. orr.

**erreakzionario:** Hist. nazioartekoa. esp. *reaccionario*, fr. *réactionnaire*, ing. *reactionary*, al *reaktionär*.

## EGUNEROKO HITZEN LANTALDEA: PROPOSAMENA

*Donostia, 2001-I-26*

*Miren Azkarate*

### 1. Osaera

Hiztegi Batuko bigarren itzulia osatzeko zein iturritara jo behar genuen aztertzen ari ginela, OEH eta EEBS corpusen ekarpenaz gain, beste lau lantalde sortzea ikusi genuen beharrezko: administrazio arloko oinarriko hitzak bilduko zituena, irakas mundukoa, komunikabideetako eta, azkenik, egunero erabiltzen ditugun hitzak izanik euskal ordain jator bateraturik ez dutenez arduratuko litzatekeena. Izan ere, 2000ko ekainean, Bilbon egin genuen Jardunaldi edo Gogoetan, “ordenador portátil” edo “teléfono móvil” nola esan behar ote ditugun, zenbat proposamen desberdin dabiltzan hor zehar... izan genuen hizpide. Horretaz gain, geuk ere behin baino gehiagotan aipatu dugu oraindik ez dakigula nola esan beharko genukeen “biberón”, “chupete” edo “babero” euskaraz. Eta aurreko hiztegi lantaldeak antolatu izanak ez du esan nahi horrelako hitzen proposamena haiek egingo dutenik. Gainera, arratsalde hartan Euskaltzaindiaren egoitzara hurbildu zirenek beren lankidetzara ere eskaini zuten. Hura gogoan izanik, hizpidea sortu zuen Joxe Mari Berasategi-rengana jo nuen lehenik. Hauek dira, beraz, lantaldea osatzeko proposatzen ditudanak (aldez aurretik haiekin hitz egin eta onartu baitute lantaldean egotea):

Joxe Mari Berasategi, Arabako Foru Aldundian ari dena,

Patxi Petirena, *Euskaldunon Egunkariko*,

Gotzon Egia, Gipuzkoako Foru Aldundian jarduteaz gain, EIZIEkoa ere badena,

Iñaki Zubizarreta, lehenik irratian eta ondoren bikoizketa lanean jardundakoa, eta gaur Irusoinen dabilena,

Antton Gurrutxaga, Elhuyar hiztegiaren arduradun nagusia,

Guztiok dute elkarrekin jarduteko ohitura, eta oso begi onez hartu dute taldea lagun horiek osatzea.

## 2. Lanerako prozedura

Esan bezala, gaur euskaraz bizitzeko ezinbestekotzat dituzten hitzak bildu eta, Hiztegi Batuko bigarren itzuliko proposamenetan ordainik ikusi ez badute, euskaraz nola esan daitekeen adostu eta proposatzea eskatuko zaie lantaldeko kideei. Horretarako, banaketa-zerrenda berezia antolatuko da Jagonet-en, gainerako lantaldeekin egingo den bezalaxe. Hortik aurrera, beren arteko eztabaida izango da, zein hitz sartu behar duten zerrendan eta zein ordain emango lioketen. Uste dut udazkenerako zerrenda egokia izan dezakegula.

Hiztegi Batuko irizpideak ezagutzen dituzten arren, gogoraziko zaie zer hartu behar duten kontuan hitz bakoitza eztabaidatzean:

a) Proposatzen duten hitza erabili duten, eta hala balitz, guztiek erabili duten ala batzuek bakarrik. Gerta daiteke haiek zuzenean erabili ez, baina ingurukoren batek erabiltzen duela jakitea ere. Hori guztia jaso beharko lukete. Eta forma bat baino gehiago badabilta lehian, Hiztegi Batuko bigarren itzuliko irizpideen argitan aztertu beharko dituzte. Ahal bada, proposamen bateratua egin; eta, bestela, lehiakideak aurkeztu, bakoitzari erabilera-txostena erantsiaz.

b) Komeni da, halaber, esatea proposatzen d(ir)en hitza(k) euskal ondarekoa(k) d(ir)en ala ez. Euskal ondarekoa(k) bad(ir)a, OEHN egongo d(ir)a ziu-  
renik, edo ahozko erabilerakoa bad(ir)a, azpieuskalkiren batekoa(k) izango d(ir)a.

c) Gerta daiteke euskaraz orain arte hitzik ez, eta hitz berria sortzeko proposamena egitea. Argi eta garbi adierazi beharko lukete halakoetan (eta hitza sortzeko oro har elkartetara edo eratorpenera jo). Bestalde, komenigarri izaten da inguruko hiruzpalau hizkuntzatan nola esaten den kontuan hartzea, gaztelaniaren ereduak bakarrik ez izateko.

d) Maileguren bat hartzea proposatzen denean, oro har Hiztegi Batuko bigarren itzulirako onartu genituen irizpideen arabera jokatu beharko dute:

- maileguaren nazioartekotasuna neurtu
- oso hedatua ez bada, gutxieneko baldintza behintzat betetzen duen ala ez esan

- Iparraldean eta Hegoaldean forma desberdinak erabiltzen badituzte, guztientzat balio dezakeen forma proposatzen ahalegindu. Eta lortzen ez bada, alde bakoitzeko mailegua aurkeztu, izan duen erabileraren berri ematen duen txostena erantsiaz.

e) Beti ere argi izan beharko dute lantaldekoei dagokiela proposamena egitea; kontua ez dela erdal terminoen zerrenda osatu, eta Euskaltzaindiari galdetzea euskaraz nola esan behar diren.

f) Lantalde horretatik datozen proposamenak Euskara Batuko batzordeak eta euskaltzain osoek aztertu ondoren, argibide gehiagoren beharra ikusiko balitz, lantaldeari eskatuko litzaioke informazioa osatzea (nahiz honek ez duen baztertzen Hiztegi Batuko lantaldeari ere argibiderik eman dezakeen galde-tzea).

Azkenik, lana oro har bakoitzak bere ordenagailutik egin badezake ere, bileraren bat egingo beharko balute, edo bestelako gasturik sortuko balitzaie, Euskaltzaindiak bere gain hartuko luke gastu horiek ordaintzea.



**JAGON SAILA**





**EUSKARA NAFARROAN**

*Iruñea, 2001-III-29/30*



## NAFARROAKO EUSKARAREN AZKENALDIKO HISTORIA

*Jose Mari Satrustegi,  
euskaltzaina*

Euskarak Nafarroan izan duen azkenaldiko historia gogoratzean ezinbestekoa da XIX. mendeko Iruñea erromantikoan sortutako mugimendu garrantzitsua aipatzea. Lagungiro jatorrean gauzatu zen, 1877ko udazkena seinale, nafar hizkuntzak artean inoiz ezagutu ez zuen bultzada kilikagarria. Juan Iturralde y Suit historialariaren etxean bildurik kultura arloko hamahiru gizon ospetsu, ereintza itzaropentsuen ametsetan sortu zen “Nafarroco-Euscarazco Elcargoa”, gazteleraz *Asociación Euskara de Navarra* deitu zutena. Nafar hizkuntza babestu eta indartzea zen bere helburu nagusia, literatura, historia eta lege zaharrak aztertu eta ezagutaraziz.

Garrantzitsua da une hartan emandako urratsa, hizkuntza baserriko bere inguru apaletik atera eta hiria aldatzen baita, itzal handiko jaunen eskutik prestigioa lortuz. *Euskara* izeneko aldizkaria sortu zuen elkarte berriak bazkideen hartu-emanetakoko lokarri.

Aitzindari gertatu zen Euskal Herrian Iruñeko eredua eta, haste-hastetik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskaltzaileei antzeko zerbeit egiteko gomita luzatu zieten nafarrek.

Udazkeneko ereintza ez zen hutsala gertatu eta hurrengo gizaldiak, berrogeita hamar bat urteren buruan, kementsu berreskuratu zuen aurrekoen lekukoa, 1925ean sortutako “Euskeraren Adiskideak” edo *Agrupación Navarra de Amigos del Euskera*, izeneko elkartearen inguruan bildurik. Bien artean bazen diferentzia nabarmena: hiritarren ekintza zen, bereziki, hura, eta euskara hirian txertatzea zuen helburua. Gerra aurreko taldeak berriz, hiri kutsua galdu gabe eta euren gidaritzarekin, baserri mundua esnarazi eta suspertu nahi zuen, eta ekintza herrikoietan sartu zen buru-belarri Ekintza nagusien artean, euskal festak antolatu zituen herriz herri, bertsolari saio eta erromeri giroko dantzekin batera.

Bazen, halere, ohiz kanpoko beste ekintzarik antolatzaileen egitarauan eta, bereziki, haurren munduari zegokiona: euskara zekiten haur guztiei sariak banatzea, alegia. Horrela, sukalde guztietara iritsi zen, umeen bidez, euskararen aldeko mezua. Entzutekoa da, orain bertan, sarituak izan ziren azken le-

kukoen ahotik hiriburuko kapeladun gizonek utzitako oroitzapena. Biziko egun handien zirarra dager.

Etzen hartan amaitu euskararen benetako udaberri hark utzitako ondorenen emaitza: lehenbiziko euskal eskola sortu zuten Iruñean, oraingo ikastolen aitzindaria izan dena. Eskolapioen ikastetxe berrian ireki zituen atea 1930ean eta hiru urteren buruan bazituen hiru gela beste horrenbeste maistraren ardurapean.

Hogeita hamaseiko gertakizun tamalgarriek ekaitz gaiztoen zigorrez suntsitu zuten Nafarroan gogotsu landutako euskararen alorra eta inoiz baino gau beltzago batek ezkutatu zuen lurpean, beldurrez, arbasoen hizkuntza larriki erasotua. Zorionez, gerrak ez zuen hauts azpiko azken pindarra itzali, eta Diputazioa bera izan zen berpizten saiatu zena. Aurretik elkarte pribatuen bidez egindako lanaren ildotik ekin zioten Foru Aldundiko agintariek nafar hizkuntza suspertzeko lanari. Inor gutxi saiatzen zen 1966ko gerra ostean, egoeraren beldurrez, zokoratutako euskararen alde lanean, eta “Príncipe de Viana” kultura elkartearen babesean “Sección de Fomento del Vasculencia” legezko Saila sortu zuten Nafarroako agintariek.

Aurretik egindako saioen jarraipen zehatza egin zuen, hainbat urteko etena gau bateko amets gaiztoa besterik izan balitz bezala. Guraso batzuen harridura izugarria zen: “artearen zigorra euskaraz hitz egiteagatik, eta orain saria?” —zioen isilka Berueteke zinegotzi batek herriko etxean sartu ginelarik guardia biren ondoan. Berrito Euskal Festak, bertsolariak eta herri-dantza berreskuratu ziren eta, hamar urtean, herriz herri sarituak izan ziren haur euskaldun guztiak. Ondoren euskal aldizkaria etorri zen hilero zazpi mila harpideduni doan banatzen zena.

Orduko agintariek, edozein alderditakoak izanik, euskara denon ondare aberatsa zela garbi zeukaten Nafarroan. Iruñeko Seminarioan apaizgaiei euskara erakusteko klaseak ordaintzen zituen gerra aurretik Diputazioak, eta berdin jarraitu zuen gerra ostean. Hurrena ordu erdiko ikastaroak antolatu zituen eskola publikoetan, irakasleei berak ordainduz. Madrilgo erasoei horrela aurre egiteko gai izan zen Nafarroako Diputazioa betidanik zituen eskubideen ize-nean.

Azken aldi honetan, alderantziz, beste haize batzuen boladak astindu ditu tradizio eredugarrien orpoak. Gaur egungo agintarien aldetik ez dirudi nafar hizkuntza inolako ondasuna denik. Foru Legearen Hobekuntza omen denak utzitako zirritu txikian diren bi hizkuntza ofizialek ez dute babes bera hartzen. Ahulenari laguntza berezia eskaini beharren, legez gainditu ezinezko hesiak ezarri zaizkio hiru eremutan zatituz Nafarroa.

— Irrati eta telebista euskaldunek ez dute legezko baimenik.

- Hizkuntza arrotzekin parekatzen da euskara ikastea eta bere baliokidetasuna.
- Euskara baztertua izan da Administrazio paperetako izenburu guztietatik.
- Errepide eta autobideetako iragarkietan euskal izenak kentzea erabaki da.
- Ikasleen testuetako liburuak orraztuko dira euren gogoko testuak sartzeko.
- Euskararen aholku batzorderik ez dago.
- Hizkuntza Politikako Zuzendaritzarik ez da izendatu.

Gertakizun guzti hauen oinarria, azken aldian politikariek egindako hauteskunde sistema berria da. Duela urte batzuk arte Merindade bakoitzak hautatzen zituen —izen abizenez— bere diputatuak udalen bitartez. Hain desberdinak diren lurraldeek bazuten horrela euren ordezkaria eta biztanleek bazekiten norengana jo beren eskubideak zaintzeko garaian.

Orain, alderantziz, alderdi bakoitzak hautagai zerrenda itxien bidez, nonbaiteko izen ezezagunak ezar ditzake agintean, botu itsuen gehiengoa aitzakitzat hartuta nahi duena egiteko. Hori dela eta edozein eremutako biztanlegoaren ardurak, eskubideak eta kultura, bigarren mailako arazo bihurtzen dira alderdiaren interesen ondoan. Nafarroan, hori dela eta, euskara eta euskalduna saroi hesituan baztertu dira —indioen barruki antzera— handik landa bere nortasuna ezeztatuta.

Aurretik egindako ereintza jatorraren frutua oparota izan da eta hori ez da, nonbait, agintari berritsuaren gogokoa. Nafarroako euskararen azkenaldiko historia.



# EUSKARAREN EGUNGO EGOERA NAFARROAN

*Andres Iñigo,  
euskaltzaina*

## 1. Sarrera

1918an Nafarroako Foru Diputazioarekin batera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioek sortu zuten Euskaltzaindia, euskararen Akademia. Diktaduraren ondotik, 1976an, Espainiako Estatuak, 573/1976 Erret Dekretuaren bitartez onartu zuen. Horretaz gain, 18/1986 Foru Legearen arabera, Euskaltzaindia da Nafarroan hizkuntza arauetarako aholku emaile ofiziala.

Euskaltzaindia arautzen duen Erret Dekretuaren 1. artikuluan agertzen dira erakundearen xede nagusiak, hizkuntza ikertzea eta jagotea, eta bigarren honi, jagoteari dagokionez, hiru helburu nagusi aipatzen ditu:

- Euskararen erabilera aitzinatzea.
- Hizkuntzaren eskubideak zaintzea.
- Hizkuntza gizarte maila guztietan gai bihurtzeko lan egitea.

Euskararen garapena dela-eta, arautu diren lege eta hartu diren erabaki garrantzitsuetan, aipatutako helburuak betetzearen aurkako jarrera ikusi duenetan, Euskaltzaindiak salaketak egin ditu, hala nola, 1982an 13/1982 Foruaren Hobeagotze legearen 9. artikulua zela eta, 1986an 18/1986 Euskarari buruzko Foru legeak Nafarroa hiru zatitan banatzea arautu zuenean, irratien esleipenetan, eta abarretan.

Ongi dakigun bezala, Nafarroan agintariak euskara arautzeko legeekin modurik estuenean jokatu zuten (hizkuntza eskubideak nafar bakoitzari ez zaizkio nafarra izategatik edo erkidegoko eremu batekoa edo bertzekoa izategatik aitortzen, une bakoitzean, halabeharrez edo kasualitatez, bizitokia kokatzen duen lekuaren arabera baizik). Ondoren Gobernuak lege horiek ahalik eta gutxien garatzen eta aplikaziorik zikoitzenak egiten saiatu badira ere, nafar gizarteak bertze jarrera bat erakutsi du.

Mugak muga eta oztopoak oztopo, 1986az geroztik —Nafarroan euskara hizkuntza ofiziala zela lehendabiziko aldiz onartu zenetik—, euskararen errekuperazioak abiada nabariagoa hartu zuen eta lortutako emaitzak, ezbairrik gabe, legegileek eta ondotik izandako Gobernuen arduradunek nahi eta

uste baino emankorragoak izan dira, gizartea bera izan delako eragile eta bul-tzatzaile.

Lehenik eta behin, kontuan izatekoa da gai honen inguruan Nafarroako gizarteak denbora laburrean, bost urtetan, eman duen jarrera aldaketa, Gobernuak berak argitaratutako datuen arabera (1):

Urtea	Alde	Aurka	Ez alde / ez aurka
1991	% 22	% 54	% 24
1996	% 38	% 32	% 30

## 2. Errekuperazioaren bidean egindako urratsak

Laburbilduz aurkeztuko ditudan datuek (2), oro har, errekeruperazioaren bidean gaudela adierazten dute.

### 2.1. Irakaskuntza

#### 2.1.1. *Derrigorrezko irakaskuntza*

1988tik aitzina, legea garatzeko Dekretu eta Foru aginduen eraginez emandako bilakaera esanguratsua da, irakaskuntzako maila honetan egin baita euskararen errekupeziorako urratsik nabariena. Hona hemen bilakaeraren emaitzak ehunekoetan:

#### a) Haur + Lehen Hezkuntza

##### Nafarroa osoan

Ereduak	88-89	92-93	96-97	00-01	Bilakaera
D	13'34	16'92	22'1	25'25	+ 11'91
A	5'48	9'58	17'2	26'67	+ 21'19
G	81'18	73'5	60'6	48'07	- 33'11

(1) *Euskal Herriko Soziolinguistikazko inkesta*, 1996. Nafarroa. *Euskararen Jarraipena II*, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, 30 or.

(2) Datu gehienak Eduardo Aldasoro, Jose Manuel Urrotz eta Reyes Ilintxetari zor dizkiet. Unibertsitatekoak Jose Maria Aizpuruak egin berri duen lan batetik hartu ditut.



**Euskal eremuan**

Ereduak	88-89	92-93	96-97	00-01	Bilakaera
D	48'37	64'1	79'77	85'26	+ 36'89
A	43'02	34'36	20'21	14'74	- 28'28
G	8'6	1'54	0'02	0'00	- 8'6

**Eremu mistoa**

Ereduak	88-89	92-93	96-97	00-01	Bilakaera
D	13'36	16'66	22'78	28'18	+ 14'82
A	1'44	6'76	14'13	22'4	+ 20'96
G	85'2	76'58	63'09	49'42	- 35'78

**Eremu ez euskalduna**

Ereduak	88-89	92-93	96-97	00-01	Bilakaera
D	1'35	2'45	4'05	2'64 (3)	
A	0	6'77	21'59	36'02	+ 36'02
G	98'65	90'78	74'36	61'34	- 37'31

**b) Hiru urteko haurrak**

Ereduak	92-93	96-97	00-01	01-02 (4)	Bilakaera
D	21'53	25'18	30'86	29'44 (5)	+ 7'91
A	18'54	28'86	28'74	27'94	+ 9'4
G	59'93	45'96	40'4	42'62	-17'31

A ereduko matrikulari dagokionez, aipagarria da egiaztatzea Nafarroako Eremu Ez Euskaldunean 2000-01 ikasturtean ehuneko ehun eredu horretan matrikulatu zela honako herri hauetan: Allo, Añorbe, Arroitz, Artaxoa, Barasoain, Berbintzana, Beriain, Carcar, Deikaztelu, Elo, Irunberri, Larraga, Ledea, Mañeru, Mendigorria, Miranda Arga, Murieta, Nabaskoize, Oibar, Santacara,

(3) Falta dira Eremu Ez Euskaldunean kokaturik dauden ikastola "alegal"etako datuak, hots, Viana, Lodosa, Sartaguda, Tafalla, Zangoza, Irunberri eta Tuterako ikastoletakoak.

(4) Aurre-matrikulazioaren behin-behineko datuak.

(5) Datu hau Eremu Ez Euskaldunean dauden ikastola "alegal"etako ikasle kopurua konatuta gabe eman du Nafarroako Gobernuak. Dirudienez, kopuru hori 70 ingurukoa da.

Urrotz, Uxue, Villatuerta eta Zudairi-n. Eremu horretako bertze hogeita hamarren bat herritan ere A ereduari matrikulatu ziren, eta herri horietako frankotan, gainera, ikasle kopuru gehiena, hala nola, Faltzesen 21etik 20, Cortesen 25etik 20, Mendavian 28tik 23, Villafrancan 19tik 17, Erriberrin 22tik 16, Martzillan 18tik 14, Zarrakaztelun 27tik 20, Noainen 18tik 17, etab. Zangozako kasua ere aipagarria da: 43 haurretik 16 D ereduari (ikastolan), 26 A ereduari eta 1 G ereduari.

### 2.1.2. Irakaskuntza ez-unibertsitaria orokorrean. 2000-01 ikasturteko datuak:

#### Nafarroa osoan

Ereduak	Haur + Lehen Hezk.	DBH	Batxilergoa	Lanbide Esk.
D	24'98	18'02	15'7	0'37 (6)
B	0'27	0'2	0	0
A	26'67	10'83	4'65	2'42
G	48'07	70'94	79'65	97'2

### 2.1.3. Unibertsitatea (NUPa)

1988an sortu zen. 1995ean onartutako estatutuaren, euskara gaztelaniarekin batera unibertsitateko berezko hizkuntza dela aitortzen da. Aitorpen honekin batera ikasleei euskaraz ikasteko duten eskubidea ere onartzen zaie. Estatutu horietan Euskararen Normalizazio plana nahitaez egin behar dela adierazten da eta horretarako irakasle plaza elebidunak sortu eta hornitu behar direla. Baina urte hauetan egindako Normalizaziorako Planak behin eta berriz alde batera itzi dira.

Bitartean, Unibertsitatean sartzeko diren 18 urteko gazteetatik %20 D ereduari omen dator.

Errealitate horren aitzinean, Unibertsitatearen eskaintza honako hau da:

— 14 dira irakasten diren ikasketak. Horietako batean, Irakasle-ikasketan (Magisteritzan), euskal ereduari emateko maisu-maistrak prestatzen direnean, alegia, Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza espezialitateetan 207 kredituetatik denak euskaraz ematen dira eta Musika eta Hizkuntza espezialitateetan 205etik 160.

(6) D ereduari eskaintza hiru ikastetxetan bertzerik ez da egin.

— Gainerako 13 ikasketetan euskaraz ikasteko egiten den kreditu eskaintza honako hau da:

Karrera	Kredituak osotara	Kredituak euskaraz	
		99-00	00-01
1. Ekonomiako Liz.	312	18	12
2. EZAL/LADE	312	18	12
3. Enpresa Zientzietako Diplom.	206	18	12
4. Industria Ingeniaritza Tek.:			
a) Mekanika	225	12	12
b) Elektrizitatea	219	17	8
5. Nekazaritza Ingeniari Tek.	247	15	15
6. Nekazaritza Ingeniaritza	375	21	0
7. Industria Ingeniaritza	375	6	0
8. Telekomunikazio Ingeniaritza	375	0	0
9. Soziologiako Liz.	320	21	0
10. Lan Harremanetako Diplom.	243	18	0
11. Gizarte Laneko Diplom.	218	18	0
12. Zuzenbideko Liz.	304	14	0
13. Erizaintzako Diplom.	234	12	0
<b>Osoara</b>	<b>3.965</b>	<b>208 (%5'24)</b>	<b>71 (%1'79)</b>

2000-01 ikasturtean, 13 ikasketa hauetan euskaraz 8 ikasgai (asignatura) bertzerik ez da ematen ari eta 13 ikasketa horietatik 8tan euskaraz egiteko ikasgai bakar bat ere ez da eskaini. Hortaz, 13 ikasketa horietan ematen diren 3.965 kredituetatik 71 ari dira euskaraz ematen, hots, % 1'79. Ikusten ahal denez, D eredutik datozen ikasle gehienak unibertsitatean ereduz aldatzera behartuak daude.

#### 2.1.4. Helduen irakaskuntza. Euskaltegietako matrikula datuak

##### Publikoak

Ikastetxea	84-85	92-93	00-01
IHEO (7)	435	649	729
THEO (8)		25	86

(7) Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofiziala.

(8) Tuterako Hizkuntza Eskola Ofiziala, 89-90ean jarri zen abian.

Milutze (CIE)	213	*570 (9)	*700 (10)
NUP/UPNA		131	151
Funtz. Euskaltegia (11)		*300 (12)	*450(13)
IBI (14)		54	22
	648	1.729	2.145

### Pribatuak

Ikastetxea	84-85	92-93	00-01
AEK	2.678	1.927	1.372
IKA		1.044	1.159
Gainerakoak		142	239
	2.678	3.113	2.770
<b>Oсотara</b>	<b>3.326</b>	<b>4.842</b>	<b>4.915</b>

### 2.1.5. Euskara tituludunak

— Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialekoa (1982-2000).....	2.634 (15)
— EGA (1985-2000) .....	1.772
<b>Oсотara.....</b>	<b>4.406 (16)</b>

(9) Lehenengo lau hilekoan 576 eta bigarrean 562. Ikasle gehienak bietan matrikulatzen direnez, batez bertzeko datua hartu da erreferentziatzat.

(10) Lehenengo lau hilekoan 714 eta bigarrean 698. Ikasle gehienak bietan matrikulatzen direnez, batez bertzeko datua hartu da erreferentziatzat.

(11) Funtzionarioen euskaltegia 88-89 ikasturtean jarri zen abian. Lehenengo urte horretan 197 ikasle izan zituen.

(12) Ikasturtearen buruan ikasle batzuek ikastaro bat baino gehiagotan parte hartzen dute. Datu orokorra 359 da. Hortaz, batez bertzeko kopurua 300en batekoa izan daiteke.

(13) Ikasturtearen buruan ikasle batzuek ikastaro bat baino gehiagotan parte hartzen dute. Datu orokorra 516 da. Hortaz, batez bertzeko kopurua 450en batekoa izan daiteke.

(14) Irakasleen Bitziklatze Eskola. Abian jarri zen lehendabiziko urtean (83-84 ikasturtean) 107 ikasle izan zituen. Aipatzekoa da 1984 eta 2000 urte bitartean programa horretan parte hartu duten irakasleetako 650ek EGA edo HEOKo titulua eskuratu dutela.

(15) Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialak epe horretan 4.806 titulu eman ditu osotara bost hizkuntzatan (Alemanean 307, Frantsesean 673, Ingelesean 1.061, Italian 131 —1990-2000 bitartean— eta Euskaran 2.634. Hortaz, eman dituen % 54'8 titulu Euskarakoak izan dira).

(16) Kopuru honi bertze 50en bat titulu gehitu beharko litzaizkioke, hots, Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialak emandakoak. Datu zehatza eskuratzetik ez dugu izan.

## 2.2. Administrazio zerbitzuak

Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia (HPZN) abian jarri zenetik eman dira urrats gehienak, zenbait zerbitzu sortu edo herri ekimenak aitzinetik sortutakoak babestu dituelako.

Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen zuen 135/1994 Foru Dekretua izan zen, teoriarik, alor honetan emandako pausorik garrantzitsuenak, euskararen erabilera Administrazio zerbitzuetan lehenengo aldiz arautzen zelako. Teoriarik diot, bertan araututako xede batzuk, zirkuito elebidunak erraterako, ez zirelako inoiz gauzatu.

Dekretu horren bi xede nagusiak zirkuito administratibo elebidunak ezartzea eta Foru Komunitateko Administrazioaren imajina modu elebidunean agertzea ziren.

a) Lehendabizikoari dagokionez, aipatu behar da zein den errealitatea Nafarroako Administrazioan irakaskuntzatik kanpo. Euskara jakitea nahitaezko baldintza % 1'54 lanpostutarako bertzerik ez da jarri, kontuan izanik kopuru honetan sartzen direla HPZNaren beraren teknikari, itzultzaile, etab. Horiekin batera, aipatzekoa da HPZN abian jarri zenetik, zenbait udal eta mankomunitateekin egindako lankidetzak konbenioen bitartez, sortu den euskara zerbitzu sarea. 21 dira denera. 8 Euskal Eremuan (Bortzerriak, Malerreka, Baztan, Leitza, Larraun, Ultzama, Sakana eta Erroibar-Auritz-Luzaide). 13 Eremu Mistoa. Horietako 4 Lizarra, Gares, Agoitz eta Zaraitzu-Errokarikoa, eta gainerako 9ak Iruñerriaren inguruan (Iruñea, Burlata, Atarrabia, Uharte-Esteribar-Aranguren –azken hau Eremu Ez Euskaldunekoa–, Antsoain, Barañain, Berriozar, Zizur eta Orkoien-Etxauri-Ollaran-Bidaurreta-Oltza).

b) Imajina elebidunari dagokionez, aipatu behar da:

- Errotulazioa elebiduna dela Euskal Eremu eta Eremu Mistoko Administrazio Departamentu gehienetan, Diputazioan bertan eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan izan ezik.

- Inpresioak eta horrelakoak elebidunak Euskal Eremuan. Eremu Mistoa Departamentu eta Zerbitzu erditsuetan, batez bertze.

- Errepideetako xaflak, elebidunak gehienbat Euskal Eremuan (nahiz eta oker idatziak dauden zenbait izenek urteak daramatzaten, eta okerragoa dena, azkenaldi honetan ere bertze zenbait akatsekin jarri dituzte).

Aipagarria, dena den, HPZN abian jarri zenetik toponimia alorrean egindako lan ederra:

- Toponimia nagusian, euskal eremuko herri izenak euskaraz arautu ondoren ofizial ere egin dira, baita eremu mistoko zenbait herritakoak ere.

- Toponimia txikian, Erkidego osoko toponimoak arautu eta ofizial egin dira.

### 2.3. Bertze zerbitzuak

#### 2.3.1. *Komunikabideak*

##### **Aldizkariak**

Euskara hutsean kaleratzen direnen artean, hauek izan daitezke garrantzitsuenak:

— *Tipi-ttapa*. Hamabostero 7.100 ale. Bortzerriak, Malerreka, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi, Iparraldeko herri batzuk, Leitza, Goizueta eta Aranon banatzen da.

— *Guaixe*. Hilabetero 3.500 ale. Sakana osoan.

— *Mailope*. Hilabetero 1.300 ale. Larraun, Betelu eta Araitzen banatzen da.

— *Pulunpe*. Hiru hilabetetik 1.300 ale. Ultzama, Basaburua, Imotz, Lantz, Anue eta Odietan.

— *Axular*. Hiru hilabetetik 3.000 ale. Burlatan.

— *Karrika*. Hilabetero 3.000 ale. Iruñean.

Elebidunak badira franko Eremu Mistoan batez ere. Bertzeak bertze, *El Tuto* (Agoitz), *Mendixut* (Zaraitzu), *Ezkaba* (Antsoain); Iruñeko auzoetakoak: *Barrios* (Donibane-Iturrama), *Aldapa* (Alde Zaharra), *Arrotxapea* (Arrotxapea), *Sua* (Suhiltzaileena),... Eta denen artean aipatzekoa, duen hedaduragatik, *Ze Berri?* Bi hilabetetik 66.000 ale banatzen dira Iruñerrian, Estellerrian, Zaraitzun, Agoitzerrian, Longidan,...

**Irratiak.** Euskara hutsean aritzen direnak:

Euskal Eremuan:

— *Xorroxin*. 1975etik. Baztan, Malerreka eta Bortzerrietan entzuten da.

— *Aralar*. 1991tik. Larraunen.

— *Irati*. 1993tik. Aezkoan.

— *Erran-Esan*. 1998tik. Basaburuan.

— *Karrape*. 1999tik. Leitza inguruan.

— *Beleixe*. 1999tik. Etxarri-Aranatz inguruan.

Eremu Mistoan:

— *Euskalerrria*. 1988tik. Iruñerrian eta bere inguruko eremu zabalagoan.

##### **Telebistak**

— *Xaloa*. 1997tik Baztanen eta Malerrekan.

— *Tipi-ttapa*. 1998tik Bortzerrietan eta Malerrekan.

### 2.3.2. Bertzeak

Euskara errekuperatu eta gizarteratze honetan, badira bertze hainbat gauza aipagarri: talde kulturalak, elkarteak,... tinko eta gogor lanean ari direnak. Badakit denak aipatu nahiak bakarren bat ahaztua uzteko arriskua baduela. Horregatik eta komunikazio honi minutuetan ere bere neurria jarri zaiolako ez naiz aipamen gehiagotan luzatuko, baina amaitu baino lehen, duen garrantzi eta zailtasunagatik, bat bederen gogora ekarri nahi nuke, hots, Sindikatuek *Euskara lanean* lemapean urtero egiten duten informazio kanpaina.

## 3. Egoera berria

Euskara berreskuratzeke bi oinarri dira nahitaezkoak:

— Bata, gizarteak nahi izatea. Nafarroan hori, neurri handi batean behintzat, egiaztatuta dagoela dirudi. Ikusi dugun bezala, inkestek aldeko jarrera erakusten dute eta azkeneko 14 urte hauetako datuek euskara berreskuratzen ari dela adierazten dute.

— Bertzea, Administrazioak beharrezko baliabideak jartzea. Nafarroako Gobernuak, ordea, euskara berreskuratzen ari garelarik eta, Iruñerrian batez ere soziologikoki inoiz baino euskaldun gehiago bizi delarik, atera du Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 372/2000 Dekretu berria, egindako urratsen atzerako martxa argi eta garbi markatzen duena.

Hasieran aipatu dut Euskaltzaindia arautzen duen Dekretuak Akademiari euskara jagoteko eginbeharrak ezartzen dizkiola, hala nola, euskararen erabilera aitzinatzea, hizkuntzaren eskubideak zaintzea eta hizkuntza gizarte maila guztietan gai izan dadin lan egitea.

Xede horren ildotik, Nafarroan azkeneko urtean gertatutakoekin kezkatuarik, Erakunde honek, sei hilabeteren buruan, osokoen bilkuretan aho batez onartu ondoren, hiru adierazpen igorri dizkio Nafarroako Gobernuburuari:

— Lehendabizikoa, 2000ko ekainaren 29an, HPZNren birmoldaketa egin zuenean.

— Bigarrena, 2000ko azaroaren 27an, 372/2000 Dekretuaren zirriborroa ezagutu zuenean.

— Hirugarrena, 2001ko urtarrilaren 16an, Nafarroa Gobernuak Dekretua argitaratu zuenean.

Euskaltzaindiak, Gobernuaren aitzinean bere jarrera agertu du eta gaurko ekitaldi honetan nafar gizartearen aitzinean gauza bera egin nahi izan du.





## **EUSKARAREN EGOERA NAFARROAN: EUSKALTZAINDIAREN EGITEKOA**

*Andres Urrutia Badiola*

Nafarroako euskalgintza gogor astindu du azken hilabeteotan 2000. urteko abenduaren 11n bertako Gobernuak onetsi duen Foru-Dekretuak. Horrek ekarri ditu, soka beretik, bestelako Foru-Erabakiak ere, lehen esandako dekretuaren garatze lana gauzatzeko asmotan, batik bat, Nafarroako hizkuntza-eskualde mistoetan.

Dekretu horri gehitu zaizkio, denbora laburrean, toponimia arloan gertatu diren epai-errekurtsoak. Horien bitartez auzitegien aurrean jarri dira, ezbaian eta auzipean, Nafarroako Toponimia finkatzen duten Foru Arauak.

Albisteok, zernahi gisaz, aspalditik datorren hari baten korapiloak dira edo, hala nahi izanez gero, kate luze baten katebegirik oraingoan. Kate horren lokarriak, aspaldikoak izan nahiz berritsuagoak gertatu, aurretiaz azaldu dira nire mahaikideen berbetan eta ez dute bestelako azalpen premiarik.

Bai, ordea, Euskaltzaindiaren ikuspegitik, gertaera horien aurrean gure erakundeak izan duen jokabidea. Azaldu beharra, hortaz, oraingoa, lehena ere azaldua izan den modu berean, nafar gizartearen esku eta asmoetara argi hel daitezen jokabide horren nondik norakoak.

Izan ere, aspaldiko kezka du Euskaltzaindiak euskararena eta, zer esanik ez, Nafarroan euskarak bizi duen egoerarena. Behin baino gehiagotan plazaratu behar izan du bere hitza Euskaltzaindiak, euskarari dagokiona urraturik geratzen zelakoan. Urraturik ez ezik, legez eta gizarteaz ere beheraturik, bi-biotan, arauetan eta elkarbizitzan, izan baitu, eta baitu, oraingoz ere, euskarak zer gaindi eta nola jokatu.

Gogora ditzagun, besteak beste, eta Andres Iñigo euskaltzainkidearena abiapuntutzat harturik, honako hauek:

1) Hasteko, Espainiako ordenamendu juridikoaren gailurra den Konstituzioa. Lege testu horren eztabaidan, begi-bistakoak ziren Euskaltzaindiarentzat euskarak izan zitzakeen kalteak eta oztopoak, hango hirugarren artikulua erakarriak. Hain zuzen ere, Donostian, 1978. urteko irailaren 29an aldarrikatu zuen Euskal Akademiak honako hau, euskararen bizimoduan Espainiako lege nagusi hark sor zezakeenaz kezkatu:

*Euskaltzaindiak, 573/1976 erret dekretuz, Juan Carlos I Errege jaunak berak, beste eginkizun batzuren artean, hizkuntzaren enplegua aintzinatzea eta beraren eskubideak zaintzeaz arduratzeko onartu zuenez, azalpen bat egin nahi du betebehar hontaz, jendaurrean jakinaraztera beharturik aurkitzen delako, orain eztabaidatzen ari den Konstituzio proiektuaren 3. artikulua gatzelania ez diren beste hizkuntza nazionalak bereztaturik uzten dituela.*

*Akademia honek, arazo honetaz inork galdetua izan ez denak, goian aipaturiko artikulua hori, gainera, Espainiako Estaduak Ginebran sinaturiko Giza Eskubideen Agiriaren letrarekin eta ez izpirituarekin bat ez datorrela gogorarazi nahi du.*

2) Harrezkero ere, Iruñean bertan egin zuen bilera berezian, Euskaltzaindiaren zuzendaritzak bere kezka areagotu zituen, 1979. urteko maiatzaren 25ean, Nafarroan euskara bera, babesteko premiarik gorrienean zegoela, hau da, Nafarroako egitura juridiko-administratiboa antolatzeko unean, baztertutik gera ez zedin. Honetara jo zuen Euskaltzaindiak orduko hartan:

*Euskaltzaindiak, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako Foru Diputazioek emandako eta Erret Dekretuak birretsitako eginkizuna beteaz, hots, euskararen alde jokatzearaz, Nafarroa Elebitasun Dekreturik gabe geldituko delako, zeharo kezkatu dagoela adierazten du.*

*Euskara Nafarroan lege baliakizunik gabe dagoela ohartzen da Nafarroak dituen eskubideekin elebitasun dekretu bat aurrera atera behar duela uste du, "Junta Superior de Educación" delakoak, behar den bezala eraberritua, noski, ondoren zehatz dezan.*

*Parlamentu eta Diputazio Foralei eskatzen die hainbat lasterren beren jarrera ager dezatela eta euskararen, hots, nafarren hizkuntzaren alde beharrezko diren neurriak har ditzatela.*

3) Kezkaren kezka eta hiru urte geroago (1982), Euskaltzaindia, beste behin ere, artegatsu, "Proyecto de Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra" zela eta. Orduko hitzak esanahi zabaldukoak:

*Aurretiaz azaldu nahi du, erakunde politikoa ez denez, ezin dela hasi Proiektuari inolako gogoramen orokorrik egiten, Konstituzioari egin ez zion modura, salbu 3. artikuluari, berau Espainiako hizkuntzez ari baita (erantsitako 1. dokumentua). Aldi berean gogoratu nahi du, 1979.eko Maiatzaren 25ean, Iruñean ospaturiko batzarrean onartu zuen akordioa. Geroago aipatu akordioa, Nafarroan euskararen status delakoa (2. dokumentua) berretsi egin zuen ageriko bilkuran eta orduko Foru Diputazio Goreneko Burua zen Jaime Ignacio del Burgo jauna bertan zelarik eta baita Malon eta García de Dios jaun Diputatuak ere.*

*Hau dela eta, 573/1976 E.D. delakoaren 1. artikulua babespean eta erantsitako Estatutuen 1. artikulua f (3. dokumentua) zera kontuan hartzen du alegia, Lege Projektuaren 9. artikulua euskarari diskriminaziozko tratamendua ematen diola, zeren bertan, bakarrik, egun Erresuma Zaharrean euskaraz hitz egiten den tokietan ofizialtasuna aitortzen dio, euskararen atzerakuntzarako oraintsu eta iragan mende emandako arrazoi historikoak kontutan izan gabe; euskarak bizirik dirau erdal eremuetan hiztegi, esaldi eta, batez ere, toponimi eremuan; eta oro har, Nafarroako herrien kontzientzia eta oroipen kolektiboan dirau, eta azken batez ondare orokorra euskara hitz egiten den eremua, mugatu ezin dena.*

*Xexa bizi-bizia azaldu nahi du hizkuntza biziari emandako tratamendua-  
rengatik, hau da, Euskal Herriko Autonomi Estatutuko 6. artikuluan eta Valencian  
Komunitate Autonomoaren Estatutuko 7. artikuluan, 4. eta 5. dokumentuak eskaintzen  
zaiena baino ahulagoa baita. Aipaturiko Komunitate biok Nafarroak daukan egoera  
berbera daukate linguistika eremuaren desberdintzapenaz, bai historia alorrean eta  
bai egungo egoeraz. Baina hizkuntza bie dagokien ofizialtasuna ez da aurretiazko  
jiteaz murrizten.*

*Guztionengatik eta uztailleko bilkura arruntean, Nafarroako euskal idazle  
baten bigarren mendeurren dela eta, berau mintzairaz Nafarroa Garaikoa eta  
idazlearen sorterrian ospaturik. Hau dela eta, ezin du ixilarazi daukan kezka  
bizia, datorren foru legeak 9. artikulua garatuko duen itxaropenaz, beronek  
arazo hau behar den eran bideratuko duelakotan Gure Erakundearen eritzia  
jasorik eta baita Nafarroa mailan eragina daukaten beste erakundeena ere.  
Euskaltzaindia aholkatze tekniko eta zientifikoa eskaintzeko prest legoke  
beronekin legislatzaileei laguntza emanez.*

*Azkenez, Euskaltzaindiak zera nabarmendu nahi du, hots, bai Lege Projektu  
hau eta bai eman ahal diren beste zenbaitzu hala Gorte Jeneraletan nola  
Komunitate Politikoei dagokionetan, euskara negatiboki jotzen duenean –berau  
Mendebal Europako hizkuntza zaharrena delarik– adi izango dela eta ahal-  
leginak eginen dituela jagoten bizirik iraun dezan, bizkortzen eta garapen  
esku bideetan galtzaile ez iriteteko.*

4) Ildo beretik ere, badira Euskaltzaindian bestelako adierazpenak, Nafarroan euskarak izan dezakeen etorkizun latzaz arrangura bizia erakusten dutenak. Gogora ditzagun, besteak beste, honako hauek:

4.1. 1994. urteko uztailaren 4an, gogor jorratu zuen gaia Euskaltzaindiak. Arrazoia zuen horretarako Nafarroako Euskara Legean. Hiru alor plazaratu zituen sasoi hartan, lege berriari erreparoa egiteko asmotan. Lehena, lege horrek euskarari aitortzen zion lurralde eremu estuegia; bigarrena, FM irrati lizentzien banaketan euskara baztertzea; eta hirugarrena, hain justu ere, gogoratzeko euskara guztiona dela eta hizkuntza horri dagokiona zaindu egin behar dela, Espainiako Konstituzioaren arabera.

4.2. 1997. urteko urriaren 31n, beste behin ere, FM irrati lizentzia berriak zirela eta, erro-errotik deitoratu zuen Euskaltzaindiak euskara zokondoratzeara eta eskabide berezia egin zion Nafarroako Gobernuari berriro gerta ez zedin lehendabiziko hura, alegia, euskara halakoetan aintzakotzat ez hartzea.

4.3. Aipagarria, halaber, Barañaingo udalak lanpostuak betetzeko egin zuen deialdia. Deialdi horretan, euskara meritutzat hartu zen eta horri buruzko eztabaidak, auziak eta iritziak sortu ziren. Euskaltzaindiak 1997. urteko apirilaren 25ean aldarrikatu zuen berea, afera hori zela eta. Artean, epaiak ere eman ziren, Nafarroako auzitegien aldetik. Euskaltzaindiaren hitzetan, euskararena legezko eta betebeharrekoa zen, lanpostuetarako deialdietan:

*Nahitanahiezkoa deritzaio Euskaltzaindiari, zenbait lanpostutarako, batez ere irakaskuntza eta administrazioaren arloetarako, euskaraz jakitea. Eta Barañaingo Udalak, gizarteak berak aspalditik bizi duenari men eginez legalki ez ezik, egoki eta zentzuz jokatu du deialdian baldintza hori jarritz, udalerrri horretan gero eta ugariago diren euskal hiztunei behar bezalako erantzuna eta zerbitzua eman ahal izateko. Horrela berretsi du Nafarroako Parlamentuak berak ere 1997ko apirilaren 24ko erabakian.*

5) Egunotan ere, eta 372/2000, abenduaren 11ko Dekretua aurrean zuela, Euskaltzaindiak bere adierazpena egin du, gogoeta bizia erakutsiz Nafarroako Gobernuari. Gobernuaren gor-mutua ikusirik, berriro ere ekin dio gaiari 2001. urteko urtarrilaren hamaseian, Nafarroako Gobernuari euskararena gogorarazteko eta zuzeneko eskaria egiteko, hau da, lege testu berria aldarrikatu aintzin, aintzat har ditzan Gobernu horrek Nafarroako gizartearen eskabideak.

Erantzun bakarra, 2001. urteko urtarrilaren 24ko gutuna. Bertan ditugu eginaren zuriaketak, labur bezain estuak:

*Por lo demás, debo decirle con absoluta sinceridad que mi Gobierno entiende, y yo mismo también, que no “han abandonado los objetivos esenciales de proteger la recuperación y desarrollo del vascuence en Navarra” ni se ha eliminado el de “garantizar el ejercicio de los derechos lingüísticos”. Cuestión distinta es que se hayan matizado los ritmos por los que la política del vascuence en Navarra debe discurrir; tarea esta que compete al Gobierno de Navarra por imperativo de la legislación vigente.*

Euskaltzaindiaren ibilbide luzea ikusirik, bizpahiru ondorio atera ditzakegu orain arte zerrendaratu ditugun jazoera horietatik:

a) Lehena da, ezbairik gabe, Euskaltzaindia erakundea dugula, Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako aldundiek sortua eta Espainiako Koroak onartua (576/1976 Erret Dekretua). Arestian eraldatu dira (272/2000 Erret Dekretua) horren estatutuak eta berretsi egin zaizkio Euskaltzaindiari euskara konuetan dituen ahalmenak. Besteak beste, *euskararen eskubideen jagotea,*

*erabilera bultzatzea eta hizkuntza gizarte maila guztietan gai bihurtzeko lan egitea* dagozkio erakunde honi, euskararen esparruko *ziurtagiriak, argibideak eta diktamenak* eskaini-ematearekin batera. Eta horiek, esan gabe doa, Nafarroan ere baditu egingarri Euskaltzaindiak.

b) Euskaltzaindia ez da erakunde politikoa, gobernu edo boterearen menpeko edo zerbitzukoa. Euskaldun guztiona da, euskaldun guztiok egiten ditugulako euskal hizkuntza eta kulturaren erkidegoa. Horren barruan, Euskaltzaindiak du, beste inork ez bezala, Euskal Herrian zehar euskara jagoteko betebeharra, lehen esan legez, ideologia guztien gainetik.

c) Euskaltzaindia bada nor euskararen aurka datozen legeak eta gertaerak salatzeko. Salatze horretan Euskaltzaindiak *hitza* du eginkizun eta *ekintza* lanabes. *Hitz* horrek esan nahi du akademikotasun maila dagokiola Euskaltzaindiari euskara arloan, *hitzaren* bidez adierazteko erkidego akademiko eta zientifikoari euskararen aurkakoak. *Hitza*, hala ere, ez da deus ere *ekintzarik* ez badago. Eta *ekintza* horretan, gure ustez, Euskaltzaindiari ez dagokio Epaitegien aurrean salaketak egitea. Bai, ordea, babesa nondik jaso eta goi mailako agintariei (estatu mailako zein nazioartekoei) mezua helaraztea.

Badira Nafarroan euskara nork babestu eta zein bidetatik ibili, dekretu horren aurka jotzeko abagunean. Kasurako, udalak eta kontzejuak, Udal-Kontzejuen Federazioa, alderdi eta elkarteak, ikastolak, sindikatuak... Horiek egoikiak badira ere, ez dira Euskaltzaindiaren bideak, geroenean azalduko dugunez.

Ikus dezagun, bada, Euskaltzaindiaren egitekoa zertxobait zehaztu ondoren, zertan datzan Dekretu berri horren muina. Alferrik luzatuko genituzke dekretu horren inguruan gure ahaleginak. Maila eta tankera askotako argumetuak eman daitezke horren alde eta kontra. Aldekoak entzunak ditugu lehen ere; kontrakoak erruz zabaldu dira azken hilabeteotan.

Labur esanda, hala ere, ildo nagusi batzuk nabari daitezke testu horretan:

a) Dekretu hori ez dator bat Nafarroako gizarteak behin eta berriro euskararekiko erakutsi duen jarrerarekin. Gisa horretan, adibidez, hezkuntza mailan nafarrek urtez urte euskarari eskaintzen dioten atxikimendua ez da erraz lotzen dekretu horren araumoldearekin.

b) Dekretu horrek, bestalde ere, sustraitik hausten du euskararen garatze prozesua, batez ere, euskara bera ahulen dabilen esparruan, hizkuntza eskualde misto izenekoan. Euskarak laguntza gehien non behar eta horra doa, murritzeko xede osoarekin, delako Dekretu hori.

c) Hirugarrenez ere, esan beharrekoa da eskualde misto horretan dela arriskurik nabarmenena, dekretu hori dela eta, euskara kinka larrian ikusteko, Nafarroako Administrazioetik erabat aldentua. Bide horretatik goazela, oso adierazgarria da Dekretuaren zio-azalpena:

*... se ha considerado conveniente revisar para afianzar el principio de seguridad jurídica, para ponderar el uso del vascuence con los medios necesarios para hacer efectivo su empleo y para responder a la realidad sociolingüística de Navarra después de la experiencia acumulada. A tal efecto, de acuerdo con la doctrina constitucional, se ha sustituido la calificación del requisito específico, que la normativa anterior otorgaba al conocimiento del vascuence cuando es preceptivo en el acceso a determinadas plazas, por la de conocimiento preceptivo, para incluirlo dentro del ámbito de los principios de mérito y capacidad previstos en el Artículo 103 de la Constitución. Esta revisión, por razones de técnica normativa, se hace a través de un nuevo texto que sustituye al anterior:*

Azter ditzagun, gaingiroki bada ere, hiru arrazoiok:

a) Segurtasun juridikoarena. Badirudi hizkuntzen arteko ofizialkidetzak –orain artekoak behinik behin– segurtasun juridikoa hausten duela. Arrazoi horrekin azaltzen dena zera da, euskara ez baino, gaztelania dela segurtasun juridikoa eman dezakeen hizkuntza bakarra.

b) Euskararen erabilera eragingarria bermatzeko, aldiz, baliabideak eta aukerak zabaldu beharrean, murriztu eta gutxitu egiten dira, beharbada eragingarritasun hori ahalik sendoen bermatzeko ustearekin. Euskara gutxi, bai horixe, baina ondo lotua eta estekatua.

c) Nafarroako errealitate soziolinguistikoari ihardespina emateko unean, berehala antzematen zaizkio dekretu berri honi irtenbide mamitsuak; besteak beste, lanpostuetarako deialdietan euskara meritutzat hartzea arbuiaigarri izatea; toki, errepide, kale eta abarren errotulazio elebiduna ezabatu beharrekoa, euskararen erabilera norbanakoen borondate hutsera uztea... Horra hor, benebenetan, euskararentzako sustatze bide eragingarriak.

Labur beharrez, hala ere, jokatu behar. Hitz bitan esateko, hainbeste kale-ageraldi, adierazpen eta epai-errekurtsoren ostean, zer egin?

Egia esan, eta dekretuak dekretu, Euskaltzaindiak, lehen esan legez, badu zereginik horren aurrean. Eta zeregin hori betetzera etorri zaizkizue zuoi, Nafarroako euskalgintzan diharduzuenoi.

Askoren ustez, gure erantzuna ez da behar bezain sendoa izan. Beste batzuren aburuz, motz eta labur ibili gara. Hala ere, Euskaltzaindia erakundea dela esan dugu lehen ere eta horri egin behar diogu men. Begirunea eta lotsa gordeta, esan beharrekoak azaldu behar ditu Euskaltzaindiak, euskararen babesa eskuratzekotan. Zin zinez diotse Euskaltzaindiak Nafarroako euskaltzalei, euskara duela xede eta helburu, aldian aldiko gertaeren gainetik. Euskarari tinko eusteko gogoarekin eta eguneroko behar-premiei dagokiena ahaztu gabe egiten du lan Euskararen Akademiak. *Hitza* proposatzen dizue Euskaltzaindiak eta hitzaren bidez, esana dugu, *ekintza* ere, gure kezka eta arrangu-

ra zabaltzeko eta hedatzeko, lehendabizikoz, estatu eta nazioarteko maila duten erakunde akademiko eta zientifikoetara –hizkuntzen arduradunenak bazter utzi gabe– eta geroago, maila guztietako gizarte erakundeetara. Politikaz atere, behar-beharrezko da gure mezua argi ematea, euskararena, beste behin ere, bide bazterrean ikus ez dezagun.

Molde berari utsiz, eginkizunak Euskaltzaindiaren Jagon Sailarentzat: euskarari buruzko informazioa bildu, eritziak plazaratu eta akademiaren ustea, euskararentzat tankera honetako gertaera kaltegarriak tartean direla, hainbat ondoen gizarteratu, euskaldunon eskura egon dadin.

Badugu, beraz, etxe barnean nahiz kanpo aldean, zeregin eta zerikasirik. Horretaz, adi egon, Juan San Martin mintzatuko zaigu xeheki.





## **EUSKARAREN LEGEZTAPEN DEMOKRATIKOARI DAGOKIONEZ, NAFARROAN GALDUTAKO AUKERA**

*Patxi Zabaleta,  
euskaltzaina*

1980ko irailaren hamabostean Nafarroako Parlamentu Foralean eztabaida bat izan zen hurrengo helburuarekin, hots, Foruaren Berreskuratze eta Hobe-kuntzarako legea, *Amejoramendua* deitzen dugun horren oinarriak euskarari buruz erabakitzeko eztabaida, alegia. Parlamentu Foralak euskarak Nafarroa osoan ofiziala izan behar zuela erabaki zuen. Horixe da eman zitzaion agin-dua Nafarroaren izenean Estatuko Gobernuarekin hitz egin behar zuen bat-zordeari.

Eztabaida hartan, besteak beste, Victor Manuel Arbeloa jaunak orduan Sa-lamanca-ko Unibertsitateko errektorea zen Tovar jaunaren esaldi batzuk aipa-tu zituen bere eginez eta, haien artean, zera dioena: “Bakearen bidea euskal herrialdeetan eta Espainia osoan ere, politika orokorretik adina hizkuntza po-litikatik ere igarotzen da”.

Aurrerago Victor Manuel Arbeloak, berriro ere Tovarren aipamena gogo-raraziz, honela dio: “Euskarak badu eskubidea bai bere iraupenerako, bai irau-pen hori gauzatzeko beharrezko diren baliabideetarako”. Zentzuzko gauza franko aipatu ziren eztabaida hartan eta egindako bozketak honako emaitza hauek izan zituen: 33 boto euskararen ofizialkidetasuna Nafarroa osoan jar-tzearen alde eta 29 aurka. Emaitza hori izan zen Nafarroako Parlamentuak Es-tatuko Gobernuarekin hitz egitera joan behar zuen batzordeari eman zion agin-du bakarra.

Baina *Amejoramendu*-aren testuak —1982ko martxoaren 8an Madrilgo Lurralde Administrazioaren Ministerioan sinatu zen aktan—, bere 9. artiku-luan ez du biltzen, jakina den bezala, Parlamentuak emandako oinarri horren agindua eta, horren ordeez, artikuluko horri 2. atal bat erantsi zitzaion, non sar-tzen den Nafarroako euskal eremuaren kontzeptua, eremu horretara murriztuz euskararen ofizialkidetasuna. Eta eremu honen hedadura, euskararen erabilera ofiziala eta euskararen irakaskuntza geroago egingo den Foru Lege baten bi-tartez gauzatu delako dio. Zer gertatu ote zen bitarte horretan da gure galde-ra, negoziatzera joan zen batzordeak zergatik ez zuen bete Parlamentuaren agindua?

Nafarroa eta Estatuaren arteko negoziaketa eta adostutako *Amejoramentu*-aren testua bi batzorderen eginkizuna izan zen, bata Nafarroako Foru Diputazioak izendatua eta bestea Estatuko Gobernuak. Nafarroakoa honako hauek osatu zuten: Juan Manuel Arza Muñuzuri, Jesus Malón Nicolao, Angel Lasunción Goñi, Pedro Sánchez de Muniáin Corera, Javier Moscoso del Prado, Gabriel Urralburu Tainta eta Jesús Aizpún Tuero jaunek. Idazkari lanetan Joaquín Gortari Unanua jauna aritu zen.

Negoziaketa horretan izandako gorabeheretz soil-soilik agiri bat dago datarik gabe, eta bertan ez dira azaltzen ez proposamenak eta ezta erantzunak edo kontraproposamenak ere. Baina azaltzen dena zera da, Nafarroako Batzordeari eman zitzaioela lehen atalaren proposamena egiteko lana. Zein da egin zuen proposamena? Ez dago inon idatzirik.

Batzordearen konposaketa aztertzen badugu, ikusten ahal dugu zazpitik bost ofizialkidesuna Nafarroa osoan jartzearen aurka bozkatu zuten 29 parlamentarien taldekoak zirela eta bi besterik ez —Malon eta Urralburu jaunak— alde bozkatu zuten taldekoak. Zergatik ez ote zuen bete Negoziazio Batzordeak Parlamentuaren agindua? Erantzunik gabe geratu den galdera da hori.

Euskarak Nafarroa osoan ofizialtasuna izateak ez dirudi, Estatuaren aldetik, inolako gatazka edo zailtasuna sor lezakeenik, besteak beste, legedi administratibo orokorrean eta beste autonomietan ere ez duelako horrelako mugarik ipini.

Gaur egun hizkuntza eremuen kontzeptua ez bakarrik nafarren eskubideen aurkakoa, zaharkitua ere bilakatu da. Internetez eginen dira hemendik aurrera Administrazioarekiko harremanak gehienbatean eta zer zentzu izan dezake garai horietan hizkuntza eremuak mantentzeak? Bestalde, nafarrok orain hogeitau urte aukera bat galdu genuen edo agian xahutu egin ziguten. Nork daki?

18/1986ko euskararen Foru Legeak lehendabiziko artikuluan ezinbestekotzat jotzen ditu honako helburu hauek: herritarren eskubidea euskara jakiteko eta erabiltzeko, euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, erabilpen hori sustatzeko neurriak adieraztea eta euskararen erabilpena eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta begirune irizpideei jarraituz.

Izan ere, legearen atariko tituluaren arabera, euskara Nafarroa osoaren ondare kulturala da eta, hortaz, nafar guztien eskubidea. Euskararen geroa nafarren esku dago.

Orain dela 20 urte paregabeko aukera galdu genuen, aipatutako batzordeak Parlamentuaren agindua ez zuelako bete.

Baina izanen dira berriro aukerak, eta 1987-X-25ean aitortu nuen eta berriro diot, euskararen etorkizuna jendearen eta herriaren borondatean oinarriturik dagoela jakin eta errepikatu behar dugu. Horregatik hemen Nafarroan eta nonahi jendearen aukera eta herritarren askatasuna da aldarrikatu beharrekoa. Euskararen etorkizuna hortxe dago. Eta agian gurea ere bai.



### Bilkura berezia eta irekia Iruñean

2001-III-29an, osteguna, arratsaldeko 6etan, Iruñeko Gurutze Plazako Institutuko aretoan, osoko bilkura berezia eta irekia egin zuen Euskaltzaindiak. Bilkurako gaia hau izan zen: Euskara Nafarroan. Hauek izan ziren ekitaldi horretan parte hartu zutenak:

— *Mahaiburua*: Jean Haritschelhar, euskaltzainburua.

— *Hizlariak ezkerretik hasita*:

- Jose Maria Satrustegi, euskaltzaina: “Nafarroako euskararen azkenaldiko historia”.
- Andres Iñigo, euskaltzaina: “Euskararen egungo egoera Nafarroan”.
- Andres Urrutia eta Patxi Zabaleta, euskaltzainak: “Euskara Nafarroan, legearen ikuspegitik”.
- Juan San Martin, euskaltzaina: “Giza eskubideak, era orokorrean, eta hizkuntzaren arloan”.



## GIZA ESKUBIDEAK, ERA OROKORREAN ETA HIZKUNTZAREN ARLOAN

Juan San Martin,  
euskaltzaina

Nazio Batuen Batzar Nagusiak (ONU) 1948an aurkeztu zuen Giza Eskubideen Adirazapen Unibertsala. Bere 2. artikuluan, orokorki begiraturik honako hau zioen: “1. Gizaki orori dagozkio Adierazpen honetan aldarrikatutako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereiziko arraza, larru-kolore, sexua, hizkuntza, erlijioa, politika edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik. 2. Ez zaio begiratuko gainera, pertsona zein herrialde edo lurraldetako egoerari, nahiz eta herri hori burujabea izan, besteren zainpeko lurraldea, autonomiarik gabea edo nola-halako burujabetasun-mugak dituena”.

Eta 26. artikulua hiruugarren zatiak dioenez: “Gurasoek lehenetasunezko eskubidea izango dute seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko”.

Hor oinarriturik, gogoan hartzekoa iruditzen zait 1953an Unesco erakundeak argitaratu eman zuen *L'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement* deritzan liburuxka. Frankismo garaia zen eta Espainian ez zen zabaldurik liburuxka hori; baina, bere edukiaren berri jakin nahi duenak, Azkue Bibliotekari aurkituko du aipatzen dudan liburuxka hori. Horien ondorioz, aditzera eman beharra dut, giza eskubideen alderako orokortasuna.

Baina bereziki, hizkuntzen alde, zeren oso erabilgarria den liburu bat bada, 1981ean Unescok argitaratua eta geroztik hamasei hizkuntzetara itzulia, euskaraz ere 1999an Bilbon Bakeaz / Ediciones Unesco argialetxeak emana den Leah Levin andere idazle ingelesak prestatutako *Giza eskubideak: galdetarako erantzunak* deritzana. Hizkuntzen arloan egin diren zenbait akordio ere jasotzen ditu eta, bake biderako, edonorentzat liburu gomendagarria iruditzen zait.

Euskaltzaindiaren eskariz eta alde horietatik begiraturik aurkeztu nuen: “Hizkuntza, hiztunen giza eskubideen arabera” zeritzan txostena (Ikus *Euskerria*, 44, 1999, 2. alea, 979-983. orrialdeetan). Bertan jasotzen ditut, 980. orrialdean, Hezkuntza eta Kultur Ministeritzak 1976an dekretuz Euskaltzaindia onartzeaz, erregearen sarrerako hitzak. Eta, nire ustez, Estatuko buru denaren hitz

horiekin baliatu beharra dugu. Euskaltzaindiaren sorkundeaz bere aitonak 1918. urtean Oñatin esan zuena gogotan harturik, non zioen: “Desde entonces la Academia viene laborando ininterrumpidamente en los fines para los que fue creada, fomentando la unidad de una lengua que hablan muchos españoles y que es un elemento importante de la cultura y del acervo nacional. Por ello nada mejor para la tutela e investigación de la lengua vasca que el reconocimiento por el Estado de la labor de esta Academia que Su Majestad el Rey Juan Carlos I quiere hacer patente, de acuerdo con las memorables palabras de su egregio abuelo”.

Baina, gogoan izanik aurtengo urtea, 2001garrena, Europako Batasun Bartzordeak “Hizkuntzen Urtetzat” izendatu duelako iaz argitaratu nuen *Giza eskubideen inguruan / En torno a los derechos humanos* zeritzan liburua, gaia orotariko ikusmenez aurkeztuz, eta gaiaren barnean bereziki hizkuntzaren arloari toki zabala eskainiz. Zeren, gure egoera honetan, hizkuntzarekikoa baitugu gunerik larriena edo kezagarriena.

Liburu horren lehen kapituluan, eredugarritzat, Euskal Herritik giza eskubideen alderako emaitzak orokorki eskaintzen nituen, Aita Frantzisko Vitoriakoagandik hasi eta Martin Azpilkueta “Doctor Navarro”, Joanes Etxeberri Ziburukoa, Pedro Dagerre “Axular” eta bestez gainera Ilustrazio garaiko Aita Larramendi, Xabier Munibe bere lagun zituen Azkoitiko “zalduntxoak” deitu izan zirenak eta beste, Amurrioko Jesus Galindez eta Baionako René Cassin zirenekin bukatuz.

Desberdin pentsatzen dutenengandik ere beti ikasten da zerbait. Eta gure Herritik hilketaz eta indarkeriz ari den ETA taldeak ere badu gure lehengo gizon eredugarri haiegandik zer ikasirik. Zeren, hemen, inori kalterik egin gabe, guztiok gara beharrezkoak. Horregatik, eraikitzaileak behar ditugu eta ez hondatzaileak. Elkar joka ibiltzea geure Herriaren kaltegarri da eta bide horretatik ez goaz inora. Lehen lehenik, beste era batera pentsatzen dutenen bizitza ere errespetatzea baita garrantzizkoena. Baketan lana egin nahi baldin badugu, indarkerizko ekintzen aurrean isilik egoterik ez dugu. Bestela mundu guztiaren aurrean geure Euskal Herriari kalde egiten ari gara.

Hizkuntzak herriaren sustraietatikoak direnez, aldarrikatu beharra dugu, gure antzinatiko euskara hor zela oraingo talde politiko guztiak sortu baino lehenagotik. Horregatik, esan beharrezkoa iruditzen zait, demokraziaren izenean, gaur egungo politikarien artean gauzak ez dihoaztela bide zuzenagotik, gorrotogarrizko demagojia gehiegi nabari baita, zeren ez baitituzte gauzak zintzo eta argitasunez agertzen. Dirudienez, kultur arloan behar bezalako aholkulariez baliatzen ez dakitelako edo nahi ez dutelako. Guztiok dugu ideien artean elkarri hurbilduz ahalegintzea eta errespetatuz ibili beharra. Herriari begira, ahal den neurrian desberdintasunak baretuz eta elkarrenganako hurbiltasunera abiatuz.

Egoera horren inguruan Euskaltzaindiak badu bere egitekorik, polifike-riak alde batera utziz, bere sorreratik datorkion Arautegiak eskaintzen dizkion ekintzak kontuan hartuz. Lehen artikulua zenbait zati begiratu besterik ez dugu, adibidez: e) Euskararen erabilera aintzinatzea. f) Hizkuntzaren eskubi-deak zaintzea. g) Hizkuntza gizarte maila guztietan gai bihurtzeko, lan egitea eta abar.

Oroi Euskaltzaindia, euskararen erakunde bezala, lau probintzietako Di-putazioek onarturik sortua zela. Nafarroako Foru Diputazioak bere onespén ofiziala eman zion 1919ko irailaren 3an, Eta erakundeak urre eztaietako bile-ra bereziak antolatu zituenen, hiriburuetan antolatu zituen batzarrak eta ho-rien artean oroigarri zaigu 1968ko abenduaren 4an Nafarroako Diputazioan an-tolatu zen ospakuntza hura, Espainiako Akademien ordezkariak eta beste zenbait erakundetakoak ere han zirelarik. (Hortaz, ikus eta irakur *Euskera* agerkariaren, XVI. zenbakia, 1971. urtekoa, bere 5-26 eta 199-203 orrialdee-tan).

Euskaltzaindia, esan beharra dut, politikaren gainetik era askotariko per-sonen osatzen dugula. Eta bere Arautegiaren arabera, eginkizun nagusia, be-reziki *Iker* eta *Jagon* sailetan oinarritzen dela, lau Diputazioek onartu bezala. Horren arabera, Erakundearekiko eginkizuna, nire ustez, aipatu dudana “Hiz-kuntza, hiztunen giza eskubideen arabera” zeritzan txosten hartan azaldu nuen. Uste dut, aski argi eta garbi agertu nuela, bai gure Erakundearen Arautegia-gatik eta baita ONUk Giza Eskubideen Adierazpen Unibertzelean agertu zue-nagatik ere. Gai honetaz askozaz zabalago eta ageri gehiago emanaz idatzi nuen aipatu dudana *Giza eskubideen inguruan - En torno a los derechos hu-manos* (2000) liburu horretan. Eta gaiok zehatzago jakin nahi dituenak berta-ra jo beharra du.

Ezertan errurik baldin badago, bakoitzak har bedi errua bere lepora, es-painiar sentitzen direnek ere jakin beharrezkoa dutenez, euskara dela Espai-niako hizkuntzarik zaharrena eta aurka ari direnak, sineskaitza badirudi ere, bertako jatorrizko hizkuntza naturala eta zaharrena denarena aurka ari direla.

Inork zalantzarik izan ez dezan, oroi Antonio Tovar hizkuntzalari eta ira-kasle zenak aski argi eta garbi agertu zigula gure euskara, esanez: “Es una len-gua prehistórica, una lengua profundamente arraigada en el suelo, y es la úni-ca que se ha conservado al oeste de Eurasia desde la conquista de nuestro continente por los indoeuropeos”. Eta egile berak *La lucha de lenguas en la Península Ibérica* deritzan liburuan beste honako hau gehitu zigun: “En un mundo moderno sólo los medios modernos (escuela y grados superiores de educación, radio y televisión, etc.) pueden asegurar la conservación de la len-gua”.

Baina, bere aurretik, Ramón Menéndez Pidal, Real Academia Española-ren buru zenak, Eusko Ikaskuntzaren eskariz 1921.urtean Bilbon eskaini zuen hitzaldi hartan beste honako aitortpen hau egin zuen: “Tenéis la fortuna de que

vuestro pueblo sea depositario de la reliquia más venerable de la antigüedad hispana. Otras tendrán más valor artístico, serán más admiradas y codiciadas universalmente, pero no hay otra que tenga la importancia de esta lengua, sin cuyo estudio profundo jamás podrán ser revelados del todo los fundamentos y los primitivos derroteros de la civilización peninsular, ni podrá ésta ser esencialmente comprendida”.

Hizkuntzak, berez, herrien izate naturaletik sortuak baitira. Horregatik, guztiak dira errespetagarriak, bereziki geroztik sortuak diren politika taldeen gainetik jarritz. Europako Batasunak ere horrela aitortzen baitu.

Julio Caro Barojaren *Algunos mitos españoles y otros ensayos* (1944) saio liburuiko gai gehienak Euskal Herriari buruzkoak dira, non aurki genitzakeen Europako zenbaiten kidetasuna, bereziki Iparraldekoa. Bestalde, gogoan hartzekoak ditugu R. M. Azkue eta J. M. Barandiaranen bilketa lanak. Gai honetaz, neronek Julene Azpeitiaren *Amandriaren altzoan* (1961) liburuari egin nion hitzaurrean herri-ipuinei buruz esan nuena berretsi nezake: “herri-ipuinak dira literaturaren aurrengo kimuak, noski, haiexek izan direlako kulturadun hizkuntzen literatura oinarri. Sarri, ipuinak aski dira herri baten psikologiaren bereizkuntza egiteko. Beren aberastasunetik neurtu daiteke herri-gogoia. Harrigarria da benetan, gure herriak ahozko literatura horren eberatsa izanik, idatzizkoan hain txiroa izan beharra. Hala ere, esan nezake ez dela askok uste duten bezain txiroa. Hortarako, kontutan hartzekoa da oraintxu Patxi Salaberri Muñoak argitara eman duen “Kontrarreforma garaiko Lapurtar literaturaz”, aurtan *Karmel* aldizkarian ikerketaz eskaini digun saioa (Ikus, 2001. honetako *Karmel*, 233. zenbakiaren 3-30. orrialdeetan).

Baina, esan bezala, herri literaturan era guztietako ipuinen jabe gara, eta bertan ditugu lehenagoko sinesmen, kondaira eta ohituren argitasunak. Norberaren herria ezagutu ahal izateko, zer hoberik ahoz aho etorri zaigun jatorrizko literatura baino?

Gaur, horri begira badugu zer aztertu. Adibidez, Eurogutuna, Europako hizkuntza gutxituen aldeko agiria, Europako Kontseiluak lege proposamenez aurkeztu zuen 1992ko otsailean. Une hartan Eusko Legebiltzarreko Ararteko nintzen eta European Ombudsman Institute erakundeak hizkuntza bat baino gehiago mintzatzen ziren herrialdeetako arartekoak deitu zituen Bonn-eko Legebiltzarrean elkaturik Eurogutunaren berria jaso eta gure iritzia emateko. Han agertu ginen guztiok ahobatez oniritzia eman genion, hizkuntza bat baino gehiago mintzatzen ziren herrialdeetarako oso beharrezkoa zeritzaigunez.

Eurogutun horri Frantziak betoa jarri zion, esanez bere Konstituzioaren bigarren artikuluan frantsesa baizik onartzen ez zuelako. Baina, urte batzuk geroago onartu zuen. Hala ere, bigarren artikulua hori aldatu ezik, Frantziako Estatuaren barnean ez du behar bezalako ahalmenik.



Baina Espainiako Konstituzioak ere bere hirugarren artikulua aldatu behar luke, zeren autonomien esku uzten baitu hizkuntzen ofizialtasuna, eta era horretara, giza eskubide zuzonaren beharrea, elkar aurrez aurre jartzen baikaitu. Horren xehetasunak eman nituen *Giza eskubideen inguruan / En torno a los derechos humanos* (2000) liburuan.

Hala ere, gogoratu beharrezkoa iruditzen zait ETakoek hain era txarrean hil zuten Ernest Lluch zenak Donostiako *El Diario Vasco* egunkarian 2000. urteko martxoaren 25ean hain zentzuz argitara eman zuen "Sin ser nacionalista" izenburuz eskaini zuen artikulua hartan zioena: "Ahora, afortunada y finalmente, Francia ha firmado la Carta Europea de los Derechos de las Lenguas Minoritarias. Una firma que tiene aspectos que rozan la inconstitucionalidad a causa del exclusivismo lingüístico francés en la Constitución. Pese a estas dificultades el actual gobierno ha ofrecido a las escuelas que enseñan vascuence, catalán o bretón en Francia su integración en la red de escuelas públicas con el prestigio que éstas tienen en este país. Lamentablemente las condiciones económicas ofrecidas son insostenibles. Actuar culturalmente, para que esta línea se ensanche, debe ser la escogida como relativamente más eficaz".

Baina hemen, Nafarroan gaudenez, aipatu beharrezkoa iruditzen zait egungo Nafar Gobernuak ez diola jaramonik egiten, ez erregeri eta ezta ere beraien *Lingua Navarrorum* jatorrari. Itsuak ote daude José Goñi Gaztambidek argitaratutako *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona, 829-1243* (1997) liburuaren 269. orrialdean latinez datorren hartaz? Ba, argi eta garbi agertzen da honako hau:

"Erit autem talis differentia inter Orti Lehoarriz et Açeari Umea et successores eorum, quod Orti Lehoarriz faciet ut lingua Nauarrorum dicatur **unaimaizter** et Açeazari Umea faciet **buruçagui**, quem voluerit".

Lekukoen deiturez gainera hor ditugu garbi asko beraien ogibidezko ofizioak latinez *Lingua Navarrorum* zeritzan euskaraz. Eta agiri horren ondotik ulertu ezin duenak, behar bezala jakiteko, euskaraz ikas edo guttienez dakienaren bidez jabetu zer esan nahi duen.

Joseph de Moret nafar historiagileak ere argi utzi zigun bere *Annales del Reyno de Navarra* (1764) zeritzan hartan, lehen liburukiko I. kapituluaren III. atalean, 4-5. orrialdeetan irakur genezakeenez honako hau: "Traen tambien por argumento su Lengua nativa Vasconica, que con ninguna otra de las Gentes, que en las Españas han entrado en numero grande, y que pudiesse imutar el Idioma natural, tiene comercio, ò afinidad alguna. La qual en lo antiguo fue comun de todos los Pueblos Vascones, como el mismo nombre de Vascuence lo dice: y el Rey Don Sancho el Sabio la llamó Lengua de los Navarros".

Horiek ezaguturik, harrigarria iruditzen zaigu Nafarroan euskarari eragozpenak jartzea. Hori, beraien jatorrien aurka egotea baita. Esate baterako, XVI. mendean oraindik Erriberako mugetaraino iristen baitzen *Lingua Navarrorum* zeritzan euskara. Ikus besterik ez dugu Manuel Lakuona zenak Iruñeko katedralaren artxibategian aurkitu eta argitara eman zuen agiri hura: "El Euskera en Navarra a fines del s. XVI", *RIEV*, 1933, 365-374. orrialdeetan.

Eta euskarak geroztik ezagutu izan dituen eragozpenak ekarri zizkigun atzerapen handiak. Eragozpen horien berri eman nuen aipaturiko *Giza eskubi-deen inguruan* liburuko 73-83. orrialdeetan. Baina, hala eta guztiz ere, Nafarroako herri euskaldunek, Nafar Gobernuari aurre egin diote, beraien hizkuntzak bizirik jarrai dezan.

Ezin dugu ukatu, interesgarria zaigula gaztelania bezalako hizkuntza hedatuagoa ezagutzea. Ez goaz horren aurka, baina hain geurea dugun euskara utzi gabe, noski. Gainera, kontuan izan, haurtzarotik bi hizkuntzen jabe denak hirugarren edo laugarren bat errazago ikasten duela. Aldi berean, besteak ikasteaz irekiagoak egiten gaitu mundu zabalera begira.

Guzi hori kontuan izanik, ulerkaitza iruditzen zait Nafarroako Gobernua aurrez aurre aurka jartzea, bai *Lingua Navarrorum* zeritzanari, ONU, Unesco eta Espainiako Erregeak Euskaltzaindia onartzeaz esan zuenarenari ere, batez ere Europako Hizkuntzen urte honetan.

Zeren, 2001. urte hau Europako Batasunak bertako hizkuntzen urtetzat izendatua duenez, guk Euskaltzaindiaren Arautegiari jaramon eginaz eta giza eskubideei dagokien legez, ezin ukapenik eman Europak bere jatorrasuneko duen gure euskara honi.

## **EUSKARAREN EGOERA NAFARROAN: EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA**

1918an Nafarroako Foru Diputazioarekin batera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Diputazioek sortu zuten Euskaltzaindia. 573/1976 Erret Dekretuaren bidez Euskararen Erret Akademia bihurtu zen. Euskaltzaindiaren helburuak, besteak beste, *euskararen eskubideen jagotea, erabilera bultzatzea eta hizkuntza gizarte maila guztietan gai bihurtzeko lan egitea* dira. Erakunde honen estatutuak, orainsu, 272/2000, otsailaren 25eko Erret Dekretuaren bidez aldatuak izan dira. Euskararekiko kontsultetan erakunde ofiziala da eta hizkuntza honen alorrean berari dagokio *ziurtagiriak, argibideak eta diktamenak* eskaini-ematea.

Euskaltzaindiak sorreratik bertatik etengabe jardun du —eta badihardu egun ere— Nafarroako Foru Erkidegoan, euskararen babesa, ikerkuntza eta sustatze lana ziurtatzeko asmoz. Hartara, Nafarroako gobernu erakundeei eman die hizkuntza aholkularitza eta horiek, zeinahi den ere indarreko erregimena, beti erakutsi dizkiote beren abegi eta onginahia, jakinik Euskaltzaindiaren egitekoa edozein lerrakera politiko edo ideologikoren gainetik dagoela.

*Hitzarmen* hau berez eta legez ezezta liteke beste abisurik eta ordainketarik gabe Euskaltzaindia errekarra baledi edo zorrez ito edo epaitegietan suntsi.

### 8. Artikulua: Hitzarmenaren iraupena, berritzea, salakuntza

*Hitzarmen* honek hiru urteren iraupena du 2000.ko urtarrilaren 1.etik haste.

Hiru urteren buruan berbideratuko da errepikatu beharrik gabe.


Elle peut être dénoncée par l'une ou l'autre des parties par lettre recommandée avec accusé de réception, avec un préavis d'un mois.

### Article 9: Reglement des litiges

En cas de litige pour l'application de la présente *convention*, les signataires décident de s'en remettre à la compétence exclusive du Tribunal Administratif de Pau.

Fait à PAU, en 2 exemplaires originaux,

Le 15 décembre 2000.



François Bayrou.


Bainan edozein aldeek hauts dezake *hitzarmena* hilabete bat aitzinetik abisatuz geroz gutun ziurtatu eta hartze agiriadun baten bitartez.

### 9. Artikulua: Eztabaiden antolaketa

*Hitzarmen* honen betetzetik sor litezkeen eztabaiden zuritzeko lana bi aldeek erabakitzen dute Paueko auzitegi administratiboaren gain uztea.

PAUEn egina, jatorrizko bi aldakitan,

2000ko abenduaren 15ean.



Jean Haritschelhar.

**CONVENTION RELATIVE À  
L'ACADEMIE DE LA  
LANGUE BASQUE**

**Avenant 2000 à la convention -  
cadre**

**Article 1**

Le Conseil général des Pyrénées-Atlantiques et l'Académie de la langue basque dans le cadre de la *convention* - cadre triennale qu'ils ont signée, retiennent les modalités de partenariat ci-après, pour l'année 2000:

**Article 2**

L'Académie de la langue basque s'engage à procéder à la publication des ouvrages suivants qui concernent le basque parlé en France:

1. Le tome 2 de l'étude de Pedro de Yrizar *Morphologie du verbe auxiliaire bas-navarrais oriental*.

2. La thèse d'Eugène Goyheneche soutenue en 1966: *Onomastique du Nord du Pays Basque*.

**Article 3**

Pour l'exercice 2000, le Conseil général s'engage à verser une

**EUSKALTZAINDIAREKILAKO  
HITZARMENA**

**2000. urteko gehigarria**

**1. Artikulua**

Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak eta Euskaltzaindiak sinatu duten hiru urteko *hitzarmena*-ren arabera 2000. urteko lankidetzaxede hauek finkatzen dituzte:

**2. Artikulua**

Euskaltzaindiak hitzematzen du argitaratuko dituela Frantzia aldeko euskarari doazkion ikerlan hauek:

1. *Baxenabarre ekialdeko aditz laguntzailearen morfologia* Pedro de Yrizar jaunaren ikerlanaren 2. liburukia.

2. Eugène Goyheneche-k 1996an irakurtu zuen tesia *Onomastique du Nord du Pays Basque*.

**3. Artikulua**


2000. urtearen kontu Kontseilu Orokorrak hitzematzen du **150.000 li-**

subvention de **150 000 francs** au titre du fonctionnement de la délégation de Bayonne de l'Académie de la langue basque et des objectifs énumérés à l'article 2.

Cette somme sera versée sur le compte bancaire de l'Académie de la langue basque.

Fait à PAU, en 2 exemplaires originaux,

Le 15 décembre 2000.




François Bayrou.

**berako** diru laguntza Baionako ordezkariarentzat eta *hitzarmenaren* 2. artikulua zehazten dituen xedetara.

Diru-laguntza hori sartuko da Euskaltzaindiaren banku-kontura.

PAUEn egina, jatorrizko bi aldakitan,

2000ko abenduaren 15ean.



Jean Haritschelhar.





CENTRE NATIONAL DE LA RECHERCHE  
SCIENTIFIQUE (CNRS) - REAL ACADEMIA DE LA LENGUA  
VASCA/EUSKALTZAINDIA  
L'ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



## LANKIDETZA HITZARMENA

Lankidetzta, hitzarmen hau izenpetzen dute, alde batetik,

- **EUSKALTZAINDIAK**

Erakunde honen egoitzaren helbidea delarik: Plaza barria, 15  
48008 Bilbao (Espainia)

eta beste aldetik, IKER, Euskarari eta Euskal Testuei Buruzko Ikerketa Taldearen (UMR 5478, Baiona, zuzendaria: Bernard OYHARÇABAL) izenean diharduten hiru erakunde hauek:

- **CENTRE NATIONAL DE LA RECHERCHE SCIENTIFIQUE (CNRS)**,  
Zientzia eta Teknologia alorreko Erakunde publiko honen egoitzaren helbidea hau delarik: 3, rue Michel Ange, 75794 Paris Cedex 16, SIREN zb: 180 089 013 03720, APE kodigoa: 732Z.
- **UNIVERSITÉ MICHEL DE MONTAIGNE, BORDEAUX III**,  
Zientzia, Lanbide eta Kultura alorreko Erakunde publiko honen egoitzaren helbidea hau delarik: Campus universitaire, 3607 PESSAC CEDEX, SIREN. Zb.: 193 317 666 00017, APE kodigoa: 9803Z.
- **UNIVERSITÉ DE PAU ET DES PAYS DE L'ADOUR**  
Zientzia, Lanbide, eta Kultura alorreko Erakunde publiko honen egoitzaren helbidea hau delarik: Avenue de l'Université, BP 576, 64012 PAU UNIVERSITÉ, CEDEX, SIREN zb.: 19640251500270, APE kodigoa: 803Z.

*Hitzarmen honen finkatzeko:*

- Jean Haritschelhar jauna da EUSKALTZAINDIAREN ordezkaria;
- Geneviève BERGER anderea da CENTRE NATIONAL DE LA RECHERCHE SCIENTIFIQUE erakundearen ordezkaria; hitzarmen hau izenpetzeko ahala Jean-Paul BOISSON, Poitou-Charentes eta Akitania-ko Herrialdeko ordezkariari emana diolarik;
- Frédéric DUTHEUIL jauna da MICHEL DE MONTAIGNE - BORDEAUX III UNIBERTSITATEKO ordezkaria.
- Jean-Louis GOUT jauna, PAUEKO ETA ATURRI ALDEKO UNIBERTSITATEKO ordezkaria.

Hemendik aitzina dokumentu honetan hitzarmenaren lau izenpetatzaileak, **Parteak** deituraren pean izendatuko dira.

### **Ikusirik,**

— IKER Ikerketa taldearen ikergaiak direla, alde batetik, euskal hizkuntzalaritza eta, beste aldetik, euskarazko testuak eta literatura, eta hauek garatu diren gizarte eta historia testuingurua.

— Euskaltzaindiak ikerketak bideratzen dituela eta euskararen dialektologian, lexikografian, gramatikan, filologian eta onomastikan bai eta euskarazko literaturan ere,

— Parteek azken urteetan elkarrekin lan egiten dutela, eta behin baino gehiagotan ekitaldiak antolatu dituztela, hala nola biltzarrak, kolokioak, mindegiak, etab.

### **Hauxe erabakia izan da:**

#### **1. ARTIKULUA - GAIA.**

Hitzarmen honetan mugatuko dira Parteen arteko lankidetzak moduak elkarrekin eginen dituzten lanetan.

#### **2. ARTIKULUA - LANKIDETZA MODUAK.**

Parteek hitzaldiak, lan biltzarrak, mindegiak, formakuntza egunak, etab. antolatzen ahalko dituzte.

Parteek elkarrekin argitaratzen ahalko dituzte liburuak, biltzar aktak, artikulak, etab.

Ikertzaile bisitak eta egonaldiak, eta lan bilkurak erregularki antolatzen ahalko dituzte.

#### **3. ARTIKULUA - DIRUARI DAGOZKION XEHETASUNAK.**

Noiz ere parteetarik bati eskatuko baitaio dirua sartzea zerbaiten antolatzeko, parteak aski goiz bilduko dira ikusteko zer gisaz egiten ahalko den. Beren proposamenak egiten ahalko dituzte erakundeek (Herrialdeetakoak, Ministerioetakoak, Europar Batasunekoak, ... ) proposamen deiak eginen dituztenean. Diru laguntzak ere, pribatuak nola publikoak, hartzen ahalko dituzte.

#### **4. ARTIKULUA - ARDURA ZIENTIFIKOA.**

Hitzarmen honek dirauen bitartean, Bernard Oyharçabal, CNRSeko Ikerketa Zuzendaria izanen da, IKER, ikerketa taldeko arduradun zientifikoa.

Euskal Herriko Unibertsitateko haren lankidea, Jean HARITSCHELHAR, euskaltzainburua, izanen da.

**5. ARTIKULUA - KONFIDENTZIALITATEA.**

Gerta daiteke ikerketa baten karietara parteetarik bat beste partearenak li-ratekeen informazio batzuez jabetzea. Horrelako kasuetan parteek beren burua obligatzen dute beste partearen informazioak konfidentzialitatean atxikitzera.

Halere, gainean esanak ez du eragozpen izan behar:

- ikerketan parte hartzen duten parteek beren lanen berri zehazki emateko zeinek bere gerizako erakundeei.
- *hitzarmen* honekin zerikusik lukeen ikergai batez tesiak aurkezteko eta defendatzeko

**6. ARTIKULUA - IRAUPENA.**

*Hitzarmen* honek 4 urteko iraupena izanen du, 2001eko urtarrilaren 1ean hasirik.

Eranskin baten bidez luza daiteke.

Talence-n egina  
4 jatorrizko testu.

M.J. Haritschelhar

J.P. Boisson

J.L. Gout

M.F. Dutheil

VISA CNRS/SPV



## CONVENTION DE PARTENARIAT

### ENTRE

#### L'ACADÉMIE DE LANGUE BASQUE - EUSKALTZAINDIA

dont le siège est situé : Plaza Barria, 15  
48005 Bilbo / Bilbao (Espania)

représentée par Monsieur Jean Haritschelhar, Président

Ci-après désignée par **Académie de Langue Basque**

**D'une part,**

### ET

**LE CENTRE NATIONAL DE LA RECHERCHE SCIENTIFIQUE (CNRS)**, Établissement Public à caractère Scientifique et Technologique, dont le siège est situé 3, rue Michel Ange - 75794 PARIS CEDEX 16, N° SIREN 180 089 013 03720, Code APE 732Z, représenté par sa Directrice Générale, Madame Geneviève BERGER, laquelle a délégué sa signature, pour le présent accord à Monsieur Jean-Paul BOISSON, Délégué Régional Aquitaine et Poitou-Charentes,

**L'UNIVERSITÉ MICHEL DE MONTAIGNE, BORDEAUX III**, Établissement public à caractère Culturel, Professionnel et Scientifique, dont le siège se situe Domaine Universitaire, 33607 PESSAC CEDEX, N° SIREN 193 317 666 00017, Code APE N° 9803Z, représentée par son président Monsieur Frédéric DUTHEIL,

**L'UNIVERSITÉ DE PAU ET DES PAYS DE L'ADOUR**, Établissement public à caractère Culturel, Professionnel et Scientifique, dont le siège social se situe Avenue de l'Université, B.P. 576 - 64012 PAU UNIVERSITÉ CEDEX, SIREN N° 19640251500270, Code APE N° 803Z, représentée par son Président, Monsieur Jean-Louis GOUT,

Agissant conjointement pour le compte du Centre de recherches sur la langue et l'expression en langue basque (UMR 5478), Université Michel de Montaigne Bordeaux III, 29 Cours Comte de Cabarus, 64100 BAYONNE, dirigé par Monsieur Bernard OYHARÇABAL,

Ci-après désignés par les **ÉTABLISSEMENTS**

**D'autre part,**

L'Académie de Langue Basque, l'Université Michel de Montaigne - Bordeaux III, l'Université de Pau et des Pays de l'Adour, le Centre National de la Recherche Scientifique sont désignés ci-après par les Parties.

**Attendu que:**

- Le centre IKER a pour thèmes de recherche d'une part, la linguistique, spécialisée notamment dans le domaine de la langue basque, et d'autre part, l'étude des textes et de la littérature d'expression basque et le contexte historique et social où ceux-ci se sont développés,
- L'Académie de la Langue Basque travaille dans les domaines de la dialectologie, lexicographie, philologie, onomastique et littérature basques,
- Les Parties travaillent ensemble depuis plusieurs années et ont été amenées à organiser en commun différents types de manifestations (colloques, congrès...).

**En conséquence il est convenu ce qui suit:****ARTICLE 1 - OBJET**

L'objet de la présente convention est de définir les modalités de la collaboration entre les Parties dans le cadre de travaux effectués en commun.

**ARTICLE 2 - MODALITÉS DE COOPERATION**

Les Parties pourront être amenées à organiser des conférences, ateliers de travail, séminaires, journées de formation, etc.

Les Parties pourront publier en commun des ouvrages, des actes de colloques, des articles, etc...

**ARTICLE 3 - MODALITÉS FINANCIÈRES**

Dans le cas où une contribution financière est demandée à l'une des Parties pour l'organisation d'une manifestation, les Parties se réuniront en temps opportun pour en définir les modalités. Elles pourront soumettre une proposition aux appels d'offres de différentes institutions (Conseil Régional, Ministères), recevoir des subventions d'organismes publics ou privés.

**ARTICLE 4 - RESPONSABLES SCIENTIFIQUES**

Pour la durée de cette convention, le responsable scientifique dans le Centre IKER est Monsieur B. OYHARÇABAL, Directeur de Recherche au CNRS.

Son correspondant à l'Académie est Monsieur J. HARITSCHELHAR, Président de l'Académie.



**ARTICLE 5 - CONFIDENTIALITÉ**

Chaque Partie s'engage à garder confidentielles les informations appartenant à l'autre Partie dont elle aurait eu connaissance à l'occasion de la réalisation de l'Étude.

Toutefois, ces stipulations ne pourront faire obstacle :


- ni à l'obligation qui incombe à chacune des personnes participant à l'Étude de produire un rapport d'activité à l'organisme dont elle relève;
- ni à la soutenance de thèse des chercheurs dont l'activité est en relation avec l'objet de cette convention.

**ARTICLE 6 - DURÉE**


La durée de la convention est de 4 ans à compter du 1<sup>er</sup> janvier 2001. Elle est renouvelable par tacite reconduction.

Fait à Talence, le 12 février 2001


En 4 exemplaires originaux




M.J. Haritschelhar



J.P. Boisson



J.L. Gout



M.F. Dutheil



VISA CNRS/SPV



EROSKI-EUSKALTZAINDIA:  
*JAGONET*



## **JAGONETE-n AURKEZPENA ETA EROSKI ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA SINATZEA**

*Bilbo, 2000-XI-30*

*Begoña Larrañaga,  
EROSKI-ko harreman Publikoetarako arduraduna*

Eguerdion, guztioi.

EROSKI Fundazioak ere bere aletxoak jarri nahi izan du Euskaltzaindiak gaur aurkezten duen ekimen honetan. Dirulaguntza bat eman dugu JAGONET erabiliz Euskaltzaindiak, modu arin eta egokian erantzun diezaien egunero jasotzen dituen galdera eta eskakizunei.

EROSKI Fundazioak, bere estatutuen aginduei jarraituz, denbora luzea darama lanean euskararen normalizazioaren alde: hiru liburuki argitaratu ditugu, *Banaketa eta Kontsumo hiztegia*, *Consumer* produktuetan, 3.000 baino gehiago, euskara erabiltzen dugu Estatuko beste hiru hizkuntza ofizialekin batera. Konpromisoa hartu dugu, euskararekiko Konpromisoa hartu dugu Euskararen Kontseiluarekin euskara enpresa barruan zabaltzeko eta abar.

Hauek dira, besteak beste, gure aletxoak euskararen alde. Badakigu, hala ere, epe luzeko lana izango dela, baina gu prest gaude elkarlanean aritzeko.

Euskaltzaindiak JAGONETen egitasmoaren berri eman zigunean, berehala ulertu genuen era horretako tresnek duten garrantzia gizarte aldakor honetan. Eta gure uste apalean, JAGONET, hizkuntza bateratzeko, zabaltzeko eta zaintzeko bidea izan behar da. Baita, bere txikian, gure gizartea hezurramintzen lagunduko duen tresna bat ere.

EROSKI Fundazioan sinestuta gaude, elkarlanean arituz gero, asmoz eta jakitez, aurrera aterako dugula euskara.

Horixe izango da gure ondorengoei utziko diegun altxorrik onenetarikoak.

Hala izan dadila eta mila esker guztioi.



## JAGONETEZ EUSKALTZAINDIAREN ETA EROSKI-ren ARTEKO HITZARMENA

2000.eko azaroaren 30ean, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, alde batetik, Henrike Knörr Borràs euskaltzainburuordeak, Euskaltzaindiaren izenean, eta, bestetik, Begoña Larrañaga Ansolak, Harreman Publikoen arduradunak, EROSKI Kooperatibaren izenean, honako hau azaltzen dute:

1. Euskaltzaindia euskararekiko erakunde ofiziala dela, hala aitortzen dutelarik bai Eusko Jaurlaritzak, bai Nafar Gobernuak, baita Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Diputazioek eta orobat Espainiako Gobernuak, euskara ikerkuntza eta jagote esparruetan bultzatzeko.

2. EROSKI Kooperatiba elkarteak interesa duela Euskaltzaindiaren Jagon Sailak prestaturiko JAGONET egitasmoaren babesean parte hartzeko, hikuntzaren normalizazioan aurrera egiteko.

3. JAGONET Euskaltzaindiak bere hizkuntza arau, irizpen eta aholkuak oro har, *on-line* zerbitzu gisa kudeatzeko sortu duen egitasmoa dela.

4. Bi erakundeen asmoa dela lankidetzaz hitzarmen bat izenpetzea, egitasmo honetan bakoitzaren baliabideen ustiaketa ahalik hobekien burutzeko.

Adierazitako guztiaren arabera honako hau adierazten da:

1. Euskaltzaindiak bere JAGONET egitasmoa abian jarriko duela gaurtik aurrera, horretarako, aurretiaz, urte honetan zehar prestaketa guztiak egin dituelarik.

2. EROSKIk 3.000.000 pta.ko dirulaguntza emango duela, hiru urtetan ordaintzeko, 2000. urtean, 1.000.000 bat; 2001. urtean beste 1.000.000 bat eta 2002an beste 1.000.000 bat.

3. Ordainketa hori JAGONET egitasmoaren WEB-gunean EROSKIren logotipoa *panner* gisa txertatzeagatik izango dela.

4. Ordezkarri bana izendatuko da *hitzarmenaren* xehetasunen jarraipenerako, bidebatez, sor daitezkeen arazoak bideratu ahal izateko.

*Hitzarmen* honen testua irakurri ondoren eta behean aipatzen diren ordezkariak ados egonik, berau sinatzen dute, bi aletan, hasieran adierazitako leku eta datan.

H. Knörr





## JAGONETen AURKEZPENEA

Bilbo, 2000-XI-30  
Henrike Knörr

Jaun-andreak, adiskideak!

Seguru aski, gehiegi erabiltzen da *egun historikoa* deitura, garaiz eta desgaraiz etortzen baitzaie askori ezpainetara. Baina nik esango nuke egun historikoa dela hau, neurri handi batean. Hots, gaur ospatzen dugu –bai, ospatzen, zergatik ez?– Euskaltzaindiaren zerbitzu berria, *Jagonet* bataiatu dena, irekitzea.

Gauza jakina da euskara ari dela azken urte hauetan teknologia berrietan sartzen. Gure Akademia ezin zitekeen bide honetatik landa geldi; aitzitik, aspaldixko jardun dugu nahitezko langintza horretan.

Orok dakite, halaber, Euskaltzaindiak badituela bi Sail: **Jagon** Saila eta **Iker** Saila. *Jagon* horretaz zer esan nahi den garbi dago. Schuchardt handiak, ongi oroitzen banaiz, arrazoa zuen, esan zuenean *jagon* aditzak *eragon* forma duela iturburu. Beraz, *jagon* esaten dugunean, euskara eragotea, etorkizunari begira irautea eta gordetzea esan nahi dugu. Eta gure hizkuntza biziko bada, teknologia berri horietan txertatu beharra da.

Zer esanik ez, jende asko dago teknologia berri horien aurrean, harrimezez eta agurmenez, eta normala da, benetan, mirariak ikusten ditugu. Baina funtsean makineria hori eta teknologia hori lanabesak dira, eta lanabesak zorrotzak edo kamutsak izan daitezke. Gure asmoa, zer esanik ez, lanabes hau zorrotza izatea da. Ordenagailuaren aurrean jarriko denak behar du, jakina, izan prestamena eta argitasuna. Hemen ere esan daiteke perpaus hura, baina pixka bat aldatuaz: *Quod natura non dat, technica non praestat*, edo horrelako zerbait.

Labur, bada, *Jagonetez* Euskaltzaindiak zerbitzua eskaini nahi die euskaldunei, zeinahi den ere bakoitzaren lanbidea. Ezen askotan pentsatzen dugu irakasleentzat, idazleentzako, eta ez besterentzat ari garela. Nabari da hori ez dela horrela. Euskara hedatua dago gizartearen alor guztietara eta, beraz, edozeinek behar ditu zerbitzu hauek.

Berehala ikusiko duzuen lagin honen atzean badago jende asko, eta orain ez naiz hasiko arduradunen zerrenda egiten, zeren zerrendak egiten direnean hutsak gertatzen baitira. Hemen dugu Iñaki Kareaga jauna, informatikaria, eta hark azalduko du xehekiago hau guztia.

Bukatu baino lehen, ordea, neure esker ona agertu nahi diot Eroskiri, Euskaltzaindiaren izenean. Haste-hastetik abegirik onena egin dio egitasmo honi eta guztiz pozik gaude elkarlan honengatik.

Señoras y señores,

Dos palabras para presentar el proyecto *Jagonet*, o quizá mejor dicho, para presentar a los presentadores. He dicho que muchas veces se abusa del concepto de *día histórico*, pero yo estaría tentado en decir que hoy es ciertamente un día histórico. En efecto, porque el euskara hace tiempo que está entrando en las nuevas tecnologías, pero éste es el día en que se presenta la red *Jagonet*, que trata de ofrecer un servicio a todos los euskaldunes, cualesquiera que sean sus profesiones. En efecto, para mucha gente que tiene la tendencia a pensar que lo que hoy presentamos sería solamente para quienes enseñan la lengua o escriben en ella. Eso no es verdad. Hoy nuestra lengua está presente en todos los sectores de la sociedad y *Jagonet* quiere llegar a todos esos sectores.

Es evidente, por otro lado, que en la creación de *Jagonet* ha habido muchas personas. No voy a hacer la lista, porque cuando se hacen listas el peligro es que haya muchos vacíos. El señor Kareaga, nuestro técnico informático, dará las explicaciones correspondientes, lo mismo que la directora de la Sección *Tutelar*, Miren Azkarate, aquí presente.

Quisiera aprovechar la oportunidad para decir una cosa más. No hace mucho leíamos un lamentable artículo en un periódico vascofono. El autor decía que Euskaltzaindia era *Euskaltzantza*, jugando con la palabra *Ertzantza*. Naturalmente, el papel todo lo aguanta y también aguantó esa tontería.

Es sabido que la Academia desea abrir estos caminos para ofrecer el corpus, es decir, todos los textos escogidos de los mejores escritores vascos, los acuerdos que ha tomado, los dictámenes que emite, el Diccionario Unificado, etc. De modo que Euskaltzaindia, que no tiene seguramente las pelucas de las otras Academias, desea, en la medida de sus posibilidades, ofrecer estos servicios modernos, siempre en beneficio del País y de la lengua.

No quisiera dejar de saludar a la representación de la República de Armenia, que está aquí con nosotros, con un *cicerone* inmejorable, como es Vahan Sarkisian, conocido vascoflogo. Les deseo en nombre de Euskaltzaindia una feliz estancia entre nosotros.

Y antes de terminar estas breves palabras, quisiera expresar el profundo agradecimiento de Euskaltzaindia a Eroski, que ampara este proyecto. Sin las ayudas de las instituciones públicas, de un lado, pero también sin el patrocinio del sector privado, no haría Euskaltzaindia muchas cosas. Sepa Eroski que estamos muy reconocidos por su comprensión y por su amparo.

## EUSKALTZAINDIA PRESENTA EL PROGRAMA JAGONET

*José Ramón Zubimendi*

Euskaltzaindia (1919) es la Real Academia de la Lengua Vasca, la institución académica oficial que se cuida del euskera, atiende a las investigaciones sobre la lengua vasca, la tutela socialmente y establece las normas filológicas de su uso.

Euskaltzaindia goza del reconocimiento oficial y de un reconocimiento social generalizado entre la población del País. Todo ello ha propiciado una intensa actividad normativa conducente a la estandarización y modernización de la lengua en la sociedad vascofona, en especial desde 1968.

Euskaltzaindia ofrece en Internet ([www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)) diversos productos y servicios on-line, entre los que destacan la *Normativa Lingüística*, el *Nomenclátor de Apellidos Vascos*, el *Diccionario Unificado*, el *Catálogo de Publicaciones* y la *Antología del Atlas Lingüístico de Euskal Herria*.

Ahora Euskaltzaindia amplía su oferta de servicios on-line con la presentación del programa JAGONET, nombre que designa el conjunto de productos informáticos con el que la Real Academia de la Lengua Vasca va a gestionar las consultas lingüísticas de la ciudadanía en general, pero con especial atención a los sectores profesionales con mayor incidencia en la estandarización y modernización de la lengua (enseñantes, periodistas, traductores...).

JAGONET está diseñado como consultorio lingüístico progresivo e interactivo. Al acceder al programa, la persona que lo consulte se encontrará con un menú que, además de la *Normativa*, el *Nomenclátor* y el *Diccionario Unificado* antes mencionados, le permitirá acceder a la base de datos JAGONET, la cual recoge las respuestas que las pertinentes comisiones académicas vienen dando a la diversidad de consultas que tan frecuentemente llegan a Euskaltzaindia. Si se diera el caso de que la cuestión a consultar no se hallara en la base de datos, entonces la persona interesada podría formular directamente la consulta mediante correo electrónico. Dicha consulta será atendida con la mayor rapidez posible (sin detrimento del rigor académico) por los expertos que la Academia ha designado para ello. En lo referente a los temas a consultar, Euskaltzaindia quiere especificar que JAGONET no es ningún servicio de traducción, ni siquiera un servicio de consulta de terminología específica.

El objetivo que ha impulsado a la Real Academia de la Lengua Vasca a poner en marcha el programa JAGONET es doble: servicio a la ciudadanía y tutela de la calidad del idioma. El programa JAGONET es fruto del trabajo de la Sección Tutelar (*Jagon Saila*) de la Academia, sección presidida por Miren Azkarate (académica de número), y será gestionado por Joxe Ramon Zubimendi (escritor y académico correspondiente).

Dentro del programa JAGONET, Euskaltzaindia ha creado un foro de encuentro virtual (denominado "Plaza Barria"), foro que pretende ser lugar de encuentro de vascólogos y vascófilos, tribuna libre con tema único: la lengua vasca (y las múltiples vivencias, vicisitudes, esperanzas, inquietudes, proyectos, logros, críticas y opiniones que conlleva).

## EUSKALTZAINDIAK JAGONET PROGRAMA AURKEZTEN DU

*Jose Ramon Zubimendi*

Euskaltzaindia hainbat zerbitzu eskaintzen ari da jadanik Internet bidez ([www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)). Besteak beste, honako hauek: Hizkuntza Arauak, *Euskal Deituren Izendegia*, *Hiztegi Batua*, *Argitalpenen Katalogoa* eta *Euskal Herriko Hizkuntza Atlasaren antologia*.

Orain, berriz, Euskaltzaindiak beste zerbitzu bat ere eskainiko du on-line; hain zuzen ere, JAGONET programa: herritarren hizkuntza zalantzak argitzeko kontsulta-zerbitzu informatikoa.

JAGONET euskalgintzan egunero lanean dihardutenei laguntzeko sortu da nagusiki (irakasleei, kazetariei, itzultzaileei, administrazioko langileei...); izan ere, profesional horien lanak sekulako garrantzia baitu hizkuntzaren modernizazioan eta estandarizazioan.

JAGONET, datu-basea batez ere, hizkuntza mailako kontsulta interaktiboak egiteko prestatu da. Bertan, erabiltzaileak eskuragarri izango ditu orain arte jasotako galdera-erantzunak (berrehundik gora): alegia, euskaltzaleen galderak eta Euskaltzaindiak galdera horiei emandako erantzunak. Horrez gainera, erabiltzaileak jakin nahi duena datu-basean ageri ez bada (egundaino inork galdetu gabea delako edo), orduan erabiltzaileak posta elektronikoko bidez galdetzeko aukera izango du. Euskaltzaindia bereziki ahaleginduko da ahalik eta azkarren erantzuten zuzeneko kontsulta horiek; hain zuzen ere, horretarako berriaz izendatu ditu hainbat euskaltzain.

Hala ere, Euskaltzaindiak argi utzi nahi ditu ondorengo bi kontu garrantzitsu hauek:

a) Zuzen eta egoki erantzun beharra lehenagokoa du Akademiak, noiz-nahi ere, azkar erantzun nahia baino.

b) JAGONET ez da itzulpen-zerbitzua. Ez eta terminologiari buruzko galdera zehatzak egiteko kontsulta-zerbitzua ere.

JAGONETek helburu nagusi bi ditu: herritarrak zerbitzatu eta gure hizkuntzaren kalitatea bermatu. Euskaltzaindiko *Jagon* Sailak atera du aurrera JAGONET programa, Miren Azkarate (euskaltzain osoa) izanik sailburu, eta

Akademiak Joxe Ramon Zubimendi (idazlea eta euskaltzain urgazlea) izendatu du JAGONETen arduradun.

JAGONET programan, kontsulta-zerbitzuaz gain, elkargune birtuala ere eratu du Euskaltzaindiak, "Plaza Barria" izenekoak. Euskaltzaleen topagunea izango da "Plaza Barria", eta euskara eta euskararen ingurukoak izango dira bertako mintzagai bakarrak.

Eroski kooperatibak dirulaguntza eman dio Euskaltzaindiari JAGONET egitasmoa aurrera atera ahal izateko.

## **LITERATURA SARIKETAK**





**BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA:  
LITERATURA SARIEN EMANALDIA**

*Bilbo, egoitza, 2000-X-20*



## R. M. AZKUE SARI BANAKETA

*Bilbo, egoitza, 2000-X-20*

*Henrike Knörr,  
euskaltzainburuordea*

Eguerdion.

Duela urtebete, oker ez banaiz, bildu ginen toki honetan bertan eta agian, nire beldurra izango da ez ote ditudan gauza berberak esango. Nolanahi ere, mundu guztiak dakienez edo mundu guztiak jakin beharko lukeenez, Euskaltzaindiak literatura sustatzen du. Ez da hori, noski, gure eginkizun bakarra; oraintxe bertan, etxe handi honetan bildua dago batzorde bat, batzorde hori Onomastika batzordea da eta horren eginkizuna bai leku izenak eta bai pertsona izenak aztertzea, arautzea eta abar da. Filologia eta gero kalean eta bide seinaleetan ikusi beharko genituzkeen izenak zaintzeaz gainera, literatura dugu, beraz, eginkizun. Euskaltzaindiak bere lehendabiziko Arautegian garbi zeukan jarria literatura behar zela bultzatu eta sustatu eta hor dago fruitu bat. Beraz, literaturaren alorrean, dakizuen bezala, bi sail ere ditugu: alde batetik, esan dezagun literatur sari normalak, beharbada izen hori ez da oso egokia, zuek baino idazle zaharragoek presentatzen dituzte beren lanak eta sarizatzen dira edo ez. Eta gero dago, beraz, idazle gazteen saila eta guk oso pozik ikusten dugu bigarren sail hau, zeren ongi dago idazle helduak izatea, baina beti, edozein hizkuntzak behar ditu, noski, kimu berriak. Iaz ere esan nuen eta garbi adierazi nire kezka: batzuetan, badirudi inguruan ikusten dugun irakurzaletasuna ez dela nahiko genukeen hainakoa. Beraz, ematen du, bai kalean, bai fakultateetan, bai institutuetan, badela horrelako, ez dut esango mespretxua, baina badirudi liburua ari dela galtzen, gure bizitzan eduki beharko lukeen muin zentrala, esan dezagun. Eta orduan gure eginkizuna zein den badakizue.

Literatura bultzatu behar bada, Kirikiñok duela 80 urte esaten zuen bezala, has-teko obra errazak eskaini behar dira eta horregatik, dakizuen bezala, ipini zien bere ipuinei *Abarrak* izena. *Abarrak* zergatik? sua ez da egiten, besterik gabe, enbor handi batekin, baizik eta abar txikiekin eta, orduan, gure Kirikiño handiak bere ipuinak idaz-terakoan, ipini zien *Abarrak* izena. Beraz, behar da bultzatu, baina ez literatura eta no-bela edo eleberrri lodikote aspergarriekin, baizik eta gauza errazekin ere bai.

Beraz, berriro ere agertu nahi dut nire poza, baina nire poza agertzeaz gainera, beste zerbait agertu behar dut eta da gure esker ona. Beraz, sari hauek ez lirateke eman-gu, ez bagenu, noski, diru babesle betikoa, nolabait esateko. Gu ez gara betikoak, ez gara izango betikoak, baina beti izan dugu BBKren laguntza eta orain da momentu eta tenorea eskertzeko. Eta eskerrik asko BBKri.



**R.M. AZKUE SARIAK.**  
**BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA**

*Bilbo, 2000-X-20*

*Juan Otaegi*

*R. M.<sup>o</sup> Azkue* sariak urtean-urtean emanak dira Euskaltzaindia eta BBKren eskutik. 1999koek behin berriz erakusten dute irakaskuntzan egiten den lanaren handia: kalitatearen bilaketa, irudimenaren mundurako irekiera, hizkuntzaren erabilera naturala, fikziozko istorio eta hizkuntzaren erregistroen hautatze, moldatze, taiutze lana.

Nerabezaroko intuizio eta sorkuntza ahalmenek, estetika sentsibilitatearen arloko fruitu onak eskaintzen dizkigute, bai ume eta gaztetxoentzat, bai gazte eta helduentzat gustagarri direnak. Gainera, aldi berean, mundu ikuskera estetikoaren benazkotasunean berean, sendo ageri da munduaren ikuskera etikoa.

Urte batzuk badira “Azkue” sarietako epaimaikideoi, egia esan, ernetzen datozen idazleen narrazio eta olerkien kalitateak poz eta atsegina sortzen digutela askotan, beste epai eginginez askok bezainbat bai.

Baina zilegi bekit gurari bat hemen plazaratzea: bizkaieraren senetik beretik sortutako lan gehiagok “Azkue” sari hauek eskaintzen duten euskararen ostadar koloretzu eta distiratsua edertu egingo lukete.

Halaz ere, pozik ikustekoa da sarituek eskaintzen duten Euskal Herriko geografia.

**A maila, narrazioa:** Antton Alberdi (12 urte), Elgoibarkoa.

Jon Fernández (13 urte), Ondarroakoa. Eneko Pérez (13 urte), Lasarte-Oriakoa.

**A maila, olerkia:** Jon Jiménez (13 urte), Tafallakoa. Naiara Izagirre (11 urte), Azpeitikoa. Ane Egidazu (12 urte), Durangokoa.

**B maila, narrazioa:** Ander Audikana (16 urte), Gasteizkoa. Jon Lekuona (17 urte), Zeraingoa. Miren Imaz (17 urte), Beasaingoa.

**B maila, olerkia:** Unai Baztarrika (17 urte), Beasaingoa. Uxue Alberdi (15 urte), Elgoibarkoa. Munia Iriondo (16 urte), Donostiakoa.

Gaur, halaz ere, B mailako bi lehen sarituei baizik ez diegu egingo begiradaxo bat:

— OB (Olerkia, B maila. Lehen saria). *Gaur ere ez naz jaioko*. Unai Baztarrikak egina.

Etsian bizi den fikziozko poetaren ikusmundua eskaintzen zaigu: ume abortatua-rena. Etsipen sentimendu mundu horretatik ez da aldentzen poemaren joanean; baina sekuentzia jokoia ondo eraikia dago.

Bertso askean emana da. Paraestrofak ondo egituratuak daude, poemak bere progresioan erakusten duen bezala. Irudi literarioetan ere ondo somatzen da poemaren progresio hori. Pausoz pauso, sorpresak eskaintzen ditu irudi poetikoek sentimendu bera sakontasun berriz adierazten baitute.

Hizkera ondo erabilia. Ez du nekerik behar dituen esamoldeak poemara ekartzeko, irudiak espresabide egokiz jazteko.

— NB (Narrazioa. Lehen saria). *Ostadarraren koloreetan zehar*. Ander Audikak egina.

Fikzioa ur tanta baten irudian kokatua dago. Benetan iradokiorra da batez ere hasieran. Irudimenez betetako kontaketa. Tarteka egiten dituen gogoetak ere interesgarriak dira. Bai eta ur tanta eta ostadarraren joko gurutzatua ere. Lehen pertsonan kontatua da. Batzutan eraikieraren haria zerbait galtzen bada ere

Halako denbora betikoaren gurpilaren ardatzean gabiltzan sentsazioa sortzen du. Bizitzaren zikloaren etengabeko errepikazioaren aurrean gauden ustea datorkio irakurleari. Ikuskera eta sentsazio atsegina. Urak ez dira mehatxu: ur tanta gozamen, kolore, xarma da. Bada malko eta negarra ere, baina guztia da bizi-kolore. Protagonista eta kontalari da ur tanta bera, eta irakurlearekin hizketan ari den sentsazio atsegina sortzen du.

Kontaktaren isuria oso ondo eramana da, batez ere hasieran, hizkuntzaren erritmo biziaren gainera, lexikoaren erabilera, testu osoaren kalitatea azpimarragarria da.

## **AZKUE LITERATUR SARIAK: 1999KO LIBURUA ETA 2000KO OINARRIAK**

*Bilbo, 2000-X-20*

*Joserra Bilbao,  
BBK - Elebitasun Zerbitzuko Burua*

Eguerdi on guztioi, mahaikide, kazetari, idazle gazte, euskaltzain eta lagunoi.

Urtero lez, aurton be, euskal literatura gaztearen ganeko barriak emotera gatoz. Lehenengo, aurtengo Azkue Literatur Sarien oinarrien barri emongo dogu, eta gero, iaz irabazle izandako idazlanakaz egindako liburua aurkeztuko dogu.

Oinarriok eskuetan dozuen foiletan datoz. Dana dala, zehaztasunik nabarmenena azpimarratuko dodaz.

Adinari jagokonez, maila bi dagoz. Bata 10-13 urte bitartekoentzat eta 14-17 bitartekoentzat bestea. Arloak be bi dira, narrazinoa eta olerkia. Adin eta arlo bakoitzean 3 sari dagoz, 50, 40 eta 30.000 pezetakoak eta laguntzaileek be euren saritxoa dauke, 10.000koa. Beraz, guztira 600.000 pezeta gitxi gorabehera.

Epeak beste aldetik, haonexek dira: aurkezteko, aurtengo abenduaren 16ra arte. Gero epaimahaiak hilabete bi hartuko dauz lanok aztertzeo eta epaia datorren urteko zezeila edo otsailaren 28rako emongo da.

Idazle gazteei gogoratu gura deutsegu, lanak makinaz edo inprimagailuz idatzirik etorri behar dirala, eta, ez ahaztuteko, saritu bako lanak apurtu egingo dirala; beraz, jatorrizkoa gordetzea komeni dala, norberaren gobernurako.

Aitatu beharrekoa da, "Azkue" sariak, Euskaltzaindia eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioaren artean egiten dirala. Euskaltzaindia, arlo literarioaz arduratzen da, hau da, epaimahaiak eta liburuaren prestaketa dagoz beraren esku, eta BBK-k antolakuntzaren eta diru-horniketaren ardurea dauko. Eta lankidetzaz modu hau ona dala esan beharko dogu, ze orain dala 40 urte baino gehiago hasi eta oraindino bizirik dagoalako.

Ekitaldiaren bigarren atalean lan sarituak biltzen dituen liburua aurkeztuko dogu. Hau sari gehigarri moduan egiten da, ze, idazle gazteok, beharbada, lehengo aldiz ikusiko dabez euren izen eta idazlanak libur baten argitaratuta. Zorionak bada, bataio antzeko honengaitik. Liburuan, ihazko lan irabazleak eta epaimahaiaren ustez argitaratzea merezi eben beste batzuk sartzen dira, eta hau guztia antolatzen eta prestatzen, Jon Otaegi irakasleak jardun dau. Beraz, eskerrik asko berari be, gazteakaz hain eskuzabal jokatzegaitik.

Beste barik, eskerrik asko.





**BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA:  
LITERATURA SARI BANAKETA:  
*OLERKIA, ANTZERKIA, ELEBERRIA, SAIOA***

*Bilbo, egoitza, 2000-XII-15*



## **BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA LITERATUR SARIAK: 2000 SARI BANAKETA**

*Bilbo, 2000-XII-15*

*Joserra Bilbao,  
BBK-Elebitasun Zerbitzuko Burua*

Eguerdi on jaun-andreok.

Aspaldion, urtean birritan alkartuten gara hemen, euskal literaturaren atxakian. Bata, gaurkoa lako egunean, Txomin Agirre, Toribio Altzaga, Felipe Arrese eta Mikel Zarate sariak emoteko. Bestea, udabarri aurrean, idazle gazteei jagoken Azkue sariak banatuteko.

Instintoz, gura izan barik, idazleak nongoak begiratuten dogu. Ez dakit nik hau herrialdekeria ala herrialdetasuna dan. Dana dala, behin baino gehiagotan konturatu izan naz, gaztetxoek sariketetan, gaurko honetan baino dibertsidade geografiko handiagoa egoten dala, Euskal Herriko herrialde guztietako ordezkariak izaten dirala. Hutsunea egotekotan, iparraldeko haurrideena izaten da, ulertzekoa, parte hartzaileen adina kontuan hartzen badogu.

Gehienetan, giputzak izaten dira nagusi, ez dago zertan esan, baina gaurkoan bizkaitarrak nagusi jakuz, sarioi izena emoten deutesen idazleen proportzino berean, hiru bizkaitarrak (Txomin Agirre –Ondarroa–, Felipe Arrese –Otxandio– eta Mikel Zarate –Lezama– eta bat giputza, Toribio Altzaga –Donostia–). Esanak esan, zorionak bihoitz-bihotzez, Aitor Arana, Juan Karlos del Olmo, Juan Ramon Madariaga eta Patxi Juaristiri eta ea hurrengo batean be alkartuten garan bertan.

Herrialdekeriaz berba egingo baneu, poztekoa dala esango neuke, bizkaitarra nazen aldetik, baina herrialdetasunari leku egiten badeutsat, ez da hain atsegina. Itxaropena, betiko moduan, gazteengan jarri beharko dogu.

Bertsolaritzan be holako zeozetarantz goazala esan leike, lehengo piramide estuari oinarria zabaltzen joan jakon heinean, Euskal Herri osoko bertsolariak agertu diralako, baita arabarrak be.

Eta bertsolaritza aitatu, gogoratu, domekan, Bizkaiko txapelketaren finala izango dogula Euskalduna jauregian. Seguru gagoz, jauregia bete egingo dala eta bertsolariak eskainiko deuskuen produktua, jokalekuaren neurrikoa izango dala.

Beste barik, Gabon jai zoriontsuak guztioi.



## **BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA: LITERATURA SARIAK**

*Bilbo, 2000-XII-15*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Jaun-andreak, agur eta eguerdi on. Barkamena eskatzen dizuet lehenik, berant etorri bainaiz, baina banuen zerbait egiteko eta beharrezko baitzen, pixka bat berantarekin etorri naiz. Eta, beraz, nire sarrera mintzaldia izanen da bukaera mintzaldia.

Lehenik nahi nituzke esker bizienak eman gure laguntzaileei eta dirua ematen dutenei, ikusten baitut hor zenbait milioi emanak direla, gehiago dena, gero, horiek agertuko direla eta denek badakigu, pixka bat idazten dugunok, badakigu liburu baten kaleratzea zerbait dela, egiazko sortze bat dela, lehenbiziko jaiotzea egiten da idazten delarik, baina ez baldin bada kaleratzen, kanporat jalgitzen, besteak erraiten zuen bezala, ez dela ezer hor. Beraz, hemen ditudan jende horiek nahi ditut osoki agurtu lehenik eta denbora berean esker bizienak eskaini ere.

Zorionak zuei, bai irabazle izan zaretenoi, eta pozten naiz ikustea lauak hor izan zaretela sarituak, erran nahi baita, ez dela utzi debaldetan sari bat. Horrek erran nahi du, alde batetik, lan onak zirela, zeren eta, dakizuen bezala, egon dira sari batzuk eman gabe, epaimahaikideek pentsatu baitzuten ez zela eman behar eta Euskaltzaindiak kalitatea ere zaindu behar baitu. Beraz, zuon sari horiek, eta zuek sari hori irabazteak erakusten du kalitate oneko lanak aurkeztu dituzuela. Beraz, zorionak, zuoi.

Eta nahi nituzke ere eskertu, epaimahaietan izan diren 12ak, Eugenio Arozena, Daniel Landart, Patri Urkizu –hemen ikusten baitut–, gero, Gorka Aulestia ere hemen da, Txomin Peillen, Ana Toledo, Mikel Lasas, Lourdes Otaegi, Jon Kortazar, Andolin Eguzkitza, Adolfo Arejita eta Xabier Altzibar. Horiek ere bere gain hartu dute liburu horien irakurtzea, nola erran nezake, behar den bezala aztertzea, ikustea ze mami ona zeukaten, eta, beraz, horrek ere galde egiten baitu, ez bakarrik lana, baina denbora ere; beraz, nahi ditut Euskaltzaindiaren izenean bihotzetik agurtu.

Eta agurtzen dut eta eskerrak emaiten prentsari ere, gaur baitakit hor direla; haien beharra ere badugu, argi eta garbi erraiten dut, haien beharra badugula, hemen gaude-la, beti, heientzat irekiak eta Euskaltzaindiak eta BBKk elkarrekin ematen duten sari horiek zerbait baitira. Beraz, heien presentzia ere azpimarratzen dut hemen. Nik ikusten dut honekin denak erranak ditudala, ez dudala nehor ere ahazten, eskerretan, zorionetan. Eta, beraz, bukatutzat ematen dut gure goizeko ekitaldi hau. Egun on denoi.



## LITERATURA SARIAK 2000

*Bilbo, 2000-XII-15*

Gaur, 2000ko abenduaren 15ean, Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutzak antolatutako Literatura Sarien emaitzak jakitera ematen dira. Ondoko hauek izan dira irabazleak, sariak, eta epaimahaikideak:

**Txomin Agirre Saria. Eleberria:** Aitor Arana, *Historia lazgarria*.

Saria: 1.300.000 pta.

Epaimahaikideak: Eujenio Arozena, Daniel Landart, Patri Urkizu.

**Toribio Altzaga Saria. Antzerkia:** Juan Karlos del Olmo, *Aldi joana, joana*.

Saria: 800.000 pta.

Epaimahaikideak: Gorka Aulestia, Txomin Peillen, Ana Toledo.

**Felipe Arrese Beitia Saria. Olerkia:** Juan Ramon Madariaga, *Amodioa batzue-*

*tan*.

Saria: 800.000 pta.

Epaimahaikideak: Mikel Lasa, Lourdes Otaegi, Jon Kotazar.

**Mikel Zarate Saria. Saioa:** Patxi Juaristi, *Euskal Herria globalizazioaren*

*aurrean*.

Saria 1.000.000 pta.

Epaimahaikideak: Andolin Eguskitza, Adolfo Arejita, Xabier Altzibar.

## AITOR ARANA LUZURIAGA

### TXOMIN AGIRRE SARIA. ELEBERRIA

#### “HISTORIA LAZGARRIA”

Gure gizartean bada gizaki mota bat, oso urria eta ezezaguna, hartaz gutxitan oroitzen garena. Nekrofiloa deitzen zaio. Hilobi-lapurra ere dei geniezaioke, eta bakarren batek Hermes jainkoaren bidelaguna dela esan lezake. “Historia lazgarria” liburuan us-tezko hiru nekrofilo aurkituko ditugu, bi gizon eta emakume bat, hildakoen egiazko lagunak direnak. Gizaki bitxi hauen sentimenduak, bizimodua eta elkarren arteko harremanak ezagut daitezke hor, beti ere, hilerrietako eta gorputegietako giro lasai eta zuruean.

#### Aitor Arana

Aitor Arana (Legazpi, 1963). Hamazazpi urterekin idazten hasia. Lau urtez (1983-1987) euskara irakasle izana Legazpiko AEK eta Udal Euskaltegian. XUT literatur aldizkariko lankide eta arduraduna. Sei urtez Legazpiko HOTS kultur aldizkariko lankide eta zenbait urtez arduraduna.

#### Liburu sortuak:

*Azkonarren laguna* (Elkar, 1987), *Loaren bidez* (SM, 1990), *Afrikako semea* (Elkar, 1991), *Jainko Txikia* (Elkar, 1994), *Ipuin lizunak* (Kriselu, 1994), *Urtegi misteriotsua* (Elkar, 1994), *Ipuin ilunak* (Kriselu, 1995), *Buztantxoren larrialdiak* (Elkar, 1996), *Haize gorria* (Kriselu, 1996), *Uxue eta Urtzi* (Ibaizabal, 1997), *Gaueko ortzadarra* (Pamiela, 1997), *Nijterida eta Koomori saguzarrak* (Ibaizabal, 1998), *Herauskorritse* (Mensajero, 1998), *Onan* (2000, Txalaparta), *Ipuin-entzulea* (2000, BBK Fundazioa - Txomin Agirre saria, 1999. urtean), *Atharratzeko erregina* (2000, Hiria), *Erregina bahitua* (2000, Edebe-Giltza), *Josu, Asier eta...* (2000, Mensajero).

#### Itzulpenak:

Memorajhoj de euska bobino (1999, Asun Irazza SL - B. Atxagaren “Behi euskaldun baten memoriak” esperantoz), Bervalen gertatuak (2000, Hiria - Esperantotik euskarara zuzenean itzulitako lehen liburua, jatorriz, Louis Beaucairek idatzia).

#### Sariak:

Bilintx (1997), Baporea (1989), Azkue (1990), Txomin Agirre (1999).



**JUAN KARLOS DEL OLMO SERNA**  
**TORIBIO ALTZAGA SARIA. ANTZERKIA**

**ALDI JOANA, JOANA**

Talde batek Joana Albretekoaren gaineko antzezlanak prestatzen dihardu ikusleentzako. Egoera: XVI. mendea, Nafarroako erresuma zaharra bi zatitan bortzax banaturik. Nafarroa Beherean emakume bat agintari. Erreinu txikia, Espainiako eta Frantziako gorte boteretsuetako erregeek akuilaturik. Erresuma protestantea erresuma papistek inguratua. Eskualde euskalduna hizkuntza frantsesak eta espainolak mugaturik. Munta handiko galdera erantzukizun: Nola hil zen benetan Joana Labrit? Pozoiturik, Dumasek eta beste batzuek esan bezala, ala tisiak jota? Tartean Leizarraga eta lehenengo euskal itzulpena. Tartean Nostradamus eta Joanaren semeari iragarri zion etorkizun zorionsua. Tartean, antzezleek alkarrekiko harreman eta liskarrak. Eta Biblia. Eta Erdi Aroko antzezleentzako egitura. Eta Aita Santuaren eskumikua. Baita betiko galduko zen aldi batekiko bihotz mina ere. Nonbait, egun Euskal Herriak bizi duen egoeraren oihartzuna dakarrela.

**Juan Karlos del Olmo**

Juan Karlos del Olmo (Barakaldo, 1958). Ikasketez, maisua eta euskal filologoa, Lanbidez, itzultzaile-interpreteta. Irakaskuntzan (Muskizko ikastola, Gabriel Aresti euskaltegian) eta antzerkigintzan (Barakaldoko Udalaren "Taller de Teatro Estable" delakoan zuzendaria) jardun eta gero, 1993ko martxotik aurrera "itzultzaile-interpreteta" Donostiako Udalean.

Euskara ikasteko liburu batzuk argitaratu eman ditu, besteak beste, "Berbetan 4 (ikaslearen liburua)", Bilbao, 1990; "Berbetan 4 (irakaslearen liburua)", Bilbao, 1990; "Berriketan 3 (ikaslearen liburua)". Bilbao, 1992.

Bestalde, hainbat artikulu ere idatzi du Euskal Herriko aldizkari batzuetan: "Zientzi Fikzioa" (Entseien aldizkaria, elkarlanean, Deustuko Unibertsitatea, Bilbao, 1979); "12 urratsok direla eta" (*Ele* aldizkaria, AEK, Bilbao, 1990); "Nola irakatsi gramatika" (*Ele* aldizkaria, AEK, Bilbao, 1992); "-na konpletiboa Fray Bartolomeren Ikaskizunetan" (elkarlanean, *ASJU*, 1994); "Hitz eztiak mihia zaurtzen ez dik. Zenbait gogoeta kalifikazioaren gainean" (*Senez* aldizkaria, 1996); "Itzultzailea ugazaba biren morroia" (*Senez* aldizkaria, 1998); "Zertan dira administrazioako itzultzaileak" (*Jakin* aldizkaria, 1999).

1995.ean *Irlandako amonaren ipuinak* liburua argitaratu zuen. Eta 1998. urtean *Toribio Alzaga Antzerki Saria* jaso zuen, *Jon gurea, Parisen hatzana* lanagatik.

## JUAN RAMON MADARIAGA ABAITUA

### FELIPE ARRESE BEITIA SARIA. OLERKIA

#### AMODIOA BATZUETAN

Udagoienaren unerik gorenean lurra begiratu behar dugu udagoiena bera zer den ulertu ahal izateko. Lurraren gainean orbela kausituko dugu errenditurik. Esan deza-kegu adabakiz beteriko udagoiena ikusten dugula urteko. Orbelaz gain, adurenean, hai-zete, eurite, araba-zozo, lantzean behineko elur lotsati, eta agian ikustezin gertatzen zaizkigun beste ekintza xumeei esker, badaukagu guk betiko definituriko udagoiena. Baina gehiago ere izan liteke.

Udagoienean nola, hala agitzen da amodiaren estratan ere. Derrotaz, ardurez, so-frikarioz, poztasunez beterik agertzen zaigu amodioa. Batzuetan ilarra bezain borobi-la, besteetan animalia baten aladurak bezain iraunkorra.

Ezustean amodioaren eszenak identifikatzen, sailkatzen, saiatu zen olerkaria, *Amodioa batzuetan* izeneko poemarioa sortu zen arte.

#### Juan Ramon Madariaga

Juan Ramon Madariaga (Bilbo 1962). Euskal filologia ikasi zuen Deustuko Uni-bertsitatean. Gaur egun bertan dihardu irakasle.

1988an, Bizkaiko Foru Aldundiko olerki saria irabazi zuen Imentzioaren *Pergamuak* (1989) izeneko poema-bildumarekin. Harrezkero beste hiru liburu palzaratu ditu: *Galera Errepikatuak* (Susa, 1992) eta *Elaien Ausardia* 'Imajina Euskadi' saria izan zena 1991.ean (In Neguko Antzarak, Deustuko Unibertsitatea, 1993). Gero, *Argia sortzen den izartegia* plazaratu zuen (Alberdania 1996). Azken obrari esker 1997ko Kritika Sa-ria eman zioten.

Joan den urtean *Ultimísima Poesía Española Antología, Milenio* izeneko liburuan plazaratu zituzten gaztelaniaz jarritako bere poema batzuk.

**PATXI JUARISTI LARRINAGA****MIKEL ZARATE SARIA*****EUSKAL HERRIA GLOBALIZAZIOAREN AURREAN***

Globalizazioa hitzetik hortzera eta ahotik belarrira bolo-bolo dabilen kontzeptua bada ere, ez dago horren ondorioei buruzko adostasunik.

Batzuentzat, globalizazioak pentsamentu bakarra, inperialismo ekonomikoa, homogeneizazio kulturala eta, ondorioz, estaturik gabeko herrien desagertzea ekarriko ditu.

Besteentzat, globalizazioan sortzen ari diren teknologia berrien hedapena herri txikien mesedetan izango da.

Saiaketa honetan, ikuspuntu nagusi bi hauek aurkezteaz gain, globalizazioak Euskal Herriko demografian, ekonomian, politikan, kulturen zein baloreengan izango dituen eraginak aztertzen dira. Era berean, globalizazioaren aurrean prestatuturik egoteko hartu beharko liratekeen zenbait erabaki estrategiko ere aurkezten dira.

**Patxi Juaristi Larrinaga**

Patxi Juaristi Larrinaga Markina-Xemein-en jaio zen 1967. urtean. Soziologian Doktorea da (1995). 1990-1993. urte bitartean ikerlariak trebatzeko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko beka bat izan zuen. Tesia egiteko prozesuan Galeseko Bangor Unibertsitatean (1992), Texas-eko A&M Unibertsitatean (1993) eta Nevada-Renoko Unibertsitatean (1994) ikerlari gisa aritu zen.

1998. urtean irakasle gonbidatua izan zen Idaho-ko Unibertsitatean. Gizarte zientzien metodologiari buruz eta Euskal kultura eta euskara, gutxiagotutako hizkuntzak eta euskaldunen baloreei buruzko zenbait ikerketa, artikulua eta liburu argitaratu ditu; nabarmentzekoa da beste hiru idazlerekin landutako "Euskal alfabetatzearen historia zenbait sortzaileren ahotan" (Labayru).

1993. urtetik Euskal Herriko Unibertsitateko Estatistika eta Ikerketa Tekniken irakasle da Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean.

## AITOR ARANA LUZURIAGA

### PREMIO TXOMIN AGIRRE. NOVELA

#### *HISTORIA LAZGARRIA*

Uno de los seres –escasos y desconocidos– que pueblan nuestra sociedad es el necrófilo. Reparamos poco en su existencia. También podría ser llamado ladrón de tumbas y, seguro, más de uno diría que es amigo del dios Hermes. En el libro *Historia lazgarría (Una historia terrible)* encontramos a tres supuestos personajes de gustos necrófilos, dos hombres y una mujer, sinceros amigos de los cadáveres. El autor nos cuenta en esta historia los sentimientos de estos seres extraordinarios, sus modos de vida y las relaciones que mantienen entre ellos.

#### **Aitor Arana**

Aitor Arana (Legazpi, 1963). Comienza a escribir a los diecisiete años. Ejerce como profesor de euskera entre los años 1983 y 1987 en AEK y en el euskaltegi municipal de Legazpi. Participa en calidad de responsable en la revista literaria *XUT*. A lo largo de seis años ha sido redactor, y también director, de la revista cultural de Legazpi *HOTS*.

#### Obra literaria:

*Azkonarren laguna* (Elkar, 1987), *Loaren bidez* (SM, 1990), *Afrikako semea* (Elkar, 1991), *Jaïno Txikia* (Elkar, 1994), *Ipuin lizunak* (Kriselu, 1994), *Urtegi misteriotsua* (Elkar, 1994), *Ipuin ilunak* (Kriselu, 1995), *Buztantxoren larrialdiak* (Elkar, 1996), *Haize gorria* (Kriselu, 1996), *Uxue eta Urtzi* (Ibaizabal, 1997), *Gaueko ortzadarra* (Pamiela, 1997), *Nijterida eta Koomori saguzarrak* (Ibaizabal, 1998), *Herauskorritse* (Mensajero, 1998), *Onan* (2000, Txalaparta), *Ipuin-entzulea* (2000, Fundación BBK - Premio Txomin Agirre, 1999), *Atharratzeko erregina* (2000, Hiria), *Erregina bahitua* (2000, Edebe-Giltza), *Josu, Asier eta...* (2000, Mensajero).

#### Traducciones:

Memorajhoj de euska bovino (1999, Asun Irazza SL - *(Behi euskaldun baten memoriak*, de Atxaga, en esperanto), Bervalen gertatuak (2000, Hiria - primer libro traducido directamente del esperanto al euskara. Escrito por Louis Beaucair).

#### Premios:

Bilintx (1997), Baporea (1989), Azkue (1990), Txomin Agirre (1999).

## JUAN KARLOS DEL OLMO SERNA

### PREMIO TORIBIO ALTZAGA. TEATRO

#### ALDI JOANA, JOANA

Imaginemos que un grupo de teatro intenta montar una obra de teatro sobre la reina Juan de Albret, última del Reino de Navarra en Ultrapuertos, impulsado en parte por un enigmático pasaje de una obra de Dumas. Tendrán entre manos diversos materiales para ir construyendo la trama y dando vida a los personajes. Juan de Albret, mujer que reinó en un pequeño dominio en el que la mayoría de los súbditos se expresaban en euskara o en bearnés. Un reino protestante entre reinos papistas y hegemónicos, tanto política como lingüísticamente. Reina, mujer de letras, campeona de su religión, impulsora de la traducción al euskara, madre... mujer, ser humano, en una palabra. Los actores y actrices verán cómo sus propias relaciones se van entreverando con los distintos pasajes de la obra. Una gran incógnita histórica –¿cómo murió Juana de Albret, envenenada o víctima de la tisis y del estrés?– y una situación histórica que guarda grandes similitudes con el actual momento de Euskal Herria. Sin olvidar que Nostradamus y la Matanza de la Noche de San Bartolomé también tienen un especial significado en la trama.

#### Juan Karlos del Olmo

Juan Karlos del Olmo (Barakaldo, 1958). Maestro y filólogo, dedica su actividad profesional a la traducción e interpretación de textos. Después de haber dedicado varios años a la enseñanza (Ikastola de Muskiz, euskaltegi Gabriel Aresti) y al teatro (como director del “Taller de Teatro Estable” municipal de Barakaldo) a partir de 1993 ocupa el puesto de traductor-intérprete en el Ayuntamiento de Donostia.

Es autor de varios métodos de aprendizaje de euskara: *Berbetan 4* (libro del alumno), Bilbao, 1990; *Berbetan 4* (libro del profesor), Bilbao, 1990; *Berriketan 3* (libro del alumno), Bilbao, 1992.

Asimismo, ha escrito numerosos artículos en diversas revistas del País Vasco. Zientzi Fikzioa” (revista *Entseia*, vv.aa., Universidad de Deusto, Bilbao, 1979); “12 urratsok direla eta ” (revista *Ele*, AEK, Bilbao, 1990); “Nola irakatsi gramatika” (revista *Ele*, AEK, Bilbao, 1992); “-na konpletiboa Fray Bartolomeren ikaskizunetan” (vv.aaa., ASJU, 1994); “Hitz ezetik mihia zaurtzen ez dik. Zenbait gogoetan kalifikazioaren gainean” (revista *Senex*, 1996); “Itzultzailea ugazaba biren morroia” (revista *Senex*, 1998); “Zertan dira administrazioko itzultzaileak” (*Jakin*, 1999).

En 1995 publicó el libro *Irlandako amonaren ipuinak* y en el año 1998 recibió el Premio Toribio Altzaga de Teatro que otorgan Euskaltzaindia y Bilbao Bizkaia Kuxta, por su obra *Jon gurea, Parisen hatzana*.

**JUAN RAMON MADARIAGA ABAITUA****PREMIO FELIPE ARRESE BEITIA. POESIA****AMODIOA BATZUETAN**

En los momentos álgidos del otoño, debemos fijar nuestras miradas en la tierra, para poder comprender de verdad en qué consiste el otoño. Entonces hallaremos la hojarasca sobre la tierra. Podemos decir que todos los años asistimos al espectáculo de un otoño repleto de remiendos. Además de la hojarasca, generalmente, vientos, lluvias, estorninos, a menudo la tímida y ocasional nieve. Gracias a éstos y, acaso, a toda una serie de fenómenos humildes y sencillos que pasan desapercibidos, nos hacemos con nuestro propio concepto de otoño. Pero éste puede ser mucho más.

Al igual que el otoño, también el amor discurre por sus propias sendas. El amor se nos aparece lleno de derrotas, remordimientos, sufrimientos, alegrías. El poeta escribió diversos momentos del amor y así surgió el poemario *Amodioa batzuetan*.

**Juan Ramon Madariaga**

Juan Ramon Madariaga (Bilbo 1962). Estudió Filología Vasca en la Universidad de Deusto, donde en la actualidad es profesor.

En 1988 ganó el Premio de Poesía convocado por la Diputación Foral de Bizkaia, con el poemario *Imentzioaren Pergamuak* (1989). Con posterioridad, ha publicado tres libros más: *Galera Errepikatuak* (Susa, 1992) y *Elaien Ausardia*, que recibió el Premio 'Imagínate Euskadi', 1991. Más tarde publicó *Argia sortzen den izartegia* (Alberdania 1996). Esta última obra le valió el Premio de la Crítica de 1997.

El pasado año se publicaron varios de sus poemas, traducidos al castellano, formando parte del libro *Milenio*, Antología de la Últimísima Poesía Española.

## PATXI JUARISTI LARRINAGA

### Premio Mikel Zarate. Ensayo

#### *EUSKAL HERRIA GLOBALIZAZIOAREN AURREAN*

El concepto de la globalización se ha convertido en tema de muchas conversaciones, habitual en numerosas puestas en común. Sin embargo, no existe consenso en torno a sus consecuencias.

Para algunos globalización es sinónimo de pensamiento único, imperialismo económico, homogeneización cultural y, como consecuencia de todo ello, capaz de traer consigo la desaparición de los pueblos sin estado. Para otros, sin embargo, la expansión de las nuevas tecnologías que surgen de la mano de la globalización acarrearán consecuencias positivas para los pueblos pequeños.

En este ensayo se abordan estos dos puntos de vista. Asimismo, se analizan las consecuencias que la globalización puede tener sobre Euskal Herria, en ámbitos diversos como la demografía, la economía, la política, la cultura y los valores de diversa índole. Por fin, se detallan algunas de las decisiones estratégicas que habría que tomar de cara a estar preparados ante la globalización.

Patxi Juaristi Larrinaga nació en Markina-Xemein en 1967. Es Doctor en Sociología (1995). Entre los años 1990-1993 disfrutó de una Beca de Investigación otorgada por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Realizó la tesis en la Universidad de Bangor, en Gales (1992), en la Universidad A&M de Texas (1993) y en la Universidad de Nevada-Reno, en las cuales desempeñó trabajos de investigación.

En 1998 fue Profesor Invitado en la Universidad de Idaho. Ha publicado diversos trabajos de investigación, artículos y libros sobre metodologías de las ciencias sociales, sobre cultura vasca y euskara y acerca de las lenguas minorizadas y los valores de la sociedad vasca; cabe destacar el libro escrito de forma conjunta con otros tres autores *Euskal alfabetatzearen historia zenbait sortzailearen ahotan* (Labayru).

Desde 1993 ejerce de profesor de Estadística y Técnicas de Investigación en la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación de la Universidad del País Vasco.





**R. M. AZKUE LITERATURA SARIAK: 2000**

*Bilbo, egoitza, 2001-III-09*  
(16. edizioa)



## 2000ko R.M. AZKUE SARIEN BANAKETA

*Bilbo, egoitza, 2001-III-09*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Egun on. Ikusiz areto honetan dauden gazteak, uste dut hemen denok gaztetzen ari garela eta horrek pozten nau osoki.

2000. urteko literatura sariak egun emaiten ditugu. Dakizuen bezala, Euskaltzaindiak eskaintzen ditu urtero zenbait sari, Txomin Agirre eleberriarrena, Toribio Alzaga antzerkiarrena, Felipe Arrese Beitia olerkiarrena eta Mikel Zarate saioarrena, BBKren laguntzarekin. Baina eskaintzen ditu ere R.M. Azkue literatur sariak eta izen hori eman diegu, Resurrección María Azkue izan baita lehenbiziko euskaltzainburua, 1919tik 1951ra arte. Eta, dudarik gabe, jakinez nola jokatu den R.M. Azkue euskarari buruz, pentsatu genuen hobe zela sari horiek emaita eskoletan, ikastoletan diren haurrei, horien saritzeko, bultzada bat emaitako euskarari eta sailkatuz ttipi-ttipiak direlarik edo gaztetxoak direlarik.

Pozten naiz, zeren eta 307 lan etorri baitira Euskaltzaindira aurten A eta B maila horietan, eta hain zuzen 150 A mailan eta 157 B mailan, esan nahi baita oreka zaindu dela. Nahi dut erakutsi ere lan horietarik 141 Gipuzkoatik heldu direla, erran nahi baita, kasik erdia, 95 Nafarroatik heldu direla eta bereziki, Zizur Txikiko San Fermin Ikastolatik (hain zuzen, iaz, han ginen, eta ikusten dut bere ondorioak ukan dituela). Gero 55 Bizkaitik, eta hemen pozten nauena, 11 heldu direla Iparraldetik eta 5 Arabatik. Iaz, nire kezka agertu nuen, Iparraldekoa izanez, erranez nolaz ez zen nehor ere agertu Iparraldetik; eta orduan pentsatu genuen zerbait egin behar genuela, eta Iparraldeko ordezkaritzatik igorri zen informazioa; ikusi dugu, beraz, oiharzun bat izan dela Iparraldean, etorri direla lanak, eta ez bakarrik etorri, baina irabazle batzu ere ba-direla haien artean.

Nahi nituzke hemen eskerrak bihurtu, lehenik BBKri; bere laguntza, diruzko laguntza emanez noski, elgarrekin lan on bat egiten dugu, eta pentsatzen dut segituko dugula hola eta luzaz. Eskerrak ere, urtero edo aspaldi honetan gurekin lanean ari direnei, epamahaikoei; hauek dira A mailan: Amagoia López de Larruzea, Manu López Gaseni eta Gerardo Markuleta; B mailan: Joseba Butron, Joan Otaegi eta Jabier Kaltzakorta. Horiek aztertu dituzte, beraz, 307 lan, ez baita gutxi, eta uste dut eskerrik be-roenak merezi dituztela.

Nahi nituzke ere eskertu hemen ikastoletan, beste eskoletan, lizeo edo ikastetxetan lanean ari diren irakasleak; irakasle horiek betetzen dute artoski beren eginbidea. Lan ona egiten dute euskarari buruz. Eta nola ez, gero, eskertu eta zorionak eman saridun guztiei. Hasiak zarete euskaraz idazten; otoi, segi ezazue, eta jakinik lan eta lan dela idaztea, bereziki behar den bezala idaztea; horretan segitzen baldin baduzue, zuek izanen zarete biharko idazleak. Zorionak, beraz, zuei eta eskerrik asko.



## **AZKUE LITERATUR SARIAK: 1999ko EPAIA**

*Bilbo, egoitza, 2001-III-/09*

*Joserra Bilbao,  
BBK: Elebitasun Zerbitzuko Burua*

Lagun agurgarriok, eguerdi on:

Mahaikideok, barria hartzera etorri zarien kazetariak, eta zelan ez, idazle gazteak eta horien laguntzaile/bultzatzaile jaun andreak. Eguerdi on guztioi.

Lehenengo eta behin, iaz ekintza honetan esan nebana gura neuke irakurri barriro: “Gure asmoa beti izan da sariketa hau Euskal Herri osora zabaltzea. Halan eta guzti be, oraingoan, parte hartze handia izan arren, apur bat hankamotz geratu gara, Iparraldeko haurrideen idazkirik ez dogulako hartu. Ea datorren urterako hutsune hau konpontzen dogun.”

Bada, guztion poztasunerako, Anboto Marik edo ez dakit zein maitagarrik entzun eban nire eskaerea, eta hona hemen Iparraldeko haurrideak. Haiek esango leukien moduan, etorri bere “trumilka” etorri dira, gaztetxuen mailan, narrazino alorreko hiru sariak eurenganatura. Zorionak, Joana, zorionak, Arantza eta zorionak, Maitena, eta “ongi jin” Euskaltzaindiaren etxe nagusira, euskaldun guztiona, bai zuona eta bai gurea dan etxe honetara.

Zorionak baita be beste irabazle guztiei. Kontuan izan, orain hartu dozuen saria, sariaren parte bat baino ez dala, ze beste zatia, idazlanak argitaratzen diranean eta zuen ahalegina liburu bihurtuta ikusten dozuenean hartuko dozue. Hau datorren udagoienean, datorren udazkenean, izango da.

Aurtengo partehartzea inoizkorik oparoena izan da, eta euskal eskualde guztietatik bialdutako lanak hartu doguz. Poztekoa da. Baina honetan zerikusi handia izaten dabe, danok dakigun moduan, idazle gazteon irakasle bultzatzaileak. Zuek, saritxo bat eskuan dala joango zarie etxera, baina argi geratu bedi hori ez dala ezer egiten dozuen ahaleginagaz parekatuz. Eskerrik asko hain adin gatxean dagozan gazteak, hain arlo gatx baina politera erakartzeagaitik, literatur zaletasuna zabaltzeagaitik.

Hemetik hilabete gitxira egongo gara barriro lan sarituak bilduko dauan liburua aurkezteko eta datorren urteko sariketako oinarrien barri emoteko. Ordurarte, ondo izan eta eserrik asko Bilbao Bizkaia Kutxaren izenean.



**R. M. AZKUE SARIAK**  
**A mailako epaimahaiaren**  
**bilera-agiria**

*Gasteizen, 200leko martxoaren lean*

2001. urteari dagokion Azkue sariko A mailako epaimahaia bildurik, aurkeztutako lanak aztertu eta haien literatura balioez solastatu eta gero, Manu López Gaseni, Gerardo Markuñeta Gutiérrez eta Amagoia Lopez de Larruzeak osatutako epaimahaiak honako lanak saritzea erabaki du:

**LAN SARITUAK**

**Ipuinak**

Lehen saria: 72 zk. "Bakea"

Bigarren saria: 88 zk. "Dirua, beti dirua!"

Hirugarren saria: 94 zk. "Kasu, berehala da mundua sorginen menpe"

**Poemak**

Lehen saria: 3. zk. "Lo zorroan"

Bigarren saria: 37. zk. "Zu / Bidaia / Ametsa"

Hirugarren saria: 41. zk. "Zain nago"

Epaimahaiak bereziki azpimarratu nahi du ipuinen sailean izandako partehartzearen kalitatea, batez ere nabarmendurik bere lanetan ekialdeko euskara darabilen idazleño-talde baten partaidetza.

Talde horren falta somatu da, ordea, poesiaren arloan. Nabari da, bestalde, epaimahaiaren ustez, euskal ikastegietan poesia pittinka-pittinka bere lekua hartuz doala. Irakurle finetatik sortu ohi dira idazle finak, eta sekretu gutxi dago horretan.





## **R. M. AZKUE LITERATURA SARIAK 2000**

- Aurtengo edizioan iazko partaidetza gainditu egin da.
- A mailako hiru sarituak, narrazio alorrean, Kanboko Xalbador Kolegiokoak dira.

Gaur, ostirala, martxoaren 9an, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan 2000.ko, Resurreccion Maria Azkue Literatura Sariak, banatu dira. Euskaltzaindiak berak eta Bilbao Bizkaia Kutzak antolatzen dituzten sari hauek idazle gazteak literatura mundura erakartzeko asmoz sortuak dira.

Jakina denez, sariek bi lan mota onartzen dituzte euren baitan, narrazioa eta olerkia. Eta, adinari begira, bi maila dituzte: A maila, 1987, 1988, 1989 eta 1990ean jaiotakoentzat; eta B maila, 1983, 1984, 1985 eta 1986an jaiotakoentzat. Hauxe dugu aurtengo edizioan izan den partaidetza kopurua:

A mailan, olerkian, 51 lan aurkeztu dira.

A mailan, narrazioan, 99.

B mailan, olerkian, 40.

B mailan, narrazioan, 117.

Orotara, beraz, 307 lan aurkeztu dituzte Euskal Herri osoko gaztetxoek. Horrek esan nahi du partaidetzak gora egin duela, iazko edizioarekin konparatuz, joan den urtean 266 narrazio eta olerki bidali baitzituzten idazle gazteek.

### **Epaimahaikoak**

Urtero bezala, aurtren ere literatura eremuko pertsona adituek osatu dituzte epaimahaiak, beti ere Euskaltzaindiak izendatuta. Aurtengo epaimahaikoak hauek izan dira:

A mailan: Amagoia Lopez de Larruzca, Manu Lopez Gaseni eta Gerardo Markuleta.

B mailan: Joseba Butron, Joan Otaegi eta Jabier Kaltzakorta.

### **Irabazleak**

A mailako epaimahaikoek honako sari hauek emateko erabakia hartu dute:

#### **Narrazio alorrean**

Lehen saria: "Bakea", Joana Anchordoqui Erviti. Kanboko Xalbador Kolegioko ikaslea da. Laguntzaile: Pruden Sudupe Azkune.

Bigarren saria: “Kasu, berehala da mundua sorginen menpe!”, Arantza Camus Etxekopar, Kanboko Xalbador Kolegiokoa. Laguntzaile: Pruden Sudupe Azkune.

Hirugarren saria: “Dirua, beti dirua!”, Maitena Duhalde de Serra, Kanboko Xalbador Kolegiokoa. Laguntzaile: Pruden Sudupe Azkune.

### **Olerki alorrean**

Lehen saria: “Lo zorroan”, Eñaut Aiartzaguena Brabo. Iurretako Juan Orobiogoi-tia BI-H-ko ikaslea da. Laguntzaile: Gaizka Zabarte Lasuen.

Bigarren saria: “Zu-bidaia-ametsa”, Mireia Buenetxea Eizagirre, Azpeitiko Urola Ikastolakoa. Laguntzaile: Mikel Sarasua Imaz.

Hirugarren saria: “Zain nago”, Ander Garmendia Arzallus. Azpeitiko Urola ikastolakoa. Laguntzaile: Mikel Sarasua Imaz.

B mailako epaimahaikoeak, berriz, honako erabakiak hartu dituzte:

### **Narrazio alorrean**

Lehen saria: “Izenik gabeko beste bat”, Iratxe Esnaola Aldanondo, Donostiako Santo Tomas Lizeoko ikaslea.

Bigarren saria: “Azken malkoak ote?”, Ixiar Zubiaurre Bengoetxea, Beasaingo Txindoki Alkartasuna Institutukoa. Laguntzaile: Joxean Otaegi Lasa.

Hirugarren saria: “Berasa edo zalantzaren apologia”, Ander Audikana Arriola. Gasteizko Ikas-Bidea Ikastolakoa da. Laguntzaile: Julen Berasaluze Iza.

Maila honetan hainbat akzesit eman dute epaimahaikoeak:

- “Gorpu hila”, Iratxe Esnaola Aldanondo. Donostiako Santo Tomas Lizeokoa.
- “Abelio”, Haize Maiztegi Landa. Irungo Pio Baroja Institutuko ikaslea. Laguntzaile: Pilar Urkia.
- “Oraindik”, Iraitz Agirre Aranguren. Arrasateko Almen Ikastolakoa.
- “Denborak ezin du ohiturekin”, Irati Arostegi Urreta. Beasaingo Txindoki Alkartasuna Institutukoa. Laguntzaile: Jon Agirre.

Lan hauek guztiak argitaratuak izango dira.

### **Olerki alorrean**

Lehen saria: “Argitasunez ihintzatutako gaua”, Irati Goikoetxea Asurabarrena. Beasaingoa. Laguntzaile: Ekaitz Goikoetxea Asurabarrena.

Bigarren saria: “Iraganaz omen gaude eginak...”, Eider Zubelzu Loyarte. Donostiako La Salle Institutukoa. Laguntzaile: Patxi Ezkiaga Lasa.

Hirugarren saria: “Bakardadearen irri galdua”, Odei Arregi Izagirre. Azpeitiko Ikastolako ikaslea. Laguntzaile: Ainhoa Negeruela Izagirre.

Kasu honetan epaimahaikoek ondoko lanentzat akzesita eta argitaratuak izatea eskatzen dute:

- “Gure arbasoek...”, Laura Asensio Merino. Donostiako La Salle Institutukoa. Laguntzaile: Patxi Ezkiaga.
- “Bakardadearen hotsa”, Uxue Alberdi Estibaritz. Elgoibarko Bernardo Ezenarro Institutukoa. Laguntzaile: Andres Alberdi.
- “Bizitzaren amildegieta”, Odei Arregi Izagirre. Azpeitiko Ikastolako. Laguntzaile: Ainhoa Negeruela.
- “Fa bemol (edo bizitzarena)”, Ander Audikana Arriola. Gasteizko Ikas Bidea Ikastolako. Laguntzaile: Julen Berasaluze.
- “Gaztaina-saltzailearen bizipenak”, Jon Agirre Ojanguren. Zornotzako Andra Mari Ikastolako. Laguntzaile: Itziar Aiarza.

## Partaidetza

Idazle gazteek ikastetxeen bidez igorri dituzte euren lanak. Institutuek, herri-eskolek, ikastolek eta ikastetxe pribatuek hartu dute parte dagokigun edizio honetan.

Esan bezala, 307 lan aurkeztu dira. Horietatik 141 Gipuzkoatik heldu dira. Nafarroatik, berriz, 95 lan igorri dituzte. Arabatik 5 lan. Bizkaitik 55 lan. Eta Iparraldetik 11 lan aurkeztu dira.

Betiko legez, azpimarragarria da ikastetxe batzuen partaidetza. Gipuzkoan, esaterako, Beasaingo Txindoki Alkartasuna Institutuak 21 lan bidali ditu; Beasaingo Loizabazpe Ikastetxeak, berriz, 14; Donostiako Usandizaga Peñaflorida Ikastetxeak beste 14; Donostiako La Sallek 12; eta Legorretako Ugaso Herri Ikastetxeak 11 lan aurkeztu ditu.

Iparraldean, Xalbador Kolegioak hartu du parte, bereziki, Literatura sarietan. Eta ondo hartu, gainera, A mailako narrazio alorreko hiru sari nagusiak hango ikasleentzat izan baitira.

Araban, 2 lan Gasteiztik heldu dira eta beste 3 La Puebla de Labarcatik igorri dituzte.

Bizkaian, Iurretako Juan Orobiogoitia Ikastetxeak 29 lan aurkeztu ditu eta Zornotzako Andra Mari Ikastolak, aldiz, 9 lan.

Nafarroan Zizur Txikiko San Fermin Ikastolako partaidetza azpimarragarria izan da, hango ikasleek 86 lan aurkeztu dituzte eta.



## PREMIOS LITERARIOS R. M. AZKUE 2000

- Esta edición ha superado la participación del pasado año.
- Los tres premiados en la categoría A, en el apartado de narración, son del Colegio Xalbador, de Kanbo.

Hoy, viernes, 9 de marzo, en la sede de Euskaltzaindia de Bilbao se ha procedido a hacer públicos los nombres de los ganadores de los Premios Literarios Resurrección María Azkue del año 2000. Estos premios fueron creados por la propia Academia de la Lengua Vasca y por Bilbao Bizkaia Kutxa para fomentar la creación literaria entre los escritores más jóvenes.

Los premios Azkue están divididos en dos categorías: categoría A, para los chavales nacidos en los años 1987, 1988, 1989 y 1990; y categoría B, para los nacidos en los años 1983, 1984, 1985 y 1986. En cada categoría se admiten dos géneros literarios, narración y poesía. Estas son las cifras de participación correspondientes a esta edición:

Categoría A, poesía: 51 trabajos presentados.

Categoría A, narración: 99.

Categoría B, poesía: 40.

Categoría B, narración: 117.

En total se han presentado un total de 307 trabajos; lo cual significa un notable aumento de participación respecto a la anterior edición de los premios, puesto que entonces los jóvenes escritores enviaron un total de 266 trabajos literarios.

### Jurados

La composición de los Jurados ha sido la siguiente:

Categoría A: Amagoia Lopez de Larruzea, Manu Lopez Gaseni y Gerardo Markuleta.

Categoría B: Joseba Butron, Jon Otaegi y Jabier Kaltzakorta.

### Premiados

El Jurado de la categoría A ha acordado otorgar los siguientes premios:

#### Narración

Primer premio: "Bakea", de Joana Anchordoqui Erviti, del colegio Xalbador, de Kanbo. Ayudante: Pruden Sudupe Azkune.

Segundo premio: “Kasu, berehala da mundua sorginen menpe!”, de Arantza Camus Etxekopar, del colegio Xalbador, de Kanbo. Ayudante: Pruden Sudupe Azkune.

Tercer premio: “Dirua, beti dirua!”, de Maitena Duhalde de Serra, del colegio Xalbador, de Kanbo. Ayudante: Pruden Sudupe Azkune.

### **Poesía**

Primer premio: “Lo zorroan”, de Eñaut Aiartzaguena Brabo, del Instituto Juan Orobiogoitia de Iurreta. Ayudante: Gaizka Zabarte Lasuen.

Segundo premio: “Zu-bidaia-ametsa”, de Mireia Buenetxea Eizagirre, de la ikastola Urola de Azpeitia. Ayudante: Mikel Sarasua Imaz.

Tercer premio: “Zain nago”, de Ander Garmendia Arzallus, de la ikastola Urola de Azpeitia. Ayudante: Mikel Sarasua Imaz.

El Jurado de la categoría B, por su parte, ha acordado los siguientes premios:

### **Narración**

Primer premio: “Izenik gabeko beste bat”, de Iratxe Esnaola Aldanondo, del Liceo Santo Tomas de Donostia/San Sebastián.

Segundo premio: “Azken malkoak ote?”, de Ixiar Zubiaurre Bengoetxea, del Instituto Txindoki Alkartasuna de Beasain. Ayudante: Joxean Otaegi Lasa.

Tercer premio: “Berasa edo zalantzaren apologia”, de Ander Audikana Arriola, de la ikastola Ikas-Bidea de Vitoria/Gasteiz. Ayudante: Julen Berasaluze Iza.

Asimismo, el Jurado ha decidido otorgar accésits y recomendar la publicación de las siguientes obras:

- “Gorpu hila”, de Iratxe Esnaola Aldanondo. Del Liceo Santo Tomas de Donostia.
- “Abelio”, de Haize Maiztegi Landa. Del Instituto Pío Baroja de Irun. Ayudante: Pilar Urkia.
- “Oraindik”, de Iratitz Agirre Aranguren. De la ikastola Almen de Arrasate .
- “Denborak ezin du ohiturekin”, de Irati Arostegi Urreta. Del Instituto Txindoki Alkartasuna de Beasain. Ayudante: Jon Agirre.

### **Poesía**

Primer premio: “Argitasunez ihintzatutako gaua”, de Irati Goikoetxea Asurabarrena De Beasain. Ayudante: Ekaitz Goikoetxea Asurabarrena.

Segundo premio: “Iraganaz omen gaude eginak...” de Eider Zubelzu Loyarte. Del Instituto La Salle de Donostia. Ayudante: Patxi Ezkiaga Lasa.

Tercer premio: “Bakardadearen irri galdua”, de Odei Arregi Izagirre. De la ikastola de Azpeitia. Ayudante: Ainhoa Negeruela Izagirre.

También en esta ocasión el Jurado concede accésit a las siguientes obras, cuya publicación recomienda:

- “Gure arbasoek...”, Laura Asensio Merino. Del Instituto La Salle de Donostia. Ayudante: Patxi Ezkiaga.
- “Bakardadearen hotsa”, Uxue Alberdi Estibaritz. Del Instituto Bernardo Eze-narro de Elgoibar. Ayudante: Andres Alberdi.
- “Bizitzaren amildegietan”, Odei Arregi Izagirre. De la ikastola de Azpeitia. Ayudante: Ainhoa Negeruela.
- “Fa bemol (edo bizitzarena)”, Ander Audikana Arriola. De la ikastola Ikas-Bi-dea de Gasteiz Ayudante: Julen Berasaluze.
- “Gaztaina-saltzailearen bizipenak”, Jon Agirre Ojanguren. De la ikastola Andra Mari de Zornotza. Ayudante: Itziar Aiarza.

## Participación

En esta edición han sido presentados 307 trabajos literarios. De ellos 141 provienen de Gipuzkoa, 95 de Nafarroa, 5 de Araba, 55 de Bizkaia y 11 de Iparralde.

Como ya ha sido habitual en otras ediciones, resulta especialmente relevante la participación de determinados centros educativos. Así, y en el territorio de Gipuzkoa, el Instituto Txindoki Alkartasuna de Beasain ha enviado 21 trabajos; el centro Loizabazpe de Beasain ha hecho lo propio con 14; el centro Usandizaga Peñaflorida de Donostia ha enviado otros 14; La Salle de Donostia, 12; y el centro escolar Ugaso de Legorreta ha presentado 11 trabajos.

Desde Iparralde, el Colegio Xalbador de Kanbo ha presentado varios trabajos, con magníficos resultados, puesto que ha conseguido los tres primeros premios en la categoría A de narración.

En Araba, 2 trabajos han llegado desde Gasteiz y otros 3, desde La Puebla de Labarca.

En Bizkaia, el centro Juan Orobiogoitia de Iurreta ha enviado 29 trabajos y la ikastola Andra Mari de Zornotza, 9.





**LIBURU AURKEZPENA:**

***EIBAR ETA ELGETAKO TOPONOMASTIKA***

(ONOMASTICON VASCONIAE, 21)

*Elgeta, 2000-XII-21*



## **EIBAR ETA ELGETAKO TOPONOMASTIKA**

*Patxi Basauri,  
Elgetako alkatea*

Jaun/andre agurgarriok:

Ezaguna da Juan San Martinek hainbat arlotan egindako lana zabala bezain garantzitsua dela, eta, horregatik, guretzat lan horien artean berezia da esku artean dugun liburua: *Eibar eta Elgetako Toponomastika*. Toponomástica de Eibar y Elgueta. Eta berezia da, alde batetik, bere lanaren zabaltasun horretan lekua izan duelako bere jaioterriaren eta jatorriaren gaineko ikerketa lanak egiteko, eta horren emaitzetako bat dugu liburu hau, benetan eskertzen dugun lana. Eta berezia da, bestaldetik, iragana, oraina eta etorkizuna lotzen dituelako.

Iragana, liburu honek toponimia gordetako gure herriko oroitzapen historikoaren zati bat berreskuratzen duelako. Oraina, toponimia hori behar bezala bildu eta jasota gelditzen delako, oraindik ere toponimia hori bizirik dagoen garai honetan. Eta etorkizuna, bilketa eta ikerketa lan hori egin ondoren, lanaren emaitza erabilgarri izango zaigulako eta eskura izango dugulako bai guk bai datozen belaunaldiek.

Azkenik, esan behar dut Eibar eta Elgeta artean beti izan dela harreman estua, eta ziur naiz elkarlanean eta Kutxaren laguntzarekin argitaratutako liburu honek launduko duela aurrerantzean ere horrela izan dadin.

\* \* \*

Es conocido el extenso y a la vez importante trabajo realizado por Juan San Martín en diversos campos, y por ello, para nosotros es especial el libro que tenemos entre manos: *Eibar eta Elgetako Toponomastika*. Toponomástica de Eibar y Elgueta. Es especial, por una parte, por haber tenido tiempo, dentro de su amplia labor, para la investigación de temas relativos a su lugar natal y orígenes, fruto del cual es este libro. Por lo que no nos queda más que darle nuestras más sinceras gracias. Y es especial, por otro lado, porque en este libro se unen el pasado, el presente, y el futuro.

El pasado, porque en la toponimia se recupera nuestra memoria histórica. El presente, porque se ha recogido y guardado de forma eficaz nuestra toponimia, ahora que todavía está viva. Y el futuro, porque después de la labor de recogida de datos e investigación, el trabajo realizado nos será de gran utilidad y tanto nosotros como las futuras generaciones tendremos a nuestra disposición el fruto de dicho trabajo.

Por último, me gustaría añadir que siempre ha existido una relación intensa entre Eibar y Elgeta, y espero que la colaboración para la publicación de este libro junto con Kutxa sirva para estrechar aún más la relación entre los dos pueblos.



# **EIBAR ETA ELGETAKO TOPONOMASTIKA**

## **LIBURUAREN AURKEZPENA**

*Maria Jose Telleria Etxeberria,  
Eibarko kultura eta  
euskerako zinegotzia*

Eguerdi on eta eskerrik asko bertan zagozien danori neure eta Eibarko Alkatearen partetik, bera ezin izanda etorri eta.

Hori esanda, zorionak eta eskerrik asko esan behar, lehenengo Juanitori egin daben biharragaitik eta Euskaltzaindiari be eskerrak hau liburuau bere bilduma ofizialean argitaratzeko aukeria emotearren.

Toponomastika liburu hau interesgarria da, bai Eibarko Udalarendako eta baita herrixandako be. Alde batetik, geure ondarearen eta oroimen historikoaren zati inportantienetako bat: deituren jatorriak, euskalkiaren ñabardurak, sena eta bestelako hainbat berezitasun berreskuratu eta dibulgatzeko aukeria emoten deuskulako eta, bestetik, lehendik eginda daukagun *Eibarko Hiri toponimia* liburuaren jarraipena eta lan osagarria dalako.

EIBAR  
ETA ELGETAKO  
TOPONOMASTIKA

TOPONOMÁSTICA  
DE EIBAR Y  
ELGETA


JUAN SAN MARTÍN



EIBARKO UDALA



ELGETAKO UDALA

 **kutxa** *gizarte-ekintza  
obra social*

Horrez gain, begitantzen jata ikerketa eta konsultarako be balio dabela izenen bilakaera linguistikoa agertzen dalako eta, bestela be, izen ofizialak eta ipintzeko be erreferentzia bat gehixago eukiko dogulako. Alde horretatik zerbitzioa emotia guretako interesgarrixa da.

Amaitzeko gaiakin egoki datorren Toribio Etxebarriaren bertso bat irakurriko deusuet:

Beizabal eta Egoarbitza  
Otolá et Olerria  
Mandiola eta Gorosta  
Arrate eta Akondia  
Loixola, Azittaiñ, Aixa  
Eta Kifiarra billia.  
Zeren itxuria zuek  
Han balitza erderia  
Eta orde, aintzakotzat b'ez  
Gurasuen euskera.  
  
Zorionak eta eskerrik asko.

## **HIL BERRIAK**





## AITA LUIS VILLASANTE KORTABITARTE JOAN ZAIGU (1920-2000)

Bilbo, 2001-IV-27

Aita Luis Villasante Kortabitarte Gernikan jaio zen 1920ko martxoaren 28an eta Arantzazun hila da 2000garreneko abenduaren 2an.

Gaztetxo zelarik, Frantziskotarren Ordenan sartu zen. Lehen ikastaroak Arantzazun egin zituen (1931-1934) eta jarraian Foruan (1935-1936). Hurrengo urtean egin zen fraide. Gerra ondoan Filosofia ikasketak burutu zituen Oliten. Han hasi zen Jose Benito Mendiaren eraginez euskararekin arduratzen. Gero, 1944tik 1947ra arte, Teologia ikasketak Comillas-ko Unibertsitatean burutu zituen.

1945ean ordenatu zen frantziskotar fraide eta handik bi urtera Teologia irakasle izendatu zuten Arantzazuko frantziskotarren komentuan, 1978ra arte. Aldi berean euskarazko irakaskuntzan arduratsu. Bere ustez, euskara Euskal Herriko ondore ezaugarria zen.

Euskaraganako lan eta jokabideengatik, 1951n euskaltzain izendatua izan zen. Gainera, 1970eko irailetik 1988ko abendura arte Euskaltzainburu. Bere merezimen-  
duengatik, 1992an omenez eskaini zion Euskaltzaindiak askoren artean osaturiko *Iker-6* liburuki gotorra. Hor bertan, A. Villasanteri zuzenean dagokion lan ezaugarria iruditzen zait J. A. Arana Martija euskaltzainak eskaini zion "Luis Villasanteren bio-bibliografia" deritzan lana, 11-87. orrialdeetan.

Euskara idatziaren batasunaz asko arduratu zen, haren maisu edo gidaritzat Kol-  
do Mitxelena zuela, norengan jarri baitzuen konfidantza osoa.

1986. urtean lehen aldiz antolatu ziren eta gero argitaratu *I. Onomastika Jardu-  
naldien agiriak. Toponimia* haien aurkezpenean idatzi zuen "Toponimia-Jardunaldiak".  
Ikus *Onomasticon Vasconiae* saileko 4. liburukiaren 17-23. orrialdeak.

Ez zen sartzan politika arloko ideologia arazoetan eta beti lan eredugarriak eraku-  
tsiz eta bultzatuz ahalegindu zen. Hor daude agerian haren lanak, erlijioaz gainera, eus-  
kara eta euskal literaturaz burutuak gure Herriaren zerbitzurako hain eredugarri direnak.

Lankidetzan zenbait saiaketa eta artikulua argitaratu zituen honako aldizkari haue-  
tan: *Aránzazu, Anaitasuna, Euskera, Gernika, Euzko-gogoa, Egan, Cantabria Fran-  
ciscana, Scriptorium Victoriense, Miscelánea Comillas, Bol. de la R. S. V. de los Ami-  
gos del País, Gure Herria, Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de  
Urkijo", Fontes Lingvae Vasconvm, La Gran Enciclopedia Vasca, Verdad y Vida, Ja-  
kin, Gran Enciclopedia de Navarra*, Euskaltzaindiaren Iker saileko liburuetan eta abar.  
Horietariko asko aurki genitzake Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia*-ren VIII. liburu-  
kiko 219-220 orrialdeetan eta X.aren "Supplementum" argitara gabe gelditu zenaren  
zatian. Baina, zati hau Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan ikus daiteke.

Eten gabe, zintzo aritu zenez euskarazko lanetan, zenbait libururen egile genuen, honako izenburu aipagarrien bidez: *Goi-argi. Ars-ko Erretore Santiaren Erakusaldia* (1955). *Euskal gramatika labur eta Idazleen pusketa autatuak* (1955). *Kristau Ikasbidea*, G. Manterola eta L. Villasantek osatua (1957). *Kataliñen gogoetak* –euskalki barnetiko itzulpena– (1958). *Nere izena zen Polentxi. Angeles Sorazuren bizitza* (1961). *Aitonaren uzta* –Gesaltzako Graziano Anduagagandik jasoak– (1963). *Egungentiko txoria* –hau ordea Gesaltzako G. Anduagaren bertso biduma da– (1963). *Senperen gertatua* –euskalki barnetiko itzulpena– (1964). *Bertso-bilduma* –hau ere Gesaltzako G. Anduagaren berso biduma da– (1965). *Axular: Mendea, gizona, liburua* (1972). *Axular-en Hiztegia. Euskara-Español-Français* (1973). “Euskal Literatura landua”, *Lur eta gizon, Euskal Herria* liburuan (1974). *Anai Frantxisko, arreba Klara* (1977). *Kristau fedearen sustraiak. Jainkoa* (1962). *Kristau fedearen sustraiak. Jesukristo* (1968). *Kristau fedearen sustraiak. Eliza* (1984). *Kristau fedea. Teologi-saileko azalpena* (1986). *Euskararen auziaz* (1988). *Angeles Sorazu. Bizia eta mezua* (1990).

Horiez gainera, Euskaltzaindiaren Euskararen Lekukoak deritzan egileen adierazpen, iker eta kritika sailean, 5, 11, 14, 18 eta 21. zenbakidun bost liburuko argitaratu zituen. Hona hemen egile eta beraien lan jakingarriak: Etienne Lapeyre, 1840-1893, *Kredo edo sinhesten dut esplikatua* (1982). Pierre Guillaume de Lavieuville-Harostegui, *Bayonaco Diocesaco bi-garren Catichima, 1733* (1985). Juan Antonio Moguel, *Cristaubaren icasbidea edo Doctrina Cristina* (1987). Fray Mateo de Zabala, *Aita Juan Mateo Zabalaren sermoiak (I)* (1996) eta *Aita Juan Mateo Zabalaren sermoiak (II)* (2000).

Erderazko liburuak ordea: *La sierva de Dios M. Sorazu, Concepcionista Francisca, 1873-1921*, A. Villasanteren doktoradutza tesia dugu hau (1950). *Theses Theologiae Fundamentalibus (Ad usum privatum et pro manuscripto). Pars II. De Ecclesia Christi* (1950). *En torno al problema del vascuence* (1951). *Theses Theologiae Fundamentalibus (ad usum privatum et pro manuscripto) Pars III, De Fide Ecclesiae Chatholicae* (1952). *Paradigmas de la conjugación vasca (Dialecto guipuzcoano y vizcaíno)* (1955). *Geografía histórica de la lengua vasca* (1960). “Crestomatía de autores vascos”, A. Inazio Omaetxebarriaren *Euskera* liburuan argitaratua (1959). *Historia de Literatura Vasca* (1961) eta 1979an beronen bigarren argitalpena berrikusiz eta gehigarritz. *Angeles Sorazu*, bi liburukitan, (1962). *San Martín de la Ascensión Loinaz* (1962). *Voces Bascongadas diferenciales*, ordurarte argitara gabe zegoen P. Añibarroren hiztegia (1963). *Santa María de Aránzazu, patrona de la provincia de Guipúzcoa* (1964). *Gero (Después)*, Introducción, edición y traducción (1965). “Vascuence” en *Gran Enciclopedia del Mundo D.U.R.V.A.N.*, 21. liburukiko, Literatura sailean, 497-503. orrialdeetan (1967). *Hacia la lengua literaria común* (1970). “Lengua y literatura vasca” en *Tesoro breve de las letras hispánicas*, bajo la dirección de G. Díaz Plaja (1972). *La declinación del vasco literario común* (1972). *Palabras vascas compuestas y derivadas* (1974). *Sintaxis de la oración simple* (1980). *La H en la ortografía vasca* (1980). *M. Angeles Sorazu. Un mensaje para tiempos difíciles* (1981), *La oración causal en vasco* (1986).

Haren hizlauzko euskara idatziaren erabilera benetan eredugarria da eta Euskaltzaindirako egiten zituen txostenetan, hartzen zuen gaia hartzen zuelarik, argi ageri da zein zentsuz eta zehatz-mehatz buruturik aurkezten zekien. Eta haren *Historia de la Literatura Vasca*, gai horretaz orainarte egin den lanik sakonena eta osatuena da. Horretaz zerbait jakin nahi duenak hara jo beharra baitu.


Nik neuk, Arantzazutik Aizkorri aldera egiten nituen mendizale ibilaldietatik eza gutzen nuen eta 1957an Euskaltzaindiko urgazle izendatu nindutenetik izan nituen berrikiko harreman zuzenak; gero, 1964an euskaltzain oso izendatu nindutenetik areagotu genituenak.

Gure Erakunde honetan, 1966ko abenduan, On Manuel Lekuona jauna euskaltzainburu izendatua izan zen eta aldi berean ni idazkari. Lekuona jauna, guztiok daki-gunez, gizon on hutsa zen eta elkarren arteko harremanak oso ongi eraman genituen.

Eginkizunen barnean, 1968an Erakundearen urrezko eztaiak iristen gerez, zerbait berezia burutzea iruditu zitzaigun eta euskara idatziaren batasuna hautatu zen gai nagusizat. Ahalik egokien banaturiko gaien prestakuntzak egin genituen. Baina, ordu-rako idazle gazte asko hasiak ziren Iparraldekoen H letra aski arrunt erabiltzen, bereziki Euskal Idazkaritza zeritzan elkarteak 1965ko abuztuan “Baionako Biltzarraren Erabakiak” argitaratu zituenetik. Bide horrek kezkatu, ortografiaren arloa ikusten genuen arduratsuena. Gai horren aurkezpenerako, On Manul Lekuonaren beraren asmoa izan zen Koldo Mitxelenaren esku uztea, gure artean hizkuntzalaririk bikaina genuenez. Eta, euskaltzainen bilera batean, hala bete zen egitasmoa.

Arantzazuko Biltzar haiei On Manuel Lekuonak sarreratzat “Euskeraren batasuna” zeritzan txostena irakurri zuen, eta jarraian A. Villasantek aurkeztu zuen “Batasuanari buruz Bibliografia”. Ondotik jarraitu zioten beste honako txostenok: Salvador Garmendiak “Deklinazioa”; Anbrosi Zatarainek “Euskerazko itz berriak”; A. Luis Villasantek “Antziñako euskal hitzen formaz” eta, bukatzeko, Koldo Mitxelenak “Ortografia”. Bereziki, honek ekarri baitzituen ondotiko elkar-hizketetan zenbait eztabaida. Hala ere, hitza hartu zuten guztiei entzun ondoren, Euskaltzaindiaren Arautegiaren arabera, euskaltzain osoak soilik bildurik erabakia hartzean, guztion aldetik onartuak izan ziren han aurkezturiko txostenak, ortografia barne zela (ikus *Euskera*, XIII, 1968, 137-219. orrialdeak).

Ondotik, ikus “Arantzazuko Agiria”, *Euskera*, XVI, 1971, 99-102. orrialdeetan, Gainera, *Euskera* zenbaki berean, batasunerako, A. Luis Villasantek aurkeztu zituen bezala onartu ziren hilen izenak, 104-107. orrialdeetan ikus daitekeenez. Eta 1978an, Luis



Eleizalderen mendeurrenez Bergaran antolatu ziren Biltzarretan berretsi ziren Arantzazuko erabakiak.

Hala ere, bide zuzenetik ez ziren joan Arantzazuko Biltzar ondorengo hilabeteak. Batez ere H onartzeaz. Batasunaren aurka zegoen taldetxo bat ostegunero On Manuel Lekuonarekin bilduz hasi ziren Andoaingo Arregitarren etxean, On Manueli ideiak aldatuarazi nahian. Eta Arregitarrengandik zenbait dei jasotzen nituen, nire aldetik zerbait egin nezan. Egia esan, nik nire iritziak azaltzen nizkion Lekuona jaunari, hizkuntza akademia baten egitekoa zela hizkuntza idatziaren batasun bidea eta jaramon egiten zidan. Baina, berez hain gizon ona zena, noraezean jarri zen hainbesteri jaramon egin nahian eta poliki-poliki atzerantza joan zen.

Taldetxo hark, batasunaren alde geundenok irainez tratatzen gintuen. Ni ere, ordurarte guztientzat hain ona nintzena, beste zenbait bezala, euskararen aurka genbiltzan gorri baztergarriztat azaldu nintzen. Gainera, azpizanez, Madrileraino jo zuten, Instituto de España-ra kexak azalduz. Guk, Real Academia de la Lengua-rekin genituen harreman onei esker, Erakunde horren bitartez bideratu genuen besteon ekintza malzurra deusezteara.

Beraz, ez zen erraza gauzak zihoazen bezala bere bide zuzenera itzularaztea. Baina, gertakizunok bere ondorioa izan zuten 1970eko iraillean Euskaltzaindiko kargu aldatetak etorri zirenean, A. Luis Villasante euskaltzainburu izendatzeaz.

Berriz hautatu ninduten Erakundearen idazkari, baina Lekuona jaunarekin batean kargua uztea nahi izan nuen. Hala ere, Mitxelenak eta Villasantek beraiekin biltzea eskatu zidaten eta, zein batak eta zein besteak, karguan jarraitzea eskatzen zidaten. Azkenerrako, onartu beharra izan nuen, baina ez gogo onez. Kargua betetzean, Lekuona jaunarekin bezala, A. Villasante jaunarekin ere oso ondo eraman nintzen. Idazkaritzan, 1978ko urrira arte iraun nuen eta hortik aurrera Jose Mari Satrustegi jaunak jarraitu zuen idazkari kargu horretan.

A. Luis Villasante jauna, bere egiteko zentzuz, zintzo eta zuzen jarraitzen zekiena zen. Batzuen eta besteen jokaerak kontuan harturik; baina, denen gainetik, euskara bizibeharraren jarraipena eta hobekuntza maite zuenez, horretaz arduratu zen. Hilero ko batzarrak ongi prestatzen zekien eta gai irristakorrek alde zurretik ondo ikerturik aurkezten zituen.

Gainera, euskara, politikaren jokabideen gainetik, praktikotasunez eta oztoporik gabe lan egiteko, biderik zuzenenean jarri beharrezkoa iruditzen zitzaigun, Hezkuntza eta Kultura Ministeritzaren arduradun zen Robles Piquer jaunaren onespina lortzeko bidean jarri ginen. Euskaltzainon izenean mugitu ginen Madrilerara, lehenik J. M. Satrustegirekin bere lagun zuen Los Arcos jaunaren bidez Martzelino Orejarengana eta geroago, berriz, Aita Luis Villasante euskaltzainburuari Jose Luis Lizundia idazkariorde-kudeatzaileak eta nik lagundurik. Era horretara lortu genuen Hezkuntza eta Kultura Ministeritzaren aldetik: 573/1976, otsailaren 26ko Erret Dekretua, zeinetan onarpena ematen zitzaion Euskararen Akademiari, Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia izena ipintzen zitzaionalarik. Ikus *Euskera*, XXI, 1976, 5-14. orrialdeak. Horren ondotik, Erregeren sarrerarekin, Euskaltzaindiaren arauen onarpena eta Erakundearen historia laburra zuela. Ekintza horretan oinarriturik argitaratu zigun, aipaturiko gaiez, Ministeritzak *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia*

deritzan irudiz hornituriko liburu ederra, 1976ko azaroan. Horri eta gure ekintzako lanei esker, gauzak zerbait baretu ziren.

Euskararen arazoetan, gehienok bezala, A. Villasantek ere, esan bezala, Mitxele-na zuen maisutzat. Batzarrak ondo antolatu eta bake bidez ondo eramaten zekiena genuen Aita Luis Villasante eta horrelako gizonak hutsarte nabarmena uzten dute Euskaltzaindian. Beraz, ez da batere harritzekoa abenduaren Sean Arantzazun egin zitzaizkion hiletetara hainbeste jende joatea. Han ikusi zen euskaltzaleok zenbat maitatzen genuen. Eta Xabier Diharce "Iratzeder" euskaltzainak, bere aldetik, igorri zion edonork gogoan hartzekoa honako bertso honen eskaintza, non zioen:

†

AITA VILASANTE  
 KORTABITARTE,  
 GUTAZ ORROIT ZAITE  
 ZERVAN URTEZ URTE  
 DENAK ZU-GAVATU ARTE.  
 GOIKO IZARRAK BETE  
 EUSKAL-ARTEZ BETE.  
 X. IRATZEDER

*Beloke gainerik  
 Arantzezu gain-gainerat  
 1/12/2000*

Hala bedi! Bizitza guztian bere fede zintzoan zuzen jarraitu zuenari ezin besterik opa, Goian bego baizik.

Juan San Martin



## PEDRO PUJANA AGIRREGABIRIA (1915-2001)

*Bilbo, 2001-IV-26*

Oleta: 1915-VI-28 - Begoña: 2001-II-4

Jaun-andreok: agur t'erdi.

Aramaioko semea izanik lan oso atsegingarria dot gaur hemen zuen aurrean Pedro Pujana nire herritarrari “omenezko hilberri txosten” hau eskaintzea. Poz handia emon deustanarren ez daukat neure kabuz barri handirik emoteko asmorik.

Berbalditxo honetarako barriak batzen nenbilela, Pedro adiskideak bialdutako txosten batekin, “Arabar baten euskal ibilpidea” deritxonarekin egin neban tril. Bertan bere bizitzako barri nagusiak eskaintzen ditu. Zer hobeagorik bada, bere berbak entzutea baino? Horixe eskainiko deusuet nire berbalditxo honetako lehen atalean, jarraian bere bizitzako daten eta lanen barri zehatzagoak jasoz. Honela dinosku Pedrok (arabarrak) bere bizitzaren barri emotean:

“Jainko onak honantxe nahi izanda —edo halanbeharrak, denetara hitz egiten da gure egunotan— nik ondotxo ezagutzen dodan arabar baten jatorrizko berbetea euskara izan zan. Arabar horrentzat euskera bere amaren bularretik harako hizkuntza izan zala dirautsuet, labatik harako opilaren antzera.

Euskeraz izan ziran mundu honetan lehenengo biderrez egin ebazan berbak. Euskeraz egiten eben beti-beti euren artean etxean gurasoak eta seme-alabak. Euskeraz berba Jaungoikoagaz ere. Euskeraz bere buruagaz bizitzaldi guztian.

Euskera ikasi, luze eta zabal ikasi ere, txiki-txikitan, ume-umetan ikasi eban, beraz. Eta haren lehenengo maixua euskera ikasteko, beraren aita izan zala esan behar dautsuet. Berau izan zan euskera irakurten eta idazten lehenengoz ikusi eban gizona mundu honetan.

Izan zan, zorionez, azken mendearen —XIX garrenaren— erdi aldera liburu bat Euskalerriko —zein Iparralde zein Hegoaldeko— etxe eta familietan eten barik irakurria izan ei zana, lehen eta orain gehien-gehienik erabilia izan ei zan euskal libururik zabalduena, nik nunbaiten irakurri dodanez. Beronen izena hauxe: ITUN ZAR ETA BERRIKO KONDAIRA, Frantzisko Lardizabal, Zaldibiko abadeak gipuzkoeraz idatzirikoa.

Arabar haren aitak Lardizabal abade harexen liburua irakurri ohi eban sarri-sarri bere etxeko eskaratzean, inoiz ahots zoliz, bertan ziran etxeko guztiak entzun egien. Udagoien/negualdian, batez ere, egiten eban irakurtaldia, eguna laburra eta gaua luzea izaten dan aldikada horretan. Oraindiño ikusten dagoala bere aita —dirudio arabarri— Lardizabalen liburu lodikotea, narruzko azal doterez apaindua, eskuetan harturik eta zabalduzik, sutondoko sugarraren argitara —artearen ez zan etxe haretan ez herrian

argi-indarrrik— irakurten eta irakurten, orain ixil-ixilik beretzako, geroxeago ozenkiro eskaratzean ziran familikoentzako.

Bazan etxe haretan mutiko txiki-txiki bat, familiako zeiena, aitari begira-begira jarririk, zirkinik egin barik eta belarriak ondotoxo edegirik, adi-adi, beste hizkuntza arrotzetan baino lehenago bere jatorrizko berbakuntza ederrean liburuak ekazan kontaktizunak entzuten zituana.

Orduantxe erne eta garatu ekion (ekion: adizki zaharra: jakon) mutiko hari bere kolko barrenean euskerarenganako atxikimendua, geroago eta itsatsiago egingo jakona, “etxean zer ikusi, haxe ikasi” esaerak dinoanez.

Arabar harek bere aita idazten ere ikusi ebala, esango dogu. Bein baino gehiagotan ikusi ere. Ixeko bi eukazan etxetik eta herritik urrun xamar, eta aitak noizik behin gutun/idazkitxoren bat egiten eutsen etxeko guztien izenean bertako barri emonez. Gutunaren buruan beti-beti eta hutsik egin barik hauxe idazten eban hizki/letra haunditan: GEURE EUSKERA EDERRIEN, eta gero dan-dana euskeraz idatzi.

Arabar haren aita ez zan kultur alorrean jakite zabaleko gizona. Ez eban inongo ikastetxetan ikastaldi berezirik burutu. Halan eta guzti ere, lehen mailako ikaskizunetan nahiko ondo jantzirik ikusten zan, euskeraren barrutian berariaz. Hau zelan uler daiteken? Lardizabal giputz idazlearen frutu umotua izan zeitekean. Zerbat aldiz irakurri eban ITUN ZAR ETA BERRIKO KONDAIRA eritxan haren liburua? Batek badaki!!

Irakurriaren irakurriaz eta atzamarrak liburuaren orrietan erabiliaren erabiliaz orriok orituta eta nahiko zikinduta agertzen ziran. Hainbat atal buruz ere baiekizan eta...

Euskalkiak oztopo dirala euskera erabilteko eta ulertzeko? Ez horrenbeste. Hemen daukagu ezezkoaren agerbide bat.

Herriko bizigiroa euskeraren aldekoa eta guztiz egokia zan elizate/auzune haretan. Halakoren baten herbestetik etorten ziran guardia zibilak izan ezik, ez eban inork han gaztelaniarik egiten. Herriko eskolan, halan ere, ez zan berbatxo bat ere euskeraz ikasten, ez entzuten. Gaztelania huts-hutsez eskolatu ginduezan. Eta hori, umekondo saldoaren lehenengo urteetako maixua euskalduna izan genduala, Axpe-Arrazolako semez. Eskolorduetatik kanpora euskeraz egiten euskun berba, bai berak eta bai beraren familikoak ere. Eskolorduan, barriz, beti erderaz eta erdera hutsez. Eskerrak kristau-ikasbidea euskeraz ikasi gendualako. Arabar honek bere bizitzaldian irakurri eban lehen liburua euskeraz kristinau-ikasbidea izan zan. Elizan ere berbaldiak beti euskeraz. Abestiak euskeraz eta latinez, orduan ohiturea zan legez.

Adinean haundiago eta euskeraren eremuan ikastunago egiten zan gure arabarra. Gasteizko eliz Ikastetxe Nagusi batera joateko erea izan eban, eta han izen eta ospe haundiko maixu/irakasle bategaz tril egiteko egokiera, zorionez: Manuel Lekuona jaunagaz. Beronek situagotu eta biztuagotu eutsan etxetik ekarren euskerarenganako grina, etorkizunear egundo gehiago ez urrituko, ez epelduko ez ekiona (ekiona: adizki zaharra=jakona). Ez berari soilik, ikaskide zituan hainbeste gazteri ere ez. Hori ez eban lortzen gure irakasleak hitzaldi sutsu —gartsu— luzeak gazteei eginez, ez; goxo-goxo, guztiz goxo eta bigun, lan egiten eta idazten bultz eginez baino.

Maixu oso atsegina izan genduan oiartzuarra, eta euskal esparruan jakitun-jakituna. Haregaz egiten genduan ikastaldia berehalaxe joaten ekigun (ekigun: adizki zaharra=jakun), labur-laburra bailitzan.



Handik laster zorigaiztoko gerrate zital/galgarria etorri jakun uste barik, eta horra gure asmo guztiak eta ames loratsuak gorengo hodei moltzo baltzen artean betiko galdu. Negargarria! Ez-aldiak eta izozteak jo eban gero erurkirik bagarik gure euskal baratz zimela!

Aitatu dodan aurreko aldi hau, halan ere, ongarria izan zan euskerarentzat. On-aldi eta biztu-aldi harek luzaroan iraun izan baleu, zeinen mesedegarria izan zeitekean gure berbakuntza zahar-zahar honentzat, baita Ikastetxe Nagusi harentzako ere, euskerari gagokiozala. Gogora ekarri, agergarriz, 1936garreneko Olerki-Eguna, gerrate aurre-aurretioxan Lekeition egin zana, Ikastetxe haretako hiru lagun, Manuel Lekuona jaun irakaslea, Iñazio Otamendi eta Anjel Sukia ikasleak bertan sarituak izan ziran eta.

Mendian gorantz doiana, gora eta gora egin ezker, halakoren baten mendiaren gailur/erpinera heldu egiten da. Gure arabarraren euskeraren ikastaldiari ere, “gailurra” deritxak hiru urteetako gaina etorri jakon, Oñako (Burgos) Jesulagunen Ikastetxe Nagusian igaro zituan aurteetan.

Oñara joan aurretik, Gipuzkoako herri nahiko jendetsu baten bizi zan, euskera sustraiz ikasteko “egarri” ase-ezina eukala. Herri haretan, baina, ez eban astirik, ez ezetariko bitarterik, ez libururik helburu hori egia bihurtu zeiten. Oñara joandakoan, ostera, horra biok —astia eta liburuak— uste barik aurkitu.

Ikastetxe Nagusi haretan teologiako ikasle nagusien artean bazan talde bat —hamar/hamabi ikasleez osotua— euskera apur bat sakontxo ikasi nahi ebana, eta talde ha arabarrarengana joan zan, euskal aditza azaldu/argitu egiola eskatuz. Gipuzkoerazko aditza errotik aztertu eta ikasi gura eben, danak giputzak ziran eta.

Josulagunen Ikastetxeko liburutegi aberats/oparotsuan euskeraren barrutian trebetu ahal izateko liburu egoki-egokiak aurkitu ebazan arabarrak, esate baterako, Arturo Campionen *Gramática bascongada de los cuatro dialectos literarios* izeneko liburu mardula, R. M<sup>a</sup> de Azkueren *Morfología vasca*, hiru hizkuntzatak hiztegi lodia, Luis de Eleizalderen *Conjugación vasca sintética*, Seber Altubereren *Erderismos* eta *Observaciones al tratado de Morfología Vasca*, eta abar, eta abar.

Haxe bai izan zala poza eta gozamina gure arabarrarentzat!! Orduantxe ase ahal izan eban aspaldi-aspaldidanik ekarren gurari bizia, euskal baratzean buruz aurre sarzteko! Nun eta Burgos-en! Holakorik!

Sei hilabeteen, egun bakotxeko batez beste hamar ordu, beste zereginik barik euskal aditza aztertzen lan-da-lan egin eban arabarrak.

Hurrengo urte bitan jardun eban gipuzkoar talde hari euskera irakasten, aditza eta beste.

Ondorenez, hauxe esan behar: Oñako Josulagunen Ikastetxe Nagusi haretantxe lortu ebala arabar euskaltzale ikastunak negurri medar baten euskerari buruzko zerbait jakite, zorionez.

Esan ere, horrexegaitik esan dot, gure hizkuntzaran ikastarora dala eta, Oñako egoaldia mendi garai baten “gailurra” irudiko izan zala arabarrarentzako.

Oñako hiru urteetako ikaste/irakaste aldi harek ondoren mamintsuak ekarri zituan geroko urteetan..

Geroago egindako lanak —nabariak izan ez arren— ezin ondu ahal izango ebanzan Oñan josulagunen artean egindako hobekuntza izan ez balitz.

\* \* \*

Zerbait idazten hasi, askoz lehenago hasi zan. Haren euskerazko lehen idazlanak —askorik ez— gerrate aldikoak ziran. Elgeta/Intxorta gudalekutik, 1937 garren urtean, Bilboko *Euzkadi* egunkarian argitarata emonak.

1958-1967 urte bitartean Donostiako *Zeruko Argia* eritxan aldizkarian hainbat aldiz idatzi eban, geroagoko urteetan *Agur*, *Karmel*, *Zer*, *Euskerazaintza* aldizkarietan, batez ere, idazten jarraitzeko.

1970 garren urtean, Bizkaierazko aditza zala eta, liburu bat kaleratu eban, bigarren argitaraldia ere lortu ebalarik. Liburu honetantxe dator euskal aditz osoari iragan-gaitz zein iragankor, laguntzaile naiz bakun/sintetiko -NOR-NORI-NOR irakaspidea lehenengo aldiz ezarria, hurrengo urteetan aditz-irakaskuntza osora zabalduko zana.

Irakaspide honen sortzaile eta guraso Aita Isidor Baztarrika, Estibalitzko beneditarra izan zan, *Aditza* izeneko bere liburuan, 1968 garren urtean, aditz osoari ezarri ez eutsan arren.

Itzulpenak dirala eta, beste hainbat lan albora itxirik, arabar honek ondutako egin-tzarik garrantzizkoena Bizkaiko Foru Barria edo Barriztatua, hamaseigarren mendean, 1526 garren urtean idatzia, lehenengo aldiz euskerara/bizkaierara itzultzea izan zan, 1981 garren urtean kaleratu zana, JOSE ESTORNES LASA, erronkariar zalduna, lan-kide edo Foru-adierazle/interpretatzaile izan ebala. Gauza bitxia, gero, hau ere! Bizkaiko Forua izan, eta lehenengo bidar, nafar jakintsu bat argi-emoile izanik, arabar batek euskeratu izana!

1979 garren urtean Arabako Aldundiak argitaratu eban *Oletako euskal aditza* izenburutzat daroan liburua.

Hauxe da arabarrarentzat gogozkoena eta bihotzezkoena dauan idazte-frutua, Arabako gorengo musturrean, OLETAN, mendetan eta mendetan erabili izan dan aditzaren barri —zuka eta hika— emoten dau eta.

Aramaioko elizate edo auzo horretan erabili ohi dan hikako jokaera, izan ere, guztiz berezi-berezia da euskal aditzaren barrutian, beste inon entzuten ez dan langoa, Otxandio inguruan izan ezik, ez Aramaioko Ibarren bertan, ez Leintzen (Gatzaga, Eskoriatza, Aretxaabaleta, Arrasate), ez Bizkaian, ez Gipuzkoan... Nafarroako ez dakit zein tokitan antzeko adizkiak darabilezela dirausku Azkue haundiak.

Endrike Knörr jaun euskaltzainak bidea urraturik etorri zan liburua kalera, Alfonso Irigoien euskaltzain oraintsu zenduak zuzenketa batzuk eginda gero.

Hikako jokabidea bizi-bizirik dogu Aramaioko alde horretan, zukakoa beste bai gazteen eta adinkidekoen artean.

Arabako Oletan bizirik dan hikako jokabideari buruz lan bat agertu zan 1977 garren urtean, eta idazkun haretatik adizkera batzuk ekarri dodaz orriotara, beste leku batzuetako adizkerakaz bardinkaturik/konparaturik, irakaurleari argigarri izan dakiozan (*Lekuonatar Manuel jaunari omenezko idazki-bilduma*, III, Kardaberaz Bilduma-21, Tolosa, 1977, 295 orr.).”

Pedro Pujana arabarrak bere bizitzako ibilbideaz buruz esan deuskuna entzun ostean, ibilbide horretako gora-behera zehatzak daten arabera labur-labur eskaini gura deutsuedaz, ikuspegi osoagoa izan dagizuen.

Pedro Pujana Agirregabiria, Aramaioko Oleta auzoan jaio zan 1915eko bagilaren 28an. 14 urte zituala joan zan Gasteizeko Eleiz Ikastetxe Nagusira. Han, Filosofia ikasten ebilela Jose Migel Barandiaranek eskatuta 2.000 bertso inguru jaso eutsozan bere aitari. Zoritzarrez galdu egin ziran paperak gerraldian. Esan deusku auzoan bertan ikasi ebalá euskaraz irakurten.

Filosofia ikasten ebilala gerrara joan behar izan eban. Gerraldian Martiartu bata-loiko kide izanik Elgetan, lehenengo, eta Barakaldo-Sestaoko fabrikak jagoten, geroago, jardun izan eban. Frankistak Bilbo hartu, eta Martiatu bataloia errendidu zanean hiru egun Arriaga antzokian euki eben. Gero hiru hilabete Logroñoko zezen-plazan. Han atxilotuen artean aukeraketa egin, eta katibuen lan-bataloira bialdu eben. Bertan jardun eban Aragoiin eta Katalunian zehar Gironaraino, frenteko bideak eta lubanak egiten.

Gerra amaitutakoan, bataloiko buruak, seminariora itzultzeko asmoa eukala jakitean, beste barik etxera bialdu eban. Heldu eta aste gutxi barru barriro Gasteizko seminariora joan zan. 1944ko bagilaren 29an, 29 urte egiten zituan egunean egin eben abade Gasteizen. Handik hiru egun barru emon eban meza barria Muxika-Oletako Andra Maria parrokian.

Abade egin barri Jerez de la Frontera (Cadizen) joan zan Juan Jose Agirre bere lehengusua zan abade gaixotuaren ordezeko lanak egitera. Eta han ibili zan 1944. urtetik 1948. urtera bitartean, herririk herri misio-lanetan. Euskal Herrira etortzerakoan Eskoriatzara bialdu eben. Baina, Pedro ase-gatxa zan, eta jainkozaletasunak bultzaturik eta kristau-bizitza osoagoaren bila Josulagunen Lagundian sartu zan. Hiru urte Urduñan (nobiziatuan) egin ostean, Oñara bialdu eben filosofia eta teologia barriztatzerá. Entzun dogun moduan han ekin eutson euskara sakontzeari. Bederatzi urte Josulagunen Lagundian egin ostean barriro eleizbarrutira itzuli zan. Handik aurrera eleizbarrutiaren zerbitzuan bizi izan zan: 9 urte Angiozarren, sei urte Morgan, 12 urte Arteagan; 1985ean hirurogeita hamar urterekin jubilatu, eta Begoñako abade-etxera etorri zan. Orduetik heriotza unerarte Begoñako basilikan izan dogu eten barik gogotsu eleizako lanetan laguntzen: arrosarioa euskaraz irratitik errezatu, euskal mezak eskaini, gaixoei bisitaldiak egin,... bihotz handiz eleiztarrei laguntzen, eta astiune guztiak euskarako idazte-lanetan erabilten. Eta, horrela, aurtengo otsailaren 4an hil jakun arte. Azken bi urteetan batez ere, nahiko makal ikusi izan dogu. Aldi horretan makalaldiak baino neke handiagoa emoten eutsoen ikusteko eukazan eragozpenak. Halan da bere, beti umoretsu eta laguntzeko gertu.

### **Euskarako idazlanak:**

1. *Euskal Aditza bizkaieraz / Flexiones del verbo vizcaíno*. Bilbon, 1970. urtean.
2. *Aitortu zer dela eta?* Bilbo, 1972. Argitalpen hau D. Borobio delakoaren laguntzagaz argitaratu eban.
3. *Bateoa*. Bilbo, 1973. Liburuki hau be, D. Borobioren laguntzagaz argitaratu zenduan.

4. Eta 1978. urtean Mikel Zarate idazle-abade lezamarrari lagundu eutson Euskaltzaindiak Arantzazuko Biltzarraren 10. urteurrenean Bergaran antolaturiko Euskaltzaindiaren VIII. Batzarrerako "Euskara batua eta euskalkiak" deritzan txostena gertatzen.

5. *Oletako euskal aditza, hikako jokabidea*. Vitoria, 1977.

6. *Oletako euskal aditza / El verbo vasco de Oleta*, flexiones hika del valle de Leintz (*Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate*); *Del Valle de Anguiozar / Bergara, de Zeanuri y de la zona de Vitoria*. Vitoria, 1979. Diputación Foral de Alava. Consejo de Cultura.

7. *Bizkai'ko Forua* edo FORU BARRIAREN itzulpena, Pedrok euskaratu eta Jose Estornes Lasa jaunak 1981. urtean argitaratua.

8. Hainbat euskal aldizkaritan parte hartu izan dau bizitzan zehar: *Euzkadi* egunkarian (gera garaian); *Zeruko argia* aldizkarian 1958-1967 urteen artean; geroago *Agur*; *Euskerazaintza*, *Zer*, *Kardaberaz* eta *Karmel* aldizkarietan. Euskaltzaindirako egindako txosten pare bat *Euskera* agerkarian. Horrela, heriotzara arte. Hainbat lan dira hor-hemenka argitaratuta dituenak.

Pedro Pujanak bizkaiera erabili eban beti. Egoera larrian ikusten eban Bizkaiko euskalkia. Hori zala eta, bere lan gehienak Bizkaiko aldizkarietan agertu zituan. Baina, era berean Euskaltzaindiak baturako ortografia onartu eban iraupenerako ezinbestekotzat jotzen ebalako. Bide hori erabili eban bere bizitzako azken urteetan. Horrek, baina, zoritxarrez bera oso bihotz zabalekoa izan arren, ate batzuk ixtea eta lagun batzuen hoztasuna ekarri eutsozan. Azken urteetan irizpide zabala daukan gure *Karmel* aldizkarian argitaratu deutsoguz lanak.



*Ezkerretik hasita:*

Pedro Pujana Agirregabiria, Jose Ramon Uribe, Aramaio alkatea izana, Jean Haritschelhar euskaltzainburua eta Oletako abade izandako Jesus Mari Elejalde jaunekin batera.

### **Jasotako ohorezko ezagutzak:**

Onartua izan da hainbatean Pedro Pujanak gure euskararen alde egindako lana. Horren adierazgarri ditugu bizitzan zehar eta bizitza ostean jaso dituen ezagutzak:

Euskaltzaindiak 1979an euskaltzain urgazle eta 1995ean ohorezko euskaltzain izendatu eban. Bizkaiko Foru Aldundiak omenaldia eskaini eutson 1983an Foruak itzul-tzeagatik. Aramaioko Udalak 1998ko urriaren 14an "Seme kutun" izendatu eban. Bil-boko Liburu Azokan "Urrezko Luma" jaso eban orain dala urtebete.

Heriotzaren ostean bere gogoan izan dabe: Aramaioko Udalak Oletan eskainita-ko mezan; Morga eta Arteagoko udalek ere omenaldiak eskaini deutoez.

### **Pedroren nortasuna:**

Amaitzeko (nik azken urteetan izan ditut hartuemon estuak beragaz batez bere) Pedroren ezaugarriren bat edo beste gogora ekarri gura deusuet. San Pedrok Aposto-luen eginetan Jesusen bizitzaren laburpena egiterakoan, "Galilean hasi eta Judean ze-har on egiten, gaixoak osatzen eta espiritu txarren menpekoak askatzen igaron eballa" dinosku.

Pedro Pujanaren bizitzaren laburpena egitera jo ezker antzerako zerbait esan dai-kegu. Hainbeste maite eban maixuaren jarraitzaile zintzoa izan zala: Herria eta Jaun-goikoa maitatzen jakin eballa. Herriaren alde jo eta ke ekin eutson bizitza osoan zehar, eta, era berean, Jaungoikoarenganako maitasun neurribakoan bizi izan zan.

Niri beti iruditu jatan, azalekoak gora-behera, Anbotoko harkaitz gogorraren an-tzeko tantai sendo handi bat. Sustarrak lurrean sakon sartuta, haize eta edurrei gogor aurre egiten. Bizitza luze osoa euskarari eta eleizari eskainita, inoiz nekatu barik lan eta lan. Halan da guztiz bere, beti, pozik, umoretsu, adarra joteko gertu.

Eskaini bere, bizitza osoa zerbitzuan eskaini eban. Hortik, batez bere, beraren han-ditasuna. Txiki-txikitatik eta barru-barrutik bizi izan zituan, berak esan deuskun mo-duan, jainkozaletasuna eta euskararenganako eta gure Herriarenganako maitasuna. Ibi-li dan herri danetan jardun izan dau buru eta bihotz herritarren zerbitzuan. Han nahiz hemen, beti bere eginkizunak zintzo betetzen ikusi dabe herritarrek. Atsedean izan da-giala zoriontsu Jaungoiko Aitaren betiko erreinuan.

*Patxi Uribarren Leturiaga*



## MARIANO IZETA ELIZALDE (1915-2001)

*Bilbo, 2001eko apirilaren 27a*

Mariano Izeta Elizalde Elizondon (Baztanen) sortu zen 1915eko uztailaren 14an, *Mutilenian*. Aita zarauztarra zuen, *Pantolingo*a, —Zarauztik Elizondora 1902an etorria—; ama, aldiz, elizondoarra, *Arginenekoa*. Marianoren aita-amek (Federikok eta Juanak) zortzi seme-alaba izan zituzten. Haurrideen artean Mariano zen premua.

1963ko maiatzaren 15ean, San Isidro egunez, Gabriela Gofñi Olaetxea lekaroztarrarekin ezkondu zen. Bi alaba izan dituzte: Maria Ines eta Juana Mari.

Hondar hilabetea erixko izan ondoren, 2001eko urtarrilaren 8ko arratsaldean pautatu zen Mariano, bere herrian eta etxean, familiakoak aldean zituela.

Erraten da berri txarrek ziztu bizian egiten dutela bide. Halaxe gertatu zen, arratsalde apalean ikasi baikenuen berria: Mariano Izeta joan zaigu. Horixe aipatu zuten lerroburuetan Euskal Telebistako eta irratietako albistegietan. Biharamunekoa ere bezperakoaren segida izan zen, Marianoren heriotzak inguruko egunkarietako lehen orrialdeak hartu baitzituen.

Jendalde gaitza bildu zen biharamunean Elizondoko parrokiari Marianori azken agurra egitera. Jendez mukuru, Santiago eliza ttiki gelditu zen han bildu ginen guztiok hartzeko, dela hurbiletik ezagutzeko aukera eta zoria izan genuenok, dela hurbiletik ezagutu gabe ere haren izen eta lana ezagutu zutenak. Horren kariaz, Euskal Herriko xoko guzietako jendea bildu zen, erran nahi baita, kultura alorreko jende, politikari, idazle, bertsolari, unibertsitateko erakustun eta, oroz gain, baztandar jende xehea, urtetan bere erloju dendara joan izan zena edo egunero irratitik zer erraten zuen esperotan egoten zena edo...

Komunikabideek ere euskal kulturako hainbaten iritzia bildu nahi izan zuten. *Euskaldunon Egunkariak* aski izenburu adierazgarria paratu zuen urtarrilaren 9ko edizioan: *Mariano Izetaren erlojuak gelditu da*. Guk han izan zirenen arteko hiruren iritzia ekarri nahi izan ditugu honat:

- Jose Maria Satrustegi: “Mariano Izeta gizon handia galdu dugu. Orain erraza da euskararen alde agertzea, baina gerra ostean eta denbora beldurgarrietan beti aitzinean genuen euskararen alde eta maila guztietan”. (*Euskaldunon Egunkaria*, 2001-1-9)
- Emile Larre: “Mariano Izeta euskal kulturaren aitzindari handi bat izan da, Baigorri eta Donibane Garazin ere denentzat zen ezaguna (...), entzumenez behin-

tzat, eta baita dantzari moduan ere askorentzat. Eta denek badakite euskaltzale handi bat zela”. (*Euskaldunon Egunkaria*, 2001-1-9)

- Aingeru Epaltza: “Gerra ondoan euskararen eta euskal kulturaren sua piztuta mantendu duenetariko bat izan (da) Izeta Baztanen, eta proiektio handia izan zuen haranetik kanpo ere, bai idazle gisa eta bai bertsozale gisa”. (*Euskaldunon Egunkaria*, 2001-1-9)

“Seme kuttun” zuen Baztango herriak ere ohore egin nahi izan zion. Elizako segizioaren buru Arizkungo Jabier xistularia eta Juan Migel atabalaria zirela, *Alkate Soinua* lagun, sartu zuten elizan Baztango ikurrinaren babesean. Bertsolariek ere azken agurra egin zioten elizkizunean, baita dantzariak *Aurreksua* dantzatu ere eliz atarian.

Nolanahi ere, ez dugu aipatu gabe uzten ahal Nafarroako Gobernuko agintarien jarrera, ez baitzen bakar bat ere agertu elizkizunera. Bizkarra eman zioten urtetan euskal kulturaren alde suhar lan egin zuen nafar eta euskaldun bati, beharbada politikakeria eta jendetasuna bereizteko kapable izan ez zirelako. Bazuten, bada, horretan zer ikasi franko Marianorengandik. Bai, alafede!

## Mariano Izetaren lanaren bilakaera

14 urteak arte eskolara joan zen Mariano, Elizondoko eskola nazionalera. Estudioak gaztelaniaz egin zituen aski erdalduna zen Elizondon. Garai hartan Elizondoko auzoak arraso euskaldunak baziren ere, karrikan erdara zen nagusi.

Eskola utzi eta berehala hasi zen lanean bere aita Federikorekin. Erlojuak konpontzea eta saltzea izan du lanbide urtetan. Elizondoko karrika nagusian —Jaime Urrutia karrikan— egin zuen lan Marianok bere aitarekin eta bere anaia gazteenarekin, Joxe Mariarekin alegia. 1984 aldera erretiroa hartu bazuen ere, hondar urte hauetan ere egunero egiten zuen itzulia erloju dendara, bisitan etortzen zitzaizkionekin mintzatzeko, Baztango zernahi konturen gainean jakiteko gutiziaz hurbiltzen zitzaizkionei argibideak emateko, baserriarren mandatuak Xorroxin Irratian aireeratzeko...

Erratan ahal da Marianok, eguneroko lanaz gain, bertze zernahi aferatan ere sartzeko astia izan zuela. Bizi luzearen uzta da ondotik agertuko dudana.

### 1.a Mariano Izeta, euskara erakustun

Gazte-gaztetandik izan zuen euskararen eta euskal kulturaren harra barne-barnean. 20 urte bete gabe zituela, 1934an, Elizondon abiatu zen lehen euskal eskolaren lekuko izan zen. Hala diosku Marianok:

“Ignacio Iturriak (...) ordaintzen zituen denak, andereñoaren soldata, liburuak, alkiak, maiak, antolamendu guziak, den denak herriari edo batzokiari deus kosta gabe”. (CHUECA 1999: 162).

Lehen euskal eskola hori Elizondoko Txokoto auzoko lokal ttiki batean paratu zuten (1). Lanean hasi eta berehala hetsarazi zuen eskola hezkuntzako eskualdeko ikus-



katzailleak. 1936ko otsailean berriz ireki bazuten ere, Gerra Zibila deklaratu eta berehala hetsi eta “pelayoen kuartel” bilakatu zen. Euskarazko liburuak Elizondoko plazan erretzen ikusi omen zuen Marianok, minez eta dolorez.

1969 eta 1970eko ikasturteetan euskara erakutsi zien Elizondoko eskola nazional-eko haurrei. *Principe de Viana* erakundearen laguntzaz, Oñatibiaren metodoa erabili zuen. Ikasliburu hori oinarri hartu bazuen ere, hura egokitu eta baztandar ukitua eman nahi izan zion: Baztango mendiak, ohiturak eta istorio zaharrak... *Aita gurea* euskaraz errezatzen eta kantatzen ere erakutsi zien, ordurarte gaztelaniaz bakarrik zekiten haur haiei. Finean, euskal kultura maitatzen erakutsi nahi izan zien.

Geroago, 1974 eta 1977 bitartean, *Gau eskolako* erakustun ere izan zen.

### 1.b Mariano Izeta, euskaltzain

46 urte zituela, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1961eko azaroaren 24an, Frantzisko Tirapu eta Felipe Murietaekin batera. Pablo Jose Aristorenak hala erraten digu:

“Aingeru Irigaraik euskaltzain oso izan zedin proposatu bazuen ere, adinagatik eta, nahiz kargu hori dundu ez, lanean berdin jarraituko zuen segurtasunagatik ez zen akademikoen artean jarri”. (ARISTORENA 1992: 41).

Euskaltzaindiarekiko harremana ez zen, bada, bere hartan gelditu. 2000ko urriaren 27an euskaltzain ohorezko izendatu zuen, Jose Antonio Retolaza, Pierre Andizabal, Junes Casenave, Suzuko Ainhoa Tamara, Jan Braun eta Bitoriano Gandiagarekin batera.

### 1.c Mariano Izeta, nazionalista

Familia nazionalista batean hazia eta hezia, Euzko Alderdi Jeltzaleko kide egin zen 1933an, 18 urte bete bezain fite (2).

1957an eta 1958an Elizondoko herriko alkate izan zen. Handik urte batzuetara, demokrazia heldu ondoko lehen udal hauteskundeetan, EAJren zerrendan sartu zen. Timoteo Plaza lekaroztarra Baztango Balleko alkate zela, Mariano Kultura zinegotzi izan zen.

EAJren lau urteko agintaldia ahiturik, Julio Iturraldekin zuzendu *Unión Baztanesa* alderdi eskuindarrak eskuratu zuen Baztango Balleko Etxeko alkategoa. Hori ez zen

(1) Eskolaren inguruan, bertzeak bertze, ondoko hauek ibili ziren:

— Ignacio Iturria Alzate: legegizona, Elizondoko Euzko Etxeko zuzendaritzakoa eta haren buztatzailea; 1933n Euzko Etxeko lehendakari eta Udaleko zinegotzi izan zen.

— Miguel de Alzo: Lekarozko kaputxinoa eta *Comisión de Enseñanza Primaria*ko kidea.

— Pilar Alba Loiarte: goizuetar andereñoa.

(2) Garai hartan Napar Buru Batzarreko zen Jexux Doxandabaraten sinadura ikusten ahal da bazkide txartelean.

aski arrazoi izan Marianoren eta Balleko Etxearen arteko harremana hausteko. Eskuzabaltasunagatik eta euskal kulturari zion atxikimendua zela-eta, alderdi eskuindarrekoek hala eskaturik, herrietako bestetako programak eta bertze zernahi idazki euskaratu behar izan zituen, borondate onez, jakina. Noizean behin bertzelako itzulpenak ere egin behar izan zituen, ahoz zein idatziz. Bake epaitegian ere interprete ari izan zen, une gozo zein zailetan.

Politikako azken urratsak 1982an egin zituen, EAJren Madrilgo Gorteetarako zere-ntrendan sartu baitzuten. Zer erranik ez, EAJren barne-hausturak min gaitza sortu zion.

### 1.d Mariano Izeta, bertsolaritzaren inguruan

Marianok 20 urte zituen *Nafarroako I. Bertsolari Txapelketa* Elizondoko *Antxi- tonea* trinketan egin zenean. 1936ko urtarrilaren 12a egun handia izan zen. Marianok bateko eta bertze bertsolariak biltzen lagundu zien Elizondoko Bittori eta Esteban Etxeberria anai-arrebei (3).

Guk dakigula behinik behin, horixe izan zen bertsolaritzak kilika egin zion lehen aldia. Baina ez zen inola ere azkena izan. Bertsolaritza hurbil-hurbiletik segitu zuen harik eta 1962ko San Anton egunez gai-jartzaile ari izan zen arte Elizondon (4). Gaiak baserri girokoak izaten ziren eskuarki, apaizari eta alkateari egin aipamenak atzundu gabe. Noizean behin neska konturen bat edo bertze agertzen zen, jendearen gozagarri. Bertso saio gehienak egutegiko egun seinalatuetan egin ohi ziren, erran nahi baita, San Anton egunean, inauteetan, apirilko eta urriko ferietan, eta herrietako bestetan. Epai-mahaian ere horretako dina ari izan zen.

Garai hartan deus ez zen goxo Frankoren diktadurapean. Euskal kutsuko ekitaldi orok baimena behar izaten zuen. Hori hala bazen ere, baimena erdiesten denborarik galdu gabe, Marianok ondoko leloa paratu ohi zien Elizondon antolatzen zituen bertso saioetako kartelei: "Besta hau Nafarroako Diputazioneko Príncipe de Viana erakunde-ko laguntzarekin egiten da". (ARISTORENA 1992: 97).

1992ko urtarrilaren 19an, Donostiako Victoria Eugenia antzokian, Teodoro Her- nandorena eta Emile Larrerekin batera, omendu zuen Euskal Herriko Bertsolari Elkar- teak. Urte anitzen lanaren omena jaso zuten hiru bertsozale handi horiek.

### 1.e Mariano Izeta, Baztango berrikerari

1957 aldera, berrogei urtetik goiti zituela, hasi zen idazten (5). Urte luzez argita- ratu zituen artikulua *Zeruko Argia*-n, *Herria*-n, *Príncipe de Viana*-n, *Euskaldunon Egunkaria*-n, *Diario de Navarra*-n, *Deia*-n, *Navarra Hoy*-en eta *Diario de Noticias*-en

(3) Donostiako *Euskaltzaleak* elkarteak antolatuta, eta Donostiako *Euzko Gaztedi* elkarte- ak eta Elizondoko *Euzko Etxeak* lagunduta, 10 bertsolari ari izan ziren nor baino nor.

(4) Elizondon eta Baztango gainerako herrietan 1991 arte ibili zen plazaz plaza bertsola- riei gaiak paratzen. (ARISTORENA 1992: 233-242).

(5) Lekarozko komentuan zegoen Aita Aurelio Ezkerra etxarri-aranaztarrak egin zion ho- rretarako gonbitea.

(6). Nekazaritza eta abeltzaintza inguruko gaiak izan ohi zituen mintzagai: aizkolariak, ardi zakurren xapelgoak, bertsolari saioak, segari jokoak, merkatuko kontuak, feriak, Baztandarren Biltzarra, Baztan inguruko berezitasunak... (7)

Gai zabal horren inguruko artikulua gehienak *Príncipe de Viana* aldizkariko “Erriz Erri” sailean agertu ziren 1966tik 1980 bitarte. “Mariano Izeta” edo “Anzanarri” izen-goitiaz sinaturik.

Diktadurako bertso saioen berri ere eman zuen. Batzuk laburrak, bertzeak luze-xagoak ziren. Horien artean haxe azpimarratu nahi genuke:

“Euskal jolas aunitz baditugu, bainan guzien artetik bertsolaritza da euskaldun garbiarentzat yostetatik ederrena ta maitena, hortan dastatzen baitugu gure hizkuntzaren lorea eta euskaraz ez dakitenak dastatu ez dezakeana” (IZETA 1999: 12).

Bertzalde, Baztan-Bidasoetan entzuten den Xorroxin Irratia-n mintzatzen zen egunero, eguerdiko berrietan. Nafarroa Behereko Irulegi Irratian ere astean behin zuen hitzordua. Bi saioetan Baztango berri ematen zuen. Erraten ahal dugu karrikakoen edo baserritarren ahotsa zela irratian, baserri batean saltzeko zuten aziendaren berri ematen zuelako edo herrietako bestetako programak xehero-xehero aipatzen zituelako edo...

## 1.f Mariano Izeta, idazle eta itzultzaile

Baztango berrikerari izateaz gain, bi eleberri eta ipuin pare bat idatzi zuen, itzulpenaren alorrean egin zuen sar-atera laburra bazter utzi gabe, jakina.

Lehen eleberria *Dirua galgarri* izan zen (8). Urte pare batez zokoan eta baztertua egon ondoren, Antonio Zavalak hartu eta *Auspoa* sailean argitaratu zuen 1962an.

Hogei urte geroago, 1982an, idatzi zuen *Nigarrez sortu nintzan* izeneko eleberria. Baztandar apal baten bizia erakutsi nahi izan zigun, sortu zenetik hil artenokoa. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak argitaratu zuen.

Herri-ipuinei dagokienez, bizpahiru argitaratu ditu: *Nigarrez sortu nintzan* liburuaren barneko sorgin kontuak (35-36. orr.); “Axeri eta otsoa” (9) eta “Sorginak infernuko errekan” (10).

---

(6) Artikulu gehienak Xabier Kaltzakortak prestatu *Baztango kontuak* (1999) liburuan bildu dira.

(7) Aipatu liburuko bi ataletan bildu dira; “Baztango berri” izeneko atalean, gai etnografikoak, geografikoak, usadio zaharrak..., eta, bertsolaritza ingurukoak, “Bertso-kronikak” izenekoan.

(8) *Los amigos de la lengua vasca* taldeak literatura lehiaketa antolatu zuen 1960an. Horretara aurkeztu zuen Marianok bere lana.

(9) *Aránzazu* aldizkarian (1964: XVI) argitaratua. Ipuin bera bertze izen batekin argitaratu da berriki: “Axarie ta otsoa” (IZETA 1999: 59-60).

(10) Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, Isabel Lertxundi eta Jesus Maria Loidiren omenez, antolatu sariketara aurkeztua. Berriki berrargitaratua: IZETA 1999: 91-102.

Itzulpenari dagokionez, guk dakigula lan bakarra itzuli eta argitaratu du: Arturo Campionen “Los hermanos Gamio” lanaren itzulpena: “Gamio anaiak” (11).

### 1.g Mariano Izeta, hiztezigile

Ezbairik gabe, erraten ahal dugu Marianoren bizi luzeko uztarik aberatsena hiztegitintzan egin duen lana izan dela. Honen guztiaren hasmenta Alfontso Irigoienek prestatu artikulua da (12). Baztango euskal hitzen zerrenda aski luzea biltzen da, erdal azalpenez eta euskarazko zenbait esaldiz hornitua. Halaxe bildu zuen Alfontso bere artikuluan:

“Blas Fagoaga, Mariano Izeta, u otros, en calidad de baztaneses, podrían hacer observaciones a este vocabulario, verificando los vocablos y sus valores semánticos o incluyendo otros que no lo están”. (IRIGOYEN 1962: 135).

1985ean argitaratu zuen Marianok “Baztango Hiztegi Ttipia” lana (13). Azkueren hiztegiiko Baztango hitzak oinarri hartuta, ehundaka hitz eta haiek agertu esaldiak bildu zituen hartan.

Geroago, hiztegi hori ttipi gelditu nonbait eta hura osatzeko lana hartu zuen. Berak idatzi artikulua, eleberri eta abarretan erabili hitz eta esapideak bildu eta antolatu nahi izan zituen. Horrez gain, Elizondora, erloju dendara, etortzen ziren baserriar andre eta gizonen mintzo aberatsa bildu zuen (hitz zaharrak, esapideak, erranairuak...).

Ez zuen nahi zuena berehalakoan erdietsi, Baztango hiztegi osoagoa argitaratzea, hain zuzen ere. Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak argitaratu zion 1996an *Baztango Hiztegia* liburua (14). Bi zati nagusitan (hiztegia eta erranairuak) agertu zen. Liburu horren argitaratzea komunikabideetako berri bilakatu zen berehala, baita argitaratu eta bi hilabete gabe lehen argitalpena agortu ere. Luze gabe ikusi zuen bigarrenez argia.

### 1.h Mariano Izeta, erranairuen inguruan

Hiztegia egitearekin batera hasi zen Mariano erranairuak biltzen. Lehen aldiz *Diario de Navarra* egunkarian agertu ziren. Antonio Zavalak ere *Esaera zaarren bilduma berria* (I, II) liburuan horiek berak eta bertze batzuk bildu zituen (15). Era berean,

(11) IZETA 1999: 83-99.

(12) Irigoyen, A., 1962, “Vocabulario baztanés de Juan Bautista Gorosurreta (1845-1933)”, in *Euskera*, VII, 135-193. Garai hartan Amaiurren jaun erretore zen Cruz Goienetxe elbetarrak eta Juan Bautista Gorosurreta jaun apaiz amaiurtarrak Resurrección María de Azkuerendako egin zuten lan, *Diccionario Vasco-Español-Francés* hiztegian ageri den AN-b laburdurapeko hitzak biltzeko.

(13) *Euskera*, XXX, 553-618.

(14) Hiru baztandarren izenak ageri dira argitalpen horretan. egilearena (Mariano Izeta); “Baztango hizkeraz hitz pare bat” artikulua egilearena (Pello Salaburu euskaltzaina), eta liburua- ren antolakuntza egin eta edizioa prestatu zuenarena (Paskual Rekalde).

(15) Oin-oharretan *Diario de Navarra*n agertzen direnez gain, kartaz jasoak ere bildu zituen Antonio Zavalak. (IZETA 1999: 16).

*Eusker*a agerkarian (16) eta *Baztango Hiztegia*n (17) agertu ziren. Gotzon Garatek *Euskal atsotitzak* liburua egiteko ere baliatu zituen eta, hondarreko, *Baztango kontuak* (18) liburuan agertu dira.

## 1.i Mariano Izeta zernahi alorretan ageri

Herri-mailan ere hainbat alorretan egin zuen lan Marianok. Mendian ibiltzea eta Elizondoko abesbatzan kantatzea beti izan zuen gustuko. Kirol ikuskizunak antolatzen ere ez zen gibelat gelditzen. Txirrindulari probak, lasterkari probak, pilota partidak (*Anxitonea trinketan*) eta bertze zernahiren inguruan ari izan zen, borondatez eta atseginez.

Nolanahi ere, ezin dugu aipatu gabe utzi Baztanen eta Baztandik kanpo Mariano aski ezagun egin zuen alorra: dantza. 15 urterekin hasita, bestetan dantzari izan zen. Maurizio xixtulariarekin eta Felix atabalariarekin, Euskal Herrian gaindi ibili zen Baztango dantzariekin batera. Mutildantzen erakustun ere ibili zen baztandarren artean. Eta, oroz gainetik, nork ez du ikusi izan Elizondoko bestetan, Santiagotan, herriko plazan, mutildantzarien *aitzindari*? Ohore handiagorik ez elizondoar batendako!

Omenaldiak ere han-hemen jaso ditu: Baztan Kirol Elkartearena (1972), Elizondoko herriarena (1978); Baztandarren Biltzarra elkartearena (1983); Lesakarrena (1983); Gipuzkoako Dantzari Elkartearena (1983); Xorroxin Irratiarena (1990); Baztango Balleko Etxearena eta Nafarroako Bertsolari Lagunak elkartearena (1991); Baztango seme kuttun izendatzea eta Elizondon Mariano Izeta errebotte plaza irekitzea (1997); Arkupeak elkartearena (2000)...

## 1.j Mariano Izeta, euskal kulturarekin eta euskararekin kezkatuta

Zuzenean edo zeharka, Mariano Izetak beti izan du kezka euskal kulturaren eta euskararen egoeraren gainean. Arestian erran dugu bertsolaritza xapelgoa prestatzen laguntzen ari izan zela gerra zibil aitzinean, urte batzuk geroago buru-belarri ibili zela bertsolariei gaiak paratzen eta, hondarreko, berriketari, eleberri-egile eta hiztegi-gile ere izan genuela.

Argi ikusi dugunez, herriak hurbil-hurbil dituen alorrak landu nahi izan zituen. Hortaz, ez da harrizkoa erraten badugu herri-hizkeraren defendatzaile izan zela. Euskara bat egitea komeni zela erran zigun baina idatzizko lantzeko batez ere, herriko mintzoak ez baitziren, haren ustez, galtzera utzi behar. (*Euskaldunon Egunkaria*, 2001-01-09).

Baztango euskararen giroaz ere aritu zitzaigun 1979an argitaratu artikuluan (19). Demokraziaren hastapeneko urteetako giroaz ari zaigu, Elizondoko giro arraso erdal-

(16) "Baztango erranairuak", in *Eusker*a, XXXVIII, (1993-2), 349-358.

(17) IZETA 1996: 207-217.

(18) IZETA 1999: 223-235.

(19) "Euskararen giroa Baztanen", in *Eusker*a, XXIV, (1979-2), 569-572. Berrargitaratua: IZETA 1999: 30-31.

dunaz (nahiz eta ordukotzat gauzak pittaka-pittaka aldatzen hasiak ziren), herrietako haurrek ere euskara bazter utzi eta gaztelaniaz mintzatzera jokatzera... Hala ere, ez zuen inoiz esperantzarik galdu uste baitzuen egoera hura hobekituko zela eta euskara ez zela desagertuko baztandarren ahoetarik. Etorkizuna gazterian zegoela erran zigan, gazteak eta haurrak euskaldundu eta kontzientziatu behar zirela. Hori erdiesten aski lagungarria gertatu zen Elizondon eta inguruko herri handietan Baztango Ikastolako, ikastetxe publikoetako eta euskaltegiko irakasleen lana. Eta, nolaz ez, euskararen eta euskal kulturaren aldeko apustua egin zuten gurasoena.

Euskaldun orenen xedeak euskal kultura behar zuela azpimarratu zigun behin eta berriz. Euskaldun herriak alfabetatua behar duela izan, euskaraz idazteko eta irakurtzeko gai. Horretarako, irakurgai errazak eta euskara arruntean idatziak behar direla erraten zuen, herrietako berriez, nekazalgoko kontuez, kondairez eta abarrez hornituak.

Erraten ahal da, segurki, hogei urte geroago egoera aldatu dela Baztan aldean. Euskara ikastolan, eskola publikoetan, administrazioan... sarturik, belaunaldi gazte euskaldunak ditugu egun, lehen bakanago ziren tokietan.

Hitzaldi honi akabaila emateko, erran dezadan Mariano Baztango euskal kulturaren eta baztandarren enbaxadore izan dugula Baztandik kanpo, jakin izan baitu, burrunba guti aterata, bere lana egiten eta hori bertzeenganatzen. Urtetan nekazari-base-ritarren ahotsa izan da Elizondo erdaldun batean eta hori arras estimatzekoa da. Ez da ukatzen ahal galera handia izan dela, baina biziak aitzina egiten du eta, gaur den egunean, guri dagokigu, Baztan aldean euskal kulturaren inguruan gabiltzanoi, Marianoren lekukoa eta mezua hartu eta aitzina segitzea. Halabiz!



## BIBLIOGRAFIA

### a. Lan hau egiteko erabilia

- Aristorena, P. J., 1992, *Nafarroako bertsolaritza*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Chueca, J., 1999, *El nacionalismo vasco en Navarra (1931-1936)*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Irigoyen, A., 1962, "Vocabulario baztanés de Juan Bautista Gorosurreta (1845-1923)" in *Euskera* VII, 135-193.

### b. Mariano Izetaren bibliografia

- Izeta, M., 1962, *Dirua galgarri*. Zarautz: Auspoa, 13. alea.
- , 1967a, "Bertsolariak", in *Príncipe de Viana*, 1967ko urtarrila, 11. zenb., 3. or. Berrargitaratua: IZETA 1999: 197-198.
- , 1967b, "Euskalerriko bertsolarien txapelketa", in *Príncipe de Viana*, 1967ko uztaila, 17. zenb., 6. or. Berrargitaratua: IZETA 1999: 199-203.
- , 1967c, "Saldisko euskal besta eguneko bertso batzuek", in *Príncipe de Viana*, 1967ko azaroa eta abendua, 21-22. zenb.k, 4. or. Berrargitaratua: IZETA 1999: 205-207.
- , 1968a, "Lasarte bertsolariari omenaldia", in *Príncipe de Viana*, 1968ko epailla, 25. zenb., 6. or. Berrargitaratua: IZETA 1999: 209-211.
- , 1968b, "Kisulabeak", in *Aránzazu*, XVIII, 322. Berrargitaratua: IZETA 1999: 49-51.
- , 1971, "Lasarteri omenaldia", in *Príncipe de Viana*, 1971ko apirila, 62. zenb., 3. or. Berrargitaratua: IZETA 1999: 213-214.
- , 1974, "Antzinako denboretan inauteak", in *Príncipe de Viana*, 1974ko jorrraila, 98. zenb., 6. orr. Berrargitaratua: IZETA 1999: 71-73.
- , 1975a, "Uztapide idazle", in *Príncipe de Viana*, 1975ko otsaila, 108. zenb., 4. or. Berrargitaratua: IZETA 1999: 215-216.
- , 1975b, "Bertsolariak", in *Príncipe de Viana*, 1975ko ekaina, 112. zenb., 4. or. Berrargitaratua: IZETA 1999: 217-218.
- , 1977, "Xalbador eta Arotzamenari omenaldia Iruñean", in *Príncipe de Viana*, 1977ko urtarrila-otsaila-martxo, 126-127-128. zenb.k, 6. or. Berrargitaratua: IZETA 1999: 219-220.
- , 1978, "Nafarroako dantzak", in *Dantzariak*, zenbaki berezia Dantzari eguna-78.
- , 1979, "Euskararen giroa Baztanen", in *Euskera*, XXIV-2, 569-572.

- , 1980, “Lehenagoko elexaharrak”, in *Príncipe de Viana*, 1980ko martxoa, 144. zenb., 13. or. Berrargitaratua: IZETA 1999: 75.
- , 1981a, “Baztango erranairu eta kanta xaarrak”, in *Diario de Navarra*, 1981-1-31.
- , 1981b, “Baztanaldeko erranairu gehiago”, in *Diario de Navarra*, 1981-2-26.
- , 1982, *Nigarrez sortu nintzan*. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- , 1985, “Baztango Hiztegi Tiipia” in *Euskera* XXX-2, 553-618.
- , 1993, “Baztango erranairuak”, in *Euskera*, XXXVIII-2, 349-358.
- , 1996, *Baztango Hiztegia*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- , 1999, *Baztango kontuak*. Bilbo: Nafarroako Gobernua - Labayru ikastegia.

*Paskual Rekalde Irigoien*



## BITORIANO GANDIAGA (G.B.) (1928-2001)

*Bilbo, 2001-IV-26*

Bidezko zen Euskaltzaindiak Bitoriano Gandiagari azken agurra egitea, eta poetaren heriotzak utzi dion samintasuna agertzea, Akademi barruan gainera. Bitoriano Gandiaga urgazle genuen 1964tik aurrera, eta euskaltzain ohorezko iaztik, 2000, urteaz geroztik.

Zuzenbidezkoa zenez, Mendatan jaiotako olerkariari, Arantzazuko fraide poetari eta Euskal Herri guztiko kantugile herrikoari, Euskaltzaindiak bere ohiko aitormen berezia egiten dio eta bere ohorezko aipua eskaintzen, XX. Mendeko bigarren zatian euskarak izan duen poeta onartuari, handietan handiari.

### 1. OHAR BIBLIOGRAFIKOA

*Elorri*-ren autorea zendu zenean, geuk dakigula hau, hirurogeitik gora izan dira kazetetan eta aldizkarietan agertu diren berari buruzko aipamenak, erreseinak eta irizkiak. Oso ezagutua, oso maitatua eta poeta bezala oso estimatua izan zela seinale euskal letretan. Horrela izan da beti, eta ez Bitorianoren hiletan inguruan bakarrik. Lehendik ere izan du Gandiagak bere poesia liburuen berri eman duenik, autorearekiko hurbiltasunetik informazio zabalak bilduz.

Antonio Arrue izan zen, hain zuzen 1963an, Gandiagak 35 urte zituenean, Mendatakoa garaiko lau poeten artean aukeratu izan zuena, Iratzeder, Mirande eta Arestirekin batean. Geroztik Orbelaungo semea goi mailako poesia, kreatzaile jotzen dugu euskal alorrean (1). Baita ere, eragin onekoa izan da Gandiagaren plazaratze unetan Joxe Azurmendiren lana: *Elorri*-ren lehen argitalpenari egindako iruzkinak lekuko (2); eta baita *Hiru gizon bakarka*-ren bigarren edizioari ipinitako "Epilogo", Bitoriano beraren grabazioak barne daramazkiena (3). Eta aipatzekoak hemen, baita ere, aintzin-solasgileak: Aita Luis Villasante, Mikel Lasa eta Juan Mari Lekuona, ni neu. Nire bi prologoak oroitzean, gogoangarri egiten zait, nola Bitorianok eta biok elkarrekin irakurri genituen Arantzazuko arbolape batean, *Uda batez Madrilén* eta *Elorri* poemategiak, autoren iruzkin zuzenekoak nik jaso eta gero egosten eta idazten nituela.

---

(1) Arrue, A., "Cuatro poetas vascos actuales", *Euskera*, 89 (1963-1964), 179, 198 or.

(2) Gandiaga, B., *Elorri*, 1962.

(3) Gandiaga, B., *Hiru gizon bakarka*, 2. edizioa, 1991.

Orain aldiko gure literaturaren ikertzaileen artean, aipatu gabe utzi Juan Otaegiren tesia, non ikertzen baita, besteak beste, adjektiboaren erabilera Bitoriano Gandiagaren poemetan (4). Eta denen gainetik, Gandiagak berak idatariko "Nere obraz" artikulua (5), non egiten baitu bere obra poetikoaren aurkezpen erreala, egiatia eta berariazkoa. Kritika berrian, Amaia Iturbide, Jon Kortazar, Sebastián García Trujillo, Iñaki Aldekoa, Gorka Aulestia eta abar aipatuko nituzke, Gandiagari beren azterketak eta balorazioak eskaini dizkiotenen artean.

## 2. GANDIAGAREN POEMAGINTZA

Sei poema liburu idatzi dizkigu, bere bizitzako eta Euskal Herriaren historiako aro desberdinetan: *Elorri*, 1962; *Hiru gizon bakarka*, 1974; *Uda batez Madrilén*, 1977; *Denbora galdu alde*, 1985; *Gabon dut anuntzio*, 1988; *Ahotsik behartu gabe*, 1997. XX. mendeko bigarren zatian du kokaleku Gandiagaren olerkigintzak. Gaur hemen, laburtasunaren amorez, ez ditugu aurkeztuko liburu bakoitzaren iruzkinak; eta azalpen soil batekin agertuko ditugu seiak batera.

*Elorri* bere lehen poemategi liburuia izan da sonarik handiena eman diona, Bitoriano Gandiagak berak ere bere libururik beteena dela iritzirik. Goi mailako poeta genuen, euskal lirika berriaren hasikin, Iratzeder, Mirande eta Arestirekin batera, A. Arruek zioen haritik. Haren poemategirik sarituena ere *Elorri* dela esan behar.

